

Euskal postposizioak

Txomin Solabarrieta

Bizkaiko Gotzaindegiko Itzultzaile ohia
txomin.ond@euskalnet.net

Abstract

This article presents a corpus of Basque postpositions, explaining their meaning and usage in both Basque and Spanish. Sometimes synonyms have been used as well.

Laburpena

Euskal postposizioen korpua dakar artikulu honek. Bakoitzaren esanahia eta erabilera azaldu dira euskaraz eta erdaraz. Zenbaitetan sinonimoak eskaini dira.

Hitz gakoak: postposizioak, korpua, erabilera.

1. Sarrera

Gramatikariak ez datoz bat postposizioa zer den definitzeko orduan. Postposizioa euskararen gramatika-kategoria berezia da. Gaztelaniak, frantsesak eta orokorrean latinetik eratorritako hizkuntzek sintagmen arteko kateamendua preposizioen bidez egiten dute. Euskarak, berriz, zeregin hau 1) postposizioen eta 2) deklinabide atzizkien bitartez lortzen du. Postposizioak, batetik kasu marken parekoak dira, baina bestetik deklinabide atzizkiotatik ongi desberdintzen dira. Postposizioak bere kabuz, soltean, berezko esanahi jakin bat duten hitzak dira, hau da, bokabloak dira. Baina perpausaren elementuen arteko harremanak adierazteko ere balio dutenean, postposizio deitzen ditugu, eta honako ezaugarriak dituzte:

- Deklinabide atzizkiren bat hartzen dute, aldagaizta izan ohi dena. Hartzen duen kasu marka beti singularrean joan ohi da, baina inoiz absolutu forman ere joan ohi da, kasu markarik gabe, esaterako, *fabore*, *mende*, *ordain*, *bestalde*, *bizkar*. Batzuetan artikulua ere hartzen du:
 - beroaren *bitartez*; atzoko arazoari *buruz*; bihartik *aurrera*; zure *fabore* egin du; heldu *aitzin*; hori egin *beharrā* daukat; zintzarri mihi *gabea*; gau eder aukerako, *parerik gabea!*
- Aurretik doan sintagmak, postposizioak behartuta, kasu marka jakin bat hartzen du, batzuetan atzizki hau gal dezakeela:
 - *beroaren* bitartez, *bihartik* aurrera, *atzoko arazoari* buruz, *zubiaren* azpian (edo, zubi azpian)
- sintagmak eta ondoko postposizioak hitz andana bakarra osatzen dute ia beti eta horrexegatik enklisi bidez elkartutako

elementu azentu gabea gertatzen da sarri bigarrena, bien artean etenik ezin egin delarik:

- atzoko arazoari buruz jardun dugu: postposizioa bere sintagmarekin batera arnasa kolpe batez ahoskatzen da.
- atzoko arazoak buruz dakizkit: hemen buruz errazago esango dugu aditzarekin batera, aurretik pausaldia egin daitekeelarik
- Aurretik doan osagarria partizipioa denean, gehienetan ez du deklinabide atzizkirik eramaten (batzuetan bai, -z instrumentala):
 - etorri berri naiz hona; gogoan izan etxetik abiatu aitzin esan nizuna; galduz gero

Deklinatu gabeko postposizioek ere, (kasu markarik gabe, absolutu forman doazenean ere) *-ko* atzizkia onartzen dute eta honek gero beste deklinabide atzizkiak hartu eta deklina daitezke; eta baita *-(r)ik* partitiboa ere har dezakete. Horrela *bezala* postposizioak *-ko* har dezake (*bezalako*), eta *gabe* postposizioak biak har ditzake, *gabeko* eta *gaberik*.

Zertzelada hauek guztiak kasuan kasuko postposizioa aztertzean azaltzen dira. Ez omen da erraza euskal postposizioen zerrenda osoa eta zehatz-zehatza egitea, zenbaitzuk, bada, zenbait euskalkitan baino ez baitira erabiltzen, eta zeinbatzuk zaharkituak baitira... Eta ez da erraza hitz jakin batek har ditzakeen eta hartzen dituen postposiziozko erabilera guztiak jasotzea.

Gramatikari guztiak hemen datozen guztiak ez dituzte postposiziotzat jotzen. Hemengo asko esapide adberbialak dira, eta baita aditz lokuziotzat hartzekoak ere. Baina postposizio bailiran funtzionatzen dute eta horregatik sartu ditut euren erabilera zuzenerako eskatzen dituzten 'arauak' ezarriz, euren erabileran,

bada, sarri asko selezismoak egiten baitira. Araubidea, jakina, idazle onen eta hitzun jatorren erabilerak eman behar digute. Haugatik, ez dago zertan esan behar baina, koadroetan datozen kasuan kasuko postposizioaren joera, erabilera, araubidea... jarraian datozen adibideetatik ateratakoa da, eta ez alderantziz. Gramatika jakite enpiriko bat da, testuetarik atera behar dena, ez inoren burutik.

Ahalegindu naiz koadroak osorik jartzen, ez daitezen zati bat orrialde batean eta beste zatia beste orrialdean agertu, nahiz eta hori lortzeko Formatu menuko 'Iturri-neurria' agindua mila bider erabili beharra izan dudana.

Eta diren edo ez diren eztabaidari aurrea hartzeko hau diot: ez dira dauden guztiak, ez eta ez daude diren guztiak.

Sarri askotan postposizio hitzaren ondoren honen sinonimoa(k) jarri d(ir)a. Horrek ez du esan nahi batakat eta besteak erregimen berbera dutenik. Esaterako, *aitzin* eta *aurre*. *Aitzin* bera, biluzik, postposizio-forma ere bada, baina ez *aurre*. Heldu *aitzin*, baina ez *heldu *aurre*, heldu *aurrean* baino. Jakina, *heldu aitzinean* ere bai.

Solabarrieta (1980)k biltzen duen paradigma oso mesedegarri izango duzue lan honetako zenbait puntutan. Paradigma hori baino zehatzago, orrialde batean atzizki guztien gorabeherak begi kolpe batez ikusi ahal direla, ez dago gaur egun komertzioan ere. Juan Mari Lekuonak esan zidan orri hura mahai gainean edukitzeen zuela, zalantzatan begiradaxo bat eskema horri emateko. Egin kontu Euskaltzaindiak 1979an onartu zuela deklinabide horren proposamendua. Nahikoa dut lan honek ere pertsona bakar bati mesede egiteko balio izatea. Paradigma huraren fotokopiak ikasleen artean ere zabaltzen nituen, eta badauzkat oraindik ere zenbait ale.

Azken urteotan sano aurreratu da hizkuntzalaritzako nomenklatura, denen onerako eta argitasunerako, jakina. Hona hemen orri hartako deklinabide nomenklatura eta oraingoa:

- nominatiboa > *absolutua*: Ø
- genitibo edutezkoa > *genitiboa*: **-(r)en**
- genitibo leku-denborazkoa > *leku genitiboa*: **-ko** (jakina, denborazkoa ere bada)
- adlatiboa > *adlatibo zuzena*: **-ra**
- adlatibo bide zuzenekoak > *hurbiltze adlatiboa*: **-rantz**
- adlatibo bukatuzkoa > *muga adlatiboa*: **-raino**

Hainbat postposizioetan honelako zerbait agertzen da: '(r)en atzizkia batzuetan gal dezake', 'batzuetan galdu egiten da'. Antzekoetan honelako zerbait suposatzen da: 'izen sintagma bizigabea denean eta izenondorik gabe doanean, atzizki hau eta

determinantea ere gal ditzake', 'sintagmako izenak, zerbait bizigabe adierazten badu eta atzean adjektiborik ez badu, *-(r)en* atzizkia eta mugatzilea gal ditzake'. OHAR honek, bada, honelako aipamen guztietarako balio dezala, beti gauza bera errepikatzen ez ibiltzeko. Izen propioetan ezin da konposiziorik egin eta genitiboa galdu.

zubiaren aurrean > zubi aurrean: aurrean postposizio formaren aurreko zubi izen sintagmak daroan *-(r)en* eta *-a* determinantea galdu egin dira.

horko zubi itsusiaren aurrean. Baina ez da esaten *horko zubi itsusi aurrean.

Pedroren aurrean: izen propioa denez BETI *-(r)en* eta guzti. Ez da *'Pedro aurrean' euskaraz esaten. (Badaezpada: ahoskerazko 'Pedron aurrean' esapidearen azpiegituran 'Pedroren' dago).

Lan honetan aditzaren era burutua edo partizipioa esatea gausa bera esatea da. Hemen agertzen den nomenklaturaz apurka-apurka jabetzea baino ez dago.

Adibideak hor-hemen batutakoak dira. Batzuk nire txalupakoak, beste batzuk inoren txalupatik jasotakoak, abestietatik eta abar. Euretari asko, dagoeneko, herri ondarea dira. Jakina, denak euskara estandarrean idatzi ditut, norena den-eta zehaztu gabe; hori egitea, bada, sarri askotan desitxurosoa gertatuko bailitzateke, eta baita irakurlearentzat aspergarria ere. Lan hau osatzeko erabilitako Bibliografia, handiki baino ez bada ere, jakina, aipatu beharra dago: Villasante (beronen esaldi osoak ere sarritan erabiliz), Akesolo, Lafitte lapurtarraren *Grammaire Basque*, gure *Adorez* taldeko '*Europa Hiztegia*, Eskola Berrirakoa' eta '*3000 Hiztegia*, euskara-gaztelania / gaztelania-euskara', Ibon Sarasola, *Elhuyar Hiztegia*, Morris-en euskara-ingelesa / english-euskara...

Gaztelaniazko itzulpenak behar bada zeinbatzuetan ez dira izango hizkuntza horrek eskatzen duen bezain dotoreak. Gaztelaniazko zatiak ez dira inori gaztelania irakasteko, kasuan kasuko euskal postposizioaren gurrupillada ikustarazten laguntzeko baino, postposizioaren jokamoldea azaltzeko.

Esaterako, '*haren menean* ez dut utziko gauza horren egitea: no dejaré a cargo de aquél el hacer eso' ipini dut. Behar bada literarioagoa da beste hau: su ejecución no dejaré a su cargo. Baina, azken itzulpen honetan antzematen da postposizioaren joeraren aztarrenik? Beste hau: *bere nahiz* eta borondatez harturiko zaragarrik ez du azkurarik ematen: hitzez hitzezko itzulpena hau izan liteke: la sarna adquirida *por gusto* y voluntariamente no produce escosor. Baina, badago gaztelaniaz honen kideko atsotitza, hau da: sarna con gusto no pica. Irakaslearen ikuspuntutik, biotatik zein aukeratu? Nik hauxe ipini dut, baina badira besteak jartzeko esan didatenak ere. Beste hau: emaztea har dezanak handitarik, ez date etxean *grina gabetarik* (Ohienart, esr. zah., 135): si quieres bien casar, con tu igual y en tu lugar (refrán); en casa de mujer rica, ella manda, ella grita (refrán). Norbaitzuek beste honetara

nahiago dute: a quien se casa con mujer poderosa, no le faltarán pleitos en casa; a quien tome mujer de gente principal, inquietudes en casa no le han de faltar. Atsotitzek ala beste itzulpen hauek ematen diote irakurleari postposizioaren aztarna?

Zizeronek dio, “maxima regula, locutio populi”. Baina hau honela da, beronen testuinguruan ulertuta. Eta amaitzen dut, gorago ere idatzita dago baina, Villasantek esanikoa berriro esanez. Araubidea, jakina, idazle onen eta hiztun *jatorren* erabilerak eman behar digute.

Eta hona hemen jarraian eta alfabetikoki jarrita, nahiko sakon aztertutako postposizioen nahiko zerrenda zabala.

2. A modo de prólogo

Los gramáticos no están de acuerdo a la hora de definir qué son las posposiciones. La posposición es una categoría gramatical típica del euskara. El castellano, el francés y en general las lenguas derivadas del latín expresan las relaciones entre palabras por medio de un sistema de preposiciones. El euskara, en cambio, realiza esta misma función sirviéndose de 1) las posposiciones y 2) de los sufijos de la de la declinación. Las posposiciones, por un lado son semejantes a los sufijos, pero, por otra parte, se distinguen perfectamente de las desinencias casuales. Las posposiciones son auténticas palabras o vocablos, con un significado concreto y funcionan o pueden funcionar solas. Los sufijos, en cambio, no son palabras, sino partículas que no funcionan solas, sino que se aplican a palabras, a las cuales determinan y con las que se fusionan. Así que cuando esos vocablos que pueden funcionar normalmente como los demás vocablos de la lengua sirven para expresar las relaciones entre los elementos de una oración gramatical, las denominamos posposición y ofrecen estas particularidades:

- llevan, aunque no siempre, un sufijo casual, que suele ser invariable, o artículo:
 - *beroaren bitartez* (por medio del calor); *atzoko arazoari buruz* jardun dugu (hemos tratado sobre el asunto de ayer); *bihartik aurrera* (desde mañana en adelante); *zure fabore egin du* (ha hecho a tu favor); *heldu aitzin* (antes de llegar); *hori egin beharra daukat* (tengo precisión de hacer eso); *zintzarri mihi gabea* (cencerro sin badajo); *gau eder aukerako, parerik gabea!* (una noche apropiada, ¡(la de) sin par!
- el nombre que precede y sirve como de complemento de la posposición lleva, exigida por la misma posposición, una determinada desinencia de declinación, que con frecuencia se elide:
 - *beroaren* bitartez, *bihartik* aurrera, *atzoko arazoari* buruz, *zubiaren* azpian (edo, zubi azpian) (bajo el puente)
- el sintagma precedente y la posposición casi siempre forman una única concatenación de palabras y por eso la posposición resulta muchas veces enclítica, no pudiendo hacer pausa entre las dos:
 - *atzoko arazoari buruz* jardun dugu: la posposición y su sintagma se pronuncian de un golpe de respiración.
 - *atzoko arazoak buruz dakizkit* (los asuntos de ayer los sé de memoria): *aquí buruz* la diremos más fácilmente junto con el verbo *dakizkit*, pudiendo hacer antes una pausa
- cuando el complemento precedente es un participio, generalmente no lleva desinencia casual alguna (algunas veces lleva el instrumental -z):
 - *etorri berri naiz hona* (soy recién llegado aquí); *gogoan izan etxetik abiatu aitzin* esan nizuna (ten presente lo que te dije antes de partir de casa); *galduz gero* (en caso de extravío)

Aun las posposiciones que no se declinan admiten el caso *-ko*, que a su vez puede recibir los demás casos y declinarse; o el caso partitivo *-(r)ik*. Así *bezala*, por ejemplo, recibe *-ko* (*bezalako*), y *gabe* puede recibir los dos *gabeko* y *gaberik*.

Estos pormenores se detallan, en cada caso, al tratar la posposición correspondiente. Se dice que no es fácil hacer una enumeración completa y exhaustiva de las posposiciones vascas, puesto que algunas sólo se usan en algunas variedades de la lengua, otras son arcaicas, etc. Y tampoco es fácil registrar todos los empleos positivos que puede recibir y de hecho recibe una determinada palabra.

No todos los gramáticos consideran como posposición a todas las enumeradas aquí. Muchas de aquí son locuciones adverbiales, y algunas como para ser consideradas locuciones verbales. Pero funcionan como si fueran posposiciones y por eso las he englobado aquí, indicando el régimen que exige su recto empleo, ya que con frecuencia se cometen solecismos en su empleo. La pauta, como siempre, nos la ha de dar el uso de los buenos autores y de los buenos hablantes. Por todo ello, aunque huelga el decirlo, el comportamiento, uso o empleo de las posposiciones que en cada caso se expone en los cuadros está derivado de los ejemplos que van a su continuación, y no al revés. La gramática es una ciencia empírica que debe ser sacada de los textos, no de la mente de nadie.

He procurado que los cuadros estén enteros, no una parte del mismo en una página y otra parte en otra

página, aunque para conseguirlo he tenido que hacer filigranas con el botón 'Tamaño de fuente' del menú del Formato.

Y para curarme en salud sobre si todas las aquí enumeradas son o no posposiciones digo: ni son todas las que están ni están todas las que son.

Muchas veces se ha(n) puesto junto a a la posposición su(s) sinónimo(s). Eso no quiere decir que ambos tengan el mismo régimen. Por ejemplo, *aitzin* y *aurre*. La forma *aitzin*, desnuda, sin desinencia casual, también se ha usado como forma pospositiva, pero no así *aurre*. Heldu *aitzin* (antes de llegar), pero no se dice *heldu *aurre*, sino *heldu aurrean*. Claro está, también *heldu aitzinean*.

El paradigma que se presenta en Solabarrieta (1980) puede seros útil para algunos puntos de este trabajo. Claro está, todo esquema o paradigma supone previos conocimientos básicos sobre el tema. Un paradigma tan detallado como ése, en el que en una sólo hoja con un golpe de vista se puedan ver todos los pormenores de los sufijos de la declinación, no existe ni en el comercio. Juan Mari Lekuona me dijo que solía tener ese paradigma encima de la mesa, para en caso de dudas mirar de reojito al mismo. Si este trabajo también sirviera de ayuda aunque fuera a una única persona, me daría por satisfecho.

En los últimos años, se ha avanzado muchísimo en la nomenclatura de la lingüística, para bien de todos y mayor claridad. He aquí la nomenclatura de aquel paradigma y la actual:

- nominatiboa > *absolutua*: Ø
- genitibo edutezkoa > *genitiboa*: **-(r)en**
- genitibo leku-denborazkoa > *leku genitiboa*: **-ko** (claro está, también es temporal)
- adlatiboa > *adlatibo zuzena*: **-ra**; *adlatibo bide zuzeneko* > *hurbiltze adlatiboa*: **-rantz**
- adlatibo bukatuzkoa > *muga adlatiboa*: **-raino**.

Se sabía que el llamado nominativo no era tal nominativo, pero a falta de otro nombre mejor se usaba ése. El actual término, *absoluto*, es acertadísimo. Y yendo a lo más práctico, para el 'posesivo' se ha guardado el de *genitivo*, y al otro genitivo (locativo-temporal) llamarlo *leku genitibo*. En cuanto a la nueva nomenclatura de los demás casos no tiene tanto que ver en lo que se refiere a este trabajo.

A menudo se hace la mención de que la 'desinencia *-(r)en* se elide a veces'. En estos casos se supone que ahí toca ir algo parecido a esto otro: 'cuando dicho sintagma nominal es inanimado y no va acompañado por un adjetivo, puede ir sin la desinencia *-(r)en* y sin determinante (sin artículo)'. Valga esta NOTA para todos los casos posibles y evitar así el tener que repetirlo en cada caso. Cuando se trata de nombres

propios no cave hacer composición y elidir el caso posesivo, el genitivo.

zubiaren aurrean > *zubi aurrean*: la desinencia *-(r)en* y la determinante (artículo) *-a* que el sintagma nominal *zubi* lleva ante la forma pospositiva *aurrean* se han elidido.

horko zubi itsusiaren aurrean. No se dice *'horko zubi itsusi aurrean', porque el sintagma nominal *zubi* va acompañado de un adjetivo.

Pedroren aurrean: como es nombre propio no se elide la desinencia *-(r)en*. No se dice en euskara *'Pedro aurrean'. (Por si acaso: en la infraestructura de la expresión fonética 'Pedron aurrean' está 'Pedroren'.)

En este trabajo, decir 'aditzaren era burutua' o 'partizipioa' es lo mismo. No hay más que familiarizarse poco a poco con la nomenclatura que aquí aparece.

Los ejemplos están recopilados de aquí y de allá. Algunos son de cosecha propia y otros pescados en lonjas ajenas, canciones, etc. Muchos son ya de patrimonio universal. Claro está, todos ellos transcritos en escritura estándar, y sin indicar su procedencia, porque esto resultaría, aparte de engorroso para el lector, a veces desfigurado. He de plasmar, aunque no sea más que grosso modo, la Bibliografía en donde he buceado: Villasante (a quien copio copiosamente), Akesolo, *Grammaire Basque* del labortano Lafitte, 'Europa Hiztegia, Eskola Berrirakoa' y '3000 Hiztegia euskara-gaztelania / gaztelania-euskara' de nuestro grupo Adorez (o Bostak bat), Ibon Sarasola, *Elhuyar Hiztegia*, 'euskara-ingelesa / english-euskara' de Morris...

Puede ser que algunas veces las traducciones en castellano no sean tan elegantes como exige esa lengua. La parte castellana no es para enseñar a nadie el castellano, sino para ayudar a hacer ver en cada caso el intrínquilis, el jueguecito o toque de la posposición vasca, para mostrar el comportamiento de la posposición en cuestión.

Por ejemplo, *haren menean ez dut utziko gauza horren egitea*, he puesto: no dejaré a cargo de aquél el hacer eso. Tal vez es más literario este otro: su ejecución no dejaré a su cargo. Pero ¿en esta segunda traducción, se ve el juego de la posposición? Este otro: '*bere nahiz eta borondatez harturiko zaragarrak ez du azkurarik ematen*': una traducción literal podría ser la siguiente: la sarna adquirida *por gusto* y voluntariamente no produce escozor. Pero existe en castellano un refrán que abarca esta idea: sarna con gusto no pica. Y salta una pregunta. Bajo el punto del enseñante, ¿cuál de las dos convendría elegir? Yo he elegido el refrán castellano, pero hay quienes me han aconsejado elegir la otra. Y esta otra: 'emaztea har dezanak handitarik, ez date etxean *grina gabetarik*' (Ohienart, esr. zah., 135): si quieres bien casar, con tu igual y en tu lugar (refrán), en casa de mujer rica, ella manda, ella grita (refrán). Algunos prefieren estas otras:

a quien se casa con mujer poderosa, no le faltarán pleitos en casa; a quien tome mujer de gente principal, inquietudes en casa no le han de faltar. ¿Los dos refranes o estas otras traducciones le dan al lector la pista de la posposición?

Cicerón dice, “maxima regula, locutio populi”. Pero esto es así, entendiéndolo en su contexto. Y termino repitiendo lo dicho por Villasante, ya expuesto más arriba. La pauta para saber el recto empleo de las posposiciones, nos la ha de dar el uso de los buenos autores y de los *buenos* hablantes.

He aquí a continuación, y por orden alfabético, este elenco de posposiciones bastante amplio y ampliamente tratado.

3. Euskal postposizioak

AGERI «patente», «notorio», «manifiesto», «evidente», «público», «sensible», «ostensible».

Postposizio bezala <i>agerian</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak genitiboko <i>-(r)en</i> edo leku genitiboko <i>-ko</i> kasu atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-ren</i> bistan, <i>-ren</i> aurrean.	Como posposición se usa la forma <i>agerian</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual <i>-(r)en</i> del genitivo o del locativo <i>-ko</i> . Significado: «a la vista de».
--	--

- **denen agerian:** a la vista de todo el mundo; **besteren agerian gaizki bizitzen denak:** el que a la vista de otro vive mal; **kontuz haurraren agerian esaten duzunaz, haurrak bada, pisua ezik, beste guztia jasotzen baitu:** ten cuidado con lo que dices a la vista del niño, pues los niños, excepto peso, lo levantan todo lo demás
- **bere herriko agerian:** a la vista de su pueblo

AHAL «poder» (en general).

Postposizio bezala, aditz baten era burutuaren ondoren, ahala eta ahalean formak erabili ohi dira. Esanahia: 1) ahala: bezain laster, <i>-(r)en</i> neurrian, <i>-(r)en</i> heinean. 2) ahalean: a) ahal beste, ahal adina, eginahalean. b) neurrian, heinean.	Como posposición, tras participio, toma las formas ahala y ahalean. Significado: 1) ahala: «tan pronto como», «en la medida que», «a medida que». 2) ahalean: a) «todo lo que se pueda», «tanto como». b) «en la medida que».
--	---

ahala:

- **liburua, ia argitaratu ahala agortzen zen:** el libro, según se publicaba, se agotaba; **gelan sartu ahala esertzen ziren:** a medida que entraban en la habitación se sentaban (se

sentaban según iban entrando en la habitación); **dirua irabazi ahala xahutzen zuen hark:** gastaba el dinero tan rápidamente como ganaba (según ganaba lo gastaba); **eman ahala edaten du:** según le das, se lo bebe; **koadroak amaitu ahala erosten dizkiote:** a medida que termina los cuadros, se los compran; **liburu bat irakurri ahala, beste bat erosten du:** según termina de leer un libro, se compra otro nuevo

ahalean:

- **batu ahalean dabil, baina ez du dena batuko:** está acaparando todo lo que puede, pero no podrá hacerse con todo; euria bota ahalean da: está lloviendo a más no poder; hire autoak, ahalean ipinita ere, ez du orduko 100 kilometro ere hartzen: tu coche, aun poniendolo a tope, no se pone ni a cien kilómetros por hora.
- **zuk niri dirua ekarri ahalean, nik gastatuko dut:** según vayas trayendo el dinero, yo lo iré gastando

OHARRA:

Ba omen dago hizkuntza mailaz goikoa den forma bat: - AHALA(K). Aditz oinari (erroari) dagokiola, “ahal d(ir)en zera guztia(k)” adierazteko. Dirudienez, adiera plurala hartuz.	Parece que hay una forma que como nivel lingüístico, es de alto nivel. - AHALA(K). Precedida de radical verbal, significando «todo lo que se pueda». Al parecer toma sentido plural.
---	--

- **pentsa ahalak eta dakizkienak jaurtiki arteino ez da isiltzen:** no se calla hasta soltar todo lo que piensa y sabe; **egin ahala(k) eginagatik:** a pesar de hacer todo lo que se pudo; **esan ahal guztiak esanda ere:** aun después de decir todo lo que se pudo decir; **edan ahalak edan ostean...:** después de beber todo lo bebible...

AIDURU «a la espera». Zuberera // Dialecto suletino.

Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: begira, zain, esperoan.	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «a la espera de», «a la expectativa».
--	--

- **jende xehea haren aiduru zegoen:** la gente sencilla le estaba esperando; **zeuden haren aiduru:** estaban a la espera de él; **sehaska honi buruz kantatu eta kantatu, / irri baten aiduru astia dut galdu:** frente a esta cuna canta que te canta, he perdido el tiempo en espera de una sonrisa; **aurkituko duzu eskailera buruan aittitta zure aiduru “nor dator gure etxera? / Nor dator gurera?” abesten:** hallarás al abuelo en el descansillo de la escalera a tu espera, cantando ‘¿quién viene

a nuestra casa?, ¿quién a nuestro hogar?';
semetxoa nasa gainean aitaren aiduru dago:
 el hijo pequeño está esperando a su padre en el muelle

AISIA «holgura», «comodidad». Sin.: gogara, plazerera. Batez ere Ipar: / Sobre todo en Ipar.

Postposizio bezala <i>bere aisiara</i> forma erabili ohi da. Esanahia: -(r)en nahierara, gogara, gustura.	Como posposición, aparece en la expresión <i>bere aisiara</i> : «a sus anchas», «a su placer».
---	--

- **dabilela bere aisiara, bitartean, behintzat, guri baketan utziko digu eta:** que ande a su antojo, mientras nos dejará en paz; **bere aisiara eta, era berean, nagusiaren gustura jardutea da loteriarik handiena:** andar a sus anchas y a la vez actuar a gusto del amo, es la mayor de las loterías; **bere plazerera eta aisiara:** con toda comodidad y desahogo; **uzten baitzituen bere plazerera eta aisiara bizitzera:** les dejaba vivir a su gusto y capricho; **bide zabalaz, bere aisiara baitabil:** porque camina por un camino espacioso, y a su placer; **norbere aisiara bizi:** vivir a nuestro aire

AITZAKIA «pretexto», «excusa».

Postposizio bezala <i>aitzakian</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Batzuetan erlatibozko perpausarekin ere lotzen da. Esanahia: estakuruan, aitzakiaz, aitzakiarekin.	Como posposición se emplea la forma <i>aitzakian</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual -(r)en. También se emplea a veces afectando a una oración adjetiva, de relativo. Significado: «so pretexto de».
--	--

- **horren aitzakian:** con ese pretexto; **behi eroen aitzakian arrainari eman dio:** con el cuento de las vacas locas, le ha dado el comer pescado

bazterrak nahasten dabilelako aitzakian, atxilotuko dute: lo apresarán con el pretexto de que altera el orden; **merke dagoen aitzakian:** so pretexto de que está barato

piperraren aitzakian badoa so pretexto de que no salto batean: hay pimiento, se va a **piperra falta den aitzakian** dar un garbeo **badoa salto batean:**

eguraldi txarraren aitzakian con el pretexto del (de ohean geratu da: que hace) mal tiempo, **eguraldi eskaxa dagoen** se ha quedado en la **aitzakian ohean geratu da:** cama

partidaren aitzakian Bilboko zerera bisitalditxo bat egitera joango zen: con el pretexto del (de ir a ver el)

partida ikusteko aitzakian Bilboko zerera bisitalditxo bat egitera joango zen:

partida ikustera doan aitzakian Bilboko zerera bisitalditxo bat egitera joango zen:

AITZIN «delante»; «antes». Sin.: aurre. Ekialdeko euskalkietan erabilia. // Se usa en los dialectos orientales.

Postposizio bezala aitzin, aitzinean, aitzineko, aitzinera, aitzinetik formak erabili ohi dira. Aldiari dagokiola, denbora lehentasuna adierazten du.	Como posposición se emplean las formas aitzin, aitzinean, aitzineko, aitzinera, aitzinetik. En contextos con valor temporal expresa anterioridad.
---	---

Adibideak:

Aitzin:

Esanahia: 1) baino lehenago. 2) aurretik. // Significado: 1) «antes de». 2) «por delante de». Sin.: aurretik.

1. Aditz oinaren edo partizipioaren ondoren: // precedido de participio o radical verbal:

- **hel aitzin / heldu aitzin:** antes de llegar; **hitz bat igorri gogo nizun, Europatik aira(tu) aitzin:** pensaba enviarte una palabra antes de volar de Europa; **oporretara joan aitzin hator gurera:** antes de ir a vacaciones pásate por casa; **gogoan izan etxetik abiatu aitzin esan nizona:** ten presente lo que te dije antes de que partieras de casa

- **gerra aitzin:** antes de la guerra; **negu aitzin, dena lan:** antes del invierno, todo es trabajo

1. Genitiboaren ostean: // Precedido de genitivo:

- **segizioaren aitzin hildakoaren erraina joan zen:** fue la nuera por delante del duelo; **badator kale betean danborrada, banda munizipala guztien aitzin dela:** ya viene ocupando toda la calle la tamborrada, viniendo por delante de todos la banda municipal

Aitzinean:

<p>1) aldiari dagokiola: denbora lehenasuna adieraziz:</p> <p>a) <i>i/tu</i> gabeko aditzoinaren ondoren (zah.) nahiz era burutuaren ostean (partizipioaren atzean).</p> <p>b). <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagmaren ondoren.</p> <p>c). absolutu mugagabearen ostean. (Axular: aditz izena + <i>-rako aitzinean</i> forma ere badarabil: <i>-t(z)erako</i>). Esanahia: aurretik, baino lehenago.</p> <p>2) lekuari dagokiola: dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> kasu marka (edo salbuespen gisa, <i>-ko</i> marka) hartzen du. Batzuetan <i>-(r)en</i> kasu marka gal dezake. Esanahia: aurrean.</p>	<p>1) anterioridad temporal: precedida:</p> <p>a) tanto de la radical, despojada de toda terminación (<i>i/tu</i>) (zah.), como del participio con su terminación <i>i/tu</i>.</p> <p>b) de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>.</p> <p>c) de absoluto indeterminado. (Axular emplea también aitzinean precedida de nombre verbal con la desinencia <i>-rako</i>: <i>-t(z)erako</i>). Significado: «antes de».</p> <p>2) con el significado «delante» se coloca tras un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> (o excepcionalmente, en caso <i>-ko</i>), que a veces se elide. Significado: «delante», «ante», «en presencia de».</p>
--	---

Sin.: aurretik.

1.

- **gurean afal(du) aitzinean errosarioa errezatzen zen:** en nuestra casa antes de cenar se solía rezar el rosario; **jezar(ri) aitzinean abesti bat abestuko dugu:** antes de sentarnos vamos a cantar una canción; **lurra irauli aitzinean zabaltzen den ongarritikparte bat:** una parte del abono que se extiende antes de dar la vuelta a la tierra; **jan aitzinean:** antes de comer; **goizeko mezan, komuniatu aitzinean:** en la misa de la mañana, antes de comulga
- **opor egunen aitzinean bera ere hilea moztera joaten da:** antes de los días vacacionales, él también se hace cortar el pelo; **hauteskundeen aitzinean agintzen dutena hauteskundeen ostean eskatu:** lo que prometen antes de las elecciones, pídeselos pasadas las elecciones
- **urtero oporraldi aitzinean autoa mekanikoari eramaten dio begirada sakon bat eman diezaion:** antes de la época vacacional lleva anualmente el coche donde el mecánico para que le dé una buena revisión; **gerra aitzinean:** antes de la gerra
- **hiltzerako aitzinean:** en el momento anterior a la muerte (Axular)

2.

- **begien aitzinean dagoena baizik ez duzu ikusten zuk:** tú no ves más que lo que está delante de los ojos; **begien aitzinean zaitudala iruditzen zait:** me parece que te tengo delante de los ojos; **heriotzaren (heriotzako) aitzinean balentriak urri:** delante de (ante) la muerte pocas valentonadas; **ate(aren) aitzinean bertan hasi zen bertsotan:** empezó a versificar en el mismo umbral de la puerta; **galdegaia eskuarki aditzaren aitzinean joaten da:** el elemento inquirido normalmente va delante del verbo; **-(r)en eta -ko atzizkidun izenlagunak izenaren aitzinean jartzen dira:** los complementos adnominales con la desinencias *-(r)en* y *-ko* se colocan delante del nombre; **bere amaren aitzinean sekulako agirika egin zioten:** le reprendieron duramente en presencia de su madre; **uzkur hainbeste begien aitzinean agertzeko:** retraído para presentarse ante tantas miradas; **hilobiaren aitzinean hiru jaun mintzatu dira:** han hablado tres señores ante la tumba; **izenaren aitzinean berdin ondotik gaizki doa jaun hori:** tanto delante como detrás del nombre pega mal ese señor; **hala argi begi zuen argiak gizonen aitzinean:** brille así vuestra luz delante de los hombres

- **etxe aitzinean:** delante de la casa; **jende aitzinean oso lotsatia da:** es muy tímido delante de la gente; **hondartza aitzinean kafeteria bat zabaldu dute:** delante de la playa han abierto una cafetería

Aitzineko: Sin.: aurreko.

Esanahia: 1) aurreko. 2) aurreko: Significado:) «anterior». 2) «de delante»:

1. **honen aitzineko kapituluan emaniko arrazoien arabera:** conforme a las razones dadas en el capítulo precedente; **hauteskunde aitzineko egunetan:** en los días previos a las votaciones; **estropada (hasi) aitzineko une urduritsuetan:** en los momentos inquietos anteriores a (al comienzo de) la regata; **San Juan jaiaren aitzineko igandean:** el domingo anterior a la festividad de San Juan; **jan aitzineko otoitzak:** las oraciones antes de la comida
2. **zubiaren aitzineko zuhaizti oraintsu berritua:** la alameda recién remodelada de delante del puente

Aitzinera: (ibilia adierazten duten aditzekin / con verbos que indican movimiento). Sin.: aurrera.

Esanahia: aurrera. // «ante», «delante».

- **lagunen aitzinera umetako argazkia ekarri zien:** les traje ante los amigos la fotografía de la niñez; **maitalearen aitzinera heldu zenean:** cuando llegó ante su amado; **deitu zuen gizona bere aitzinera eta esan zion...:** le llamó al hombre ante sí y le dijo...; **ekarri zioten bere aitzinera beira bat ur:** le trajeron a su presencia un vaso de agua; **ekarri zizkion (bere) aitzinera animalia eta hegazti guztiak:** le traje delante todo tipo de animales y aves; **ekarrarazi zuen bere aitzinera, eta dena esan zion:** lo hizo traer ante sí y le dijo todo; **erregeren aitzinera heldu zenean:** cuando llegó a la presencia del rey

Aitzinetik: Sin.: aurretik.

Esanahia: 1) aurretik, baino lehen, baino aurreragotik. 2) aurretik. // Significado: 1) «antes de». 2) «de delante», «por delante»

1. **pertsona hori ezagutu aitzinetik:** antes de conocer esa persona; **sartu aitzinetik:** antes de entrar; **sortu aitzinetik:** antes de que naciera o que nazca; **bizpahiru egun aitzinetik:** dos o tres días antes; **lau egun aitzinetik:** cuatro días antes
2. **ken ezak begien aitzinetik:** quítalo de delante de los ojos; **lapurtu zioten etxearen aitzinetik iragatean:** al pasar por delante de la casa que le usurparon; **etxe aitzinetik igarotzean, burua jasotzen du:** al pasar por delante de la casa levanta la cabeza

AKORDU Heg. (pertonaren oroimenak gogoan izaten duen denboraldia // espacio de tiempo que abarca la memoria del hombre)

Postposizio bezala <i>akorduan</i> forma, erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: (gure) gomutan, denboran.	Como posposición se emplea la forma <i>akorduan</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual <i>-(r)en</i> . Significado: «en el recuerdo».
--	--

- **nire akorduan horrelakorik ez da gertatu:** en mi recuerdo (o sea, que yo me acuerde en el espacio de tiempo que abarca mi memoria) no ha sucedido tal cosa, yo no recuerdo nada de eso; **etxe hori geure akorduan eraiki zuten:** esa casa la edificaron en nuestro recuerdo (recuerdo cuándo edificaron esa casa); **herri honetan gure akorduan ez da hikako hizkera erabili izan, bertako baserrietan izan ezik:** en nuestro pueblo, fuera de los caseríos del mismo, en nuestro recuerdo no se ha usado el modo de hablar de tuteo.

ALDE «lado».

Postposizio bezala, gutxienez, <i>alde, aldean, aldeko, aldera, alderako, alderakotzat, aldetik, aldez</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak hartzen du: 1) <i>-(r)en</i> atzizkia (edota, <i>-ko</i>). Zenbait kasutan <i>-(r)en</i> gentiboa gal dezake. 2) absolutu mugagabea. 3) <i>-tik</i> atzizkia. 4) <i>-z</i> atzizkia.	Como posposiciones se emplean, al menos, las formas <i>alde, aldean, aldeko, aldera, alderako, alderakotzat, aldetik, aldez</i> , precedidas de un sintagma nominal: 1) con la desinencia <i>-(r)en</i> , (o caso <i>-ko</i>), que en algunos casos se puede elidir. 2) en caso absoluto indeterminado (con la desinencia \emptyset). 3) con la desinencia <i>-tik</i> . 4) con la desinencia <i>-z</i> .
---	---

Adibideak:

Alde:

1. Absolutu mugagabearekin. Esanahia: izan ezik, salbu. 2. Genitiboarekin. Esanahia: <i>-(r)en</i> fabore, <i>-(r)en</i> faboretan, <i>-(r)en</i> mesedetan 3. lekuzko esapideetan: a) Ipar.: absolutuarekin: <i>aldera</i> . b) Bizk.: <i>-tik alde</i> forma: hur eta urruti.	1. Con el caso absoluto indeterminado. Significado: «excepto», «salvo», «aparte». 2. Con genitivo. Significado: «a favor» (de), «en favor» (de)», «en pro». 3. con textos locativos: <i>-tik alde</i> forma: a) Ipar.: con el caso absoluto: «hacia». b) Bizk.: <i>-tik alde</i> forma: «cerca» y «lejos».
---	--

1. **bera alde:** aparte de él; **aita alde, beste guztiak etorri ziren:** excepto el padre, vinieron todos los demás.

2. **gezurrez eta abarrez jendea bere alde ipini du:** con mentiras incluidas ha puesto a la gente a su favor; **erregutu ezazu gu bekatarion alde:** ruego por nosotros pecadores; **norbaiten alde jarri, jokatu:** ponerse (colocarse) a favor de alguien; **norbaiten arimaren alde otoitz egin:** rogar en favor del alma de alguien; **bere aldeko gizonekin etorri zen:** vino con hombres que estaban a su favor; **Euskalerrriaren alde:** en pro de Euskalerrria; **erregutu egizu gu pekatarion alde:** ruego por nosotros los pecadores; **neure alde eta fabore:** en beneficio mío y a mi favor; **euskalkiak lantzearen alde:** en pro de cultivar los dialectos; **zure anaiaren alde egizazu zerbait:** haz algo en favor de tu hermano; **zakua betatxuaren alde** (esr. zah.) {nor bere antzekoaren alde}: el saco a favor del remiendo {el ladrón conoce al ladrón (refrán)}; **hi zeren alde hago?:** ¿tú a favor de qué estás?; **emaztearen eskabidearen alde hitz egingo**

dut, eta ez zurearen alde: hablaré en favor de la petición de la mujer y no a favor de la tuya; **baina beste gizon bat beti maite izan baduzu, beti haren alde eta fabore agertu bazara, orduan baduzu itxaropena berak ere hurreratu eta lagunduko zaitula bere beharra duzunean:** si a otro hombre le has mostrado siempre cariño y en todas las ocasiones te has manifestado de su parte y en su favor, entonces tienes confianza de que, cuando le necesites, también él vendrá en tu socorro y te ayudará; **sekulako apustua egin zuen presoan sakabanaketa-politikaren alde;** trabajó denodadamente en favor de la política de dispersión de los presos; **lehen geure alde zegoena, orain geure kontra daukagu:** lo que antes estaba a nuestro favor, ahora lo tenemos en contra; **nire alde dago:** está a mi favor ¹

- **ihes egin nuen mendi alde:** huí hacia el monte
- **etxetik alde dago autobus geltokia:** la parada del autobús está cerca de casa, al lado de casa; **herritik alde egiten ditu bere parrandatxoak:** sus juerguitas las hace lejos del pueblo; **itsaso honetatik alde ere ez duzu papardo askorik arrantzatuko:** tampoco lejos (fuera) de estos mares pescarás mucha palometa (zapatero)

Aldean:

Esanahia: a) -(r)en alderdian, ondoan, hurrean, oso gertu. b) denborazko esapideetan: inguruan, bueltan. c) -(r)ekin konparatuta.	Significado: a) «en el lado», «al lado de», «junto a», «cerca de». b) en contextos temporales: «hacia», «sobre», «por», «cerca de». c) «en comparación de», «al lado de», «en comparación con».
--	--

Villasanterenean ohar bezala hau dator. (Ez dakit Villasanteren beraren oharra den ala Mitxelena jaunarena):	Villasante trae esta nota. (No sé si es del mismo Villasante o es una apostilla de Mitxelena):
--	--

Rigiendo caso instrumental, ablativo o aun genitivo significa «a este, (ese, etc.) lado de». *Mendiez hemengo aldean* «a este lado de los montes».

- **buruaren ezkerreko aldean ez du ilerik:** no tiene pelo en la parte izquierda de la cabeza; **etxearen aldean trenbidea dago:** el ferrocarril está cerca de casa; **Xur bidean, mortuan den iturri(aren) aldean:** junto a una fuente de agua en el desierto –la fuente que hay en el camino de Sur-; **zaude nire aldean:**

estate a mi lado; **nire alde-aldean:** muy cerca de mí; **sortuko da Betleemgo hiriaren aldean:** nacerá cerca del pueblo de Belén; **Nevadako Las Vegas aldean bizi zen:** vivía junto a Las Vegas de Nevada; **bazen atearen aldean ere kutxa bat:** también había junto a la puerta una arca; **zubi aldean tiro-hotsak izan dira:** se han oído tiros cerca del puente; **herri aldean zer berri?:** ¿qué hay de nuevo por el pueblo?; **abadetxea elizaren aldean dago:** la rectoría está junto a (cerca de) la iglesia

- **hamarrak aldean gertatu zen:** sucedió hacia las diez; **goizeko laurak aldean:** sobre las cuatro de la madrugada; **hamar urteen aldean zebilen:** andaba como por los diez años
- **herri honetan mezatarra joaten direnak, joaten ez direnen aldean asko dira:** en este pueblo son muchos los que van a misa, en comparación de los que no van; **eta gutxiak dira giristinoak, giristino ez direnen aldean:** y los cristianos son pocos, en comparación de los no cristianos; **ederrak dira mairuak hauen aldean:** los moros en comparación con éstos son hermosos; **zorrak gailen agertzen direla irabazien aldean:** que las deudas en comparación con las ganancias son mayores; **mairu gerrarien aldean agitz gutxi ziren D. Alonsok zituenak:** al lado de los guerreros moros los que tenía D. Alonso eran muchísimo menos; **horren aldean dotorea erosiko dizut:** al lado de eso te compraré una bonita; **zuen aldean sendoak dira gure mutilak:** en comparación con vosotros nuestros muchachos son vigorosos; **atzoko madarien aldean bigunago dira hauek:** estas peras al lado de las de ayer son más blandas; **nire aldean zaharra zara zu:** en comparación conmigo, tú eres viejo; **Al Capone aprendize da portuko zeren aldean:** Al Capone en comparación con esos del puerto es un novato; **berandu neritzon beste egunetakoan aldean:** me parecía tarde en comparación de otros días
- **uraz beste aldean:** a aquel (al otro) lado del río

Aldeko: Esanahia: 1) alderdiko, inguruko. 2) faboreko, faboretan.

Significado: 1) «de la zona de», «de (la) parte de». 2) «en pro», «a favor de», «en favor de».

1. **Arratia aldekoa; Goierri aldekoa; Aralar aldekoa:** de la zona de Arratia; de la parte de Goierri; de la comarca de Aralar; **Boston aldeko hizkera:** el habla de la zona de Boston; **aitaren aldeko ahaideak:** parientes por parte del padre

2. **askatasunaren aldeko agerraldia:** festival en favor de la libertad; **horren aldeko deialdia:** convocatoria en pro de ello; **Egunkariaren aldeko jaialdia:** festival en favor de *Egunkaria*; **Gararen aldeko giza katea:** ‘Haize Horrazi’tik ‘Pasealeku

¹ En el dialecto B si la final es átona, *nire alde dago* significa *lo tengo yo guardado*. (Azkue, Eusk., III, 296).

Berri'ko Oteizaren Eskulturarainoko prentsa askatasunaren aldeko giza katea: la cadena humana en favor de *Gara*: la cadena humana desde el “Peine de los vientos” hasta la Escultura de Oteiza del Paseo Nuevo en pro de la libertad de prensa; **ni ere horren aldekoa naiz:** yo también soy partidario de eso; **haren aldeko sutsuen artean:** entre sus más fervientes seguidores; **egiaren aldekoa den edozeinek entzuten du nire mintzoa:** todo el que es de la verdad, escucha mi voz; **behartsuen aldeko aukera egin omen du Anselmok:** dícese que Anselmo ha hecho opción por los pobres; **behartsuen alde ala pobreen alde?:** ¿en favor de los necesitados o de los pobres?; **gure amama Brijida eskale hitzaren aldekoa zen, “pobreak, bada, guztiok gara”, esaten zuen:** nuestra abuela Brígida era partidaria (se posicionaba a favor) del vocablo *eskale* (mendigo), pues, “pobres somos todos” decía ella

En algunos de estos ejemplos *aldeko* funciona como sustantivo, significando «partidario».

Aldera:

1. Genitiboarekin: -(r)en aldera. Esanahia: a) -(r)en truke, -(r)en ordainez (B). b) -(r)ekiko. c) -(r)entzat. d) -(r)en alde.	1. Con genitivo: -(r)en aldera. Significado: a) «a trueque», «a cambio de», «en pago de», «a cuenta de», «en compensación de» (B). b) «para con», «respecto a». c) «con respecto a». d) «a favor de».
2. kasu instrumental edo ablatiboarekin eta mugimenduzko aditzekin. Esanahia: -(r)en bestalde.	2. Con caso instrumental o ablativo y verbos de movimiento. Significado: «a (este u otro, etc.) lado de».
3. aditz izenarekin. Esanahia:)en truke; -(z)eko. z)e aldera + aditza (dagokion aditzaz).	3. Con el nombre verbal. Significado: a) «a cambio de», «a cuenta de», «en compensación»; «para». b) «inf. + por + inf.» (<i>hitz egin, egin, esan...</i>).
4. absolutu mugagabearekin. Esanahia: a) lekuzko esapideetan: ingurura, -rantz. b) denborazko esapideetan: ingurura, partean, bueltan.	4. Con el caso absoluto indeterminado. Significado: a) contextos locativos: «hacia», «en dirección a». b) contextos temporales: «hacia», «sobre», «por», «cerca de».

1.

- a) **horren aldera bi arraun emango dizkizut:** a trueque de eso (a cambio de eso, en pago de eso) te daré dos remos; **bere hartzekoaren aldera, izan ditu ehun libera:** a cambio de su haber, recibió cien libras; **sari txikiaren aldera lan eginez:** trabajando a

trueque de un sueldo bajo; **diru gutxiren aldera erosi nuen:** lo compré por poco dinero; **zor haren aldera eskatzen duena:** lo que pida a cambio de aquella deuda; **zorraren aldera, zor aldera:** a la cuenta de la deuda; **egunean behinetik gora kafearen adera, esaterako, kamamila hartzeko esan zidan osagileak:** fuera de una vez al día, el médico me recomendó tomar, por ejemplo, manzanilla a cambio del café; **diru gutxiren aldera lortu nuen:** lo conseguí por poco dinero; **lanaren aldera ogia eman diot:** le he dado pan por trabajo; **aloger txikiaren aldera behar egiten zen orduan:** entonces se trabajaba a cambio de poco jornal

- b) **justizia behar da guztien aldera:** es necesaria la justicia para con todos; **izan zaitzez apal guztien aldera:** sé humilde para con todos
 - c) **zer zara maite zaituztenen aldera:** ¿qué eres para con los que te aman, respecto a los que te aman?
 - d) **mila modutara egin du presoan aldera:** ha trabajado en favor de los presos de mil formas; **horretan ez nago zure aldera:** en eso no estoy a tu favor
- 2.
- ibaiaz beste aldera igeri joaten ginen:** solíamos ir a nado al otro lado de la ría; **errekaz beste aldera ur azpitik joaten da:** al otro lado del río suele ir bajo el agua (buceando); **itsasoz beste aldera joan ez dadin:** para que no se vaya a ultramar; **hiriaren honako aldera:** hacia este lado de la ciudad; **uraz beste aldera igaro dira:** han cruzado la ría, se han pasado al otro lado de la ría
- 3.
- a) **adibide batzuk jarriko ditugu lana errazte aldera:** pondremos algunos ejemplos para facilitar el trabajo; **“futboleko segitzen dut, tarteka izerdi pixka bat botatze aldera”** (Ametz Arzallus): sigo jugando al fútbol, para de vez en cuando echar una sudadita; **trainerua konpontzen laguntze aldera eskerrak besterik ez gizekion eman:** a cambio de que nos ayudara a arreglar la trainera no le dimos más que las gracias; **behiari, jateko, hau eta hori eta bestea eman behar zaio esnearen aldera:** a la boca para comer, hay que darle esto y eso y lo demás a cuenta de la leche, a beneficio de la leche
 - b) **hitz egite aldera hitz egiten du:** habla por hablar; **esate aldera esan:** decir por decir; **esate aldera esan zuen, inolako helbururik gabe:** lo dijo por decir, sin ningún objetivo;

bai, egin egin du, baina zerbait egite aldera baino ez: sí, hacerlo lo ha hecho, pero sólo hacer por hacer algo

4.

- a) **hantxe eseri zen hankak plaza aldera zituelarik:** se sentó allí mismo con las piernas hacia la plaza; **etxe aldera noa:** me voy hacia casa; **mendi aldera abiatu da:** ha partido hacia el monte; **baso aldera joan da perretxikotan:** ha ido hacia el monte por setas; **Donostia aldera doaz:** van hacia Donostia
- b) **seiak aldera etorriko dela esan du:** ha dicho que vendrá a eso de las seis; **negu aldera jende asko joaten da Nevadako Las Vegasera:** por el invierno suele ir mucha gente a las Vegas de Nevada; **mende honen hasiera aldera izan zen hori:** eso fue hacia los comienzos de este siglo; **iluntze aldera trumoia jo zuen:** tronó hacia el atardecer

Alderako: Genitiboarekin: // Con caso genitivo:

1. Bizk.: -(r)en aldera, -(r)en truke, -(r)en ordainez. // «a trueque», «a cambio de».

2. Ipar.: -(r)en aldeko. // «pro».

3. Bizk.: -(r)en ordainez. // «en pago», «en satisfacción de».

1. **egin dizkidazun mesede handien alderako:** en agradecimiento (a cambio) de las grandes mercedes que me habéis hecho

2. **horra nola suntziarazi zuen Jehu Baalen alderako gurpena:** he ahí cómo hizo devastar Jehu el culto pro Baal; **horren alderako ezagutza ez da behinere gure bihotzetatik galduko:** nunca se apartará de nuestros corazones el reconocimiento para con él

3. **ez ostuaren alderako mezak esanak, ez argitakoak ez dituela libratzen pekatutik:** que ni las misas encargadas en satisfacción de lo robado ni las ofrendas para luz les libran del pecado

(Azken bi adibideotako *alderako ez bide da* postposizio, izenlagun baino / El *alderako* de los dos últimos ejemplos no parece que sea postposición sino simple adjetivo)

Alderakotzat: Genitiboa eskatzen du. // Rige caso genitivo. Ekialdeko euskalkietan. // Dialectos orientales.

Esanahia: -ri buruz, -rekiko, -rekila. // Significado: «con respecto a», «para con».

- ez da zure alderakotzat (zurekiko, zurekin) ongi portatu:** con respecto a ti, no se ha portado nada bien; **bere burua zure alderakotzat zordun erakusten du:** se muestra como obligado hacia ti; **heriotzaren**

alderakotzat gaitzerizkoa naturala izan zuen: experimentó respecto a la muerte una aversión natural; **gogorki ekin genuen haren alderakotzat:** nos portamos cruelmente para con él; **beste munduan, denboraren buruan, bere errukiaz, gaixtoen alderakotzat usatuko (egingo) duela esatea erokeria da:** el decir que en el otro mundo, al final de los tiempos, usará de su misericordia en favor de los malos es una locura

Aldetik:

1. Genitiboarekin: a) -(r)en alderditik, (r)en partetik, -(r)en izenean. b) -(r)en ikuspuntutik, ikuspegitik. c) (r)i buruz, dagokionez... d) -ki. 2. -(e)n atzizkidun adizkerarekin: a) -(r)en ikuspuntutik, ikuspegitik (Bc). b) -(r)en neurrian, denez...; gisa.	1. Con genitivo: a) «de parte de», «en nombre de». b) «desde el punto de vista de». c) «en cuanto a», «en lo que respecta». d) «-mente» 2. flexión verbal terminada en -(e)n: a) «desde el punto de vista de», «bajo el prisma, aspecto de» (Bc). b) «en cuanto que», «por cuanto que».
--	--

Villasantek hau dio:	Dice Villasante:
"Rigiendo caso instrumental o bien ablativo o aun genitivo: «del lado de (aquí, allí, etc.) de»".	
Baina ablatiboarekin osaturiko adibiderik ez du jarri.	Pero no pone ningún ejemplo con ablativo.

1.

- a) **bakoitzak bere aldetik ahal duen guztia egin behar du:** cada uno debe hacer por su parte todo lo que pueda; **gurasoen aldetik arrazoi onak eman zizkioten:** por parte de los padres le dieron buenas explicaciones; **behar dena bada haien aldetik, ez da handik ezeren faltarik:** por parte de ellos ya hay lo preciso, no falta nada por este lado; **Ixoneren aldetik ez dago inolako eragozpenik:** de parte de Ixone no hay pega alguna; **emaiozu musu handi bat nire aldetik:** dale un besazo de mi parte; **nire aldetik esandakoari ez daukat zer gehitu:** de mi parte nada tengo que añadir a lo dicho; **kanpoan direnen aldetik, edo ongi esanda, barruan direnen aldetik ere zorion beroak Emiliari beronen 90. urtebetetzean:** calurosa felicitación para Emilia también de parte de los que están fuera, mejor dicho, de parte de los que están dentro en su 90 cumpleaños; **hartu ditut haren aldetiko gorantziak:** he recibido recuerdos de su parte (de él); **goiko aldetik beheko aldera:** de la parte de arriba a la parte de abajo; **taldeko guztien aldetik eskerrak eman nahi nizkizuke:** quisiera darte las gracias en nombre de (de parte de) todo el equipo; **saria**

jaso zuen bere aitaren aldetik: aceptó el premio en nombre de su padre; **gu bion lagun baten aldetik deitu zaitut (deitu dizut):** te llamo de parte de un amigo mutuo

- b) **arazoa hizlariak esan duenaren aldetik ikusita, erraz da mundua konpontzea:** viendo el asunto bajo el punto de vista de lo que ha dicho el orador, es bien fácil arreglar el mundo; **mamiaren eta formaren aldetiko azterketak:** análisis bajo el punto de vista del significado interior y de la forma
- c) **gaurko egunak eguraldiaren aldetik ez du inolako aitzakiarik:** el día de hoy, en cuanto al tiempo atmosférico, no tiene ninguna pega; **nire aldetik denaz:** por lo que a mí respecta; **nire aldetik ez zaitetz kezkatu:** por mí no te preocupes; **baieztapen hau egitean, haren aldetik, izenda zenezake bere izena:** al hacer esta aseveración, por su parte (en cuanto a él se refiere), puedes mencionar su nombre; **osasan(aren) aldetik ondo ari da:** en cuanto a la salud, anda bien; **diru aldetik ez dabil txarto:** en lo que respecta al dinero, no anda mal; **prezioaren aldetik, modu onekoa da:** en cuanto al precio (en lo que respecta al precio) es razonable; **hiztegi lanetan asko aurreratu dugu, bai aho hizkera eta bai hizkera idatziaren aldetik:** se ha avanzado mucho en la confección de diccionarios, tanto bajo el aspecto del lenguaje oral como en cuanto al lenguaje escrito; **irudimentsu eta oharle on izanik, idaztean hizkuntzaren aldetik zailtasunak ditu:** siendo imaginativo y un buen observador, al ponerse a escribir tiene dificultades en cuanto al idioma; **nire aldetik nahi duena egitea dauka (egin dezala):** por mí (en lo que a mí respecta), que haga lo que quiera
- d) **ekonomia aldetik ere ongi:** económicamente también bien; **politika aldetik, erdi galduta:** políticamente, medio perdido

2.

- a) **Etxagun izen onaren zalea naizen aldetik:** desde el punto de vista de que soy propietario, amigo del buen nombre
- b) **guztion aita den aldetik:** en cuanto que es padre de todos; **hizkuntzalariak hitzei begiratu behar die, hitzei hutsik lehenbiziko, hitzei hitz diren aldetik:** el lingüista debe mirar a las palabras, en primer lugar a las palabras sólamete, a las palabras en cuanto tales (en cuanto que son palabras, considerándolas bajo el punto de vista de palabras); **lanaren egilea naizen aldetik ezin dut aldaketa gehiago onartu:** en cuanto autor de la obra no puedo admitir más cambios; **gai**

honetaz aditua den aldetik entzungo diogu: le escucharemos como a experto en la materia; **pobreak garen aldetik ahaleginu gaitezen pobreei laguntza ematen:** en cuanto (que somos) pobres, esforcémonos en ayudar a los pobres

- **hobe da egitekoen alde honetatik egitea (egitekoak alde honetatik egitea):** mejor es ventilar el negocio por la parte de acá; [mejor es ventilar a este lado (del lado de acá) de los negocios]; **mendiez hemengo aldetik bizi garenon kezakak:** las preocupaciones de los que vivimos del lado de acá (de aquende) de los montes; **eliza baten aldetik igaro zen:** pasó del lado de una iglesia; **haizeak itsasoko aldetik jotzen zuen:** el viento soplabá por la parte del mar; **egiteko hori diru aldetik babes dezan:** para que ese proyecto lo patrocinara económicamente

Aldez: Genitiboarekin // Rige caso genitivo.

Esanahia: 1) -(r)en partez, -(r)en ordezt, -(r)en izenean. 2) -(r)en alde.

Significado: 1) «de parte de», «en nombre de», «en vez de». 2) «a favor de», «en favor de», «de parte de».

1. **emaiozu musu bat neure aldezt:** dale un beso de mi parte; **neure aldezt esaiozu lan ona egin duela:** dile de mi parte que ha hecho un buen trabajo; **itaunduko diet horrelakoei berorren aldezt:** les preguntaré a los tales de parte de usted, en nombre de usted

2. **pobreen aldezt:** en favor de los pobres; **beti makalaren aldezt jartzen da:** siempre se pone de parte del débil; **hi zeren aldezt hago?:** ¿tú a favor de qué estás?; **emaztearen eskabidearen aldezt hitz egingo dut, eta ez zurearen aldezt:** hablaré en favor de la petición de la mujer y no a favor de la tuya

ALDI «tiempo».

Postposizio bezala inesibo mugagabeán, <i>alditan</i> forma, erabili ohi da. Genitiboa, -(r)en atzizkia, eskatzen du.	Como posposición se usa la forma inesiva indefinida, <i>alditan</i> . Rige caso genitivo. Significado: «en tiempo de».
---	--

eta egin zituen jende horien alditan: y los hizo en el tiempo de esas personas; **erromatarren alditan gertatu zen:** sucedió en tiempo de los romanos

ANTZ «parecido», «similitud». Sin.: gisa, gisan, gisako, gisara.

Postposizio bezala <i>antzean</i> , <i>antzeko</i> , <i>antzera</i> formak erabili ohi dira. Dagozkion izen sintagmak genitiboa hartzen du, batzuetan gal dezaketelarik beráu. Esanahia: moduan, gisan; berdintsu...	Como posposiciones se emplean las formas <i>antzean</i> , <i>antzeko</i> , <i>antzera</i> . Rigen caso genitivo, que a veces se elide. Significado: «como», «a modo de», «a la manera de», «semejante»; «más o menos», «no del todo», «bastante».
--	---

- **definizio antzean adierazpen luzea eman digu:** a modo de definición nos ha dado una larga explicación; **gaixo antzean dabil:** anda medio enfermo (lit., anda a semejanza de enfermo); **beti zegoen barre antzean:** siempre estaba como sonriente; **triste antzean aurkitu dut:** le he encontrado bastante triste; **anaia antzean ez baina tiroka hartu zituen:** no les recibieron como a (a modo de) hermanos sino a tiro limpio; **aspaldi honetan makal antzean dabil:** últimamente anda como flojito de salud; **aingeru bat gizonaren antzean aurkeztu zitzaion:** se le apareció un ángel en forma de hombre; **hara etortzen zen artzain antzean mutiko bat txilibitua joaz:** un muchacho solía venir allí a modo de pastor tañendo la flauta; **ondoez antzean dabil:** anda como indispuerto; **aberatsak bezala, handiki antzean bizi zen:** vivía como los ricos, a la manera de los grandes; **harro antzean eta nagusi antzean etorri zitzaidan:** vino a mí bastante arrogante, como si fuera el jefe
- **zure antzeko:** semejante a ti; **norbaiten antzeko izan:** ser semejante a alguien; **hegazti baten antzeko tresna:** un artilugio semejante a una ave; **izan bedi gure antzeko, gure irudiko:** sea semejante a nosotros, a modo de nuestra imagen
- **batelxoaren antzera dabil gure arima gaixoa:** nuestra pobre alma anda como una lanchita; **jakintsuen antzera hitz egin zuen:** habló como lo hacen los sabios; **ate antzera ohol bat jarri:** poner una tabla como puerta; **ezjakin(aren) antzera jokatzan du:** obra como si fuera un ignorante; **egin dezagun gizona gure antzera:** hagamos al hombre a nuestra semejanza; **oso antzera jantzi zen:** se vistió como lobo; **betiko antzera:** como siempre; **lehengo antzera:** como antes; **egizu gure antzera:** hazlo a nuestra manera, como (lo hacemos) nosotros; **nola? Lehen egiten zenuen antzera ez hau egin duzun antzera:** ¿cómo? Como lo hacías antes y no como lo has hecho esto

ANTZO «manera», «modo», «suerte». Sin.: bezala.

Postposizio bezala <i>antzo</i> , <i>antzora</i> formak erabili ohi dira, dagokion izen sintagma eskuarki absolutu mugagabeen delarik edo <i>-(r)en</i> atzizkiarekin. Esanahia: moduan, antzera, modura, gisara, bezala...	Como posposición se emplean las formas <i>antzo</i> , <i>antzora</i> acompañando normalmente a un sintagma nominal en caso absoluto indeterminado o terminado en <i>-(r)en</i> . Significado: «a la manera de», «a fuer de», «a modo de».
---	---

- **bildots antzo agertuko zaizu:** se te presentará a modo de cordero; **adiskide antzo:** en calidad

de (a modo de) amigo; **gazteak gazte antzo, gazte bezala behar du bizi:** el joven debe vivir a su estilo, como joven; **kristau on antzo:** a fuer de buen cristiano; **legami antzo mundua berrituz:** renovando el mundo a modo de levadura; **leihoak lauso dira, eguraldiaren antzo:** las ventanas están empañadas (nubladas), a la manera del tiempo; **Erdi Aroko bidaztien antzo:** a la manera de los viajeros de la Edad Media; **zaharrak gazte antzo:** los viejos a la manera de los jóvenes; **odol-tantak antzo:** a la manera de gotas de sangre; **kristaua erromes antzo da munduan:** el cristiano en el mundo es como un peregrino (es como si estuviera de paso). (Baina baita absolutu mugatu plurala ere: **haurrak antzo jokatzea:** el jugar como los niños); **itxuraz bildots antzo, / baina izatez otso:** de apariencia como cordero, pero de serlo lobo; **erregeren antzo:** en calidad de rey; **dudan antzo hobereenez:** de mi mejor modo; **jaten dutenaren antzo:** en proporción a lo que comen

- **haur baten antzora, haur bat(ek) bezala:** como un niño, a modo de niño; **mutiko batek bele baten antzora oihu egin zuen:** un muchacho dio un grito como el de una corneja; **gure antzora:** a nuestra manera, como nosotros; **ameriketara ere txakurrak hemengoan antzora, ortozik:** los perros inclusive en América como los de aquí, descalzos

APARTE «excepto». Heg.

Postposizio bezala <i>aparte</i> forma bera erabili ohi da, dagokion izen sintagma <i>-tik</i> edo <i>-z</i> atzizkia hartzen duela. Esanahia: <i>-z gain</i> , <i>-z gainera</i> , (zera) alde batera utzita.	Precedido de un sintagma nominal con la desinencia <i>-tik</i> de ablativo o de <i>-z</i> instrumental. Significado: «además de», «fuera de», «al margen de», «dejando a un lado».
--	--

- **jantzietatik aparte:** además de las ropas, fuera de o sin contar las ropas; **hortik aparte, ez nion ezer ere ulertu:** fuera de eso no le entendí ni pío; **indar handikoa izatetik aparte, trebea ere bada:** además de ser forzudo, también es mañoso; **esandakoetatik aparte, ezer berririk ez dago:** no hay novedades al margen de lo dicho; **gutarik aparte, badator beste inor?:** además de nosotros, ¿viene alguien más?; **eta ezinbestean ikastolak sortu ditugu, eskoletatik aparte:** y sin otro remedio hemos creado ikastolas, al margen de las escuelas; **hortik aparte haur ona da:** fuera de eso es una buena niña; **gizakietatik aparte, animaliek ere badituzte euren etxeak:** además de los humanos, los animales también tienen sus casas

- **horrezaz aparte hainbat istorio kontatu zizkigun:** además de eso, nos contó varias historietas; **esandakoaz aparte ezer berririk ez dago:** no hay novedades al margen de lo dicho

ARABERA Sin.: eradura, erara.

Postposizio bezala <i>arabera</i> forma erabili ohi da. Aurretik joan daiteke <i>-(r)en</i> atzizkidun (edo, salbuespen gisa, <i>-ko</i> atzizkidun) izen sintagma edo erlatibozko perpausa. ¹ Esanahia: modura, erara, eradura...	Como posposición se emplea la forma <i>arabera</i> , tras un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> (o excepcionalmente el caso <i>-ko</i>) o de una frase relativa. Significado: «según», «conforme (a)», «de acuerdo con, «de conformidad con», «con arreglo a», «a tenor de», «en virtud de»
---	--

- **itxuren arabera:** según lo que parece, verosíblemente; **itxura guztien arabera:** según todos los indicios (según todas las trazas); **nire arabera:** a mi juicio; **indarrean dauden arauen arabera:** con arreglo a las normas vigentes; **itxura guztien arabera:** según todas las apariencias; **bere beharren arabera eraiki zuen etxea:** construyó la casa conforme a sus necesidades; **'bakoitzari bere beharren arabera ematea' proposamena oso duda-mudazko berdinzaletasuna da:** la proposición 'dar a cada uno según sus necesidades' es un igualitarismo litigioso; **honen aitzineko kapituluan emaniko arrazoen arabera:** conforme a las razones dadas en el capítulo precedente; **herri horretako arauaren arabera:** conforme a la costumbre de ese pueblo; **hartutako erabakiaren arabera:** con arreglo a la decisión tomada; **ezbaikara giza grinen arabera bizi, Espirituaren arabera baizik:** pues seguimos una conducta, no según la carne, sino según el espíritu; **zuen sinestearen arabera egin bekizue:** hágase en vosotros según vuestra fe; **Zamarripa gramatikaliaren arabera:** según el gramático Zamarripa; **lanean egindako orduen arabera alogera:** un jornal con acuerdo a las horas del trabajo
- **nork bere herriko arabera:** según la usanza del propio país
- **zuk esan zenuenaren arabera gertatu da dena:** todo ha sucedido según lo dijiste; **hark**

1

<i>Araura, arauera, arauiala, arabera</i> , eta abarren artean Euskaltzaindi-ak <i>arabera</i> gomendatu du. Ez dago, bada, beste aldakiez zertan jardun.	Entre <i>arauera, arauera, arauiala, arabera</i> , etc. Euskaltzaindia recomiendan la forma <i>arabera</i> . Huelga, pues, tratar de los demás variantes.
---	---

agindu duenaren arabera: de conformidad con lo que prometió; **emazu beraz duzunarean arabera:** reparte, pues, en conformidad con lo que posees

ARAU «regla», «norma». Ipar.

Postposizio bezala <i>arau</i> forma bera erabili ohi da, eta honen aurrekoa izan daiteke: 1) absolutu mugagabea. 2) partizipioa edo aditz oina: bi esanahi. 3) <i>-en</i> atzizkidun aditz jokatu. 4) genitiboa, <i>-(r)en</i> kasu atzizkiduna. 5) datiboa, <i>-(r)i</i> kasu atzizkiduna.	Como posposición se emplea en esta misma forma y puede ir precedida de: 1) absoluto indeterminado. 2) participio o radical: dos significados. 3) verbo conjugado y con la terminación en <i>-en</i> . 4) genitivo, caso <i>-(r)en</i> . 5) dativo, caso <i>-(r)i</i> .
---	---

Esanahia: a) *-(r)en* neurrian, *-(r)en* arabera, bezala.
b) Partizipioaren nahiz aditz oinaren ostean: *-tu* ahala, *-tu* eta berehala.

Significado: a) «según», «dependiendo de», «de conformidad con», «con arreglo a», «a medida (que)».
b) Tras participio o radical: «según», «tan pronto», «en cuanto», «a medida (que)».

1. **leku arau sortzen dira landareak:** las plantas nacen según los lugares; **adin arau:** dependiendo de la edad

2.

- a) **irabazi arau gastatu ere:** gastar conforme se gane; **irabaz arau xahutu:** gastar conforme a la ganancia; **merezi arau dutela zeinek bere aulkia:** cada uno ocupa el sitio que merece

- b) **sartu arau hiltzen zituen:** los mataba según entraban; **sartu arau esertzen ziren:** tan pronto entraban se sentaban; **sor arau hil ziren:** murieron en cuanto nacieron; **irakurri arau adituko ez nuenak, hel egin beza, otoi, liburuxkaren hondarrean jarri dudak hiztegi:** el que no me entiende según vaya leyendo, váyase, por favor, al diccionario que he puesto al final del opúsculo; **gizonak mundua hobeki ezagutu arau, behar luke Jainkoa hobeki miretzi:** el hombre a medida que mejor conozca el mundo, debería admirar mejor a Dios

3. **beti egin den arau:** según se ha hecho siempre

4. **uztaren arau zuzurraren jatea:** el prudente consume de acuerdo con lo cosechado; **ondasunaren arau ez dira horiek bizi:** éstos no viven conforme a sus caudales

5. **morroiek egiten dituzte lanak maixuari arau:** los muchachos hacen las cosas imitando al maestro

ARGI «luz».

Postposizio bezala <i>argitan</i> , <i>argitara</i> formak erabili ohi dira, aurretik <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma edo absolutu mugagabea doalarik.	Como posposición se emplean las formas <i>argitan</i> , <i>argitara</i> , precedidas de un sintagma nominal en caso absoluto indeterminado o con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «a la luz de», «bajo (tal o cual) perspectiva».
---	---

- **adierazpen horren argitan, orainartekoek lapurretan egin dute:** bajo esa explicación, a la luz de esa explicación, los de hasta ahora han estado robando; **kriseiluaren argitan irakurri:** leer a la luz del candil; **izar argitan:** a la luz de las estrellas; **kandela baten argitan:** a la luz de una vela; **horren argitan:** bajo esa perspectiva, a esa luz; **egun argitan:** en pleno día, a plena luz; **ilargi(aren) argitan irakurri:** leer a la luz de la luna
- **gauzak zuk guri dioskuzunaren argitara ikusiz, ez dago zertan estutu:** viendo las cosas a la luz de lo que tú nos cuentas, no hay porqué apurarse

ARIA «motivo», «causa». Sin.: karia.

Postposizio bezala <i>ariaz</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> kasu atzizkia hartzen du. Batzuetan, atzizki hau gal dezake. Esanahia: <i>dela eta, dela kausa</i>	Como posposición se emplea la forma <i>ariaz</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: «por causa de», «por razón de», «por motivo de»; «por medio de», «a fuerza de».
--	--

- **xede eder horren ariaz besteei laguntzera emana duzu hori:** por causa de ese loable ideal está dedicado a hacer el bien a los demás; **amaren besoetan entzunaren ariaz:** a fuerza de lo escuchado en el seno de la madre; **hauta ezak ezkontidea, ez eder ariaz, bainan bai zuhur ariaz** (Oihenart): escoge a la esposa no por razón de belleza sino por razón de juicio; **guri grekoa ematen zigun irakaslearen ariaz...:** por causa de nuestro profesor de griego...; **xede handi eta eder horren ariaz:** por causa de esa gran y hermosa finalidad; **istripuaren ariaz hanka bat moztu diote:** por causa de un accidente le han amputado una pierna; **hori dela eta, horren ariaz ez da gehiagotan gure artera etorri:** a causa de eso, por esa razón no ha venido más donde nosotros; **esanaren ariaz eta halako batean, egin du bere egitekoa:** a fuerza de repetirle, y por fin, ya ha hecho lo que tenía que hacer; **western filmetan bezala, haizearen ariaz, edo haizeak aireatzen duen hondarraren ariaz ez da ezer ere ikusten errepideetan:** como en las películas del oeste, por causa del viento, o por causa de la arena que levanta el viento, no se ve nada en las carreteras

ARTE «entre», «hasta».

1) Lekuzko esapideetan: // En contextos locativos: «entre», «en medio de». 2) Denborazko esapideetan: // En contextos temporales: «hasta»; «mientras».

1. Lekuzko esapideetan: // En contextos locativos: «entre», «en medio de».

Esanahi honetan <i>artean</i> , <i>arteko</i> , <i>artetik</i> , <i>artera</i> , (azken honek norabidea adieraziz) formak erabili ohi dira, aurretik <i>-(r)en</i> kasu atzizkia du(t)en izen sintagma(k) doa(ze)la edo erlatiboazko perpausaren bat. (Batzuetan konposizioaren eraginez <i>-(r)en</i> kasu atzizki hau galdu egiten da).	Con este sentido se emplean las formas <i>artean</i> , <i>arteko</i> , <i>artetik</i> , <i>artera</i> , (este último indicando dirección), precedidas de uno o varios sintagmas nominales con la desinencia <i>-(r)en</i> (que a veces se elide por la ley de composición) o de una frase de relativo.
---	--

Artean 1: «entre».

- **gauza bat beste biren artean jartzea:** colocar una cosa entre otras dos; **bi aukeraren artean zalantzan:** dudando entre dos opciones; **lagunen artean gaudela:** estando entre amigos; **zure eta bion artean konponduko dugu:** lo arreglaremos entre los dos (entre tú y yo); **beste presoan artean Pantea ederra aurkitu zuten:** encontraron entre otros presos a la hermosa Pantea; **elefante zaharraren eta gaztearen artean edireten den diferentzia:** la misma diferencia que existe entre el elefante viejo y el joven; **Europa(ren) eta Afrikaren artean:** entre Europa y Africa; **eta han-herentxe agertzen diren laguntza berezi horien artean:** y entre las ayudas especiales que por doquier aparecen; **bizitzaren eta heriotzaren artean:** entre la vida y la muerte; **opari guztien artean haur txikiak emanikoa dut begikoena:** entre todos los regalos lo que más me ha gustado es el de los niños pequeños; **gure artean ez dago sekreturik:** no hay secretos entre nosotros; **ezberdintasun franko badago bataren eta bestearen artean:** ya hay diferencia entre la una y la otra; **herritarren artean gaudenean:** cuando nos hallamos entre los paisanos; **nerabezaro eta gaztaroaren artean daudenak:** los que están entre la adolescencia y la juventud; **4aren eta 8aren artean dauden zenbaki osoak:** los números enteros ubicados entre el 4 y el 8; **3. eta 7. lerroen artean dauden lerroak letra etzanaz jarri, biak barne:** poner en cursiva las líneas que se hallan entre la tercera y séptima líneas, ambas inclusive; **gure artean gertatu zen hori:** eso sucedió entre nosotros; **ilunbe beltzen artean, hala ere, agertu zen argia:** entre tan cerrada oscuridad, al fin, se hizo la luz; **galduak izango gara berriz otso harraparien artean:** de nuevo seremos engullidos entre los rapaces lobos; **andre**

guztien artean: entre todas las mujeres; **lau lagunen artean hamar erraldeko txahala jan zuten:** entre los cuatro amigos se comieron una ternera de diez raldes; **eskuen artean dugun denbora:** el tiempo que ahora tenemos entre manos; **gizonen artean:** entre los hombres; **Anjel Mari, eztulaldiak eman eta ikasleen artean erori zen:** Angel Mari, por un acceso de tos, cayó entre sus alumnos; **nobelen artean poesi liburu bat agertu da:** de entre las novelas ha aparecido un libro de poesías

- **esku artean dugun denbora:** el tiempo que ahora tenemos entre manos; **badirudi ez dela jende artean / jendartearen ausart:** parece que no osa presentarse en público; **malko artean jaioak:** los nacidos entre lágrimas; **dantza eta kanta artean:** entre danzas y cánticos; **gizon artean:** entre hombres; **andre artean:** entre las mujeres; **bedeinkatua zu andre guztien artean:** bendita tú entre todas las mujeres; **lau lagun artean hamar erraldeko txahala jan zuten:** entre cuatro amigos se comieron una ternera de diez raldes; **ni ere han nintzen jende artean:** también yo me hallaba entre la gente
- **ingelesez ongi mintzatzen direnen artean:** entre los que hablan bien el inglés; **heldu zirenen artean emakumezko bat zegoen:** entre los que llegaron había una mujer; **dirauren artean faltarik ez:** mientras dura, vida y dulzura; **han zeudenen artean banandu zituzten:** los repartieron entre los que estabais allí
- (genitiboko izenorde bihurkariaren ostean: // precedido de genitivo reflexivo: neure (bere...) artean: // «para mis (sus...) adentros», «para sí»); **neure artean esan nuen:** dije entre mí (para mis adentros, para mí); **Aristotelesekin hau esan zioen bere artean:** Aristóteles decía para sí; **nork bere artean:** cada uno para sus adentros, para sí mismo; **eta nik neure artean egia ote da?:** y yo para mis adentros: ¿será verdad?; **apala denaz dio bere artean gaiztoak inozoa dela:** el malvado acerca del manso dice para sí que es un necio. [Sinonimoak: bere baitan, bere bostean, bere kautan, berekiko...]

Arteko: «de entre», «perteneciente (a)».

- **arimaren eta gorputzaren, espirituaren eta haragiaren arteko burruka arriskutsua:** la gerra temible que existe entre el alma y el cuerpo, entre el espíritu y la carne; **Europa(ren) eta Afrikaren arteko itsasoa:** el mar que existe entre Europa y Africa; **populuaren artekoak:** los de entre la gente, vulgo; **4aren eta 8aren arteko zenbaki osoak:** los números enteros de entre el 4 y el ocho; **3. eta 7. lerroen arteko lerroak letra**

etzanaz jarri, biak barne: poner en cursiva las líneas de entre la tercera y séptima líneas, ambas inclusive; **haien arteko bat Escoto zen:** uno de entre ellos era Escoto; **bi perpauson arteko koma kendu eta puntu eta koma ipini:** quita la coma de entre las dos oraciones y pon punto y coma; **bi aukeron arteko zalantza erabaki behar dugu:** tenemos que dilucidar la duda de entre estas dos opciones; **bi aukeron arteko aukera egina dute honez gero:** ya habrán hecho por ahora la elección de entre estas opciones; **bataren eta bestearen arteko ezberdintasunak:** las diferencias entre el uno y el otro; **atzokoaren eta gaurkoaren arteko ezberdintasunak:** las diferencias entre lo de ayer y hoy; **lagunen arteko hartuemon estua:** la relación profunda de entre amigos; **zure eta haren arteko konponezinak:** las desavenencias entre tú y él; **langile eta ugasaben arteko konponezinak:** las desavenencias entre los obreros y patronos; **ikasleen arteko eztabaidak eta irakasleen artekoak:** las discusiones de entre los alumnos y las de entre los profesores; **zeure arteko kezka hori uxatuko duzu:** disiparás esa preocupación que sientes dentro de ti; **zuen arteko inork ez zuen ahorik ideki:** ninguno de entre vosotros chistó una palabra; **jende xehearen arteko gizonak:** hombres de entre gente humilde; **gure arteko kontuak:** asuntos pertenecientes a nosotros; **guztion arteko lana dugu hau:** esto es un trabajo que nos pertenece a todos; **gurma arteko eguzkia da:** hace un sol de entre nieblas; **gure arteko gauzak geuk konponduko ditugu eta geure artean:** los asuntos de entre nosotros (nuestros problemillas) los arreglaremos nosotros y entre nosotros; **zuen bion arteko adiskidetasuna luzarokoa duzue:** la amistad que existe entre vosotros dos viene de lejos; **ez handi, ez txiki, bien arteko:** ni grande, ni pequeño, el mediano (de entre los dos); **etxe artekoen ezinikusia:** la enemistad de entre los familiares; **haserre egin ziotenetik bere artekotxo dauka:** desde que le riñeron tiene así como un sentimiento de reparo; **neure artekoetan ez dut aurkitu nirea bezalako eztarririk:** de entre los míos no he encontrado una garganta como la mía; **bien arteko egon:** estar indeciso

- **mezaren hasieratik Epistola bukatu arteko ez dela gauza handia:** que lo que media entre el comienzo de la misa y término de la Epistola no es gran cosa; **bazkaldu arteko orduetan:** en las horas que median durante la comida; **bihar arteko epea duzu:** tienes el plazo hasta mañana; **hil arteko denboran:** el tiempo que media entre la vida y la muerte; **[biziarteko kargua:** cargo vitalicio]

Artera: «al medio», «a entre».

- **lasai bihur daitezke gure artera:** pueden volver donde nosotros con toda tranquilidad; **ikusleen artera erori zen su eta gar:** cayó ardiendo donde los espectadores; **beste zati bat elorri artera erori zen:** otra porción cayó entre espinos; **zuen artera etorri naizanetik zuen artetik ezin dut alde egin:** desde que he venido donde vosotros no puedo separarme de entre vosotros; **maitea, har nazazu besoen artera** (Zub.): cariño, recíbeme entre tus brazos

Artetik: «de entre» (procedencia, origen o selección).

- **eta beste guztien artetik:** y de entre todos los demás; **hilen artetik biztu zen:** resucitó de entre los muertos; **galdegiten da ea zergatik diren txori batzuk besteen artetik bizkorragoak:** se suele preguntar a ver porqué unos pájaros, a diferencia de otros, son más veloces; **bion artetik aterako da lehendakari:** de entre los dos saldrá el presidente; **Sarrio Saturraranen olatu artetik irten ezinik ibili zen:** Sarrio en Saturrarán anduvo no pudiendo salirse de entre las olas; **badirudi istant batean isuri zaizkigula urteak hatzen artetik:** parece que en un momento se nos han escurrido los años de entre los dedos; **asmo nagusi bat gailentzen zen beste guztien artetik:** un propósito principal sobresalía de entre todos los demás; **beste guztien artetik kolore berdekoa aukeratu zuen:** eligió de entre todos los demás el del color verde

2. Denborazko esapideetan: // En contextos temporales: «hasta»; «mientras».

<p>Adiera honetan <i>arte</i> (<i>arteino</i>, <i>artino</i>, <i>artio</i>), eta <i>artean</i> formak erabili ohi dira. <i>Arte</i> postposizio formak bi kontzeptu hartzen ditu:</p> <p>a) <i>artean</i> (denborazkoa). b) <i>bitartean</i>.</p> <p>a) Aurretik joan daiteke: - NOIZ erako adizlagunak. - Aditzekin: 1) laguntzaileak - (<i>e)n</i> atzizkia hartzen duela. 2) laguntzaileak ez bada, aditza era burutuan edo aditzoin hutsa. 3) aditz izena mugatzailearekin. - Izen sintagma mugatzailea harturik edo mugatzailearik gabe; -(<i>era</i>) atzizkia ere har dezakeelarik.² - Orduak. - (<i>era</i>) atzizkia epearen hasiera eta bukaera adierazteko.</p> <p>b) Eskuarki aurretik -(<i>e)n</i> atzizkidun adizkera hartzen duela.</p> <p><i>Artean</i> postposizio formak ere, denborazko esapideetan, aipatutako bi kontzeptuok hartzen ditu:</p> <p>a) <i>artean</i> (denborazkoa). b) <i>bitartean</i>.</p> <p>a) Eskuarki partizipioaren ostean. b) Eskuarki aurretik -(<i>e)n</i> atzizkidun adizkera hartzen duela.</p>	<p>Con este sentido se emplean las formas <i>arte</i> (<i>arteino</i>, <i>artino</i>, <i>artio</i>), y <i>artean</i>. La forma pospositiva <i>arte</i> abarca dos conceptos:</p> <p>a) «hasta». b) «mientras».</p> <p>a) precedida por: - adverbio temporal. - Con verbos: 1) el auxiliar con la desinencia -(<i>e)n</i>. 2) sino hay auxiliar, el participio con terminación (<i>i</i>/tu) o sin ella. 3) sustantivo verbal provisto de artículo. - sintagma nominal determinado o indeterminado; puede ir con la desinencia -(<i>era</i>). 1 - Las horas. - desinencia -(<i>era</i>) para expresar el comienzo y fin de un plazo.</p> <p>b) Normalmente precedida de flexión verbal terminada en -(<i>e)n</i>.</p> <p>También la forma pospositiva <i>artean</i> abarca los dos conceptos mencionados:</p> <p>a) «hasta». b) «mientras».</p> <p>a) Normalmente precedida de participio. b) Normalmente precedida de flexión verbal terminada en -(<i>e)n</i>.</p>
---	---

Arte:

a):

Esanahia: *artean* (denborazkoa)

Significado: «hasta».

- **gaur arte:** hasta hoy; **bihar arte:** hasta mañana; **oraintsu arte:** hasta hace poco; **atzotik gaur arte:** desde ayer a hoy; **atzotik**

<p>² Dena dela honetaz erabakirik ez denez, badirudi hirurak eman behar direla ontzat (<i>hurren art</i> ere esaten delarik): <i>hurrengo arte</i>, <i>hurrengorarte</i>, <i>hurrengo arte</i>. (EGL, 478).</p>	<p>1 Como sobre el particular nada está decidido, parece que hay que dar por buenas las tres (también se dice <i>hurren art</i>): <i>hurrengo arte</i>, <i>hurrengorarte</i>, <i>hurrengo arte</i>: hasta otra vez</p>
--	--

bihar arte: desde ayer hasta mañana; **biharamun arteko denbora irabazi:** ganar tiempo hasta el día siguiente

- **azken orduko poetak agertu zaizkigun arte:** hasta que (se nos) han aparecido los poetas de última ola; **bete den arte:** hasta que se ha llenado (saciado; cumplido); **amaitu duen arte:** hasta que lo ha terminado; **heldzen zen arte itxaroten genuen bazkaltzeko:** para comer solíamos estar esperando hasta que llegara; **etor dadin arte, etortzen den arte, datorren arte:** hasta que venga; **ez zara pagatzera behartuta, pagatzeko ahala duzun arte:** no estás obligado a pagar hasta que tengas poder de hacerlo
- **jo eta ke irabazi arte:** dale que dale hasta que ganemos; **ikusi arte:** hasta la vista; **dena txikitu arte:** hasta destruirlo todo; **zaude ni itzuli arte:** quédate hasta que yo vuelva; **ikusi arte ezin dugu erabaki:** hasta verlo no podemos decidir; **dantzatzen dugu oinetakoak apurtu arte:** solemos bailar hasta que se rompa el calzado; **gutziz zahartu arte edo gutziz zahar egin arte:** hasta envejecerse totalmente, hasta hacerse muy viejo; **eri arte:** hasta enfermar; **halakoari ez zaio sinesterik ematen apur bat froga arte:** a ese tal no se le suele dar crédito hasta que se acredite un poco de nuevo; **arraz zahar arte:** hasta envejecer totalmente; **zaude ni etor arte:** quédate hasta que yo llegue; **haserrearek ez dezala irau eguzkia sar arte:** que no dure el enfado hasta que el sol se meta; **zeren nola zangoa, besoa... bere junturatik ilkitzen denean ezin sosega baitaiteke bere tokira eta lekura bihur arte:** porque así como el pie, el brazo..., cuando sale de su sitio, no sosiega hasta que torna a su sitio y lugar; **denak hondatu arte:** hasta perderse todos; **bazkaldu arteko orduetan:** en las horas hasta (el tiempo de) la comida;
- **zergatik ez zara hemen geratzen zerri hiltzea arte:** ¿porqué no te quedas aquí hasta la matanza del cerdo?
- **asteburua arte / asteburu arte / astebururarte:** hasta el fin de semana; **astelehena arte / astelehen arte / hastelehenerarte:** hasta el lunes; **hilaren 22a arte luzatu da epea:** han ampliado el plazo hasta el 22 del mes; **goizera arte:** hasta la mañana (en oposición a la 'tarde'); **gero, denbora pasatu ahala, ordu arte arrotsa eta etsai zena, perla bihurtzen omen da;** se dice que, más tarde, al correr del tiempo, lo que hasta entonces le era (un elemento) extraño y hostil, se convierte en perla; **galtzeko ordu arte:** hasta la hora de perder
- **hamaikak arte:** hasta las once; **bederatziak arte:** hasta las nueve; **hiru eta erdiak arte:**

hasta las tres y media; **lauretatik bostak arte:** desde las cuatro hasta las cinco

- **hilaren 2tik 5era arte:** desde el día 2 del mes hasta el 5; **1936tik 39ra arteko gerran:** en la guerra de 1936 a 1939

Villasante: En el dialecto B son usuales frases como *ikusi artiño* «¡hasta ver!».

- Para significar «de hasta», o sea, el lapso de tiempo intermedio que existe entre dos puntos de referencia, Axular emplea *arteraiño*. El caso *-ko* sirve para nominalizar la palabra y ponerla en dependencia con respecto al sustantivo que sigue. Ejemplos: **mundua egin arterainoko bitartean:** hasta que creó el mundo; **nahi zukeien (zukeen) biharamun arterainoko denbora irabazi:** quisiera ganar tiempo hasta el día siguiente. (Añibarrok: gura eban biaramunaguño dempora irabaci. -Ez zuen, antza, *zukeien* adizkera ulertu-).
- **meza bukatu arte, meza bukatu arteino, meza bukatu artino,**
- **meza bukatu artio, meza bukatu arteraino:** hasta que acabe la misa

b)

Esanahia: artean, bitartean

Significado: «mientras», «durante».

- **mundua mundu den arte:** mientras el mundo sea mundo; **orain sasoia daukazun arte horrela bazabiltza:** si ahora mientras eres joven andas así; **zure oroimenak iraungo du munduak diruan arte:** tu recuerdo durará mientras dure el mundo; **eurretarrei ukitu ez zien arte ez ziren kezatu:** mientras sus partidarios no fueron molestados no se inquietaron; **horrekin zabiltzan arte horrelakoak sarri ikusiko dituzu:** mientras andas con ése, de ésas verás a menudo; **kanpoan zauden arte hobeto portatuko naizela uste dut:** durante tu ausencia espero comportarme mejor; **gure aitak itsasoan zegoen arte ez zuen bizarrik egiten:** nuestro padre mientras estaba en la mar no se afeitaba

Artean 2: denborazko esapideetan: // en contextos temporales:

a)

Esanahia: arte

Significado: «hasta».

- **zaude ni itzuli artean:** espera hasta que vuelva; **noiz artean honela?:** ¿hasta cuándo así?; **kapitulu hau amaitu artean ez naiz aterako:** no saldré hasta terminar este capítulo

b)

Esanahia: bitartean.

Significado: «mientras», «durante».

- **bide horretatik zabilzan artean zaude lasai:** mientras andas por ese camino estate tranquilo; **mundu triste honetan gauden artean:** mientras estemos en este triste mundo; **haurra aldatzen duzun artean telefono dei bat egingo dut:** mientras cambias a la niña haré una llamada telefónica; **kanpoan zauden artean hobeto portatuko naizela uste dut:** durante tu ausencia espero comportarme mejor; **gure aitak itsasoan zegoen artean ez zuen bizarrik egiten:** nuestro padre mientras estaba en la mar no se afeitaba

diciendo que me va a mandar fuera de mi trabajo; **etxe barruan eta etxetik at:** dentro y fuera de casa

ATE «puerta»; «fuera».

«Kanpo» esanahiaz <i>ate</i> eta <i>atean</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak ablatiboa, <i>-tik</i> , edo instrumenatara, <i>-z</i> , hartzen du. Esanahia: <i>-tik</i> kanpo, <i>-tik</i> landa, kanpoan.	Como posposición, significando «fuera», se emplean las formas <i>ate</i> y <i>atean</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia declinativa de ablativo <i>-tik</i> o instrumental <i>-z</i> . Significado: «aparte de»; «fuera de»
--	--

ASMO «intención».

Postposizio bezala <i>asmo(t)an</i> , <i>asmoz</i> formak erabili ohi dira. Aurretik doa: a) <i>-z</i> atzizkidun izen sintagma. b) aditz izena + <i>-ko</i> [<i>-(t(z)eko</i> atzizkia]. Esanahia: <i>ustez</i> , <i>intentzioz</i> .	Como posposición se usan las formas <i>asmo(t)an</i> , <i>asmoz</i> , precedidas de: a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-z</i> . b) nombre verbal + <i>-ko</i> , (la desinencia <i>-(t(z)eko</i>). Significado: «con intención de».
---	---

- **zurekin mintzateko asmoan:** con intención de hablar contigo; **estropada ikusteko asmotan joan zen:** se fue con intención de ver la regata; **lan handiak egiteko asmotan:** con intención de hacer grandes obras; **etxe berri bat egiteko asmotan da:** tiene intención de construir una nueva casa
- **Bilbon izandako gertakari latz batzuk argitaratzeko asmoz:** con intención de publicar algunos terribles sucesos acaecidos en Bilbao; **aldizkaria gaurkotzeko asmoz:** con intención de actualizar el periódico

OHARRA: joateko asmoz, egiteko asmoz... Baina ez,*joan asmoz, *egin asmoz...

AT «fuera».

Ezin hartu du kasu atzizkirik. Dagokion izen sintagmak <i>-tik</i> kasu atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-tik</i> kanpo, <i>-tik</i> landa.	No puede recibir desinencias declinativas. Va precedido de un sintagma nominal con la desinencia <i>-tik</i> . Significado: «fuera de»
--	--

- **Bilbaotik at bidaldu dira asko:** muchos han sido expulsados de Bilbao; **jaio berri askan datza, besoak (askatik) at:** el recién nacido yace en la cuna, con los brazos fuera (de la cuna); **baina ez elizatik at, eliz barruan baino:** pero no fuera de la iglesia, sino dentro de la iglesia; **Landolako burua / esaten yaukoat / bidalduko nauala / neure lanetik at:** el jefe de (la fábrica) Landola me anda

- **nahiz etxe barruan nahiz etxetik ate:** bien dentro de casa bien fuera de ella; **Elizatik ate salbamenik ba ote?:** ¿hay salvación fuera de la Iglesia?; **bidetik ate:** fuera del camino
- **lagunartetik atean ez du hitz askorik egiten:** fuera de la cuadrilla no habla mucho; **zerezu baitzara zeure tentuan eta zentzuan, eta hura handik atean eta kanpoan:** tú estás en tu juicio y razón, y él está fuera de ella; **egiatik atean dabilela:** que anda fuera de la verdad
- **euskaltzaleez ateko** (Lizardi): fuera de los vascófilos

ATZE «detrás». (Villasante: sólo usado en B y G).

Sin.: gibel, ondo, oste.

Postposizio bezala <i>atzean</i> , <i>atzeko</i> , <i>atzer</i> , <i>atzetik</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> kasu marka hartzen du; batzuetan berau gal dezake. Esanahia: <i>ostean</i> , <i>gibelean</i> ; <i>ostera</i> ; <i>gibeleatik</i> ...	Como posposición se emplean las formas <i>atzean</i> , <i>atzeko</i> , <i>atzer</i> , <i>atzetik</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que con frecuencia se elide. Significado: <i>detrás</i> , <i>de detrás</i> , <i>desde atrás</i> , <i>(para) atrás</i> .
--	--

- **etxe(aren) atzean hiru zugaitz sartu dituzte:** han plantado tres árboles detrás de la casa; **baratzearen atzean, baratze atzean:** tras el huerto; **ate atzean:** tras la puerta; **harrizko etxe handiaren atzean dago:** está tras la gran casa de piedra; **pozik etorriko naiz zure atzean:** vendré encantado detrás de ti; **ate atzean bota:** echar en saco roto; **zuhaitz(aren) atzean ezkutaturik zegoela ikusirik, deika hasi zitzaion:** viendo que estaba escondido tras el árbol, comenzó a gritarle; **ezin dut ikusi zure atzean dago eta:** no puedo verlo, pues está detrás de ti
- **zubi zaharraren atzeko aldean:** en la parte trasera (detrás) del puente viejo; **ate(aren) atzeko isiltasuna:** el silencio de detrás de la puerta; **eliz atzeko baratzean:** en el huerto de

la parte trasera (de detrás de) de la iglesia; **autoaren atzeko gurpila:** la rueda trasera del coche

- **atzera ere ohe(aren) atzera erori zaigu:** de nuevo ha caído hacia el otro lado de la cama
- **izarñoaren atzetik zazpi izartzar:** (de) detrás de una estrellita siete enormes estrellas; **ez dakit biderik eta zure atzetik joango natzaizu:** desconozco el camino e iré tras de ti; **gizonaren atzetik dator emakumea:** la mujer viene detrás del hombre; **gure atzetik datorrenak garbi dezala dena:** que recoja todo el que viene detrás nuestro; **(guztiak batera arituko dira) idazle ezkutuaren aztarnen atzetik, erantzunaren atzetik (bila):** tras las huellas del escritor anónimo, (todos juntos se afanarán) en busca de la respuesta; **otsoa haragiaren atzetik dabil:** el lobo anda tras la carne, en busca de la carne; **San Mameserako karneta agindu diozula eta zure atzetik dabil:** que le has prometido el carnet para San Mames y anda en tu busca
- (beharbada salbuespen gisa, Ondarroan *-ko* atzizkia / tal vez como excepción en Ondarroa, la desinencia *-ko*: *kafeko atze* (parte trasera del café (establecimiento): *kafeko atzean, kafeko atzeko, kafeko atzetik, kafeko atzera*).

AURKA «fachada, «delantera»; «contra».

<p>Postposizio bezala bi esanahi hartu ohi ditu:</p> <p>1. <i>-(r)en aurrean; -(r)en aurrera...</i></p> <p>2. <i>-(r)en kontra.</i></p> <p>1) <i>esanahian aurka, aurkan, aurkara, aurkaz</i> formak erabili ohi dira.</p> <p>Villasantek dio gaur egunean postposizio bezala <i>kontra</i> hitzaren ordeztu erabili ohi dela.</p> <p>Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> kasu marka (edo salbuespen gisa, <i>-ko</i> marka) hartzen du.</p>	<p>Como posposición ha solido recibir dos significados:</p> <p>1. «delante de», «junto a»; «cerca de», «enfrente de».</p> <p>2. «contra», «enfrente (de)»; «enfrente (de)».</p> <p>Con el significado 1. se han empleado las formas <i>aurka, aurkan, aurkara, aurkaz</i>.</p> <p>Villasante dice que como posposición en la época actual se ha empleado para sustituir a <i>kontra</i>.</p> <p>El sintagma nominal que le precede lleva la desinencia <i>-(r)en</i> (o excepcionalmente, la del caso <i>-ko</i>).</p>
--	--

1.
 - **hormaren aurka gelditu zen lagunei begira:** se quedó junto a la pared mirando a sus amigos
 - **Ermua Eibarko aurkan da:** Ermua es fronteriza con Eibar (está junto a Eibar); (Libia) **baita Zireneko aurkan:** (la parte de Libia) fronteriza con Cirene
 - **handik Hendaiaren aurkara etorri ginen:** de allí llegamos a la altura de Hendaia (al par de Hendaia); **biharamunean etor gintezen Kios-**

en aurkara (etorri ginen Kios aurrera) ¹: al día siguiente llegamos frente a Kios

- **gero tira zezaten** (tiratu zuten) **Gadarenoren komarkarat, zein baita Galilearen aurkaz aurka:** y navegaron a la tierra de los Gerasenos, que está frente a Galilea (enfrente de Galilea)

2.

- **zuen aurka ez dagoena zuen alde dago:** el que no está contra vosotros está a favor nuestro; **lotsagarria da nazioarteko komunikabideek eta Europako herrialde askotako gobernuak AEBekin bat egitea beren herritarren jarreraren aurka;** es bochornoso que la prensa internacional y gobiernos de muchos países de Europa hagan causa común con los EEUU en contra de la postura de sus ciudadanos; **baina arlo hori ondo saltzen ez baduzu, arazoak zeure, geure aurka egiten du:** pero si ese campo no sabes venderlo debidamente, el problema se vuelve en tu contra, en nuestra contra; **zuzengabekeriaren aurka borrokatuz:** luchando en contra de las injusticias; **gogo gaiztoz hasi nintzen; ez, ordea, kontzientziak eskatzen eta are agintzen zidanaren aurka:** empecé a desgana, pero no en contra de lo que mi conciencia me pedía y menos aún en contra de lo que me mandaba; **bi adibide horiek ez daude bata bestearen aurka:** esos dos ejemplos no están en contra el uno del otro; **zer duzu gure aurka?:** ¿qué tienes en contra nuestra?; **nik? Nik ez daukat ezer zuen aurka:** ¿yo? Yo no tengo nada en vuestra contra; **zuk abertzaleen aurka ekitea aukeratu duzu:** tú has elegido luchar contra los patriotas
- **elkarren aurkako diruditen gauzen elkartzeko miragarria:** la unión milagrosa de las cosas aparentemente contrarias entre sí; **horregatik, Estatu Batuen aurkako militantzia islamikoaren beldur da Washington;** por eso, Washington teme a la militancia islámica contra los Estados Unidos; **nor dagoen alde eta nor aurka jakiteko:** para saber quién está a favor y quién en contra;

aurkaz aurk = aurrez aurre = frente a frente

¹

1 <i>tira zezaten</i> eta <i>etor gintezen</i> : aoristo zaharra.	1 <i>tira zezaten</i> y <i>etor gintezen</i> : aoristo antiguo.
---	---

AURRE «delante»; «antes». Sin.: aitzin.

<p>Postposizio bezala <i>aurrean</i>, <i>aurreko</i>, <i>aurrera</i>, <i>aurretik</i> formak erabili ohi dira. Denborazko testuinguruetan, denbora lehenasuna adierazten dute: baino lehenago, aurrerago. Aurretik, zein den postposizio forma, daramate:</p> <p>a) <i>-(r)en</i> atzizkidun (edo salbuespen gisa, <i>-ko</i> atzizkidun) izen sintagma. Batzuetan <i>-(r)en</i> atzizkia eta mugatzailea galdu egiten dira.</p> <p>b) aditzaren era burutua.</p> <p>c) <i>-tik</i> atzizkidun izen sintagma, edota adizlaguna.</p> <p>d) aditz izena + <i>-ko</i> [<i>-(z)eko</i> atzizkia].</p> <p>Hona hemen banan-banan euron erabilera eta esanahia:</p>	<p>Como posposición se usan las formas <i>aurrean</i>, <i>aurreko</i>, <i>aurrera</i>, <i>aurretik</i>. En contextos con valor temporal expresan anterioridad: «antes de», «antes que», «anterior (a)».</p> <p>Van precedidas, según cuál sea la forma pospositiva, de:</p> <p>a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> (o excepcionalmente, en caso <i>-ko</i>). A veces la desinencia <i>-(r)en</i> y el determinante se eliden.</p> <p>b) un participio.</p> <p>c) un sintagma nominal, o forma adverbial, con la desinencia <i>-tik</i>.</p> <p>d) nombre verbal + <i>-ko</i> (la desinencia <i>-(z)eko</i>).</p> <p>He aquí, uno por uno, su empleo y significado:</p>
---	---

Aurrean:

1. *-(r)en* *aurrean*:

<p>a) Lekuzko testuinguruan: aitzinaldean, parean.</p> <p>b) Denborazko testuinguruan: baino lehenago, aurrerago.</p>	<p>a) En contextos con valor locativo: «delante de», «ante».</p> <p>b) En contextos con valor temporal: «antes de»...</p>
---	---

2.

<p>a) aditzaren era burutua + <i>aurrean</i>: baino lehenago, aurrerago.</p> <p>b) <i>-(z)eko</i> <i>aurrean</i>: baino ehenago, aurrerago.</p>	<p>a) Participio + <i>aurrean</i>: «antes de», «antes que»...</p> <p>b) <i>-(z)eko</i> <i>aurrean</i>: «antes de», «antes que», «anterior (a)».</p>
---	---

Adibideak:

1.

- a): **musturren aurrean daukazuna ere ez duzu ikusten**: no ves ni siquiera lo que tienes delante de los morros; **etxe(aren) aurrean bildu ginen**: nos reunimos delante de la casa; **behin errota aurrean, neskak atea jo du eta barrura sartu da**: en llegando ante el molino, la chica toca la puerta y entra adentro; **zuen aurrean gelditu zen**: se quedó delante de vosotros; **duela bi aste telebistaren aurrean geundenok guztiz poztu ginen**: hace dos semanas los que estuvimos ante la televisión nos alegramos enormemente; **nire aurrean ez dizu agiraka egingo**: no te va a reñir delante de mí; **zubi aurrean edo zubiaren aurrean, baina beti, esaterako, zubi estuaren**

aurrean, eta inoiz ere ez *zubi estu aurrean: (se puede decir) *zubi aurrean* o *zubiaren aurrean*, pero siempre, por ejemplo, *zubi estuaren aurrean*, y nunca **zubi estu aurrean*; **hara agertu ziren guztien aurrean**: aparecieron allí delante de todo el mundo; **aldare aurrean**: delante del altar; **nor da zure aurrean dagoena?**: ¿quién es el que está delante de ti?; **intxaurrondoa etxe aurrean zegoen**: el nogal estaba delante de casa; **Erregeren aurrean belaunikatu**: arrodillarse ante el (en presencia del) Rey; **Orioko aurrean**: a la altura de Orio

- b): **eguerdi aurrean**: antes del mediodía; **eguerdi aurretxoan**: inmediatamente antes del mediodía; **gerra aurrean jaio zen**: nació antes de la guerra; **meza (eman) aurrean**: antes de (celebrar la) misa

2.

- a): **jan aurrean eta afaldu aurrean eskuak garbitzen ditut**: antes de comer y antes de cenar me suelo lavar las manos; **zu jaio aurrean ere baziren horrelakoak**: tipos así, también existían antes de nacer tú
- b): **azken ostikada hiltzeko aurrean eman zuen**: la última patada la dio antes de morir, en el momento anterior a la muerte; **jaiotzeko aurrean ere aparteko ostikadak ematen omen zituen**: se dice que incluso antes de nacer (en el momento anterior al nacimiento) daba unas patadas especiales; **irteteko aurrean telefono deia hartu nuen**: en el momento antes de salir recibí la llamada telefónica

Aurreko: 1) Lekuzko esapideetan: // En contextos locativos: «anterior (a)», «de delante». 2) Denborazko esapideetan: // En contextos temporales: «de antes de».

1. **ikus hori honen aurreko kapituluan**: mira eso en el capítulo anterior a éste; **abenduko 24aren aurreko igandean**: el domingo anterior al 24 de Diciembre; **bere aurrekoen hizkuntza ikasten**: aprendiendo la lengua de sus antepasados; **aurpegira ematen zeniola bere edo bere aurrekoen hutsegiteren bat**: echándole en cara alguna de sus faltas o la de sus antepasados; **pobreak ere ziren nire gurasoak, / eta pobreak haien aurrekoak**: pobres eran también mis padres y pobres sus antepasados; **n-ren aurreko t, adizkietan, d bihurtzen da**: la *t* anterior a *n*, en flexiones verbales, se convierte en *d*; **nor da zure aurrekoa?**: ¿quién es el anterior a ti?; **San Juan Bautista, Kristoren altzindaria edo aurrekoa**: San Juan Bautista, el precursor de Cristo

Goiko adibide batzuetan *aurreko* hitzak izen bezala funtzionatzen du.

En algunos de estos ejemplos *aurreko* funciona como sustantivo, significando «antecesor».

2.

- **aipatu duzun egunaren aurreko egunean izan zen hori**: eso fue el día anterior al que lo has mencionado
- **meza aurreko lababoa**: el lavado de antes de misa; **gerra aurreko urtetan**: en los años de antes de (anteriores a) la guerra
- **jan aurreko otoitza**: oración de antes de la comida; **Jauna etorri aurreko profeziak**: las profecías anteriores a la venida del Señor; **estropada hasi aurreko estutasuna**: el nerviosismo anterior al comienzo de la regata; **azterketa lekura sartu aurreko kakalarria**: la cagalera de antes de entrar a la sala de exámenes; **hil aurreko egunetan**: en los días anteriores a su muerte

Aurrera:

1. -(r)en aurrera: «delante de», «a (la) presencia de».

2. -tik aurrera:

- a) Denborazko testuinguruan: // En contextos temporales: «de... en adelante».
- b) Lekuzko testuinguruan: // En contextos locativos: «hacia adelante», «para adelante».

1. **jende(aren) aurrera azaltzeko beldur naiz**: tengo miedo de presentarme ante la gente; **epailearen aurrera agertu zen**: se presentó delante del juez; **epailearen aurrera eraman zuten**: le llevaron a (la) presencia del juez; **nor da zure aurrera ekarri dizutena?**: ¿quién es el que te han traído a tu presencia?; **itsasontzia Ondarroako aurrera etorri zenean**: cuando el barco llegó a la altura de Ondarroa; **hiru egun aurrerago (Bizk.)**: tres días antes

2.

- a) **gaurtik aurrera**: de hoy en adelante; **bostetatik aurrera ez joateko diosku**: nos dice que no vayamos desde las cinco en adelante; **haurrak gau erditik aurrera ez du eztulik egin**: desde la media noche en adelante la niña no ha tosido; **handik aurrera lagun minak dira**: desde entonces son íntimos amigos; **hemendik aurrera**: de aquí en adelante: a) *en sentido temporal*: desde ahora en adelante; b) *en sentido locativo*: de aquí hacia (para) adelante; **gaixoak ordutik aurrera hobekuntza izan du**: el enfermo desde entonces en adelante ha tenido mejoría
- b) **hemendik aurrera**: de aquí hacia (para) adelante (en sentido locativo); **hemendik aurrera oinez igoko gara, eta gaurtik aurrera honaino ere oinez etorriko gara**: de

aquí hacia adelante subiremos a pie, y desde hoy en adelante incluso hasta aquí subiremos a pie; **leku hartatik aurrera, bideak txarrak dira**: más allá de ese lugar, los caminos son malos; **Altzarretatik aurrera ez da pasatu**: no ha pasado de más allá de Altzarreta¹

Aurretik:

1. -ren aurretik:

- a) Lekuzko testuinguruan: // En contextos locativos: «(por) delante de», «antes de».
- b) Denborazko testuinguruan: // En contextos temporales: «antes de».

2. era burutua + aurretik: baino lehenago. // Participio + aurretik: «antes de».

1.

- a) **gure aurretik sartu ziren**: entraron antes que nosotros (por delante de nosotros); **ikastola(ren) aurretik igarotzean, neure lehen maitasunaz gogoratzen naiz**: al pasar por delante de la ikastola, me acuerdo de mi primer amor; **etxe aurretik igaro zen**: pasó delante de casa; **alde egin zuen Jesusek eta haien aurretik gorde egin zen**: Jesús se marchó y se escondió de ellos; **bera nire aurretik eta ni bere atzetik**: él por delante de mí y yo por detrás de él; **kenzak autoa nirearen aurretik**: aparta tu coche de delante del mío; **epailearen aurretik pozik irten zen**: salió contento de la presencia del juez; **idien aurretik gurdi ipini** (Morris): poner la carreta delante de los bueyes; **nor da zure aurretik doana?**: ¿quién es el que va delante de ti?

- b) **1928 aurretik Kanttoipera eraman ninduten**: me llevaron a Kanttoipe antes de (del año) 1928; **udal-hauteskundearen aurretik**: antes de las elecciones municipales; **badakit nire aurretik beste batzuk ere egon direna**: ya sé que antes de mí también ha habido otros

2.

- **kaleko erropak jantzi aurretik, egin ezak bizarra**: aféitate antes de vestirte de calle; **ikusitako aurretik banekien hori**: eso lo sabía antes de verlo; **lotara joan aurretik eta lotatik sukaldara etorri aurretik gure haur Julenek mainak egiten ditu**: antes de ir a la cama y antes de venir de la cama a la cocina nuestra niña Julene hace lloriqueos; **zu**

¹ Baina handiena Azkuek honela dakarrela: // Pero lo gordo es que Azkue trae así: “Altzarretatik aurre ezta pasau”. Absolutu mugagabea. // Forma indeterminada. Orduan, esan dezakegu: / Entonces, se puede decir: **Tolosatik aurre ez da igaro**: no ha ido más allá de Tolosa

ezagutu aurretik ez zuela maiteminek ezagutu: que antes de conocerte a ti no conoció el enamoramiento; **eguzkia irten aurretik:** antes de salir el sol, antes de la salida del sol, antes del amanecer; **eguzkia sartu aurretik:** antes de ponerse el sol, antes de la puesta del sol; **hitz egin aurretik gogoratu nor eta zer zaren:** antes de hablar, acuérdate quién eres y qué

AZPI «debajo».

Postposizio bezala <i>azpian</i> , <i>azpiko</i> , <i>azpira</i> , <i>azpitik</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak - (<i>r</i>) <i>en</i> atzizkia hartzen du. Batzuetan -(<i>r</i>) <i>en</i> hau eta mugatzailea gal ditzake. Esanahia: pean, pera, petik...	Como posposición se emplean las formas <i>azpian</i> , <i>azpiko</i> , <i>azpira</i> , <i>azpitik</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia del genitivo, -(<i>r</i>) <i>en</i> , que a veces se elide junto con el determinante. Significado: «debajo de», «bajo», «de debajo de».
--	---

- **oinetakoaren azpian zapalduta ezkutatu zuen milakoa:** escondió el billete de mil (teniendo) aplastado debajo del zapato; **ohere(aren) azpian gorde zuen:** lo guardó debajo de la cama; **heriotzaren penaren azpian:** bajo pena de muerte; **berrogei urtez faxismoaren azpian:** cuarenta años bajo el fascismo; **zubi txiki baten azpian zegoela:** estando debajo de un pequeño puente; **zeure itzalaren azpian:** bajo tu sombra; **ez daude legearen azpian, legea da haien azpiko:** no están bajo la ley, la ley está bajo ellos; **gauneguen itxuraren azpian ezkutatzen zaigun heriotza:** la muerte que se nos esconde bajo la nocturna e invernal apariencia; **zerbaít heriotzaren, eskumikuaren azpian agindu:** prohibir algo bajo pena de muerte, bajo excomunió; **zuhaitz azpi horretan:** debajo de ese árbol; **Sarrio Saturrararen gerrirainoko-edo halakoxe zingoan olatu txikien azpian ito beharrean jardun zuen:** Sarrio en Saturrarán en un fondo como hasta la cintura anduvo a punto de ahogarse debajo de unas olas pequeñas
- **esaldi horren azpiko egitura (azpiegitura) jakin nahi nuke:** me gustaría saber la infraestructura de esa frase (la estructura que está debajo de esa frase); **zubi(aren) azpiko korronea:** la corriente de debajo del puente; **lur azpiko piztiak:** las bestias de debajo de la tierra; **zuhaitzak bere azpiko lurraren gozoa eta gizentasuna bereganatu bere erroez tiratuz eta edoskiz, hasten, handitzen eta mantenatzen dira:** los árboles se mantienen, alimentan y crecen, chupando y aspirando hacia sí con sus raíces el jugo y la grosura de la tierra que está debajo de ellos

- **lur(raren) azpira sartu ziren:** se metieron bajo tierra; **kamioi(aren) azpira joan zen, eta halan ere kamioi azpitik onik atera zen:** se fue bajo el camión y aun así salió ileso de debajo del camión; **ohere azpira sartu du:** lo ha metido debajo de la cama
- **hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik:** por debajo de todas las nubes, por encima de todas las zarzas; **aitaren ohere azpitik atera du:** lo ha sacado de debajo de la cama del padre

BAGA «sin». Bizkaierazkoa. Arkaikoa // Dialecto B. Arcáico. Ikus BARIK.

“**bildur baga esan (kanta) dagigun**” entzuten zaie **zenbait abaderi:** a algunos sacerdotes se les escucha decir “bildur baga esan (kanta) dagigun” [‘nos atrevemos a decir’]

BAGARIK «sin». *Baga*-ren pleonasmoa. // Pleonismo de *baga*.

Bizkaierazkoa. Arkaikoa // Dialecto B. Arcáico. Ikus BARIK.

isildu bagarik: sin callarse

BAGE «sin». (B, G, R). Ikus BARIK.

Akesolo: “Forma primitiva indudablemente, de la que son variantes *gabe* y *baga*”. Y trae algunos ejemplos: “**non dan bagea, an da zalea**” (Larramendi) donde hay privación allá hay deseo; **axolabagea:** el desprovisto de cuidado, el negligente; **bage erden zen:** hallóse falto (R); **bage dago:** está enfermo, enclenque.

Eta hitz hauek sartzen ditu: // E inserta estos vocablos: **bagealdi:** situación de falta, privación, carencia; **bagetanik:** Sin. de *gabetanik*, *gabe*, *bage*. Lo emplea J. Lizarraga; **bagetasun:** (B, BN-s, G, R) falta, carencia. **II:** (R) abstención. **III:** dolencia, enfermedad (B-amor.); **bagetu:** (B, BN-s, G, R) despojar. **II:** (R-uzt) abstenerse. “**gorozimako orzilaretan aragixateatik bagetan naz:** me abstengo de comer carne los viernes de cuaresma; **bagez:** por, a falta de. **II:** carencia, privación; **bageztatu:** consumir, deshacer. DARRICARRERE. LARRAMENDI.

Eta norbaitek esango du zertara dator hau guztiau? // Y alguien podrá decir: ¿a qué viene todo esto?

Ba, honetarako: // Pues para esto:

baga eta bage: hiztegi gehientsuenetan, halatsu: Ik. gabe.	baga y bage: mayoría de los diccionarios, algo así: Ik. gabe
bage: oso mendebaldeko zenbaitzuentzat: esistitu ere ez.	bage: para algunos -muy “mendebaldekos” ellos-: ni existe.

<p>1. <i>-gan</i> kasu atzizkiaren ordaina; bizidunen deklinabideko leku kasuak osatzeko, batez ere <i>baitan</i> forman, erabili ohi da. Horrela, bada, postposizio bezala <i>baita</i>, <i>baitako</i>, <i>baitan</i>, <i>baitara</i>, <i>baitatik</i> erabili ohi dira. Azken lau formei dagokien izen sintagmak, batez ere izen ordaina denean, <i>-(r)en</i> atzizkia hartu ohi du. Esanahia: <i>-(ren)gan</i>, <i>-(ren)gana</i>, <i>-(ren)gandik</i>...</p> <p>2. Lapurdin <i>etxea</i> adierazteko erabili ohi den partikula. Etxe izenetan izen propioaren ondoan (jabearen izenaren ondoan) <i>baita</i> forma soila doa; osterantzean, leku deklinabide atzizkiez erabili ohi da. (Sinonimoa: <i>ene</i>, <i>enea</i>). Esanahia: <i>etxea</i>, <i>egoitza</i>; <i>etxean</i>, <i>etxeko</i>, <i>etxera</i>, <i>etxetik</i>.</p>	<p>1. Partícula sustitutiva de la desinencia casual <i>-gan</i>, usada para formar los casos locativos de declinación de los seres animados, sobre todo en la forma <i>baitan</i>. Por lo tanto, como posposición se emplean las formas <i>baita</i>, <i>baitako</i>, <i>baitan</i>, <i>baitara</i>, <i>baitatik</i>. Las cuatro últimas formas van precedidas de un sintagma nominal, sobre todo cuando es pronombre, con la desinencia <i>-(r)en</i>. Significado: «de sí mismo»; «en uno mismo», «de, desde, para, por ... uno mismo», «de por sí»..., etc.</p> <p>2. Partícula que se usa en L para designar <i>casa</i>. Aparte de los nombres de casa, en los que <i>baita</i> va junto a un nombre propio (al nombre del propietario), se usa sólo con desinencias locativas. (Sinónimo: <i>ene</i>, <i>enea</i>). Significado: «casa»; «donde», «en casa de», «en el sitio de», «del lugar de...», etc.</p>
---	---

1.

- **eta zure baitako argia ilunbe bada:** y si la luz de tu interior (existente en ti) es oscuridad; **pertsona baxotxaren baitako iritzia errespetatzearen aldeko agertu zaigun:** se nos presentó como favorito de respetar la opinión personal de cada cual; **zure baitako indarraz gehiegi fido zara:** confías demasiado en tu fuerza personal; **bere baitako sinestea du hori:** eso es su creencia personal; **patua(ren) baitako indarraren aurka diharduzu:** te esfuerzas en contra de la fuerza del sino personal
- **Elizak bere baitan duen ondarea:** el patrimonio que pertenece a la Iglesia; **gauza horren baitan:** en ese asunto, acerca de eso; **badugu nora begiratu gure inguruan eta geure baitan bertan:** ya tenemos dónde mirar en nuestro entorno y en nosotros mismos; **pentsatzen jarririk, bere baitan esan zuen...:** y puesto a pensar, dijo para sí... (se dijo a sí mismo...), y entrando en sí mismo, dijo...; **besteren baitan biztu den grinaz pozten delarik:** alegrándose de la pasión suscitada en otro; **gizon(aren) baitan konfiantza badut:** confío en el hombre; **gizonaren baitan dago gaitza:** el mal está en el mismo hombre; **aita(ren) baitan:** en el padre; **ama(ren)**

baitan: en la madre; [aditz lokuzioa: // locución verbal: **-en baitan egon:** -en esku egon, menpe egon: // depender de, estar en mano de: **hori lortzea ez dago nire baitan:** el lograr eso no depende de mí, no está en mi mano; **erreal baten baitan zaude tratua egiteko?:** ¿estáis a expensas de un real para cerrar el trato?; **haren baitan egon behar badugu, jai daukagu!:** si nos dependemos de ése, ¡estamos apañados!; **zure baitan dago hartzea edo uztea:** el cogerlo o dejarlo depende de ti]; **berak dira bere baitan asko klar eta ozen** (Axular): ellos son de suyo (de por sí) bastante claros y sonoros

- **ene baitara:** (con dirección) a mí; **eguzki kizkalgarriak korde gabe uzten du; eltxoek bere baitara bihurtzen dute:** el sol achicharrador le deja sin sentido; los mosquitos le vuelven a su ser, en sí; **bere baitara bildurik:** enroscándose en sus adentros; **bere baitara bihurtu zenean, bakarrik zeuden:** cuando volvió en sí (recuperó el sentido), estaba solo; **bere baitara itzulirik, erran zuen...:** viniendo a su ser, dijo; **entrando en sí mismo, dijo...;** **bere baitarako ari zela:** hablando para sus adentros, para sí; **gaur ez naiz zure baitarako:** hoy no estoy para ti; **ez du zure baitarako ekarririk:** no siente inclinación hacia ti;
 - **ama(ren) baitarik:** (venir) de la madre; **bere baitatik utzi dio erretzeari:** ha dejado de fumar por su voluntad, espontáneamente, por sí mismo; **bere baitarik du gizonak gauzen jakin nahia:** el deseo de saber es innato al hombre (el hombre el deseo de saber lo tiene de por sí); **norbait bere baitarik atera** (onetik atera): sacarle a uno de quicio; **ez da bere baitarik gaiztoa:** no es malo por naturaleza (de por sí, en sí mismo); **ez du inork manatu, bere baitarik mintzo da horrela:** nadie le ha ordenado, habla así por su voluntad, espontáneamente
2. Significado: «casa»; «donde», «en casa de», «en el sitio de», «del lugar de...», etc.
- **Urkixo baita** (Urkixoenea): morada de Urkixo; **etxe hori Martin baita deitzen da:** esa casa se denomina la casa de Martin
 - **Manex baitan izan nintzen:** estuve donde Manex; **adiskidearen baitan egon naiz:** he estado en casa de mi amigo
 - **anaia baitara doa:** va a la casa del hermano
 - **medikuaren baitarik heldu naiz, haren baitara joana bainaz eta haren baitan luzaro egon bainaz:** vengo de donde el médico, pues he ido donde él y he estado por largo tiempo donde él; **prefetaren baitarik ez**

dakit zein hoteletara tarrapatan eraman dutela: que le han llevado con urgencia de la casa del prefecto (de donde el prefecto) a no se qué hotel

BANDA «lado», «zona», «parte», «costado»; (itsas hizkera / terminología marinera) «rota», «derrota», «rumbo».

Postposizio bezala <i>bandan</i> eta <i>bandatik</i> formak, behintzat, erabili ohi dira. Dagokion izen sintagnak <i>-ko</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-an</i> barrura, <i>-ko</i> norabidean; <i>kanpotik</i> , barrutik.	Como posposición se usan, al menos, las formas <i>bandan</i> y <i>bandatik</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia <i>-ko</i> . Significado: «rumbo a», «dirección a»; «por la parte de»
--	--

- **etxe**ko **bandan hartu** genituen **bost mila kilo antxo**a: rumbo a casa pescamos cinco mil kilos de anchoa; **jaien ostean, ateko bandan doazenean jendea ez da izaten herriko bandan datozenean bezain alai**: después de las fiestas, cuando van rumbo al mar la tripulación no suele mostrarse tan alegre como cuando vienen rumbo a casa; **ateko bandan**: rumbo al mar (lit. rumbo a fuera); **etxe**ko **bandan edo herriko bandan**: rumbo al puerto, a casa, al pueblo; hacia el puerto, hacia casa, hacia el pueblo
- **ateko bandatik, barruko bandatik**: por la parte de fuera (del mar), por la parte de dentro (del mar)

BANDO «bando», «facción», «partido», «grupo», «camarilla», «lado». Mendebaldeko euskalkietan. // Dialectos occidentales.

Postposizio bezala dagokion izen sintagnak <i>-(r)en</i> atzizkia hartu ohi du. ³ Esanahia: <i>-(r)en</i> alde, <i>-(r)en</i> fabore.	Como posposición va precedido de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «a favor de».
--	---

- **nork bere buruaren onean edo bando gezurra esatea**: el mentir en provecho o a favor de uno mismo; **hori zein onena den haren bando jartzen da beti, egundo ere ez makalaren bando**: ése siempre se pone a favor del mejor, nunca a favor del débil; **gure bando daudenek indarrik ez dute eta...**:

3

Sarasolak hau jartzen du: (zah.; beh.). Hitza edo adiera zaharkitua; hizkuntza mailaz behekoa den hitza. Jakina, Azkuek eta Akesosok aipatu ere ez dute egiten.	Sarasola pone: (zah.; beh.). Palabra o acepción anacrónica; como nivel lingüístico, palabra de bajo nivel. Como es natural, Azkue y Akesolo ni lo nobran.
---	---

como los que están a nuestro favor no tienen influencias...; **ez da agertu ez inoren bando ez inoren kontra, baina gero irabazlearen bando agertuko da**: no se ha manifestado ni a favor de nadie ni en contra de nadie, pero luego aparecerá a favor del ganador; **bikario batek esan zuen bera haren bando egingo zuela, hura bere herrikoa zuelako**: un bicario dijo que él haría a favor de aquél, porque ése era de su pueblo; **ni estropadak ikustera joatearen bando naiz**: yo estoy a favor de ir a ver las regatas

BARANO «alrededor». Zub. Sin.: inguru.

Postposizio bezala <i>baranoan</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagnak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: inguruan.	Como posposición se emplea la forma <i>baranoan</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual <i>-(r)en</i> . Significado: «alrededor de».
---	--

- **dantzatzea sua horren baranoan**: bailar alrededor de ese fuego; **ogi, gazta, ardo jan eta dantza, larrainaren baranoan**: comer pan, queso, vino y bailar alrededor de la era

BARIK (*bagarik* hitzaren kontrakzioa // Contracción de *bagarik*) «sin». Bizkaierazkoa. // Dialecto B. Sin.: gabe.

Aurretik joan daiteke: a) absolutu mugagabea. b) absolutu mugatua. (Beheko 2) eta 3) esanahietan). c) aditzaren era burutua. Esanahia: 1) gabe. 2) <i>-(r)en</i> orde, beharrean, gabe. 3) baino lehenago, arinago. 4) 'badaezpada ere'.	Precedido de: a) absoluto indeterminado. b) absoluto determinado. (Significado 2) y 3) de abajo). c) participio. Significado: 1) «sin». 2) «en vez de», «en lugar de», «no». 3) «antes de». 4) «no sea que», «no».
--	--

1. gabe: // «sin»:
- **Julene, gure haurra, gurean lo egin behar duenean, ez da inoiz ere pijama barik etortzen**: nuestra niña Julene, cuando tiene que dormir en nuestra casa, nunca viene sin pijama; **nora zoaz diru barik?**: ¿a dónde vas sin dinero?; **eta txapel barik eta liburu barik?**: ¿y sin boina y sin libro?; **nota on asko barik karrera amaitu zuen, baina inoren inbidia barik moldatzen da bizitzan**: terminó la carrera sin notas extraordinarias, pero se desenvuelve en la vida sin envidia de nadie; **neke handi barik heldu dira**: han llegado sin gran cansancio; **urrun barik eta luzaro barik**: sin alejarse y sin demora; **ezer esateko asmo barik**: sin intención de decir nada; **ogi barik bizi daiteke baina jan barik ez**: se puede vivir sin pan pero no sin comer; **prisa handi barik baina geratu barik**: sin prisas pero sin parar
- **isildu barik dihardu**: anda sin callarse; **berbetan isildu barik dihardu**: anda sin parar

de hablar; **erantzun barik ez da geldituko**: no quedará sin responderle; **ikustea joan eta ikusi barik etorri da**: ha ido a verle y ha vuelto sin verle; **ezer dastatu barik mahaitik jagi zen**: se levantó de la mesa sin haber probado un bocado; **ez zara ogeratuko**, **egunero zerbait ikasi barik**: no te acostarás sin haber aprendido algo nuevo

2. -(r)en ordez, beharrea, gabe: // «en vez de», «en lugar de»; «no»:

- **guk “hitz” barik “berba” esaten dugu**: nosotros en vez de “hitz” decimos “berba”; **Zakariasek aurten Sanjuanetan ardoa barik sagardoa hartu du**: Zacarías este año en San Juanes en vez de vino se tomó sidra; **intxaurrek barik kerizak jango ditugu**: en lugar de nueces comeremos cerezas; **zuk barik berak egin dezala**: en lugar de hacerlo tú, que lo haga él; **hori barik, hura gurago dut**: en vez de éste, prefiero aquél
 - **isilik egon barik, erantzuten jardun zuen**: en vez de callarse, continuó respondiendo; **dena jan barik orain, hobe zenuke gerorako zerbait gordeko bazenu**: en lugar de comer todo ahora, mejor harías en guardar algo para después; **Kontxako estropadetara itsasoz joan barik, lehorrez joango gara**: a las regatas de la Concha en vez de ir por mar, iremos por tierra; **autoz joan barik, autobusez joan da**: en vez de ir en coche, ha ido en autobús
 - **urrun barik** (ez urrun): no lejos; **luzaro barik** (berehala): a no tardar
3. baino lehenago, arinago: // «antes de»:
- **hirurak barik ez zaitzte hona etorri, deitu zigun leihotik**: hasta las tres no se viene aquí, nos gritó desde la ventana; **hogeita lau urte barik abade egin zen**: se ordenó antes de los veinticuatro años; **hirurak barik ez zaizu etorriko**: no te vendrá antes de las tres; **uztailaren bederatzia barik ez dute aurtengo estropadetako egutegia osatu. Bapo!**: el calendario de las regatas de este año no la han ultimado antes del nueve de julio. ¡Estupendo!; **astelehena barik ez dut amaituko**: no terminaré antes del lunes
 - **bazkaria amaitu barik, mahaitik jagi zen**: se levantó de la mesa antes de terminar de comer; **ez zaizu ogeratuko, aurretik pentsatutako 99. orrialdekoa irakurri barik**: no se acostará antes de terminar de leer lo de la página 99, prevista de antemano; **ebakuntza amaitu barik hil dira ahizpa si amdarrak**: las hermanas siamesas han muerto antes de terminar la operación

4. «no sea que», «no» [tras participio, con valor de imperativo o advertencia]:

- **Julene, jausi barik!**: ¡Julene, cuidado, no te caigas!; **Julene, zoaz geldiro, jausi barik!**: ¡Julene, vete despacio, no sea que te caigas!; **aizu, tontakeriarik esan barik!**: ¡oye, tú, no me vengas con tonterías!; **txo, uretara jausi barik, kendu hortik!**: ¡chiquillos, apartaos de ahí, no sea que caigáis al agua!

OHARRA: // ADVERTENCIA:

<i>Barik</i> -dun perpausak ezezkoak direnez, <i>inor</i> , <i>ezer</i> , etab. erabiltzen dira <i>norbait</i> , <i>zerbait</i> , etab.en ordez.	Como las oraciones con <i>barik</i> son negativas, se emplean <i>inor</i> , <i>ezer</i> , etc. en vez de <i>norbait</i> , <i>zerbait</i> , etc.
--	---

- **inork hitzik atera barik**: sin que nadie chistara ni una palabra; **ezer esan barik gelditu**: quedarse sin decir nada; **ezeren nahaste barik**: sin mezcla de nada; **etxetik atera zen inor ohartu barik**: se ausentó de casa sin que nadie lo notara; **beste inor barik**: sin ningún otro; **ezer barik**: sin nada; **inor barik**: sin nadie; **bera bakarrik etorri da, inork lagundu barik**: ha venido solo, sin que nadie le acompañara; **hor dago ezertan sartu barik eta ezeri ekin barik**: ahí está sin meterse en nada ni ocuparse en nada

BARNA a) Sin.: gaindi, zehar. b) Sin.: barru, barne.

Postposizio bezala <i>barna</i> forma bera erabili ohi da. Lekua eta denbora adierazten ditu. Esanahia bikoitza da: 1. -an barrrena, -an zehar...: batez ere Ipar. 2. -(r)en barnean, barruan. Dagokion izen sintagmak, batez ere, <i>-an</i> eta <i>-tik</i> atzizkiak hartu ohi ditu, eta baita <i>-(r)en</i> atzizkia edota \emptyset marka ere. (<i>-an barna</i> (mendian <i>barna</i>) hedatuagoa da <i>-tik barna</i> (menditik <i>barna</i>) baino).	Como posposición se emplea la misma forma <i>barna</i> . Indica lugar o tiempo. El significado es doble: 1. «por», «a través de»: sobre todo en Ipar. 2. «en», «dentro de». «en el interior de». Y se emplea generalmente precedida del caso inesibo <i>-an</i> o ablativo <i>-tik</i> , y también del genitivo <i>-(r)en</i> e incluso caso \emptyset . (<i>-an barna</i> (mendian <i>barna</i>) se usa más que <i>-tik barna</i> (menditik <i>barna</i>)).
--	--

- 1.
- **mendeetan barna**: a través de los siglos; **munduan barna ibili**: andar por el mundo; **basoan barna joan zineten**: fuisteis a través del bosque; **ez dut maite herrietan barna pasatzea**: no me gusta pasar por los pueblos (a través de los pueblos); **iragan ziren ereintzetan barna**: pasaron a través de los sembrados; **lur goldatu gabean barna**: a través de un terreno sin labrar; **amets bideetan barna**: por los caminos de ensueño; **Durangoetik atera zen eta Gipuzkoan barna Arabara jo zuen**: partió de Durango y a través de Gipuzkoa llegó a Araba; **bere ahaide eta**

adiskideak negarrez utzirik, joan zen bere lagunekin itsaso beltzean barna: dejando llorando a sus parientes y amigos, se fue con sus amigos por el proceloso mar; **urtean barnako igandeak:** «dominica per annum», (= urtean zeharreko igandeak): domingos ordinarios durante el año

- **mendietatik barna etorriko zara?:** ¿es que vas a venir por (a través de) las montañas?;
- **mendeetatik barna:** a través de los siglos
- **kalea barna zihoan:** iba por la calle; **toki agor batzuk barna:** por unos lugares estériles; **hemen barna:** por aquí; **han barna:** por allí

2. *-an barna* forma eskuarki:

- **hirian barna sartu ginen:** entramos en la ciudad (dentro de, en el interior de la ciudad); **gure baitan barna:** dentro nuestro, en nuestro interior; **Donostian barna:** dentro de Donostia; **tristura sartu zitzaidan neure espirituan barna:** me entró la tristeza dentro de mi espíritu; **begian barna egin du ezbeharra:** ha hecho una avería en el ojo, dentro del ojo;
- [Ez dut *-ren barna* formako adibiderik aurkitu. Baina bai *-ren barrenean*. / No he encontrado ningún ejemplo con la forma *-ren barna*. Pero sí *-ren barrenean*: **zapata batzuk eraman zituen... agindurik zapatagileari, denbora gutxiren barrenean ordainduko zizkiola:** llevó unos zapatos a su casa, prometiendo al zapatero que dentro de poco tiempo se los pagaría. Haugatik guztiagatik, *barren* hitza postposizioztat hartuko dut. // Por todo ello, la palabra *barren* la voy a tratar como posposición].

BARNE «interior», «lo de dentro».

<p>Bi erabilera:</p> <p>1. Gehienetan leku kasu atzizkiez, postposizio bezala ager daiteke aurretik <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma duela. Batzuetan atzizki hau eta mugatzailea gal ditzake. Partitiboa, <i>-(r)ik</i>, ere hartzen du.</p> <p>Esanahia: barru, barruan, barrura, barrutik...; barru, honenbesteko epean.</p> <p>2. “ere bai”, “baita”, “baita... ere”, “barru” esanahian, dagokion izenaren ondo-ondotik.</p>	<p>Doble empleo:</p> <p>1. Generalmente con desinencias de lugar, puede aparecer en posposición precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>, que a veces se elide y también el determinante. También precedida del partitivo <i>-(r)ik</i>. Significado: «dentro», «en el interior», «a dentro», «del interior»...; «dentro», «en el plazo de».</p> <p>2. Significando “incluido”, “inclusive”, “incluso”, precedida del sintagma nominal al que hace referencia.</p>
--	--

1.

- **denbora, urte... laburrik barne** (Ipar.) (= denbora, urte... gutxi barru): dentro de poco

tiempo, dentro de pocos años...); **bost egunik barne helduko da:** llegará dentro de cinco días

- **areto berriaren barnean:** en el interior de la nueva sala; **zuen etxe(aren) barnean:** dentro de vuestra casa; **etxe txikiaren barnean:** dentro de la casa pequeña, (inola ere ez : / de ninguna manera: ***etxe txiki barnean**); la mayoría de los grupos políticos que están surgiendo dentro de Irak son xiitas y sunitas; **azken kapituluaren barnean:** dentro del último capítulo; **Begoñaren barnean:** dentro de, en el interior de Begoña; **Irak barnean sortzen ari diren talde politiko gehienak xiita eta sunitak dira; denbora, urte... laburrik barnean** (Ipar.) (= denbora, urte... laburrik barne; denbora, urte... gutxi barru): dentro de poco tiempo, dentro de pocos años...);
- **leize barneko iluntasuna:** la oscuridad del interior de la cueva; **bere barneko kezkek:** sus preocupaciones íntimas; **eliz barneko eztabaidak:** las discusiones internas de la iglesia, dentro de la iglesia
- **leize barnera eramateko:** para llevarlo al interior de la cueva
- **leize barnetik oihuka:** a grito pelado desde el interior de la cueva

2.

- **seme-alaba guztiak, txikiak barne:** todos sus hijos, incluidos los más pequeños; **abuztuaren hamalautik hamazortzira, egun biok barne:** desde el catorce al 18 de agosto, incluidos los dos días; **otsailaren zazpitik hogeira, hau ere barne:** desde el siete al veinte de Febrero, incluido también éste; **asteko** (astearren) **egun guztietan, igandea barne:** todos los días de la semana, el domingo inclusive; **Baiona ingurua, Hiriburu barne:** el entorno de Baiona, Hiriburu incluido; **bazkariak eta afariak prezio berean: 800 libera, ardoa eta kafea barne:** comidas y cenas al mismo precio: 800 francos, el vino y el café incluidos; **eguneko bazkaria 7 euro, BEZ barne:** el menú de día 7 euros, IVA incluido; **guztiok gara errudun, ni eta zu barne:** todos somos culpables, tú y yo incluidos.

BARREN «extremo inferior»; «parte de abajo», «bajo».

Postposizio bezala <i>barren</i> eta <i>barrenean</i> , <i>barrendik</i> formak erabili ohi dira.	Como posposición se usan las formas <i>barren</i> , <i>barrenean</i> , <i>barrendik</i> .
---	---

barren:

Dagokion izen sintagmak absolutu mugatua hartzen du. Esanahia: “ere bai”, “baita”, “baita... ere”, “barru”...	Precedido de un absoluto determinado. Significado: «inclusive»; «incluido», «incluso»...
--	---

- **apustuan dena galdu zuen, oraindik untziolan zegoen trainerua barren:** perdió todo en la apuesta, incluida la trainera que aún estaba en el astillero; **guztiak, Joxe barren:** todos, inclusive José

barreanean:

Dagokion izen sintagmak har dezake: 1) <i>(r)en</i> atzizkia, batzuetan berau gal dezakeela. Esanahia: a) barru, barruan, barnean. b) barru, honenbesteko epean. 2) absolutu mugatua. Esanahia: barru, barruan, barrutik, barnean...; “ere bai”, “baita”, “baita... ere”, “barru”...	Precedido de: 1) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: a) «dentro de», «en el interior de». b) «dentro de», «en el plazo de». 2) un absoluto determinado. Significado: «inclusive»; «incluido», «incluso».
---	--

1.
 - a):
 - **atal bakoitzaren barreanean dagoenari:** a lo que se encuentra dentro de cada pieza; **eliz barreanean:** dentro de la iglesia; **kanpora doanean diru handiak soineko galtzerdi barreanean gordetzen ditu:** cuando sale fuera los billetes grandes suele guardar dentro de uno de los calcetines que lleva puesto
 - **ez erre auto barreanean:** prohibido fumar dentro del coche; **tristura sartu zitzaidan neure espiritu barreanean:**
 - b)
 - **zapata batzuk eraman zituen... agindurik zapatagileari, denbora gutxiren barreanean ordainduko zizkiola:** llevó unos zapatos a su casa, prometiendo al zapatero que dentro de poco tiempo se los pagaría; **bost hilabeteren barreanean amaituko dut lan hau:** este trabajo lo terminaré dentro de cinco meses
 - **nik, behintzat, urte barreanean amaituko dut nirea:** yo, al menos, el mío lo terminaré dentro del año
2. **seme-alaba guztiak, txikienak barreanean:** todos sus hijos, incluidos los más pequeños; **asteko (astearen) egun guztietan, igandea barreanean:** todos los días de la semana, el domingo inclusive

barrendik:

Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du, batzuetan berau gal dezakeela. Esanahia: <i>-(r)en</i> barrutik, barnetik.	Va precedido de: un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: «de dentro de».
--	--

- **zuen barrendik uxatzeko:** para ahuyentar de vuestro interior
- **mahuka barrendik aterata:** sacándolo de dentro de la manga

BARRENA «parte interior»; «parte de abajo, inferior». Sin.: barru.

Postposizio bezala <i>barrena</i> forma bera erabili ohi da. Bi adiera ditu: 1. “Alde batetik bestera(ntz)” esanahia, gaindi, zehar. Eta dagokion izen sintagmak <i>-an</i> eta <i>-tik</i> atzizkiak hartu ohi ditu, edota salbuespen gisa kasu absolutua. 2. “Barruan”, “barnean” esanahia. Eta adiera honetan, dagokion izen sintagmak <i>-an</i> atzizkia hartu ohi du.	Como posposición se emplea la misma forma <i>barrena</i> . Tiene dos significados: 1. «por», «a través de», «a lo largo de». En este caso va tras un sintagma nominal con las desinencias <i>-an</i> o <i>-tik</i> , o excepcionalmente tras caso absoluto. 2. «en», «dentro de», «en el interior de». Y en este caso suele ir precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-an</i> .
--	--

1.
 - **hezurretan barrena:** por los huesos; **negarra bi matrailetan barrena dariola:** derramando lágrimas por las dos mejillas; **mundu guztian barrena ibili:** andar a lo largo de todo el mundo, por todo el universo; **oihanean barrena eraman zuen:** le llevaron a través del bosque, o hacia el bosque; **lagun gabe joan nintzen portuetan barrena:** me fui por los puertos sin compañía; **odola alkandoran barrena dariola:** le brota la sangre a través de la camisa; **kalean barrena ibili:** andar por la calle; **lehorrean barrena baino itsasoan barrena lehenago helduko zara:** arribarás antes por mar que por tierra; **hidrohegazkina itsasoan barrena nahiz airean barrena mugitu daiteke:** el hidroavión se puede mover tanto por mar como por el aire; **autopistan barrena baino herrietatik barrena pasatzea gogokoagoa dut:** prefiero pasar a través de los pueblos que viajar por la autopista; **toki alai argitsu batzuk barrena:** a través de unos parajes alegres y claros; **Amerikan barrena joan da:** ha cruzado a través de América; **azken bost urteotan barrena behin baino ez dugu elkar ikusi:** durante estos cinco últimos años sólo nos hemos visto una vez; **hor barrena abiatzeko:** para encaminarse por ahí;

Euskaltzaindia batasun bideetan barrena abiatu zenean: cuando Euskaltzaindia se puso en marcha por los caminos de unificación

- **Amorotora ikustaldi bat egitera joan nintzen Milloitik barrena:** me fui a Amoroto a hacer una visita a través de Milloi

2.

- **bihia lurrean barrena gorde zuen:** guardó el grano en el interior de la tierra; **nik ere zenbait aldiz idatziko dut alde batera liburuan barrena, eta beste aldera liburuaren bazterrean:** así yo también algunas veces las escribiré de una manera *en el texto del libro* y de otra en el margen; **kofoinaren barrena eta kofoinan barrena ez dira gauza berbera:** no es lo mismo el interior de la colmena que en el interior (dentro) de la colmena; **itsasontzi batean barrena:** dentro de un barco; **etxean barrena** (etxe barnean, etxe barruan): dentro de la casa; **sar zaitetz ene baitan barrena:** éntrate dentro de mí; **zeren gu munduan barrena sartuak gabiltza:** porque nosotros andamos metidos en el mundo; **bihotzean barrena darabiltzala:** rumiándolos dentro de mi corazón; **gaur egun hirietan, etxean barrena ezin duzu oilorik eta txerririk hazi:** hoy en día en las ciudades, no puedes criar gallinas ni cerdos en (dentro de) casa; **eta txakurretatik bat usatu zuen beti ere etxean barrena:** y a uno de los perros lo acostumbró siempre dentro de casa. ⁴

BARRU «interior», «(lo) de dentro». Bizkaierazko euskalkiaren ekarpena / Aportación del dialecto B.

<p>Postposizio lezala, <i>barruan</i>, <i>barruko</i>, <i>barrura</i>, <i>barrutik</i> formak erabili ohi dira, eta denbora epe bat adierazten duen hitz edo esaldi baten ondoan <i>barru</i> forma bera. Kasu honetan dagokion izen sintagmak Ø marka hartzen du. Besteetan, <i>-(r)en</i> atzizkia hartu ohi du, eta batzuetan atzizki hau eta mugatzailea gal ditzake. Gainera, <i>barru</i> formak bi adiera ditu. Ikus behean, adibideetan.</p> <p>Esanahia: barnean, barneko, barnera, barnetik; “ere bai”, “baita”, “baita... ere”, “barru”; barru, honenbesteko epean. // «dentro de», «en el plazo de»</p>	<p>Como posposición se emplean las formas <i>barruan</i>, <i>barruko</i>, <i>barrura</i>, <i>barrutik</i>, y junto a una palabra o frase que exprese un plazo de tiempo se emplea la misma forma <i>barru</i>. En este caso va precedida de un sintagma nominal con la desinencia Ø. Y en los demás casos, va tras un sintagma nominal con la desinencia <i>(r)en</i>, que a veces se elide. Además, la forma <i>barru</i> toma dos significados. Ver abajo, en los ejemplos.</p> <p>Significado: «dentro de», «interior», «de dentro de», «a dentro», «hacia dentro», «desde dentro de»; «incluido», «incluso», «inclusive»; «dentro de», «en el plazo de».</p>
--	--

1. absoluto mugagabea + *barru*:

Esanahia: a) *-ren* buruan. b) “ere bai”, “baita”, “baita... ere”.

Significado: a) «dentro de», «en el plazo de». b) «incluido», «incluso», «inclusive»

a)

- **hiru egun barru piztuko zara:** resucitarás al tercer día, dentro de tres días; **ordu gutxi barru helduko da:** llegará dentro de unas pocas horas; **ordu bete barru, aste bete barru:** dentro de una hora, dentro de una semana; **hilabete barru hemen izango dugu berriro:** dentro de un mes lo tendremos de nuevo aquí; **bi urte barru bukatuko du lana:** terminará el trabajo dentro de dos años; **hiru egun barru elurra egingo omen du:** dicen que va a nevar dentro de tres días; **ordu txiki barru:** dentro de una horita

b)

- **astelehenetik ostegunera, hau ere barru (dela):** desde el lunes a jueves, incluido éste

2. *-(r)en barruan*:

Esanahia: a) barnean. b) eskuan, helmenean.

Significado: a) «dentro de», «en el interior de». b) «al alcance de».

a)

- **arau berrien barruan:** dentro de las nuevas normas; **zure zaurien barruan gorde nazazu:** guárdame dentro de tus llagas; **kanpora doanean diru handiak soineko galtzerdiren**

4

Gaur egunean <i>etxe barnean</i> edo <i>etxe barruan</i> esaten da eta ez <i>etxean barrena</i> .	Hoy en día para decir «dentro de casa» decimos <i>etxe barnean</i> o <i>etxe barruan</i> , <i>etxean barrena</i> .
---	--

baten barruan gordetzen ditu: cuando sale fuera los billetes grandes suele guardar dentro de uno de los calcetines que lleva puesto

- **etxe barruan dago:** está dentro de casa; **askatasunaren eremu barruan bertan:** en la mismísima esfera de la libertad; **ziur gaudela Xabierrek espetxe barruan desira asko izango dituela:** que estamos seguros que Xabier tendrá muchos deseos dentro de la cárcel; **ikasturte barruan ez duzu ikasi eta gero oporraldian bai?:** no has aprendido durante el curso (dentro del curso) y, luego, ¿piensas aprenderlo en tiempo de vacaciones?; **han barruan:** allí dentro

b)

- **begi barruan:** al alcance de la vista; **harri barruan dago:** está a tiro de piedra; **urlia aspaldian (etxe) barruan dugu:** fulano últimamente está retirado, no sale de casa por enfermo (o por agorafobia...)

3. *-(r)en barruko:*

Esanahia: barneko

Significado: «de dentro de», «interno».

- **elkarren barruko ginen:** éramos íntimos (amigos)
- **txalupa barrukoak kontuak:** asuntos (internos) de los tripulantes, concernientes a los tripulantes; **lur barrukoak sar-irtenbide izan zedin:** para que fuera lugar de embarque y desembarque de los de tierra adentro; **txalupa barruko kontuak:** asuntos internos del barco; **etxe barruko auziak:** problemas internos de casa; **urte barrukoak dira:** son del mismo año

4. *-(r)en barrura, -an barrura:*

Esanahia: barnera. // Significado: «a dentro de», «hacia dentro de».

- **lapiko barrura bota:** sumergir dentro del caldero; **etxe barrura sartu da:** ha entrado dentro de casa; **bere barrurako esan zuen:** lo dijo para sí (para su interior, para sus adentros)
- **hirian barrura jo genuen:** nos dirigimos hacia el interior de la ciudad; **Deban barrura hartu genuen (Debako banda):** nos pusimos rumbo (hacia) a Deba

5. *-(r)en barrutik:*

Esanahia: barnetik.

Significado: «desde dentro de»

- **bihotzaren barru-barrutik:** desde lo más recóndito de mi corazón

BE, BEHE edo PE: «suelo», «parte baja».

Gaur egun <i>zolu, zoru, lurzoru...</i> adieran <i>behe</i> idazten dute denek eta gibel hitz gisa <i>-pe</i> atzizkia erabiltzen dute. Haugatik, ikus BEHE eta PE. Behin batean, ez dakit non, <i>beheak behera</i> irakurri nuenean, loka gelditu nintzen, ez nuen beronen esanahia hartu. Eta pentsatzen hasita edo testuingurutik-edo, behar bada nolabait ezaguna nuen “ <i>beak bera</i> ” izan zitekeela berau otu zitzaidan: ‘aldapa(n) behera’, edo horrelako zerbait. Esan nahi da, hitz hau eta deklinabide osoan, <i>behe</i> idazten dutela denek.	Hoy en día en el significado de «suelo», «parte baja», «abajo», todos lo escriben <i>behe</i> y en composición como segundo elemento lo usan el sufijo <i>-pe</i> . Por lo tanto, ver BEHE y PE. Cuando leí, no recuerdo en dónde, <i>beheak behera</i> , me quedé en suspenso, no cogí su sentido. Y por reflexión o por el contexto, me dije que podría ser “ <i>beak bera</i> ”, que sí me sonaba: ‘cuesta abajo’, o algo así. Quiero decir, que esta palabra y en toda su declinación, ya la escriben <i>behe</i> .
---	---

BEGI «ojo».

Postposizio bezala <i>begira, begitan, begitako</i> forma mugagabeak erabili ohi dira.	Como posposición se emplean las formas indefinidas <i>begira, begitan, begitako</i> .
--	---

Begira: Adiera bikoitza: 1) so eginez. 2) zain, itxaroten. Sin.: beha, zain, aiduru.

Doble significado: 1) «mirando». 2) «esperando», aguardando».

Dagokion izen sintagmak har dezake: 1) adlatiboko (e)ra atzizkia. 2) datiboko (r)i atzizkia. (Izena bizidunentzat jotzen denean). Esanahia: so eginez.	Precedido de un sintagma nominal con la: 1) desinencia (e)ra del adlatibo. 2) desinencia (r)i del datibo. (Cuando el nombre se concibe como ser animado). Significado: «mirando».
--	---

Adibideak:

1. Adlatiboa + *begira*:

- **etxera begira, kanpora begira:** mirando a la casa, mirando (a) fuera; **gariak etxera begira daude:** la mies está presta para ser segada; **lurrera begira:** mirando hacia la tierra; **zerura begira:** mirando al cielo; **gora begira zegoela:** estando mirando hacia arriba.

leihotik begira esamoldean, <i>norabaitera</i> suposatzen da. Hau da: leihotik (norabaitera) begira.	En la expresión leihotik begira , se presupone algo así como <i>norabaitera</i> (hacia alguna parte). Esto es: leihotik (norabaitera) begira: mirando de la ventana (a alguna parte).
---	---

2. Datiboa + *begira*:

- **herriari begira**: mirando al pueblo; **zerbaiti begira**: mirando a algo; **zuri begira gelditu da**: se ha quedado mirándote; **ontzen oihuari begira**: mirando al canto de las lechuzas; **aho zabalik zuri begira gelditu da**: se ha quedado mirándote con admiración; **bata besteari begira**: mirando mutuamente, el uno al otro; **elkarri begira jarrita**: puestos a mirarse el uno al otro; **ekimena berria, simplea eta publiko zabalari begira eginikoa da**: es una iniciativa nueva, sencilla y mirando a una amplia gama de personas; **opari hau zure amaren maitasunari begira ematen dizut**: te hago este regalo en consideración al amor de tu madre

Eta oso erabilia da esamolde hau ere: <i>begira egon</i> : zain egon, itxaroten egon.	También es muy usual la expresión: <i>begira egon</i> : «estar aguardando», «estar a la espera».
---	--

Dagokion sintagmak har dezake: a) genitiboko <i>-(r)en</i> atzizkia. b) leku genitiboko <i>-ko</i> atzizkia c) datiboko <i>-(r)i</i> atzizkia. Gaur egun azken hau (<i>(r)i</i>) datiboa) erabiliagoa da.	Va precedida de un sintagma con las desinencias del: a) caso genitivo <i>-(r)en</i> . b) genitivo locativo <i>-ko</i> . c) dativo- <i>(r)i</i> . Actualmente se emplea más este último (el dativo <i>(r)i</i>).
---	---

Adibideak:

a) *-(r)en begira egon*:

- **erantzunaren begira zeuden, baina ez zuten hitzik aditu**: estaban esperando una respuesta, pero no escucharon ni una palabra; **bizkaibuzaren begira nengoela San Agustinen “actum est de manicheis” famatua otu zitzaidan**: estando esperando al bizkaibus, me vino a la mente aquella frase famosa de San Agustín “actum est de manicheis”; **Mikelen begira nago**: estoy esperando a Mikel; **zure begira**: esperándote; **aitaren begira gaude**: estamos esperando al padre; **Ninivitek... azken egunaren begira egon gabe...**: los Ninivitas... sin estar aguardando al último día...; **eztagoela bortxaren begira**: que nadie espere hasta verse constreñido; **kontuz, txo, ugasaba, zu kanporatzeko, egingo duzun hurrengo lehen hutsaren begira dago eta**: ten cuidado, muchacho, porque el patrono está aguardando al primer próximo fallo que hagas para despedirte; **azken egunaren begira egon gabe**: sin estar esperando al último día; **egizu egin behar duzuna besteak zer egingo duenaren begira egon gabe edota geroko begira egon gabe**: haz lo que tengas que hacer

sin esperar a lo que el otro pueda hacer o sin aguardar más tarde

b) *-ko begira egon*:

- **beste munduko begira egon gabe**: sin estar esperando al otro mundo; **biharko begira bazaude, bihar etzikoari begira irauteko arriskua duzu**: si estás aguardando al mañana, tienes el riesgo de permanecerte mañana esperando al pasado mañana; **horrela jokatu behar dugu egun beretik geroko begira egon gabe**: debemos obrar así desde hoy mismo, sin dejarlo para más tarde; **nola oraindik behar dugun, geroko begira egon gabe, ontasunean irautera entseatu (saiatu)**: que desde ahora, sin aguardar más tarde, debemos esforzarnos por permanecer en el bien; **eta berehala, geroko begira egon gabe**: y al punto, sin aguardar al futuro; **ez da zahartzeko begira egon behar**: no se debe aguardar a la vejez. ¹

-(r)i begira egon:

- **zuri begira eman dugu ordu bete**: hemos estado esperándote por una hora; **aitari begira gaude**: estamos a la espera del padre; **badago bego, / zapatatxo berrien / begira dago** (Tx. Agirre): si está que esté, está a la espera de unos zapatitos nuevos; **hemen nago Joni begira kafea hartu eta frontoira joateko. -Ba, bera Marixanean dago zeuri begira horretarakoxe. -Gaizki ulertzeren bat izan dela uste dut**: aquí estoy aguardando a Jon para tomar café e ir al frontón. -Pues, él está donde Marixa esperándote para lo mismo. -Creo que ha habido un malentendido

Gaur egun, gorago ere esandenez, datiboa erabiltzeko joera zabalagoa da, beharbada, gure artean <i>begiratu</i> aditza <i>dio</i> formakoa delako. Hona beste zenbait adibide:	Hoy -como ya se ha dicho- está más generalizado el recurrir al dativo, tal vez porque el régimen del verbo <i>begiratu</i> entre nosotros se hace con dativo. Véanse estos otros ejemplos:
--	--

- **ez zaitzela... munduko etxe eder honi begira liluraturik gelditu**: no os quedéis alucinados mirando a esta hermosa casa mundana; **zer mundu guztiari gertatuko zaion begira daudela**: que están mirando a lo

1

<i>zahartze</i> hau ‘izena’ da «zahartza», eta leku genitiboko <i>-ko</i> gabe edutezko genitiboko <i>-aren</i> atzizkia ere jarri ahal zaio. Berdin gertatzen da <i>munduko</i> , <i>geroko</i> adibideekin ere.	Este <i>zahartze</i> es un nominal «la vejez», y se le puede aplicar el sufijo <i>-aren</i> del genitivo posesivo en lugar de la desinencia <i>-ko</i> del genitivo locativo. Lo mismo pasa en los ejemplos <i>munduko</i> , <i>geroko</i> .
---	--

que al mundo entero le va asuceder; **Euskaltzaindia aberastasanari begira dago beti, garbitasanari baino gehiago:** Euskaltzaindia siempre está mirando más a la riqueza (abundancia) que a la pureza; **ibai gaineko zubiari begira:** mirando al puente que está sobre la ría

El jurista y euskaltzale bizkaitarra Nazario Oleaga distinguía, por lo visto, entre *lanari begira egon* y *lanaren begira egon*. Mitxelena hace mención a la práctica, un tanto insólita, de Nazario Oleaga y dice: “*Kanpokoan lanari begira egon behar genuke. Ez, ordea, alferkerian eta, Oleaga zenak esaten zuen bezala, haien lanaren begira* (Euskera, 1976, 160). Parece que juega con dos matices distintos: «mirar» en sentido de hacer caso (*Kanpokoan lanari begira egon*) y «esperar», estar en una espera indolente y pasiva (*haien lanaren begira egon*).

Eta *-(r)en begira egon* delakoaren beste esanahi bat ere aipatu behar da: zain, jagoten. // También hay que mencionar otra «cuidando». acepción del *-(r)en begira egon*:

- **ardien begira zegoen artzaina:** el pastor estaba cuidando las ovejas; **zein gure begira baitago alboan:** el cual está al lado para custodiarnos

Kristau ikasbide batean **zoin gure begiran baitauku begiran** forma: **aldirian:** al cual tenemos al lado para custodiarnos.
En un catecismo la forma **begiran:**

begitan: Esanahia: *-(r)en iritziz, -(r)en arabera.* // Significado: «a ojos de», «según la óptica u opinión de».

-(r)en begitan

- **zoragarria zen mendia haren begitan:** el monte era encantador a los ojos (en opinión) de él; **hona hemen zer izan den eta zer den Arantzazu, Aita Mitxelenaren begitan:** he aquí lo que ha sido y lo que es Arantzazu a los ojos (en opinión) del P. Mitxelena.

begitako: Esanahia: *-(r)en ustez.* // Significado: «apreciación», «modo de ver », «opinión », «punto de vista».

-(r)en begitako

- **hau marka! Nire begitako hau gaizki dago eta zure begitako ongi dago, eta biotatik inork ez dugu betaurrekorik:** ¡esto sí que es! En mi opinión esto no es correcto y según tu punto de vista es correcto, y ninguno de los dos usamos gafas; **nire begitako oraingoa handiago da lehengoa baino:** en mi apreciación el de ahora es mayor que el anterior; **nire begitako lehengoak hobek**

oraingoak baino: en mi opinión los de antes eran mejores que los actuales

BEHA Ekialdeko euskalkietan erabilia // Usado en los dialectos orientales.

Begira postposizioaren esanahi, joskera, etab. berbera du. / Tiene idéntico significado, régimen, etc. que *begira*.

Postposizio bezala:	Como posposición:
1. “begira”, “so” adieran, dagokion sintagmak <i>-(e)ra</i> edo <i>-(r)i</i> atzizkia hartzen du.	1. significando «mirando», el complemento toma la desinencia <i>-(e)ra</i> o <i>-(r)i</i> .
2. “erne”, “adi”, “arretatsu” esanahian, dagokion sintagmak <i>-(r)i</i> atzizkia hartzen du.	2. significando «atento», «escuchando», el complemento toma la desinencia <i>-(r)i</i> .
3. “itxaroten”, “zain”, “aiduru” adieran, dagokion sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du.	3. significando «esperando», «aguardando», «a la espera», el complemento toma la desinencia <i>-(r)en</i> .

1.

-(e)ra beha: «mirando».

- **esker eta eskuinera beha:** mirando a derecha e izquierda; **itsasora beha aspertzeke:** mirando al mar incansablemente; **zeren orduan baitaude geldienik (usoak) urera beha:** pues se encuentran quietas (*las palomas*) mirando al agua; **ez naiz ohartu, une hartan beste aldera beha nengoen eta:** no me he dado cuenta, en aquel momento estaba mirando a otro lado

-(r)i beha: «mirando».

- **Aiorari beha gelditu zen:** se quedó mirando a Aiora; **zerbaiti beha egon:** estar mirando algo; **itsasoari beha aspertzeke:** mirando al mar incansablemente; **ez gaude beti elkarri beha, baina geroari begi berarekin behatzen diogu:** no estamos todo el rato mirándonos, pero miramos al futuro con la misma mirada; **Adunari begira nengoen:** estaba mirando a Aduna; **guztiak beha egon zaizkiola:** que todos han estado mirándole; **begiak finkaturik eta landaturik, emaztearen begiei, begitarteari, gorputzari, edertasunari eta ibilguneari beha egote hark:** este estar con los ojos fijos y clavados a los ojos de la mujer, al rostro, al cuerpo, a la hermosura y porte; **Mattini beha dihardu:** está ocupado en mirar a Mattin; **bi begiez guri beha eta beha:** mirándonos absorto (con sus dos ojos clavados en nosotros mira que te mira); **eta guztietan enperadore eroa hortzak hirriturik, irriz, beha zegokan:** y a todo esto el bobo del emperador la estaba mirando, mostrando los dientes, riéndose

2.

-(r)i beha: «atento», «escuchando».

- **ematen dizkidazun azalpanei beha behar dut egon:** tengo que atender a las explicaciones que me des; **esaten dizutenari beha egon behar duzu:** tienes que estar atento a lo que se te dice

3.

-(r)en beha: «esperando», «aguardando», «a la espera».

- **Adunaren beha nengoen:** estaba esperando a Aduna; **etorri behar den mezulariaren beha:** esperando al mensajero que tiene que venir; **zerbaiten beha egon:** estar aguardando a algo, a la espera de algo; **geldirik, eskupekoaren beha:** plantado, aguardando una propina; **han dago aireportuan urduri, bere lagunaren beha:** ahí está todo nervioso en el aeropuerto, esperando a su amigo; **ni Txokoan Jonen beha eta Jon Marixanean nire beha, ordu erdi bai eman genuen elkarri begira:** yo en el Txoko esperando a Jon y Jon donde Marixa aguardándome a mí, por lo menos sí estuvimos media hora esperándonos el uno al otro

BEHAR «necesidad». Sin.: premia

Postposizio bezala deklinatuta erabili ohi da. 1) Dagokion izen sintagmak, nahitaez, -(r)en atzizkia hartzen duela, ia gehienetan gal dezakeela berau. 2) Baita oso erabilia da bai aspekturik gabeko aditzoinaren ostean nahiz era burutuaren (partizipioaren) ostean. Ezezko perpausetan-eta, jakina, beharrik partitiboa erabili ohi da.	Como posposición funciona declinándose: 1) exigiendo que el nombre que le precede vaya en caso genitivo, -(r)en, el cual generalmente se elide. 2) Se emplea también muchas veces tras adjetivo verbal desnudo (radical), desprovisto de toda terminación o tras adjetivo verbal provisto de desinencia (participio). En las negativas, claro está, se usa el partitivo beharrik.
--	--

1. **beharra(k)** forma:

11.-(r)en + beharra(k):

- **atseden(aren) beharra dut:** tengo necesidad de descanso; **ukitu batzuen beharra du oraindik:** todavía tiene la necesidad de unos retoques; **gure beharrak betetzeko:** para satisfacer nuestras necesidades; **ohore beharra:** el que debe ser honrado, el que desea ser honrado; **lagunarte beharrak, aldakuntza beharrak piztu du zugan kanpora irteteko gogo:** la necesidad de compañía, la necesidad de cambio ha encendido en ti el deseo de salir fuera; **ez dut zure beharrik:** no tengo necesidad de usted; **ez dut horren beharrik ikusten:** no percibo necesidad de ello; **baduzu**

aholkuren beharrik?: ¿necesitas algún consejo?

-(z)eko beharra(k) foma ere aurkitu dut: // También he encontrado la forma -(z)eko beharra(k):

- **ez dago hortaz luzaz aritzeko beharrik:** no hay necesidad de tratar largamente sobre eso; **ez luke ez berriz haserretzeko beste abisuren beharrik:** no tendría necesidad de ningún otro aviso para no enfadarse;

1.2 aditz oina + beharra(k): // adjetivo verbal desnudo (radical) + beharra(k):

- **konfesa beharra du:** tiene necesidad de confesar; **hitz bat esan beharra dago:** es preciso hablar, decir algo; **handik alde egin behar izan zuen:** tuvo que irse de allí; **ez duela konfesa beharrik:** que no tiene necesidad de confesarse

1.3 aditz baten era burutua (partizipioa) + beharra(k): // adjetivo verbal provisto de desinencia (participio):

- **etorri beharrak nonbaitik heltzen dira:** las cosas que tienen que suceder llegan de cualquier sitio; **betikotasun betean murgildu beharrak artegatzen zuen Unamuno:** a Unamuno le inquietaba el tener que sumergirse en plena eternidad; **gure arteko arazoak konpondu beharra dago:** hay que (es necesario) arreglar nuestros problemas; **zorrak ordaindu beharra dauka:** debe (tiene el deber de) pagar las deudas; **zer gertatzen zaizun jakiteko ez du zu ikusi beharrik:** no tiene necesidad de verte para saber lo que te pasa; **esan beharrik ez dago:** no hay necesidad de decirlo; **ezer gehiago esan beharrik balego, jakinaraziko nizuke:** si hubiera necesidad de decir algo más, te lo haría saber; **guztiok dakigu zer egin beharrik garen:** todos sabemos qué debemos hacer

2. **beharrean** forma: Iparraldean: beharretan.

2.1 -(r)en beharrean: «en la necesidad de», «necesitando»; «a falta de», «por falta de»:

- **norbaiten beharrean aurkitzen naiz, ez zerbaiten beharrean:** me encuentro necesitado de alguien, no de algo; **nire beharrean bazaude, deitu:** si me necesitas, llámame; **janari(aren) beharrean daudenei laguntzea:** ayudar a los que necesitan comida (ayudar a los que están necesitados); **mediku beharrean ipini duzu:** le has dejado necesitado de atención médica; **zerbaiten arrimu beharrean:** en la necesidad de apoyarse en algo; **eta guztiz ere, baldin bere haserre hartan, ..., barberu beharrean inor ezarri badu:** y particularmente, si es que en su cólera, ..., lo ha puesto en trance de recurrir al médico; **hitz beharrean aurkitzen da:** se

halla en la necesidad de hablar; **lo beharrear zagoz**: necesitas dormir

- **norbait edo zerbait beharretan; norbaiten edo zerbaiten beharretan**: necesidad de alguien o de algo; **erriak mediku beharretan dira**: los enfermos están necesitados de médico, los enfermos necesitan médico

2.2 partizipioa + *beharrean*: «debiendo», «teniendo que», «en la obligación de»:

- **lan batzuk egin beharrean aurkitzen naiz (nago)**: tengo que hacer unos trabajos; **zigorra ezarri beharrean aurkitu zen**: se vio en la obligación de imponerle una sanción; **norbait hautatu beharrean, nor hautatuko zenuke?**: en caso de tener que elegir uno, ¿a quién le elegirías?; **elkar ulertu beharrean gaude**: estamos obligados a entendernos

2.3 partizipioa + *beharrean*: -tzeko zorian, aginean, aginik: // «a punto de»:

- **lehertu beharrean dut burua**: tengo la cabeza a punto de estallar; **barrez ito beharrean**: a punto de morirme de risa; **pozez zoratut beharrean**: a punto de enloquecer de alegría; **barrukoa kontatu beharrean gelditu zen**: estuvo a punto de contar lo que llevaba dentro; **zintzurra urratu beharrean**: a punto de desgañitarse; **ez zaitetz hortik pasa teilapea jausi beharrean dago eta**: no pases por ahí porque la tejavana está a punto de caerse

2.4 partizipioa + *beharrean*: asmoz. // «con la intención de», «con el propósito de», «a fin de»:

- **lana bukatu beharrean orduak sartu eta sartu ari da**: con el deseo de terminar su trabajo está metiendo horas a destajo; **amama, haurra ikusi beharrean, ez da lagunekin atera**: la abuela, a fin de ver a la niña, ni ha salido con las amigas; **adi-adi egoten nintzen esaten zuena entzun beharrean**: solía estar atentamente a fin de escuchar lo que decía

2.5 partizipioa + *beharrean*:

B eta G euskalkietan, <i>beharrean</i> partizipioaren ostean, <i>lekuan, ordean</i> esanahiaz erabili ohi da.	En los dialectos B y G, <i>beharrean</i> tras participio se emplea significando «en vez de».
---	--

- **hor egon beharrean zatoz barrura, barnera**: en vez de estar ahí (en lugar de estar ahí), ven a dentro; **konpondu beharrean, hondatu egin du**: en vez de arreglarlo, lo ha fastidiado; **bere balizara joan beharrean, inorenara joan da**: en vez de ir a su baliza ha ido a la de otro; **ikaskaia ikasi beharrean izarrei begira dago**: en vez de estudiar la lección, está mirando a las musarañas; **zure anaia egoera larrietan kikildu beharrean, hazi egiten da**:

tu hermano en situaciones de apuro en vez de amilanarse, se envalentona; **hori horri leporatu beharrean (leporatu behar bidean), benetako errudunari egotz iezaiozu**: en vez de cargar tal cosa a ése, impútaselo al verdadero culpable; **hondartzara joan beharrean mendira joango gara**: en vez de ir a la playa nos iremos al monte; **'manka' beharrean 'manga' ulertu zuen andreak eta egundoko iskanbila sortu zen**: en lugar de *manka* (pegar) la mujer entendió *manga* (robar), y se armó la mari morena; **idiak erasi beharrean, gurdiak (esr. zah., Oihenart)**: en vez de quejarse los bueyes, los carros {lo que ha de cantar el buey, canta el carro (refrán)} (=queja sin motivo)

Esanahi hau *behar bidean* formaz ere adierazten da: **hor egon behar bidean, zatoz barnera**: en vez de estar ahí, ven a dentro; **'atundu' jarri behar bidean 'agondu' jartzen du**: en vez de 'atundu' (arreglar), pone 'agondu' (incorporarse); **Virgiliorena dela esan behar bidean, Horaziorena dela esan du**: en vez de decir que era de Virgilio, ha dicho que era de Horacio

Lekuan, Ordean, Gabe, Barik ere esanahi berberean erabili ohi dira. // Se emplean también con el mismo sentido *Lekuan, Ordean, Gabe, Barik*.

3. beharrez forma:

3.1 *-(r)en beharrez*: «en la necesidad de», «necesitando»; «por la necesidad de»; «a falta de», «por falta de»:

- **atseden beharrez**: por necesidad de descanso; **bere beharrez etorri da**: su necesidad le ha traído; **labur beharrez**: por la necesidad de abreviar; **halako batean autoa gelditu zen gasolina beharrez**: de repente se paró el coche por falta de gasolina; **taldea estu dago puntuen beharrez**: el equipo está preocupado por falta de puntos; **irriz eta negarrez bihar ezkondu beharrez**: riendo y llorando por tener que casarse mañana; **jakin beharrez, burua hizketakide bien arten sartuta egon zer ioen entzuten**: con el apremio de enterarse, estuvo con la cabeza metida entre los dos interlocutores escuchando lo que decían

3.2 partizipioa + *beharrez*: «a punto de»:

- **beroa dela eta, birritan izan da ito beharrez**: a causa del calor ha estado dos veces a punto de ahogarse; **teilapea jausi beharrean dagoela esan didazu eta nik diotsut, teilapea ezeze etxea bera ere jausi beharrez dagoela**: me has dicho que la tejavana está a punto de caerse y yo te digo que, no solamente la tejavana sino que la misma casa está a punto de caerse

3.3 partizipioa + *beharrez*: «a fin de», «con el propósito de»; «pretendiendo»; «empeñándose (en)»:

- **barbarina harrapatu beharrez dihardu**: anda empeñado en pescar salmonete; **eta zu barbarinak enpanada eran jan beharrez zabiltza**: y tú andas empeñándote en comer salmonetes en empanada; **begiak itxita egoten nintzen jotzen zuten guztia jaso beharrez**: solía estar con los ojos cerrados a fin de captar todo lo que tocaban; **erorikoa bigundu beharrez**: con el propósito de amainar el golpe; **zu ikusi beharrez dabil**: anda queriéndote verte, anda empeñado en verte

3.4 zenbait adverbio eta izenondoren ostean: nahian, asmotan // Precedido de ciertos adverbios y adjetivos: «creyendo que»; «con la intención de»:

- **ondo beharrez egin du**: lo ha hecho con buena intención; **labur beharrez**: para ser breve

BEHE «suelo», «parte baja».

Postposizio bezala zenbait forma erabili ohi dira eta kasu atzizki desberdinak har ditzake, jarraian ikus ditzakegunez:	Como posposición reviste varias formas y puede recibir diversas desinencias casuales, como veremos a continuación:
---	--

1. **behean** forma: «bajo», «debajo».

1.1 absolutua + *behean*

- **hona hemen lekuko honek juramentu behean esaten duena**: he aquí lo que este testigo declara bajo juramento

1.2 genitibo + *behean*: (Bc: «bajo pena»).

- **heriotzaren behean Durangora joateko agindu zioten**: le mandaron, bajo pena de muerte, que fuese a Durango
- **gure behean bizi da**: vive en la bajera de nuestra casa, vive debajo nuestro

1.3 instrumentala + *behean*

- **Jaungoikoaz behean**: después de Dios, de Dios abajo

2. **beheiti** forma: Ipar. eta Nafar. Behera, beherantz. // «abajo», «hacia abajo».

2.1. Absolutua + *beheiti*

- **harria beheiti erortzen den bezala**: como la piedra cae abajo; **eria beheiti da**: el enfermo declina (va abajo); **ikusirik gure ahalak beheiti ari zirela**: viendo que nuestros medios iban declinando; **karrika beheiti eta karrika goiti aski ibili behar dute arizkundarrek**: los habitantes de Arizkun tienen que andar bastante calle abajo y calle arriba; **karrika goiti eta beheiti** (= kanean gora eta behera):

calle arriba y abajo; **hemen beheitiko edertasunak zituen maite**: prefería las hermosuras de aquí abajo; **¡dol beheitikoa**: flujo sanguíneo; **burutik beheitikoa** (burutik beherakoa): meningitis]

2.2 Inesiboa + *beheiti*

- **maldan beheiti**: cuesta abajo

2.3 Datiboa + *beheiti*

- **isil-isila bagoaz patar eztiari beheiti** (patar eztian behera): vamos silenciosos cuesta abajo suavemente (por la suave cuesta abajo)

2.4 Ablatiboa + *beheiti*

- **eskuineko karrikatik beheiti**: por la calle de la derecha hacia abajo; **behetik beheitiago zijoan**: cada vez iba más abajo (desde lo bajo iba más abajo); **leihotik beheiti bota zituen**: los arrojó de la ventana abajo

2.5 Instrumentala + *beheiti*

- **lan horri berari lotu diren jakintsuen izenak ematen dizkigu andana, Aristolelez beheiti**: nos da los nombres de los sabios que se han dedicado a ese mismo tema, (empezando) de Aristoteles para abajo.

3. **behera** forma: «(hacia) abajo».

3.1 Absolutua + *behera*

- **aldapa behera erori zen**: se cayó cuesta abajo; **aldapa behera erosoago egiten da bizikleta ganean**: en bicicleta cuesta abajo se hace más cómodamente; **erreka behera ura handi dator**: vienen aguas crecidas río abajo; **mendia behera lasterrez jaitsi zen**: bajó de prisa monte abajo; **ura behera**: corriente abajo; **eta gero, bere bekatua estaltzeagatik erreka behera egotzi baitzuen**: y luego, para ocultar su pecado, la arrojó río abajo; **erreka behera ura handi dator**: vienen aguas crecidas río abajo; **bota ditzagun mendiaren patarra behera euren buruen gainera**: lancemos cuesta abajo de la montaña (esas piedras) sobre sus cabezas; **artez behera edo arteza behera**: verticalmente, en vertical

3.2 Inesiboa + *behera*

- **aldapan behera erori zen**: se cayó cuesta abajo; **mendian behera harriak erortzen dira**: caen piedras monte abajo; **kanean gora, kanean behera**: calle arriba, calle abajo; **bazijoan leizetan behera**: ya iba por los abismos abajo; **eskaileretan behera jausi da**: se ha caído por las escaleras abajo

3.3 Datiboa + *behera*

- **abiatu zen mendi mazelari behera**: se encaminó por la ladera de montaña abajo

3.4 Ablatiboa + *behera*

- **aurpegitik behera malkoak mara-mara abiatu zitzaizkion:** le cayeron las lagrimas suavemente por la cara abajo; **menditik behera:** monte abajo; **haiek bai denborak, nezka eta mutil zubitik behera dzangadaka ibiltzen ginena!:** ¡hay aquellos tiempos, en los que los niños y las niñas andábamos saltando del puente abajo!; **burutik behera bota zion:** le vertió por la cabeza abajo; **behin batean Arkelao Erregeari, karrikan iragaiten zela, zenbait ur burutik behera jaurti zioten:** cierto día pasando por la calle el Rey Arquelao, le echaron ciertas aguas de arriba abajo; **goitik behera, gaindik behera eta behetik gora:** de arriba abajo y de abajo arriba; **ez dizut burutik behera kaka egiten utziko:** no te permitiré que abuses de mí; **eguzkiak eguerdian gaidik behera artez jotzen du eta arratsaldean saihetsetik:** el sol al mediodía pega de arriba abajo directamente, en cambio al atardecer de costado, de soslayo; **egotz zezala handik behera bere burua:** que se arrojava de allí abajo; **goitik beheraino:** desde arriba hasta abajo; [gainetik behereraino: de encima hasta abajo]

3.5 Instrumentala + *behera*

- **haren aurretik ihesi mendiz behera:** huyendo delante de él monte abajo; **maldaz behera zeramaten tatarrez:** lo llevaban a rastras (por la) pendiente abajo; **buruz behera gelditu:** quedarse cabeza abajo; **hogei urtez beherakoak:** los de veinte años para abajo; **gauerdiz behera:** después de media noche;

Mt 2, 16: eta igorri zuen... bi urthetarik beheitarako haur guzien hiltzera (Duvoisin) / bi urtetik bêrako aur guziak iltzeko agindu zun (Olabide) / urte birik beerako ume guztiak ilteko agindu eban (Kerexeta) / bi urtez azpiko haur guztiak hiltzeko agindu zuen (EAB) / Leizarraga: haur bi urtetako eta behereko guztiak: mandó matar a todos los niños de dos años para abajo

Leizarraga: ez du emanen hamarna soz beheretik

Magoengandik argitu zen mugaren arabera

- 4. **behetik** forma:

4.1 Absolutua + *behetik*

- **arro behetik errekek hots, euriteak bulartua:** el río, crecido (sucio) por la temporada de lluvias, retumba desde lo bajo del barranco

4.2 Instrumentala + *behetik*

- **hogeiez behetik baietz:** a que sí por debajo de veinte

BELDUR «miedo», «temor».

Postposizio bezala <i>beldurrez</i> forma erabili ohi da. Dagokion aurrekoak har dezake: 1) <i>-(r)en</i> atzizkia, tartean erlatibozko perpausa dela. 2) partizipioa. 3) aditz izena + <i>-ko</i> [- <i>t(z)eko</i>]. Esanahia: beldurrik, beldurraren.	Como posposición se emplea la forma <i>beldurrez</i> , significando «por temor de», precedida de: 1) caso genitivo, <i>-(r)en</i> ; incluyendo oración de relativo. 2) participio. 3) nombre verbal + <i>-ko</i> [- <i>t(z)eko</i>]. Significado: «de miedo», «por miedo», «temiendo».
---	---

1.

1.1

- **horren beldurrez:** por temor de eso; **inork ez zuen horrelakorik egiten, lagunen beldurrez:** nadie osaba hacer tal cosa, por miedo a los amigos; **beldurraren beldurrez:** por puro temor, de tanto miedo; **beldurraren beldurrez dardarka neukan gorputz guztia:** de tanto miedo que tenía me temblaba todo el cuerpo; **trafikoaren beldurrez ez du autorik atera:** por miedo al tráfico no ha sacado el coche; **amukozko buztana duenak, suaren beldur** (esr. zah.): el que tiene cola de esparto, (vive) con temor al fuego {quien tiene el rabo de paja, no se arrime a la llama (refrán)}

1.2

- **kartera lapurtuko ote zioten beldurrez, beti kolkoan sartuta eramaten zuen:** por miedo a que le robaran la cartera, siempre la llevaba metido en el seno; **aitonari begira, ezer somatuko ote zuen beldurrez:** mirando al abuelo, por temor a que sospechara algo; **gaizki egingo duen beldurrez, ez du hitzik egiten:** no habla por miedo a hablar mal; **berriro bila etorriko zaizkidan beldurrez:** por temor a que de nuevo vengan a buscarme; **loak gaindi ditzan beldurrez:** por miedo a que el sueño les venciera

2.

- **hil beldurrez:** por miedo de morir; **huts egin beldurrez, ez zuen ahorik zabaldu:** no dijo ni pío por miedo a errar

3.

- **hiltzeko beldurrez:** por miedo a morir; **huts egiteko beldurrez, ez zuen ahorik zabaldu:** no dijo ni una palabra, por miedo a errar; **poltsa galtzeko beldurrez:** por miedo de que pierda el bolso; **defenditzeko modurik ez izateko beldurrez:** por miedo a que no tenga modo de defenderme; **bakarrik egoteko beldurrez:** por temor de verme solo; **oker azaltzeko beldurrez ez zuen ezer ere esan:**

con miedo a no expresarse bien no dijo nada; **gaur Egunkaria Endavant egunkariaren aleak eskutatik ihes egiteko beldurrez daude:** temen que hoy se les esfumen los ejemplares del periódico *Egunkaria Endavant*

BERDIN «igual».

Postposizio bezala dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartu ohi du. Esanahia: <i>-(r)en</i> pare.	Como posposición va precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «como (a)».
---	---

- **fitsaren** (hutsaren) **berdin**, **ezdeusen pare daukagu denbora:** tenemos el tiempo como una futilidad, como una nonada; **hautsaren berdin dira:** son parejos al polvo; **gizonak bere burua Jainkoaren berdin ez edukitzea:** que el hombre no se tenga a sí mismo como igual a Dios; **igela idiaren berdin egin nahi:** querer igualar el sapo y el buey; **ez dago zure berdinik hegodunen artean:** no hay nada parejo a ti entre los alados; **haren berdinik ez du lurrean aurkitu:** en el mundo no ha encontrado nada igual a ello
- Guztiz esagunak ditut honelako esapideak: // Me son muy familiares expresiones como: **irabazi berdinean nahiago dut bajuran ibili alturan baino:** en caso de ganar lo mismo prefiero andar en bajura que en altura; **prezio berdinean honelako edo horrelako marka erosiko nuke:** supuesto que valieran lo mismo, me compraría tal o cual marca; **kostu berdinean..., ditu berdinean...:** al mismo precio...

BERRI «nuevo»; «noticia».

Postposizio bezala <i>berri</i> bi eratarera erabili ohi da: 1) <i>berri jakin</i> esamoldea osatuz. Dagokion izen sintagmak genitiboa, <i>-(r)en</i> , edo leku genitiboa, <i>-ko</i> , hartzen du. Esanahia: zerbaitez jabetu, zerbaiten <i>berri</i> eduki, jakinaren gain egon. Ezezko perpausetan <i>berririk</i> partitiboa ere erabili ohi da. Gauza bera esan daiteke <i>berri egon</i> , <i>berri izan</i> aditz lokuzioez, aurretik partizipio bat doala, eta <i>berri eman</i> aditz lokuzioaz, aurretik genitiboa doalarik, edo <i>-(e)n</i> edota <i>-(e)lako</i> atzizkidun adizkeraren bat doala. Esanahia: albistea eman, jakinaren gain ipini, jakinarazi. 2) Aditzaren era burutuaren (partizipioaren) ostean, aditzak agertzen duen ekintza «oraintsu-oraintsukoa», «duela oso gutxikoa» dela adierazteko. OHARRA: adiera honetan, <i>berri</i> forma ezeze, <i>berria</i> , <i>berri(t)an</i> formak ere erabili ohi dira.	Como posposiciones pueden distinguirse dos usos de <i>berri</i> . 1) Uno es cuando se emplea la expresión <i>berri jakin</i> tras nombre o pronombre en genitivo, <i>-(r)en berri jakin</i> , o en genitivo locativo, <i>-ko berri jakin</i> . Significado: «tener noticia de», «saber sobre», «tener información», «conocer», «enterarse», «estar al tanto». En las negativas se usa el partitivo <i>berririk</i> . Otro tanto se podría decir de las locuciones verbales <i>berri egon</i> , <i>berri izan</i> tras participio, y <i>berri eman</i> tras genitivo o flexión verbal terminada en <i>-(e)n</i> o <i>-(e)lako</i> . Significado: «informar», «anunciar», «dar noticia»; «dar parte» 2) El otro es cuando <i>berri</i> se emplea tras participio para indicar que la acción expresada por el verbo es «reciente», «recién acaecida». NOTA: En este segundo uso, se emplea la forma <i>berri</i> y también las formas <i>berria</i> , <i>berri(t)an</i>
---	--

1.

- **lagunaren heriotzaren berri jakin nuen:** tuve la noticia de la muerte del compañero; **jakin badaki gertatu denaren berri:** sí que tiene noticia de lo que ha ocurrido; **on da atzerriko zenbait gauzaren berri edukitzea:** es bueno el tener noticia de algunas cosas del extranjero; **badakit on eta gaitzaren berri:** tengo conocimiento del bien y del mal; **gaiaren berri jakiteko, onena da itauntzea:** para tener información sobre un tema, lo mejor es preguntar; **berak ezagutu zuenaren eta zaharragoek ezagutarazi ziotenaren berri jakiteko:** para conocer lo que él ya conocía y lo que otros mayores que él le hicieron saber; **elkarren berri** (jakin) **gabe:** sin tener noticias mutuas; **lagunaren gaixoaldiaren berri jakin zueneko, joan zitzaion etxera:** tan pronto como se enteró de la enfermedad de su amigo se fue a su casa; **ez nuen horren etorreraren berririk jakin:** no me enteré de su llegada; **ez daki gertatu denaren berri:** no tiene noticia de lo que ha sucedido; **bakoitzak berak daki bere (buruaren) berri:** cada uno conoce lo que le

importa, cada cual sabe de sí mismo (lit. tiene noticia de sí); **pobreak ez daki otordu on baten berririk**: el pobre no tiene idea acerca de (lo que es) una buena mesa; **inork ez daki egun haren berririk**: nadie tiene noción de aquel día; **Federiko enperadore III.ak medikuen abisu honen berri jakin zuenean**: el Emperador Federico III, cuando tuvo noticia de este consejo de los médicos

- **munduko berri badakitenak**: los que si conocen lo que pasa en el mundo; **horrek ez daki hemengo berri(rik)**: ése no tiene información sobre lo que sucede aquí; **jakin banu haren gogoko berri(a)**: si hubiese conocido su intención, lo que pasaba para sus adentros; **ezer jakin al duzu haren berri?** - **Zuk ongi dakizu Altzolako berri**: ¿has sabido algo a su respecto? -Tú sabes bien acerca de Altzola
- **batzarraren berri eman zion**: le anunció la reunión, le comunicó la reunión, le dió parte sobre la reunión; **batzarrean gertatukoaren berri eman zion**: le dió a conocer lo que había ocurrido en la reunión; **nork eman dizu niri estropadak sano gustatzen zaidan berri?**: ¿quién te ha comunicado que a mí me gustan mucho las regatas?; **Kirmen Uriberen poesi liburua erosi duelako berri eman dit**: me ha hecho saber que se ha comprado el libro de poesías de Kirmen Uribe

2.

- **etorri berri naiz hona**: soy recién venido aquí; **handik etorri berri zela**: cuando era recién llegado de allí; **Afrika-Asietako herri askatu berri direnen marmar hotsa**: el jolgorio de los pueblos recién liberados de África y Asia; **salto ederra bota berri naiz**: acabo de realizar un salto hermoso; **film hau ikusi berri naiz eta, mesedez, goazen besteren bat ikustera**: hace poco que he visto esta película y, por favor, vayámonos a ver alguna otra; **kafea hartu berri naiz eta ez dut janaririk behar**: acabo de tomar el café y no quiero nada de comida; **gertaera kontatu berri hau**: este suceso recién referido; **gertaera gertatu berri hau**: este suceso recién acaecido
- **ezkondu berria** (ezkonberria): recién casado; **oraindik jaio berri(a) delarik**: siendo aún recién nacido; **irakurri berri(a) dudan liburu batean**: en un libro que acabo de leer; **ogi erre berri(a)**: pan recién cocido
- **jaio berri(t)an, ezkon berri(t)an...**: recién nacidos, recién casados..., nada más nacidos, nada más casados, «en época en que el casamiento es reciente»; **Ametsatik afaldu berrian zetozela**: cuando venían de Ametsa nada más cenar; **sendatu berrian gertatu**

zitzaiona: lo que le sucedió nada más curar (cuando acababa de curarse); **ardia galdu berrian da errazenik aurkitzeko**: a la oveja, de recién perdida es cuando se la halla y se la encuentra más facilmente; **eta kandela iraungi berrian, oraindik hoztu gabea denean, da errazenik berriro su hartzeko eta bizteko**: y la vela, de recién apagada, cuando todavía no se ha enfriado, es cuando más fácilmente vuelve a prender y a encenderse; **zapatak jantzi berrian estutzen du, min egiten du**; el zapato, cuando es nuevo, oprime, causa dolor; **batak erretzeari utzi berrian ditu jasateko tentaziorik gaitzenak**: uno de recién dejado de fumar tiene que soportar las tentaciones más fuertes; **kartzelan sartzen zaituztenean, sartu berrian, usaimen ona duzu...**: cuando te meten en la cárcel, de recién entrado (cuando es reciente la entrada allí) tienes bien el olfato...

Adibideotan ikusten denez, <i>berrian, berritan</i> formek aditz jokatu gabeko denborazko perpaus txertatuak osatzen dituzte.	Como se ve por los ejemplos, las formas <i>berrian, berritan</i> constituyen una oración subordinada temporal en forma inconjugada.
---	---

Bizkaieraren ekarpena: // Aportación del B:
berriren berri: de nuevo, otra vez, nuevamente;
lehengo berrian: al principio, de primeras

BERTUTE «virtud».

Postposizio bezala <i>bertutez</i> forma erabili ohi da. Dagokion izenak edo izenordainak <i>-(r)en</i> atzizkia hartu ohi du. Esanahia: <i>-ri esker, -ren bidez</i> .	Como posposición se emplea la forma <i>bertutez</i> , precedida de nombre o pronombre con la desinencia casual <i>-(r)en</i> . Significado: «en virtud de», «por fuerza de».
---	--

- **gure indarrez eta bertutez erdiesten den gauza**: cosa que se consigue por nuestras fuerzas y virtud; **hori ez da lortzen diruaren pisuz, gure ahaleginaren bertutez baino**: eso no se consigue a peso de dinero sino por virtud (a fuer) de nuestro esfuerzo; **beroaren indarrez eta bertutez giltzurruneko mina moteldu zait**: gracias al calor se me ha amortiguado el dolor de riñón; **legeak dionaren bertutez**: en virtud de lo que dice la ley; **Espiritu Santuaren bertutez**: por fuerza del Espíritu Santo; **Elizak eman didan boterearen bertutez**: en virtud del poder que me ha concedido la Iglesia

BESTALDE «por otra parte». Ipar. Sin.: gain, landa.

<p>Postposizio bezala erabili ohi dira:</p> <p>1. <i>bestalde</i> forma bera. Dagokion izen sintagmak -z atzizkia hartzen du. Esanahia: «delakoa alde batera utzirik», «delakoaz gainera».</p> <p>2. leku-denborazko atzizkiekin ere erabili ohi da, dagokion izen sintagmak -z atzizkia hartzen duela. Esanahia: «beste alde».</p>	<p>Como posposiciones se emplean:</p> <p>1. A) la forma <i>bestalde</i>, precedida de un sintagma nominal con la desinencia -z, significando: «además», «fuera de».</p> <p>2. las formas con desinencias locativas, precedidas de un sintagma nominal con la desinencia -z, y significando «al otro lado de».</p>
---	---

1. **eta indar horietaz bestalde:** además de esas fuerzas; **zutaz bestalde nor zen?:** ¿quién estuvo, además de ti?; **horretaz bestalde:** además de eso; **horretaz bestalde ere balegoke zeresanik:** aparte de eso también habría de qué hablar; **igandez bestalde beste jai egun batzuk hautatu dituzte:** además del domingo han elegido otros días de fiesta; **eta zituen emazteez bestalde, Ismaelen alaba eta Nebaioten arreba Mahalat hartu zuten emaztetzat:** y tomóse por mujer, además de las que tenía, a Mahat, hija de Ismael y hermana de Nebayot; **espíritu erneaz bestalde, behar duzu zure buruaz segurtamen osoa izan:** aparte de un espíritu despierto, debes tener seguridad de ti mismo; **haietaz bestalde ere izango dugu nork maita:** además de esos, ya habrá quiénnos quiera

2.

- **mendiez bestaldean:** al otro lado de los montes; **mugaz bestaldean bizi da:** vive al otro lado de la frontera; **errekaz bestaldean, Zubizaharraren ondoan dagoen jatetxe famatua:** el restaurante de fama que está al otro lado de la ría, junto al Zubizahar
- **ateaz bestaldeko inskripzioa ikusi nahi dugu:** queremos ver la inscripción que está al otro lado de la puerta
- **haizeaz bestaldera:** hacia el lado contrario de donde sopla el viento (o sea, hacia sotavento)
- **haizeaz bestaldetik zetorren garrasia:** el grito povenía del otro lado de barlovento (o sea, de sotavento)

BEZALA «como». Sin.: (Bizkaierazko euskalkian: // en dialecto B): legez, lez, legetxe, letxe.

<p>Villasantek izan ezik ez du beste inork, antza, postposiziotzat hartzen. Hala ere aor doa berau, gimnasiako ariketa bezala baino ez bada ere.</p> <p>1) a) erlatibozko perpausa txertatzeko erabiltzen dela, nola galderari erantzunez, b) edota erlatibozkoa ezabaturik.</p> <p>2) Izen bati dagokiola, delako izena mugagabeen eta <i>bezala</i>-ren aurre-aurrean ezartzen dela. (-<i>tzat</i>, <i>gisa</i>).</p>	<p>Al parecer, aparte de Villasante, ningún otro lo considera como posposición. Aun así, ahí va eso, aunque no sea más que como un ejercicio de gimnasia.</p> <p>1) a) empleada como partícula comparativa de igualdad en frases relativas, b) o haciendo elipsis de las mismas frases relativas.</p> <p>2) Significando «como», «en calidad de», precedida de sustantivo indeterminado y justo antes del <i>bezala</i>.</p>
---	--

1.

- a) **hitz egiten duen bezala idazten du:** escribe tal como habla; **nahi lukeen bezala gertatzen ez bazaio ere:** aunque no le salga como él quisiera; **guztiok dakigun bezala:** como todos lo sabemos; **ohi duen bezala:** como acostumbra; **orain nire aldia da, lehen zurea zen bezala:** ahora es la mía, así como antes fue la tuya; **gauzak ziren bezala azaltzen zituen:** las cosas las exponía tal como eran
- b) **aitak** (egiten duen) **bezala egin behar duzu:** tienes que hacerlo como tu padre; **beti** (egiten duen) **bezala:** como siempre; **gauzak** (egin) **behar** (diren) **bezala egiteko:** para hacer las cosas como es debido; **ahal bezala:** como se puede; **hemen gaude biok zozoak bezala:** aquí estamos los dos como unos idiotas; **zuk bezala egin nahi nituzke nik eskolako lanak:** me gustaría hacer como tú los deberes de la escuela; **ez dira gu bezala bizi:** no viven como nosotros

2.

- **azken helburu bezala hartuta:** tomándolo como última meta; **hiruretan Lizardik du agian idazle bezala entzuterik handiena:** de entre los tres, tal vez es Lizardi el que mayor fama tiene como escritor; **guraso bezala hitz egin digu:** nos ha hablado en calidad de padre; **arrantzale bezala jardun zuen hil arte:** trabajó como pescador hasta la hora de su muerte; **hoa tximista bezala!:** ¡hala!, ¡jarranca ya como un rayo!; **erosoen uste nuen bidea hartu nuen, besteren mandatari bezala, ez neure kabuz:** elegí el camino que más cómodo me pareció, como enviado por otro, no por mi cuenta
- **santu bezala mintzo zela:** que hablaba como un santo

Ohartaraztekoa da <i>bezala</i> honek <i>-ko</i> atzizkia har dezakeela, eta honi itsats dakizkiokeela <i>-a</i> mugatzailea eta beste deklinabide atzizkiak: <i>bezalako</i> , <i>bezalakoaren</i> , <i>bezalakoari</i> ... Honela izen bihurtzen da eta oso praktikoa den lokarrizko elementu bat.	Es de notar que <i>bezala</i> puede recibir el caso <i>-ko</i> , y tras de éste puede agregarse el artículo <i>-a</i> y todos los sufijos casuales: <i>bezalako</i> , <i>bezalakoaren</i> , <i>bezalakoari</i> ... Con ello viene a nominalizarse y a ser un elemento nexivo sumamente práctico.
--	--

BIDE «camino», «medio». Sin.: bitarte, medio

Postposizio <i>bezala bidez</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagma <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du, batzuetan berau gal dezakeela. Esanahia: <i>-(r)en bitartez</i> , <i>-(r)en medioz</i> , <i>dela medio</i> .	Como posposición se emplea la forma <i>bidez</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: «por medio de», «mediante», «a través de», «valiéndose de».
--	--

beroaren bidez burdina ere urtu egiten da: por medio del calor se derrite incluso el hierro; **aitaren bidez amagandik lortu ditut pilota berriak:** he conseguido de la madre unas nuevas pelotas por intercesión del padre; **zelatarien bidez etsaien asmoen berri jakin:** saber por medio de los espías las intenciones del enemigo; **Elizaren bidez:** por medio de la Iglesia; **eta haien bidez:** valiéndose de aquellos; **dekretu bidez ezarria:** impuesto por decreto; **bai zuzenean eta bai zehar bidez:** tanto directamente como indirectamente; **irratí bidez emana:** difundido a través de una emisora de radio; **zure bidez lortu dut:** lo he conseguido a través de ti; **zure anaiaren deiaren bidez jakin dut berri hori:** esa noticia la he sabido por medio de una llamada de tu hermano; **bata zen bere izenaren aipamena uztea sekulakotzat obra guztiz eder baten bidez:** una era el perdurar eternamente su renombre por medio de una obra del todo hermosa; **erranaren bidez:** a fuerza de decir; **zozketa bidez ez, baizik eta EPELen erabakiz zehaztu da azkenik partidien hurrenkera;** al final, el orden de los partidos no se ha decidido por sorteo sino por decisión de EPEL

behar *bidean* forma, «*-(r)en lekuan*», «*ordean*» esanahian: ikus gorago 'partizipioa + *beharrean*' forman, 2.4, datorrena.

La forma *behar bidean* significando «en vez de»: ver lo dicho arriba en la forma *beharrean* tras partizipio, 2.4.

BILA «en busca (de)», «a la busca (de)». Sin.: eske, bilatzen, xerka (Ipar.), sur (Baztan).

1) Delako izen sintagma mugatua denean, <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Hemen aipa genezake: zehar galderari dagokiola, jakina, <i>-(e)n bila</i> .	1) Cuando el sintagma nominal que le antecede es definido, éste recibe la desinencia casual <i>-(r)en</i> . Aquí se podría mencionar lo de interrogativa indirecta: desinencia <i>-(e)n bila</i> .
2) Delako izen sintagma mugagabea denean eta izen arrunt batek edo izen + izenondo batek osatua, <i>-(r)en</i> atzizkirik gabe. (Datu hau oso ohargarria duzu).	2) Cuando el sintagma nominal que le antecede es indefinido, y se compone de un nombre común o nombre + adjetivo, va sin la desinencia casual <i>-(r)en</i> . (Este dato es muy remarcable).
3) Delako izen sintagmaren elisioa ere gerta liteke.	3) El sintagma nominal puede estar elidido.

1.

- **egiazko Jainkoaren bila:** en busca del Dios verdadero; **lagunaren bila nenbilen:** andaba en busca del compañero; **arrantzale galduen bila atera ziren:** salieron en busca de los pescadores perdidos; **atzo galdutako giltzen bila dihardu:** está ocupado en la búsqueda de las llaves que perdió ayer; **jeiki adi! eta oha diruaren bila:** ¡levántate! y véte en busca de dinero; **doinu berrien bila abiatu direnak:** los que se han lanzado a buscar de nuevos sonidos; **Aioraren bila, Itziarren bila:** en busca de Aiora, en busca de Itziar; **bide berrien bila etorri zitzaigun:** nos vinieron en busca de nuevos caminos; **elkarren bila doaz:** van en busca mutua; **zure bila hasi dira:** han empezado en tu busca; **Herioaren bila ibiliko dira, baina alferrik:** andarán tras de la muerte, pero en vano; **bere emaztearen bila oihuz baitzebilan:** andaba clamando en busca de su mujer; **zeren ni egin naiz udaren finean, ... mahats hondar-mondarren bila dabilena bezala:** porque he venido a ser semejante a aquél que al fin del verano, ... anda en busca de los últimos residuos de uva; **astean behin-edo ibiltzen gara mendian hartzaren arrastoen bila,** así como una vez a la semana solemos andar por el monte en busca de los rastros del oso; **nire (hire, huraren, gure, zure, zuen, haien) bila:** en mi (tu, su, nuestra, vuestra) busca, en busca de ellos. **Atzo galdutako bi giltzen bila dabil:** anda en busca de las dos llaves que perdió ayer; **bi giltzaren bila dabil:** anda en busca de dos llaves; **giltza baten bila:** en busca de una llave; **atzo galdutako giltzaren bila dabil:** anda en busca de la llave perdida ayer; **giltza bila dabil:** anda buscando la llave

- **gaitza zer zen bila ibili nintzen:** andaba en busca de cuál era el mal; **apaiz nagusi eta irakasleak hura nola galduko zuten bila zebiltzan:** los sumos sacerdotes y los escribas buscaban cómo hacerle desaparecer; **ikusi ea zeren bila dihardun:** fíjate a ver qué anda buscando (en busca de qué anda)
- 2.
- **antxoia bila atera da:** han salido en busca de anchoa; **sagar bila joan dira:** han ido en busca de manzanas; **lan bila dabil:** está buscando empleo; **nezka zaharrak joaten dira Madalenara nobio bila** (herri kantua): las chicas viejas suelen ir a Madalena en busca de novio; **Jainkoaren bila nabil, ez jainko bila:** ando en busca del Dios, no en busca de dios; **barkamen bila, limosna bila, laguntza bila, diru bila...:** en busca del perdón, de la limosna, de la ayuda, de dinero
 - **lur berri bila:** en busca de nuevas tierras; **ezagun zahar bila:** en busca de antiguos conocidos; **ikaskide zahar bila:** en busca de antiguos condiscípulos
- 3.
- **eta gero bila abiatu zirenean:** y después cuando se pusieron a buscarlo; **eta buru-belarri bila zihardugula, agertu zela esan ziguten:** y cuando estábamos en plena faena de su búsqueda, nos dijeron que ya había aparecido.

BISTA «vista»; «presencia». (Ez da guztiz dotorea, izan ere // no es nada elegante que se diga...).

Postposizio bezala <i>bistan</i> , <i>bistara</i> , <i>bistatik</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du.	Como posposición se emplean las formas <i>bistan</i> , <i>bistara</i> , <i>bistatik</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> .
---	--

- **gure bistan ez du horrelakorik egiten:** no obra así delante nuestro (en nuestra presencia); **begien bistan daukazu:** lo tienes delante de tus narices
- **lehen pasatu zen gertakaria orain gertatzen balitz ematen dute ikusliarren bistara:** un suceso que ya tuvo lugar antes, lo presentan ante los espectadores como si estuviera sucediendo ahora; **harrez gero ez da begien bistara agertu:** desde entonces no ha aparecido ni en pintura
- **gorde zaitetz nire bistatik, zoaz nire begien bistatik:** desparécete de mi presencia

BITARTE «intervalo», «espacio intermedio».

Postposizio bezala <i>bitarte</i> , <i>bitartean</i> eta <i>bitartez</i> erabili ohi dira. 1) <i>bitarte</i> : Aurretik joan daiteke: a) izen sintagma kasu absolutuan edo <i>-(r)a</i> atzizkia duela. Esanahia: <i>tartean</i> . b) <i>Bizk</i> : <i>-(e)la</i> atzizkidun adizkera. Esanahia: <i>-(r)en</i> bidez, <i>-(r)en</i> medioz, <i>dela</i> medio. 2) <i>bitartean</i> : (denborari ez dagokiola). Dagokion izen sintagmak: a) <i>-(r)a</i> , <i>-(r)en</i> edo <i>-ko</i> atzizkiak har ditzake, edota kasu absolutua. Esanahia: <i>tartean</i> . b) kasu absolutua hartzen du. Esanahia: <i>-(r)en</i> bidez, <i>-(r)en</i> medioz, <i>dela</i> medio. 3) <i>bitartez</i> : Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-ren</i> bidez, <i>(r)en</i> medioz, <i>dela</i> medio.	Como posposiciones se usan las formas <i>bitarte</i> , <i>bitartean</i> , <i>bitartez</i> . 1) <i>bitarte</i> : precedida de: a) un sintagma nominal en caso absoluto o con la desinencia <i>-(r)a</i> , significando «entre» (medio); «mientras»; «hasta». b) <i>Bizk</i> : flexión verbal con la desinencia <i>-(e)la</i> , significando «por medio de», «a causa de». 2) <i>bitartean</i> : (no temporal): a) precedida de sintagma nominal en adlativo, <i>-(r)a</i> , genitivo, <i>-(r)en</i> o <i>-ko</i> , o absoluto. Significado: «entre», «en medio (de)», «hasta». b) precedida de sintagma nominal en caso absoluto. Significado: «por medio de», «gracias a». 3) <i>bitartez</i> : precedida de un sintagma nominal con la desinencia de genitivo <i>-(r)en</i> . Significado: «por intermedio de», «a través de».
--	--

1. *bitarte*:

- a) **hirurak bitarte behintzat ez dadila etor:** que no venga al menos hasta las tres; **Pikupetik hasi eta Mutrikura bitarte hainbat basetxe daude errepide hegalean:** empezando desde Pikupe hasta Mutriku hay varios caseríos junto a la carretera; **gela horretatik atera bitarte, ukulua:** desde esa habitación hasta la puerta está la cuadra
- b) **zenbat ganorabako endredo gaizki- ulertze huts bat dela bitarte!:** ¡cuántos enfados insustanciales por causa de un simple malentendido!; **amaren jarduna zela bitarte halako batean amaitu zuen haurrak bere jatekoa:** a base de insistir su madre terminó por fin la niña su comida; **trenaren atzerapena zela bitarte galdu egin genuen hegaldia:** a causa del retraso del tren perdimos el vuelo

2. *bitartean*:

- a) **San Llebante auzoa Ermutik Eibarrera bitartean dago:** El barrio San Llebante (San Lorenzo) está entre Ermua y Eibar; **etxera bitartean esango dizut:** te lo contaré camino de casa; **lau eurotik bostera bitartean:** entre cuatro y cinco euros; **Iztuetaren presondegitik Kontxesirenera bitartean ba omen ziren milioi ate:** como que entre la cárcel de Iztueta y la casa de Kontxesi ya

habría como un millón de puertas; **lau eurotik bostera bitartean**: entre cuatro y cinco euros; **obrak egin bitartean, Keafekoatzetik Zubi Berrira bitartean autoentzako zirkulazioa norabide bikoitzekoa izango da**: durante la ejecución de las obras, la circulación para coches entre Kafekoatze y Zubi Berri será de doble dirección

- **Ermua eta Eibarren bitartean**: entre Ermua y Eibar; **desberdintasun handia zegoen artzain horren eta haren semearen bitartean**: había una gran diferencia entre ese pastor y su hijo; **haitz horien bitartean**: entre esas peñas
- **Ermutik Eibarrerainoko bitartean**: entre Ermua y Eibar (entre el tramo de Ermua a Eibar)
- **Ermua eta Eibar bitartean**: entre Ermua y Eibar
- **lehen etorreratik bigarren etorrerara bitartean**: entre la primera y segunda venida.

Azken perpaus honetan Villasantek ñabardura bat sumatzen du // En esta última frase Villasante percibe un matiz: "la posposición está precedida de dos nombres: uno que indica el término «a quo» y figura en ablativo; el otro indica el término «ad quem» y está en caso directivo".

- Eta nik diot: so what? // Y yo me pregunto: so what? Denborari gagozkiola ere antzera jokatzan dugu // Con sentido temporal, también nos comportamos de forma parecida: **lauretatik zortzietara bitartean gertatu da**: ha sucedido entre las cuatro y las ocho (en el intervalo de cuatro a ocho); **1953tik 2003ra bitartean**: entre 1953 y 2003.
 - b) **hego-haizea bitartean, mendi tontorrak garbitzen ari ziren**: gracias al viento sur, se iba limpiando la loma del monte; **meza nagusi bitartean pilotan ez dezatela egin frontoian**: que durante la misa mayor no se juegue a la pelota en el frontón
3. *bitartez*:
- **Elizaren bitartez**: por mediación de la Iglesia; **Jesukristo gure Jaunaren bitartez**: por (mediación de) Nuestro Señor Jesucristo; **ezagunen bitartez egin ditugun eskariak**: las solicitudes que hemos hecho a través de conocidos; **harien bitartez dabilta deiak**: las llamadas pasan a través de hilos; **zure bitartez lortuko dugu**: lo conseguiremos por tu mediación; **errege berriari bere ama Betsabee-ren bitartez Abisagag emaztetzat eskatu zion**: al nuevo rey por medio de su madre Betsabee le pidió Abisagag como esposa; **ordezkarien bitartez jakinarazteko**: para hacerles saber por medio de los

delegados; **eskanerren bitartez pankreazen barruan ikusi ahal izan ziren nolabaiteko dunbulioak, erresonantzia magnetikoaren bitartez besikulatik irten eta han kokatuta zeuden harriak baino ez zirela ikusi ahal izan ziren**: aquellos bultos dudosos que por medio del escáner se podían ver en el páncreas, por medio de la resonancia magnética se pudo ver que sólo eran piedras salidas de la vesícula y allí instaladas

BIZKAR «espalda». Sin.: kontu, gain, lepo

Postposizio bezala <i>bizkar</i> forma bera (inesiboko atzizkia, esan beharrik ez dago, ezabatuz) eta <i>bizkarretik</i> forma erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-(r)en lepo</i> , <i>-(r)en kontura</i> , <i>-(r)en gain</i> .	Como posposición se emplean la forma <i>bizkar</i> en caso cero (omitiendo, por sobreentendida, la desinencia inesiva) y la forma <i>bizkarretik</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «a expensas de», «por cuenta de», «a costa de», «a cargo de», «a cuenta de».
---	--

Usado en ciertos modismos, tiene equivalencia con los castellanos *echarse uno sobre las espaldas* (hacerse responsable) y *echar una cosa sobre las espaldas* (ponerla a su cargo).

bizkar:

- **amaginarrebaren bizkar bizi da**: vive a cuenta de la suegra; **bere bizkar hartu duen eginkizuna**: un quehacer del que se ha encargado; **gurasoen bizkar eresia**: comprado a cuenta de los padres; **besteen bizkar uztea**: dejar a cargo de otros; **besteren bizkar bizi zea**: vivir a expensas de otro; **norbaiten bizkar ezarri**: imputar; **kritikaririk zorrotzenek ez dute, dirudienez, kritika ontzat hartzen euren edo kideen bizkar doanean**: al parecer los críticos más exigentes no aceptan crítica cuando se trata de ellos o de sus colegas (cuando va a cuenta de ellos); **besteren bizkar utzi nahi lukeela beretzat hartu nahi ez duen lana**: que quisiera echar sobre las espaldas de otro el trabajo del que él no quiere hacerse cargo; **ederki ikasia dut, neure bizkar, zein zaila den hori ikastea**: bien aprendido lo tengo, a expensas mías, lo difícil que es aprender tal cosa; **hamaika barre egin dute gure bizkar**: ¡cómo se han reído a nuestra cuenta!; **liburu hau argitaratzea bere bizkar izan zuenak ez zuen lan makala hartu**: menudo trabajo que se tomó el responsable de la publicación de este libro (el que se echó sobre sus espaldas la publicación... / el que se hizo responsable de la publicación...); **zure bizkar**: por cuenta de ti; **zure bizkar dago**: es tu responsabilidad

Hona hemen nola euskaratu duten Vulgatako *et gravemus te* zenbait egilek. Aurrerago batean igorri nizuen “koadroa” lagun, orain ez zait latz egiten liburu batetik bestera ibiltzeko ataza hartzea eta apetak eman dit hurrengo hau egitea // Con la ayuda de aquel “paradigma” que hace no mucho os envié, ahora no se me hace engorroso el tomar la molestia de pasar de un libro a otro, y se me ha ocurrido llevar a cabo este capricho. “Dixitque rex ad Absalom: Noli fili mi, noli rogare ut veniamus omnes, **et gravemus te**”. Reg. II, 13, 25:

DUVOISIN	OLABIDE
eta zure bizkar izan gaitezen	neke ganemaizuke-ta

KEREXETA	EAB
nekegarri izango gintzakizuz-ta	istilu handia izango litzateke zureztat

bizkarretik:

- **andrearen bizkarretik bizi da**: vive a cuenta de su mujer; **inoren bizkarretik jatera etorri da, ala?:** ¿es que ha venido a comer de gorra (a cuenta ajena, a cuenta de otro), o qué?; **besteren bizkarretik larritu edo negar eginez gero**: después de apurarse o lamentarse a cuenta de otros; **inoren bizkarretik barre egitea gogoko du beronek!**: ¿cómo le gusta a este tío reirse a costa de los demás!

BOST «cinco». Beheko bigarren adiera bizkaierazkoa da. // La segunda acepción de abajo es del dialecto B.

Postposizio bezala <i>bostean</i> forma erabili ohi da, genitiboko <i>neure, heure, bere,</i> etc., izenorde bihurkarien ostean. Esanahia: a) nor bere horretan/hartan b) neurekiko (berekiko...), <i>neure</i> (bere...) baitan, <i>neure</i> (bere...) artean; <i>neure</i> (bere...) buruari.	Como posposición se emplea la forma <i>bostean</i> , precedida de genitivo reflexivo, <i>neure, heure, bere,</i> etc. Significado: a) en mis (sus...) trece. b) «para uno mismo», «para sí», «entre sí», «para mis (sus...) adentro»..
--	--

- **esan nahi duzuna, nik neure bostean jarraituko du t eta**: di lo que te dé la gana, que yo me mantendré en mis trece; **etor zedin ahaleginak egin genituen, baina bere bostean jarraitu zuen berak**: tratamos de que viniera pero él en sus trece; **beti euren bostean zeuden**: siempre estaban en sus trece; **baina maizterrak beti bere bostean gogor hau ere harrikatu zuten**: pero los jornaleros siempre fuertes en sus trece también le a pedrearen a éste; **Herioa hortzetan ikusten bazuen ere, beti bere bostean zegoen**: aunque viera la muerte en sus narices, él siempre en sus trece

- **bere bostean berbetan dihardu**: anda hablando para sí, para sus adentros; **neure bostean esan nuen: ez dut nahi honelako zibiliziorik**: dije para mí: no quiero esta clase de civilización; **Sokratesek hau esan zioen bere bostean**: Sócrates decía para sí. [Harritzekoa da esanahi hau ez Azkuek ez Akesolok ez aipatzea. // Es de extrañar que ni Azkue ni Akesolo mencionen esta acepción]

BOTERE «poder».

Postposizio bezala <i>boterez</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en poderioz (poderioz, podozuz). Eta <i>boterez</i> forma hau baita ‘partizipioa + <i>hutsen</i> ’ ondoren ere erabili ohi da. Esanahia: soil-soilik, baino ez.	Como posposición se emplea la forma <i>boterez</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia del genitivo - (r)en. Significado: «en fuerza de», «por fuerza de», «a fuerza de». También se usa la forma <i>boterez</i> tras participio + <i>hutsen</i> , significando «por pura o mera fuerza de».
---	--

- **esanaren boterez egiten ditu gauzak**: hace las cosas a fuerza de repetir (de decir y decir); **minaren boterez**: a fuerza de dolor (sinonimoa: *minaren minez*); **egunero ikastearen boterez gaindituko du**: aprobará a fuerza de estudiar todos los días; **bertoko eta kanpoko indarren boterez lor dezakegu**: podemos conseguirlo a fuerza de las fuerzas de los de aquí y de los de fuera; **erneguaren boterez**: a fuerza de rabia; **lanaren boterez**: a fuerza de trabajar; **denboraren boterez (poderioz)**: con el tiempo
- **negar egin hutsen boterez**: por pura o mera fuerza de los lloros cometidos; **desira hutsen boterez**: por fuerza de meros deseos

BUELTA «vuelta», «giro». Bizkaieraren ekarpena. // Aportación del dialecto B.

Sarasolak (Beh.) <i>ikurra jartzen du</i> : hizkuntza mailaz behekoa den hitza. Jakina, Azkuek eta Akesolok aipatu ere ez dute egiten.	Sarasola pone la marca (Beh.): como nivel lingüístico, palabra de bajo nivel. Como es natural, Azkue y Akesolo ni lo mencionan.
--	---

Postposizio bezala <i>bueltan</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak: 1) -(r)en atzizkia hartzen du, gehienetan berau gal dezakeela. Esanahia: inguruan, biran. 2) Denborazko esapideetan, orduetan izan ezik, absolutu mugagabearen ondoren joan ohi da. Esanahia: inguru, aldean.	Precedida de: 1) un sintagma nominal con la desinencia -(r)en, que normalmente se elide. Significado: «alrededor de». 2) En contextos temporales, absoluto indeterminado excepto en el empleo de las horas. Significado: «hacia», «sobre», «por», «cerca de». «a eso de».
---	---

1. **demonioak hemen, demonioak han, demonioak beti gorputzaren bueltan:** demonios aquí, demonios allí, demonios siempre alrededor del cuerpo; **hemen dihardu gure bueltan, zerbait lortu nahian:** anda alrededor nuestro, queriendo conseguir algo; **sua piztu eta haren bueltan zeuden:** encendieron el fuego y se colocaron a su alrededor; **lukia etxe bueltan ibili da:** el zorro ha andado alrededor de la casa; **haurrok, jolastu hementxe, etxe bueltan:** niños, jugad aquí, alrededor de la casa

2.

- **eguerdi bueltan hemen izango dugu:** estará aquí hacia el mediodía; **estropadak guretan uda bueltan izaten dira:** por nuestros parajes, las regatas suelen ser hacia el verano; **Gabon bueltan da jaiotzeko Tello, Juleneren nebatxoa:** hacia Navidad es de nacer Tello, el hermanito de Julene.
- **gurean ordu biak bueltan bazkaltzen da:** en nuestra casa se come hacia las dos; **zazpirak bueltan porturatu ziren:** arribaron a eso de las siete

BURU «cabeza».

Postposizio bezala <i>buruan</i> , <i>buruko</i> , <i>burutik</i> , <i>buruz</i> formak erabili ohi dira. Banan-banan aztertuko ditugu euren.	Como posposición se emplean las formas <i>buruan</i> , <i>buruko</i> , <i>burutik</i> , <i>buruz</i> . Vamos a ocuparnos de cada uno de ellos.
---	--

bururen buru, burutik buru, buruan buru (Ipar.): de principio a fin; de cabo a rabo. Ikus adibideak Akesolorenean.

buruz buru:

- frente a frente, cara a cara, cuerpo a cuerpo; mano a mano
- de cabo a rabo, de un lado a otro.
- la par, a un tiempo.

1. *buruan*:

Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Hiru adiera hartzen ditu: a) adierazten den denboraz gero, -(r)en buruz, barruan. b) nire (hire, bere...) iritiz. c) -(r)en hasieran, aurrean.	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia - (r)en. Presenta tres significados: a) «después de», «al fin de», «al cabo de», «al término de», «en el plazo de». b) «en mi (tu...) opinión de», «según creo (crees...)». c) «al comienzo», «a la cabeza», «al frente», «delante».
---	--

a)

- **denbora gutxiren buruan:** al cabo de poco tiempo; **astearen buruan:** al cabo de la semana; **noiz baten buruan:** al cabo de cierto tiempo (Pouvreau); **eta gero haien guztien buruan:** y luego a la postre; **hemendik urte baten buruan:** de aquí a un año; **lau egunen buruan:** al cabo de cuatro días; **denboraren buruan:** al fin de los tiempos; **denboren buruan** (munduaren azkenean): al fin del mundo; **berrogei egunen buruan:** al cabo de cuarenta días; **egonaren buruan:** al cabo de un aplazamiento; **zenbait egunen buruan:** después de algunos días, al cabo de unos días; **zortzi urteren buruan:** al cabo de ocho años, después de pasar ocho años; **hiru egunen buruan piztuko naiz:** al cabo de tres días resucitaré; **dakienak daki, eta ez dakienak ez dakike azterketa nekagarrien buruan baizik:** el que sabe sabe, y el que no sabe podrá saber después de unos agotadores exámenes; **ororen buruan:** al final del todo; **azkenaren buruan urliak kontatu zion sandiari isiltasun guzti hura ondo-mokor (R):** al fin y al cabo fulano le contó a mengano todo aquel secreto detalladamente

- **Asierren buruan hala da:** en opinión de Asier es así; **gehiegi bada, nire buruan, guztien buruan da kaltegarria:** si es (que es) demasiado, en mi opinión, es (que es) perjudicial en opinión de todo el mundo

- **hitzaldiaren buruan:** al comienzo del discurso

- **hil buruan:** después de morir

2. *buruko*: Batez ere Ipar. // Sobre todo Ipar.

Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Bi esanahi: a) -(r)en buruan. b) nire (zure...) kabuzkoa.	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia - (r)en, significando: a) «en el plazo de», «al cabo de». b) «por mi (su...) cuenta», «de mi (su...) creación».
--	---

a)

- **hiru egunen buruko biztu egin zen:** al cabo de tres días resucitó; **bost egunen buruko:** en el plazo de cinco días

b)

- **hauek zure burukoak dira:** estos son de tu creación

3. *burutik*:

Aurretik <i>bere</i> (neure, zeure...) genitibo erreflexiboa dela. Esanahia: -(r)en izenean, -(r)en kabuz, -(r)en kasa.	Precedida de genitivo reflexivo <i>bere</i> (neure, zeure...). Significado: «por su cuenta», «de por sí».
---	---

- **ez naiz neure burutik mintzo:** no hablo por mi cuenta; **hori ez da nire burutik:** eso no viene de mí; **hobe da beti mundu zabalean ontzat hartuak dauden hitz eta izenez baliatzea nor bere burutik asmaketan ibiltzea baino:** siempre es mejor aceptar palabras y nombres de uso universal que empezar a inventarlos por propia cuenta; **eskema hau neure burutik atera dut, ez inork esanda:** este esquema lo he plasmado por mi cuenta, sin que nadie me lo haya dicho
- **Gramatika jakite enpiriko bat denez gero, testuetarik atera behar dena, ez inoren burutik:** como la gramática es un conocimiento empírico, que debe ser sacada de los textos, no por cuenta de nadie, no por propia iniciativa

4. buruz

a) buruz I: -(r)en buruz:

Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: adierazten den denboraz gero, -(r)en buruan.	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en, significando «al cabo de», «después de».
--	--

- **urteen buruz zentzundun zen:** se formalizó al cabo de los años; **urte batzuen buruz itzuli zen herrira:** después de unos años volvió al pueblo; **entseien buruz sartu zaien belarran si bemola gabe si naturala egitea:** al cabo de ensayos se les metió en los oídos el hacer si natural en vez del si bemol

b) buruz II: bere (neure, zeure...) buruz:

Aurretik bere (neure, zeure...) genitibo erreflexiboa dela, bi esamolde osatzen dira: a) "bere (neure, zeure...) kasa" adierazten duena. β) "bere (neure, zeure...) kabuz", bere (neure, zeure... baitarik) adierazten duena.	Precedida de genitivo reflexivo bere (neure, zeure...), forma una locución que significa: a) «por su cuenta», «a su aire». β) «por sí mismo», «personalmente», «por iniciativa propia».
---	---

a)

- **oporraldiak, atzerrirako txangoak-eta bere buruz egiten ditu:** las vacaciones, las excursiones al extranjero y todo eso, los hace a su aire, por su cuenta; **haitzetan, ez itsasertzeakoetan ez mendikoetan, ez luke inork bere buruz ibili behar:** en las rocas, ni en las del litoral ni en las de los montes, nadie debería andarse por su cuenta

β)

- **hark (inurriak) erakuslerik eta gidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan...:** aquella (la hormiga), sin maestro ni guía, por sí recoge en el verano...; **berak bere buruz zerbait irabaz lezan:** para que gane algo por sí mismo; **inork ere bere buruz ezin merezi dezakeen dohaina bada ere:** aunque es un don que nadie puede merecer por sí; **neure buruz etorri naiz:** he venido por mi cuenta; **bere buruz:** por resolución propia, por cuenta propia; **hori zeure buruz diozu, ala nitaz beste batzuek esan dizutelako?:** ¿dices eso por tu cuenta, o es que otros te lo han dicho de mí? [Duvoisin: zure baitarik; Olabide: zure buruz; Kerexeta: zeure buruz; EAB: zeure kabuz]
- **neure buruz:** neure kabuz, neu(k) neutara, neure kontura, neure kasa, neure baitarik: por mí mismo, por mi cuenta, por (mi) propia iniciativa
- **hire buruz:** hire kabuz, hi(k) heutara, heure kontura, heure kasa, heure baitarik: por ti mismo, por tu cuenta, por (tu) propia iniciativa
- **bere buruz:** bere kabuz, bera(k) beretara, bere kontura, bere kasa, bere baitarik: por si mismo, por su cuenta, por (su) propia iniciativa, a su aire
- **geure buruz:** geure kabuz, geu(k) geutara, geure kontura, geure kasa, geure baitarik: por nuestra cuenta, por (nuestra) propia iniciativa
- **zeure buruz:** zeure kabuz, zeu(k) zeutara, zeure kontura, zeure kasa, zeure baitarik: por Ud. mismo, por su cuenta (de Ud.), por su propia iniciativa (de Ud.)
- **zeuen buruz:** zeuen kabuz, zeuek zeuetara, zeuen kontura, zeuen kasa, zeuen baitarik: por vuestra cuenta, por (vuestra) propia iniciativa
- **beren (euren) buruz:** beren kabuz, bere(k) beretara (eurek euretara) beren (euren) kontura, beren (euren) kasa, beren (euren) baitarik: por si mismos, por su cuenta (de ellos), por (su) propia iniciativa (de ellos)

-(r)en buruz forma, «z», «(r)en gainean», «-(r)i dagokionez», «-a gaitzat harturik»... esanahiaz, beheraxeago ikusiko dugu.	La forma -(r)en buruz, significando «sobre», «acerca de», «con respecto a», lo veremos más abajo.
---	---

c) *buruz III*: -(r)a(t) *buruz*. Ipar:

Dagokion izen sintagmak - (r)a(t) atzizkia hartzen duela, eta bizigabeekin erabiliz. Bi adiera ditu: a) -rantz. β) -i begira, -ra begira.	Precedida de un sintagma nominal con la desinencia - (r)a(t), usado con seres inanimados. Tiene doble significado: a) «hacia», «en dirección a». β) «mirando a», «de cara a».
---	---

a) -rantz // «hacia», «en dirección a».

- **badoaz denak beren etxeetara buruz**: ya van todos hacia sus casas; **Ondarroara buruz joan ginen antxo ateratzera**: nos dirigimos a Ondarroa a vender la anchoa; **oihanera(t) buruz joan ziren**: se fueron hacia los bosques; **gose dela eta badoa mahaira buruz**: que tiene ganas de comer y se va a la mesa

β) -i begira, -ra begira // «mirando a», «de cara a».

- **leihotik so daude gaineko pentzerat buruz**: están mirando hacia el pastizal de arriba; **itsasora buruz**: mirando al mar, de cara al mar; **oihanera(t) buruz daude**: están mirando a los bosques; **iguzkira buruz**: de cara al sol; **kurutzearen aitzinean edo elizarat buruz erran goizeko otoitza**: haz la oración de la mañana delante de un crucifijo o de cara a la iglesia (poniéndote en dirección a la iglesia)

Ikus <i>Buruz IV</i> ostean hementxe sartzekoa den oharra.	Véase después del <i>Buruz IV</i> la nota sobre este apartado.
--	--

d) *buruz IV*: -(r)i *buruz*:

Dagokion izen sintagmak - (r)i atzizkia hartzen duela, eta bai bizidunekin bai bizigabeekin erabiliz. Lau esanahi ditu: a, β, ?, d:	Precedida de un sintagma nominal con la desinencia - (r)i, usado con seres ya animados ya también inanimados. Tiene 4 significados: a, β, ?, d:
---	---

a) -rantz // «hacia», «en dirección a».

- **mendiari buruz joan**: ir en dirección al monte, encaminarse hacia el monte; **zohazkio berari buruz**: vete derecho hacia él; **ez dakit jendea zeri buruz doan**: no sé a dónde va la jente; **aitari buruz itzuli zen**: se volvió hacia su padre; **etorkizun garratzari buruz goaz**: vamos hacia un porvenir angustioso; **gizakia heriotzari buruz doa**: el ser humano camina hacia la muerte; **badoaz denak beren etxeetara buruz**: allá van todos hacia sus respectivas casas

β) -i begira, -ra begira // «dirigiéndose a», «frente a», «de cara a», «mirando a», «con vistas a»; «en vista de», «en consideración a».

- **guri buruz xoko batean jarria zegoen**: estaba mirándonos sentado en un rincón; **geroari buruz**: pensando en el futuro; **hemen gaude biok elkarri buruz**: he aquí los dos frente a frente, cara a cara; **jinen da bada Ameriketatik etorkiari buruz**: vendrá de América sin faltar a recoger la porción de su herencia; **jina da, bai, etorkiari buruz**: ha venido sí, con motivo de la herencia; **bestalde, hainbeste beharorduri buruz, ez liteke hemen beste misiolari bat sobera**: por otro lado, en vista de tanta necesidad, no sobraría aquí otro misionero; **zeinutegi baten kostuari buruz abiatu** (arduratu): comprometido en un gasto en vista de (edificar) un campanario; **haizu da alegeratzea heriotzari buruz ere**: es lícito alegrarse también frente a la muerte; **azkenean, oraino niri buruz ematen zelarik erran zidan**: al final, estando aún de cara hacia mí, (todavía puesto hacia mí), me dijo; **zaharrenari buruz, erran zuen**: dirigiéndose al más viejo, dijo; **jar zaitez niri buruz**: siéntate en dirección a mí; **ama, ene anaia egun zer ote du? / Begitarte guztia baitzaio ilundu. / Sehaska honi buruz kantu eta kantu, / irri baten aiduruz astia dut galdu**: ama, ¿qué le pasa hoy a mi hermano? Se le ha apagado todo su rostro. Frente a esta cuna canta que te canta, he perdido el tiempo en espera de una sonrisa; **neskatxa honek (...)** **Begoñako basilikari buruz Amabirjinari erregu egiten zion** (Juanjo Zorrilla): esta jovencita (...) vuelta hacia (puesta su mirada en dirección a) la basílica de Begoña le rogaba a la Virgen

?) -(r)en aurka // «en frente», «contra».

- **zer egin etsaiaren indar berri honi buruz?**: ¿qué hacer en contra de esta nueva fuerza?; **ene aitari buruz borrokatu**: luchar contra mi padre (Tragedia Mustafa, 119); **zer egin zezaketen bostek hamarri buruz**: ¿qué podían hacer cinco contra diez?; **gizonei buruz zaudete zurt** (Olabide, Mt. 10, 17): guardáos de los hombres

<i>Buruz III</i> atalaren une honetara heldurik, hona hemen bi ohartxo:	Una vez en este punto del apartado <i>buruz III</i> , he aquí dos anotaciones:
---	--

1.

Harritzekoa da Villasantek bere <i>buruz II</i> atalean Axularren adibide bakar bat ere ez ekartzea. Basilio Joannategirenak jarri ditu, beren-beregi hau gehituz: “y ciertamente no se trata de autor suletino”.	Es de extrañar que Villante en su apartado <i>buruz II</i> no haya aportado ningún ejemplo traído de Axular. Los que aporta son de Basilio Joannategi, añadiendo intencionadamente lo siguiente: “y ciertamente no se trata de autor suletino”.
---	---

2. Villasanteren oharra: // Nota de Villasante:

Ikusten denez, -ri begira, aurrez aurre... esanahia esapide honi dagokio. Eta -z, -(r)en gainean, -(r)i dagokionez, -a gaitzat harturik... esanahia adierazteko, esapide honetaz baliatzea azken orduko berrikuntza baino ez da. Eta erabilera honek, hori bai!, sekulako arrakasta euki du. Hona berau:	Como se ve, el significado «de cara a», «dirigiéndose a», «frente a», «mirando a», «con vistas a» es el propio de este giro. El hechar mano de este giro para significar «acerca de», «sobre» es una innovación reciente. Procedimiento, por otra parte, que ha hecho total fortuna. He aquí el mismo:
--	--

d) -z, -(r)en gainean, -(r)i dagokionez, -a gaitzat harturik // «acerca de», «sobre», «con respecto a», «para con».

- **gaiari buruz:** acerca del tema; **nire ustetan gai honi buruz nahikoa hitz egin dugu:** creo que ya hemos hablado suficientemente sobre este tema; **gai bati buruz galdetu:** preguntar a cerca de algo; **gaitzari buruz ere barre egin dut:** me he reído aún acerca de la enfermedad; **zeri buruz diozu hori?:** ¿refiriéndose a qué dice Ud eso?; **liburu honi buruz ez dakit ezer:** no sé nada sobre este libro; **edozeri buruz hitz egiten du horrek:**ése comenta sobre cualquier tema; **egitekoari buruzko guztia egin dago:** todo lo relativo (referente) a lo que había que hacer está hecho; **ekonomiari buruz hitz egin zuen hizlariak:** el conferenciante habló sobre la economía; **zeri buruz izan da gaur sermoia:** ¿sobre qué tema ha versado el sermón de hoy?; **trikuek (kirikioek) ume egiterakoan izaten omen dituzten oinaze izugarriei buruz aritu zitzaidan:** me habló acerca del horroroso sufrimiento de los erizos en el momento del parto; **grabatuari buruz deus ez dakien norbait ere etor daiteke, ikasi nahi badu:** puede venir incluso el que no tiene ni idea acerca del grabado, si es que quiere aprender; **Blanca Urgell Lazaro anderea, Fr. Pedro Antonio Añibarroren lanei buruzko argitasunez ongi hornitua:** la señora Blanca Urgell Lázaro, expertísima en las explicaciones sobre los trabajos de Fr. Pedro Antonio Añibarro

Akesolok zera gehitzen du: // Akesolo añade:

- DUVOISIN (Gen 1, 16) emplea *buruz* para presidir (predominar): **Jainkoak egin izan zituen bi argizagi: bata handiagoa egunari buruz jartzekotzat; eta berteza gauari buruz jartzeko:** hizo Dios dos luceros mayores; el lucero grande para el dominio del día, y el lucero pequeño para el dominio de la noche. [OLABIDE: argizai aundi bi egin zitun Yainkoak: aundiena egunez, eta txikiena eta

izarrak gauetz argitzeko. KEREXETA: beraz, argi andi bi egin ebazan Jaungoikoak: argi andia, eguna argitzeko eta argi txikia gaba argitzeko. EAB: Jainkoak bi argizagi handi egin zituen: handiena egunaren gain jartzeko eta txikiena gauaren gain].

-(R)EN BURUZ forma ere nonbait sartu behar da eta leku honetantxe sartzea otu zait, d) atal honetako esanahi berbera baitu. Villasantek, nik dakidanez, ez du forma hau aipatzen, baina nik hor-hemen ikusi izan dut berau...	En alguna parte hay que incluir la forma -(R)EN BURUZ y se me ha ocurrido intercalarla aquí, ya que tiene el mismo significado que el del apartado d). Villasante, que yo sepa, no menciona esta forma, pero yo sí la he visto escrita por ahí...
---	---

- **gatzaren buruz ere barre egin dot:** me he reído aún acerca de la enfermedad; **“euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian” gaiaren buruz egin du Juan Luis Goikoetxeak bere tesia:** la tesis de Juan Luis Goikoetxea versa sobre ‘Dialecto y educación. De lo conocido a lo desconocido dentro del entramado diglósico del euskara’

Zein ataletan sartu hurrengo hau? // ¿En qué apartado lo colamos el siguiente?: **jinez buruz:** después de venir

Hona hemen BURUri dagokion eskema moduko hau: // He aquí a modo de esquema sobre lo dicho sobre BURU:

BURU

Postposizio formak, erabilera eta euron adierak: // Las diversas formas pospositivas, su régimen y su significado:

3. -(r)en BURUAN

Hiru adiera hartzen ditu: a) adierazten den denboraz gero, -(r)en buruz, barruan. b) nire (hire, bere...) iritiz. c) -(r)en hasieran, aurrean.	Presenta tres significados: a) «después de», «al fin de», «al cabo de», «al término de», «en el plazo de». b) «en mi (tu...) opinión de», «según creo (crees...)». c) «al comienzo», «a la cabeza», «al frente», «delante».
---	--

4. (r)en BURUKO

Esanahi bi: a) -(r)en buruan. b) nire (zure...) kabuzkoa.	Significado: a) «en el plazo de», «al cabo de». b) «por mi (su...) cuenta», «de mi (su...) creación».
---	--

5. bere (neure, zeure...) BURUTIK

Esanahia: -(r)en izenean, -(r)en kabuz, -(r)en kasa.	Significado: «por su cuenta», «de por sí».
--	--

6. buruz I: -(r)en BURUZ

Esanahia: adierazten den denboraz gero, -(r)en buruan.	Significado: «al cabo de», «después de».
--	--

buruz II: bere (neure, zeure...) BURUZ

Bi esamolde osatzen dira: a) "bere (neure, zeure...) kasa" adierazten duena. b) "bere (neure, zeure...) kabuz", adierazten duena.	Forma una locución que significa: a) «por su cuenta», «a su aire». b) «por sí mismo», «personalmente», «por iniciativa propia».
---	---

buruz III: -(r)a(t) BURUZ. Ipar. Bizigabeekin erabilia: // Usado con seres inanimados:

Bi adiera ditu: a) -rantz b) -i begira, -ra begira	Tiene doble significado: a) «hacia», «en dirección a». b) «mirando a», «de cara a».
--	---

Buruz IV: -(r)i BURUZ: Bai bizidunekin bai bizigabeekin erabilia: // Usado con seres ya animados ya inanimados:

Lau esanahi ditu: a) -rantz b) -i begira, -ra begira c) -(r)en aurka d) -z, -(r)en gainean, -(r)i dagokionez, -a gaitzat harturik	Tiene 4 significados: a) «hacia», «en dirección a». b) «dirigiéndose a», «frente a», «de cara a», «mirando a», «con vistas a»; «en vista de», «en consideración a». c) «en frente», «contra». d) «acerca de», «sobre», «con respecto a», «para con».
---	--

DENBORA «tiempo».

Postposizio bezala <i>denboran</i> forma erabili ohi da, dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen duela. Batzuetan berau gal dezake. Esanahia: "lehen" eta "gero" baten artean.	Como posposición se usa la forma <i>denboran</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en, que a veces se elide. Significado: «en tiempo de».
--	--

- **Aristotelesen denboran:** en tiempo de Aristóteles; **Noeren denboran:** en tiempos de Noé; **lehenago, hemen balea harrapatzaileen denboran:** anteriormente, en el tiempo de los balleneros aquí; **jentilen artean eta denboran:** antiguamente, en tiempo del paganismo y entre paganos; **gauzak bere denboran egin behar dira:** las cosas hay que hacerlas a su debido tiempo; **gure denboran ez zen honelakorik gertatzen:** en nuestros días no ocurría esto; **zuen denboran ez zegoen Ermuan Arriaga deiturarik:** en vuestros tiempos no había en Ermua el apellido Arriaga
- **lehenago gure gazte denboran erreka eta itsasoko urak garbi-garbiak ziren:** en tiempo de nuestra juventud las aguas del mar y de los

ríos eran muy puras; **gerra denboran:** en tiempo de guerra; **gazte denboran Ameriketara ibilia zen:** en su juventud anduvo por América

DESGOGARA «a disgusto». Sin.: gogorik gabe, gogoz kontra.

Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: gogorik gabe, gogoz kontra, gustura ez.	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «a disgusto (de)», «contra la voluntad (de)».
---	--

- **hau ere aitaren desgogara duzu, ba, txotxo!;** ¡muchacho!, también esto va contra la voluntad de tu padre; **aitaren desgogara ez izatearren, ezin dut beti nire buruaren kontra eta desgogara jardun:** no puedo obrar siempre en contra y a disgusto mío por no proceder a disgusto del padre

DINA «adecuado», «proporcionado»; «digno».

Dagokion izen sintagmak genitiboko -(r)en atzizkia eta aditz izena +-ko [-t(z)eko] hartzen ditu. Esanahia: -ko adina, -ko bezanbait, -ko beste, -ko lain; duin, merezidun	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en del genitivo y nombre verbal + ko [-t(z)eko]. Significado: «tanto como», «lo preciso»; «digno».
---	--

- **Euskal Herriak ez du behin ere biltzen bere dina bihi:** Euskal Herria nunca cosecha tanto grano como necesita; **zure dina bada:** hay tanto como lo que a ti te hace falta, como para ti; **ez da indarrez zure dina:** en fuerza no es tanto como tú; **ene dina:** tanto como para mí; **Jainkoak nahi izan du Eliza bere senarraren dina izan dadin:** Dios ha querido que la Iglesia sea digna de su esposo; **handiagoda da nire gaiztakeria, barkazioaren dina ni izateko baino** (Uriarte, Gen. IV, 13)⁵: maior est iniquitas mea, quam ut veniam merear [Duvoisin-Olabide: antzera / parecido. Kerexeta-EAB: beste bidetik / otro rumbo. Cotejar traducciones castellanas]; **neskatxa horren dina ez izateak samintzen hau:** te mortifica el que no seas digna de esa chica; **badu bere dina eta behar duna:** ya tiene lo indispensable y necesario; **berandu etorriko da bazkaltzera eta bere dina izozkailuan gordeko diogu:** vendrá tarde a comer y le guardaremos en el frigorífico lo suficiente para él, tanto como para él
- **gozaltzeko dina:** lo suficiente para almorzar; **zer? ezer arrantza duzue? –Etixerako adina:** ¡qué tal? ¿habéis pescado algo? - Como para

⁵ Honela jarriko genuke // Lo pondríamos así: *barkazioaren dina izateko baino handiagoda da nire gaiztakeria.*

(repartir para) casa; **mundu guztia ikara gorrian sartzeko dina da:** es como para ponerse todo el mundo en alerta roja; **horrek indarra? Zu airean bidaltzeko dina bai, behintzat:** ¿que qué fuerza (tiene)? Tanto como para lanzarte por los aires, sí; **aitaren bihotza biguntzeko dina bazen:** era capaz de ablandar el corazón de su padre; **baliteke nahi duzun dina ez egotea, baina, egon, gozaltzeko dina badago:** puede ser que no haya tanto como quisieras, pero, haberlo, hay tanto como para el desayuno

EGITE «acción».

<i>Bere</i> (nire, zure...) <i>egitez</i> esamoldea postposizio bezala har dezakegu. Esanahia: berez, bere izatez, berez bere, bere-berez.	Como posposición se puede considerar la expresión <i>bere</i> (nire, zure...) <i>egitez</i> , significando «por su naturaleza», «por su (mi, tu...) condición», «per se».
--	---

- **suak bere egitez berotu egiten du:** el fuego por su naturaleza caliente; **gazteak bere egitez zirinak dira:** los jóvenes por su condición suelen ser inquietos; **lagunak, arrantzaleak, dioste boga arraina (Boops boops) izutia dela:** los amigos pescadores me dicen que la boga es asustadiza; **gizonak bere egitez du jakiteko gutizia:** el hombre de por sí tiene el deseo de saber; **bere egitez, gaitz den gauza ere, errazten da gogotik eta alegeraki hartzen denean:** la cosa que de suyo es difícil, se facilita cuando se la toma con gusto y alegremente; **eta hala ikusiko duzu bere egitez haserrekor eta mendekatiak diren pertsonak:** y así verás que las personas que por su natural son irascibles y vengativas; **suak bere egitez argitu ere egiten du:** el fuego por su naturaleza también alumbra; **purga bere egitez ona da:** la purga de por sí es buena

ERA «modo», «manera». Mendebaldeko euskalkietakoa da. // Es occidental. Sin.: antz, modu, molde, pare.

Postposizio bezala <i>eran</i> , <i>erara</i> , <i>erako</i> formak erabili ohi dira, aurretik genitiboa darama, edota <i>-en</i> atzizkidun aditz forma. Edota <i>-ko</i> kasua. Esanahia: 1. <i>Eran:</i> a) <i>-ren</i> moduan, <i>-ren</i> modura, bezala; <i>-r</i>)en nahiara. b) <i>-(r)</i> en neurrian, ahala. c) eta berehala, bezain laster. (Partizipioarekin) 2. <i>Erara:</i> <i>-ren</i> moduan, <i>-ren</i> modura, <i>-(r)</i> en nahiara. 3. <i>Erako:</i> a) dagokion modukoa b) <i>-ren</i> antzeko.	Como posposición se emplean las formas <i>eran</i> , <i>erara</i> , <i>erako</i> , precedida de un genitivo o de una oración de relativo. Y también de caso <i>-ko</i> . Significado: 1. <i>Eran:</i> a) «al modo de», «como», «a la manera de», «del modo que»; al gusto de». b) «a medida que», «al paso que». c) «nada más», «tan pronto como». (Con participio). 2. <i>Erara:</i> «a la manera de», «conforme», «al gusto de». 3. <i>Erako:</i> a) «conforme», «proporcionado». b) «parecido a», «al estilo de».
---	---

1. *eran:*

- **eskerrak irakatsi zidanaren eran egin dudana, zure erara egin izan banu, bada, ez nukeen aprobaturko eta:** menos mal que hice en la forma que me enseñó (el/la profesor/ra), porque si lo hubiera hecho a tu manera no hubiera aprobado; **noiz arte lau oinekoren eran bizi nahi duzu?:** ¿hasta cuándo quieres vivir como animales?; **itsasoko arrainak bajurakoen eran harrapatu izan balira, gaur ere itsasoa arrainez beteta egongo zen:** si los peces del mar hubieran sido capturados al modo de los de bajura, el mar estaría lleno de peces aún hoy; **zoratuaren eran ibiliko dira jendeak, nola ihes egin ez dakitela:** deambulará la muchedumbre como locos, sin saber a dónde huir
- **mihia puztu zitzaion ahoan ezin kabitu zitzaion eran:** se le hinchó la lengua en la boca de forma que no podía caver en ella; **gauzak datozen eran hartu behar dira:** las cosas hay que tomárselas como vienen; **semeak ekarri (antxumeak) eta amak gisatu zituen, aitak nahi izaten zuen eran:** el hijo los trajo (los cabritos) y la madre los guisó al gusto del padre, al modo que le gustaba al padre; **nahi duzun eran:** como quieras, como gustes, del modo que quieras, a la manera que prefieras
- **guztiok ulertzeko eran azaldu zuen:** lo explicó de modo que pudiéramos entenderlo todos nosotros
- **gizonak munduan zabaltzen ziren eran, gaiztakeria ere berekin zeramatena:** los hombres a medida (al paso) que iban

dispersándose por el mundo, llevaban consigo la maldad; **urteak aurrera doazen eran, gure ahalbideak urritzten ari dira**: a medida que los años aumentan, nuestras facultades se van mermándose

- **jaio eta eran hil zen**: murió nada más nacer; **erre eta eran sabeleratu dugu**: lo hemos zarpado a continuación de asarlo; **heldu zen eran hasi zen gora-goraka**: tan pronto como entró comenzó a increpar

2. *erara*:

- **bere erara biziz**: viviendo a su aire; **gizon prestuen erara**: a la manera de los hombres de bien; **egiaren erara**: conforme a la verdad; **norbaiten erara jartzea**: conformarse al deseo de alguno; **zuk zeure erara eta nik neure erara**: tú a tu gusto y yo a mi gusto; **haiek bakoitzari bere erara**: aquellos a cada cual según su gusto
- **gure erara ez baduzu egin nahi, egizu nahi duzun erara**: si no quieres hacer a nuestra manera, hazlo como te apetezca, hazlo a tu gusto
- **Mutrikuko erara hitz egitea Mutikun, ez da harritzekoa**: nada hay de extraño en que en Mutriku se hable a la manera de Mutriku

3. *erako*:

- a) **maitasuna bihotzaren erakoa du**: su amor es proporcionado a su corazón; **bere jasaren erako zeregina eman diote**: le han dado un quehacer conforme a su habilidad
- b) **apaizen erakoak ziren Aaron eta bere semeak**: Aaron y sus hijos eran parecidos a sacerdotes; **zuk hartu duzun erako gutuna hartu dut**: he recibido una carta parecida a la tuya

ERDI «centro», «mitad».

<i>Erdian, erdira(t), erditik</i> formak postposiziotzat hartzekoak dira, dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia daramala, batzuetan gal dezakeela berau. Esanahia: erdi-erdialdean...	Pueden considerarse como posposiciones las formas <i>erdian, erdira(t), erditik</i> , precedidas de la desinencia del genitivo, <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: «(en) pleno centro».
--	---

- **han zegoen kalearen erdian zut**: allá estaba erguido en medio de la calle; **harrria jaurtiki eta bekokiaren erdian jo zuen**: arrojó la piedra y le dió en el centro de la frente; **ikusi zuen suaren erdian eskailera bat**: vio una escalera en medio del fuego; **ez nazazula eraman neure egunen erdian**: que no me llames en la mitad de mis días; **hainbeste oinazeren erdian**: en medio de tanto

tormento; **lehorte gogorrenaren erdian hozituko zen ernamuina**: en plena sequía brotaría el germen; **gauaren erdian Jesus jaio da**: hoy a media noche ha nacido Jesús; **lapur biren erdian**: entre dos ladrones; **Xabier diana baten erdian ipini eta azken bost urte hauetan hiru aldiz atxilotu dutela**: que a Xabier le han colocado en medio de una diana y que en los últimos cinco años le han detenido tres veces; **gizon horien erdian da**: está en medio de esos hombres; **bihotzaren erdian**: en pleno corazón, en el centro del corazón; **otsailaren erdian**: a mediados de Febrero; **egunaren erdian**: en pleno día; **lapurreta egiten zuen bakoitzean garau bat agertzen zitzaion bekokiaren erdian**: cada vez que robaba le salía un grano en plena frente, en medio de la frente; **han zegoela bidearen erdian zut**: estando allí erguido en medio del camino; **bide erdian jarri zen pistola bat eskuan, bi besoak dindilizka, dardaraka**: se puso en medio de la carretera, pistola en mano, con los brazos caídos, temblequeando; **bihotz erdian**: en pleno corazón; **goiz erdian heldu zen**: llegó a media mañana

- **munduaren erdira(t) hedatu zuen komentuko bizimoldea**: y propagó a medio mundo la vida monacal; **ardia otsoen erdira bezala**: como cordero al centro de los lobos; **plaza erdira joan zen**: se fue hacia el centro de la plaza; **plaza nagusiaren erdira atera eta esan zuen “amaren semerik bada!”**: salió al pleno centro de la plaza mayor (se presentó en pleno centro de la plaza mayor) y soltó la bufonada del reto; **bihotzaren erdira**: al pleno centro del corazón; **plaza erdira heldu zenean behea jo zuen**: cuando llegó al centro de la plaza se desplomó; **bide(aren) erdira azaldu zitzaion**: le salió al centro del camino, a mitad del camino
- **suaren erditik atera zen**: apareció por el centro del fuego; **nahikoa zen amaren bihotzaren erditik haurraren bihotzaren erdira bi hitz egitea etxe gutzia baretzeko**: dos palabritas salidas de lo íntimo del corazón de la madre hacia el centro del corazón del hijo eran suficientes para apaciguar toda la casa; **bihotzaren erditik bihotzaren erdira**: de corazón al corazón; desde lo más íntimo a lo más íntimo del corazón; **otsailaren erditik aurrera**: desde la mitad de febrero en adelante
- **bihotzaren erdian zuena herritarren erdira bihotzaren erditik**: desde lo más recóndito de su corazón lo más íntimo de su ser a consideración de sus paisanos

EREDU «norma», «modelo».

Postposizio bezala, <i>ereduan</i> , <i>eredura</i> , <i>ereduz</i> , <i>ereduzko</i> formak erabili ohi dira. Aurretik joan daiteke <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma edo <i>-(e)n</i> atzizkidun adizkera. Esanahia: modura, erara, arabera; araberako, antzeko...	Como posposiciones se emplean las formas <i>ereduan</i> , <i>eredura</i> , <i>ereduz</i> , <i>ereduzko</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> o de una flexión verbal con la desinencia <i>-(e)n</i> . Sgnificado: «según», «como»; «a proporción», «conforme (a)», «de acuerdo (con)», «al tenor de».
---	---

Ereduz: Ipar.: Esanahia: *eredura*, *arabera* // Significado: «conforme (a)», «según», «de acuerdo (con)», «con arreglo (a)», «de igual manera», «a proporción».

- **honen desiren ereduz:** conforme a sus deseos; **aitaren gomendioen ereduz joka dezazula:** que te comportes de acuerdo con los consejos de tu padre; **bakoitzak eskainiko du duenaren ereduz:** cada uno ofrecerá a proporción de lo que tuviere; **eta zirikatuko zaitu aginduen ereduz bizitzera:** y te incitará a vivir conforme a lo mandado; **honen arabera eta ereduz erraiten du Senekak ere:** en conformidad y de acuerdo con esto dice también Séneca (a este propósito dice Séneca; conforme y según este modelo)

Eredura: Ipar.:

Bi adiera: 1)-(r)en arabera. 2) -(r)en erara, -(r)en modura.	Doble significado: 1) «según», «conforme (a)», «de acuerdo (con)», «con arreglo (a)», «de igual manera», «a proporción». 2) «como», «del mismo modo (que)».
--	---

1. **ingelesaren erregelaren eredura moldatu perpausak:** componer las frases según las reglas del inglés; **ezen gizonen eredura handi dena, nardagarri da Jainkoaren aitzinean,** (Haraneder, Lk. 16, 15), [Duvoisin: *gizonen begietan eder dena*; Olabide: *gizaurrean gorena, berriz*; Kerexeta: *gizonei goragarri jakena*; EAB: *gizakiak baliotsutzat daukana*]: porque lo que es estimable para los hombres, es abominable ante Dios; **sukarra arintzen zaion eredura, aurpegia ere orobat zihoakion alaituz:** conforme se le bajaba la fiebre, asimismo se le alegraba el semblante; **atzarturen hau manuen ereduz bizitzera:** te incitará a vivir conforme a los mandamientos; **merezien eredura saria ematea:** el premiar de acuerdo con los méritos, conforme a los méritos; **herritarren eredura (ustetan) ez zen gaizkilea:** según sus paisanos no era malhechor; **bizi behar badut garaiaren eredura bizi behar:** si tengo que vivir, tendré que vivir de acuerdo con los tiempos

2. **Lafittek dioen eredura:** como dice (del mismo modo que dice) Lafitte; **Aristotelesek dioen eredura, mandatari horiek dira hitzak:** como dice Aristóteles, esos mensajeros son las palabras; **irakasleak irakatsi digunaren eredura:** como nos lo ha enseñado el profesor; **gizonak emendatzen zirenen eredura, gaixtakeria ere orobat zihoan emendatuz:** conforme aumentaban los hombres se fue aumentando la maldad

gastatu irabaziaren ereduz (*ereduan*, *eredura*): gastar conforme a (en proporción de) lo que se gana

Ereduzko: Ipar. (Bizk.: *ereduko*):

Esanahia: *araberako*, *antzeko*. // Significado: «equivalente», «semejante», «como», «proporcionado».

- **honen ereduzko emakumeak:** mujeres como ésta; **zuen liburuko adibideen ereduzkoak:** ejemplos como los de vuestro libro; **horren ereduzkoa** (*eredukoa*): como ése, conforme a ése

Ereduan: Bizk. Esanahia: *arabera*. // Dialecto B. Significado: «según», «conforme», «al tenor de».

- **erretiroa jasoko du bakoitzak kotizatu duenaren ereduan:** el retiro se cobra conforme a lo que cada uno ha cotizado

Gai honi aurrea hartzearen Villasantek diona dakart hona: // Para curarme en salud, traigo a colación lo de Villasante:

Villasante: “También se usan las formas *ereduan*, *eredura*, *ereduko*. Vide AZKUE D.V.E.F.”.

Baina <i>ereduan</i> formari dagokionez, Azkuek hitz honetan, <i>gatzelerazko baliokidea baino ez dakar, ez dator adibiderik</i> . Eta Akasolok ere berdin jokatu du.	Pero en lo que se refiere a la forma <i>ereduan</i> , Azkue, en esta palabra, no trae más que la traducción castellana, sin añadir ningún ejemplo. Y otro tanto hace Akasolo.
---	---

ERETZ(E) «lado»; «comparación»; «relación». Batez ere Zub.: Sin.: *alde*, *ondo*, *alderdi*.

Postposizio bezala <i>eretzean</i> , <i>eretzeko</i> , <i>eretzer</i> a formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Hona hemen euron esanahiak: 1) <i>eretzean</i> : a) -(r)en aldean. b) -(r)en aldetik, -(r)en aurrean, -rekiko, -(ren)ganako 2) <i>eretzeko</i> : -rekiko, -(ren)ganako. 3) <i>eretzer</i> a: -rekiko, -(ren)ganako.	Como posposiciones se emplean las formas <i>eretzean</i> , <i>eretzeko</i> , <i>eretzer</i> a, precedidas de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . He aquí su significado: 1) <i>eretzean</i> : a) «en comparación (a)». b) «al lado de», «en frente», «delante (de)», «ante», «con respecto a», «para con». 2) <i>eretzeko</i> : «con respecto a», «de parte de». 3) <i>eretzer</i> a: «con respecto a», «ante».
--	--

1. (R)EN ETZEAN:

- a) **potina traineruaren eretzean txikia da** (traineruaren aldean): la potina es pequeña en comparación con (al lado de) la trainera; **hire eretzean hura mutil handia duk:** en comparación de ti (a tu lado) aquel muchacho es mayor; **Morde Lormau aberats zen bertze anitzen aretzean, baina haren ontasanak deusik ez ziren Morde Rotschildenen eretzean:** Morde Lormau era rico en comparación a otros muchos, pero su fortuna era una nadería en comparación de la de Morde Rotschild
- b) **es du balio handirik literaturaren eretzean** (literaturaren aldetik): bajo el aspecto literario no tiene gran valor; **gurasoen eginbidea beren haurren eretzean** (euren haurrei buruz, euren haurrenganako): los quehaceres de los padres ante sus hijos; **ikasleen eretzean** (ikasleen aurrean): ante los discípulos; **guztioak haurrideak gara Jainkoaren eretzean** (Jainkoaren aurrean): teretzera: odos somos hermanos (semejantes) ante Dios; **orduán haren eretzean zirenek ez zuten txistik egin:** entonces los que estaban a su lado, los que estaban con él, no dijeron ni mú; **gure etxearen eretzean bada haritz bat:** enfrente de nuestra casa hay un árbol

2. -(R)EN ERETZEKO:

- **gurasoek badituzte beren haurren eretzeko egikizunak:** los padres sí tienen obligaciones para con sus hijos; **Urtziren eretzeko egikizunak:** las obligaciones para con Dios; **legenardun baten antzera, urrun utzi da.** Herriaren eta herriko legearen eretzeko, hila da: a modo de un leproso, se le ha abandonado lejos. Con respecto al pueblo y de parte de la ley del pueblo, está muerto; **Maria Birjinaren eretzeko debozioa** (Ama Birjinarekiko, Ama Birjina(ren)ganako, Ama Birjinaren alderako debozioa): la devoción a la Virgen maría; **inor ere ez zu bezain hoberik zure haurren eretzeko:** ninguno mejor que tú para con tus hijos

3. R)EN ERETZERA:

- **nolakoak izan dira gure eretzera lehen gurasoen bekatuaren ondorioak?** (gurekiko, gureganako): ¿cuáles han sido, respecto a nosotros, las consecuencias del pecado de los primeros padres?; **zure portaera botoemaileen eretzera ez da zuzena izan:** no te has portado debidamente con respecto a los votantes

ERRU «culpa». Bizk.

Postposizio bezala <i>erruz</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: kulpaz, faltaz.	Como posposición se emplea la forma <i>erruz</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en, significando «por culpa de».
--	--

- **neure erruz, neure erruz, neure erru handiz:** por mi culpa, por mi culpa, por mi grandísima culpa; **zure erruz izan da istripua:** el accidente ha sido por tu culpa

ESKARI «súplica», «petición». Mendebaldeko euskalkietan. // En dialectos occidentales.

Postposizio bezala <i>eskariz</i> forma erabili ohi da: Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: eskatuta, erregututa.	Como posposición se usa la forma <i>eskariz</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en, significando «a instancias», «a petición (de)».
--	--

- **guardien eskariz soinekoak erantzi zituen:** se desnudó a instancias de los guardias; **CATkoen eskariz:** a petición de los de CAT

ESKAS «falta», «carencia». Sin.: falta.

Postposizio bezala, aurrekoak -(r)en atzizkia hartzen du. Batzuetan atzizki hau gal dezake. Esanahia: faltan, faltaz. Ezezko perpausetan <i>eskasik</i> partitiboa erabili ohi da. Baita <i>eskasean</i> , <i>eskasez</i> formak ere erabili ohi dira.	Como posposición rige caso genitivo, que con frecuencia se elide, significando «a falta de». En las negativas se usa el partitivo <i>eskasik</i> . También se usan las formas <i>eskasean</i> , <i>eskasez</i> .
--	--

- **bada han oinatz franko eta ez konpainia eskasik:** allí hay abundancia de pisadas y no falta de compañía; **ez da hemen esperantza eskasik:** aquí no falta la esperanza; **ez dugu deusen eskasik, eta gutxiago maitasun eskasik:** no nos falta nada; y menos aún nos falta amor; **Errege Dabitek nola ezpaitzuen amorio eskasik, ..., erraiten zuen:** el rey David, como no le faltaba amor, decía así; **ez da maitasun(aren) eskasik:** no falta amor; **zeren eskasik zaudete?:** ¿a falta de qué estáis?
- **arta horren eskasean, ardiak galtzen dira:** a falta de ese cuidado, se pierden las ovejas; **gauza guztien eskasean bizi:** vivir careciendo todo; **hitzen eskasean (hitz-eskasean) aurkitzen garela sail honetan:** encontrándonos a falta de vocablos en esta materia
- **eta utzi zuen hiltzera laguntzaren eskasez** (laguntza-eskasez): y le dejó morir por carencia de ayuda; **maitasun eskasez gara:**

estamos a falta de amor, estamos faltos de amor

ESKE «petición».

<p>Postposizio bezala, <i>ibili, joan, etorri, jarraiki...</i> aditzekin erabiliz, bi esanahi hartzen ditu:</p> <p>1) eskatzen.</p> <p>2) [zenbait lekutan] bila.</p> <p>Erabilera:</p> <p>a) dagokion izen sintagma izenondo batek-edo mugatua denean, <i>-(r)en</i> kasu atzizkia hartzen du.</p> <p>b) delako izen sintagma mugagabea denean eta izen arrunt batek osatua, <i>-(r)en</i> kasu atzizkirik gabe.</p> <p>c) izen sintagmarik gabe ere erabili ohi da.</p> <p>Nahiz eta <i>eske</i> forma izan formarik erabiliena, <i>eskean</i>, etc. formak ere erabili ohi dira.</p>	<p>Como posposición, y junto a los verbos <i>ibili, joan, etorri, jarraiki...</i> se emplea con un doble significado:</p> <p>1) «ir (venir, andar...) pidiendo», «en petición».</p> <p>2) [en algunas zonas] «en busca de». He aquí su empleo:</p> <p>a) cuando el sintagma nominal que le precede está determinado como por un adjetivo toma la desinencia casual <i>-(r)en</i>.</p> <p>b) cuando tal sintagma es indeterminado y compuesto por un nombre común, va sin la desinencia casual <i>-(r)en</i>.</p> <p>c) también se emplea sin sintagma nominal.</p> <p>Aunque la forma <i>eske</i> es la más habitual, caben también otras: <i>eskean</i>, etc.</p>
---	--

1. *eskatzen* adiera. // «ir (venir, andar...) pidiendo», «en petición».

- **irakasle on baten eske etorriak:** los que vinieron pidiendo un buen maestro; **beti ipuin berriaren eske dago Julenetxo:** Julene siempre anda pidiendo un cuento nuevo; **liburu dendara joan da gure azken hiztegiaren eske:** ha ido a la librería pidiendo (en petición de) nuestro último diccionario; **atzoko txartel gastuaren eske nor joango da?:** ¿quién va a ir a pedir la minuta de ayer?; **ea zeren eske diharduten;** ¿a ver qué andan pidiendo?; **eskean dabilta, inoiz baino gehiagoren eske:** andan pidiendo, pidiendo más cosas que nunca; **orduán dezakezue (eskubide) berrien eske etortzeko garaia:** entonces tendréis la ocasión de venir a pedir nuevos derechos
- **laguntasun(aren) eske datorkizun eskalari, duzunaren ereduz emaiouzu:** al mendigo que se te acerca pidiendo ayuda, dale en conformidad de lo que tuvieres; **barkamen eske, limosna eske, laguntza eske, diru eske...:** pidiendo perdón, limosna, ayuda, dinero (mendigando)...; **zeu bazara errudun, orduan zeu zaude obligaturik aurreratzerá eta hitz eske jarraikitzerá:** si tú eres el culpable, entonces estás obligado a adelantarte y a seguir tras él, solicitando su palabra; **hala erantzun zieten neskatxa zentzundunek olio eske etorri zitzaizkien zentzungebeei:** así dijeron las vírgenes prudentes a las vírgenes fatuas que les vinieron a pedir aceite; **ardia ahuntzari ile eske** (esr. zah.): la oveja

pidiendo lana a la cabra {la oveja lozana dijo a la cabra: dame lana (refrán)}; **otorde** (ogi truke) **dabil maiatza su eske** (esr. zah.): Mayo anda pidiendo fuego a trueque de pan {Mayo frío, mucho trigo (refrán)}; **oihuz mendeku eske:** pidiendo venganza a gritos; **batean euri eske, bestean eguraldi onaren eske:** unas veces pidiendo agua, otras veces pidiendo buen tiempo

2. *bila* adiera // «en busca de».

- **lan(aren) eske etorri ziren:** vinieron en busca de trabajo; **zure eske etorri dira:** han venido en tu busca; **Aioraren eske:** en busca de Aiora; **Anderren eske:** en busca de Ander; **guztiok jakinduriaren bila; guztiok egiaren eske:** todos en busca de la ciencia, todos en busca de de la verdad; **itsasoa nahiko eskasa dago baina arrain eske atera dira:** la mar está algo feito pero han salido en busca de pescado
- **itzalperantz gerispe eske:** hacia la umbría en busca de sombra; **ardo eske bidali naute:** me han enviado en busca de vino; **askatasun eske joan behar da:** hay que ir en busca de la libertad; **ur eske joan da:** ha ido por agua

<p>Baina ikus bi perpaus hauek, oraingo idazkerara egokituak. GENAVIÈVE N'DIAYE: <i>Structure du dialecte basque de Maya</i>; Paris, 1970:</p>	<p>Pero véanse estas dos frases, acomodadas a la escritura estándar actual de GENAVIÈVE N'DIAYE: <i>Structure du dialecte basque de Maya</i>; París, 1970:</p>
--	--

- **lastoaren eske joan behar da:** hay que ir en busca de la paja; **etorri ziren ormaren eske:** vinieron en busca de hielo

c) izen sintagmarik gabe:

- **eske ibiltzea debekatzen duen legea:** la ley que prohíbe mendigar; **zeren atartera eske etorri zaion pobre gose premian zegoenari ez ziolako bere mahai ase betetik, asetzekorik eman eta ez are elikatzekorik ere:** porque al pobre hambriento y necesitado que le vino a pedir a la puerta de casa no le dio de su mesa repleta con qué saciarse, ni aún con qué poder pasar; **eta ez da ez asko, eske datortzun pobreak ematea eta ez besteri:** ni es bastante solamente con que des al pobre que viene a pedirte; **izarrei eske (ikusit dūt) pagoak:** he visto a las hayas pidiendo a las estrellas; **eske eta eske:** pidiendo insistentemente; busca que te busca; **Timeoren semea, Bartimeo itsua, eske jarria zegoen bide bazterrean** (Duvoisin, Mk 10, 46): el hijo de Timeo, Bartimeo el ciego, estaba pidiendo (mendigando) sentado junto al camino

eskean: eskatzen // «pidiendo».

- **maitasun eskean, eskale antzera**: pidiendo amor, como un mendigo; **eguerdian perejil eskean eta arratsaldean gatz eskean etorri zaigu atera**: nos ha venido a la puerta al mediodía pidiendo perejil y al atardecer pidiendo sal; **bihar etorriko zaigu olio eskean**: mañana nos vendrá pidiendo aceite
- **kalerik kale eskean**: pidiendo calle por calle; **eskean hasi, ibili eta hazi**: comenzar, continuar y crecerse pidiendo; **Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita** (EAB, Mk 10, 46): el ciego Bartimeo, hijo de Timeo, estaba pidiendo (mendigando) sentado junto al camino

eskez: eskatzen, eske, bestek eskaturik // «pidiendo», «a petición de».

- **entzuleen eskez**: a petición de los oyentes; **besteren eskez egin du**: lo ha hecho a petición de otros
- **barkamen eskez**: pidiendo perdón; **ez dakizue zeren eskez zaudeten**: no sabéis lo que estáis pidiendo
- **Bartimeo Timeoren seme itsua zegoen jarririk bide bazterrean eskez** (Leizarraga, Mk 10, 46): Bartimeo, el hijo ciego de Timeo estaba sentado junto al camino pidiendo (mendigando)

ESKER «gracia», «reconocimiento».

Postposizio bezala <i>esker</i> (batez ere Ipar.) forma, eta baita <i>eskerrak</i> plurala ere (batez ere Heg.), erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)i</i> atzizkia hartzen du. Adiera: <i>-(r)en</i> laguntzagatik, <i>-(r)en</i> eraginagatik, <i>-(r)en</i> bitartekotasunagatik.	Como posposición se emplea la forma <i>esker</i> (sobre todo Ipar.) y también el plural <i>eskerrak</i> (sobre todo Heg.), precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)i</i> , significando «gracias a».
--	--

- **lagunei eta etxekoei esker / lagunei eta etxekoei eskerrak hainbat arrain gozo jan dugu**: gracias a los amigos y a los familiares hemos comido cantidad de pescado exquisito; **zuri eskerrak lortua**: lo conseguido gracias a ti; **emakume zahar hari esker biziko da haurra**: la criatura vivirá gracias a aquella anciana; **kontrolean, neure ile zuriei esker aurrera jarraitzeko esan zidaten**: en el control, gracias a mis canas me han dicho que siguiera; **bai, kristaua naiz, Jainkoari eskerrak**: sí, soy cristiano, por la gracia de Dios; **Barandiaranen eraginari eskerrak**: gracias al influjo de Barandiaran; **Nazareteko toki santua judu-kristauen tradizioari eskerrak gorde izan da**: el lugar santo de Nazaret se ha

conservado gracias a la tradición judeo-cristiana

ESKU «mano».

Postposizio bezala <i>esku</i> , <i>eskuan</i> , <i>eskuko</i> , <i>eskutik</i> , <i>eskuz</i> formak aipa ditzakegu.	Como posposición podemos enumerar las siguientes formas: <i>esku</i> , <i>eskuan</i> , <i>eskuko</i> , <i>eskutik</i> , <i>eskuz</i> .
---	--

1. *esku* forma:

Dagokion izen sintagmak genitiboko <i>-(r)en</i> atzizkia hartuz. Esanahia: <i>-(r)en</i> ardurapean, <i>-(r)i</i> dagokiola (<i>egon</i> , <i>izan</i> , <i>hartu</i> , <i>utzi</i> , <i>geratu</i> ... aditzekin).	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «en manos de», «a cargo o cuenta de», «a merced de», «depender de» (con los verbos <i>egon</i> , <i>izan</i> , <i>hartu</i> , <i>utzi</i> , <i>geratu</i> ...).
---	--

- **haren esku gelditzen da**: queda a su cargo; **Kirmenen esku utzi dut honen itzulpena**: la traducción de esto lo he dejado en manos de Kirmen; **lagunaren esku utzi**: dejar a cuenta del amigo; **txostenaren laburpena zure esku izango da**: el resumen del informe quedará bajo tu responsabilidad; **zuzendariaren esku gelditu zen azken erabakia**: la decisión final quedó en manos del director; **ibilaldi horren antolaketa geure esku utzi du**: la organización de esa excursión lo ha dejado en nuestras manos; **nire esku balego**: si estuviera en mis manos, si dependiera de mí; **nor bere esku izan**: ser dueño de uno mismo, depender de sí; **bere esku dela gizona**: que el hombre es dueño de sí mismo, es libre, depende de sí mismo; **norbaitek zerbait bere esku izan, hartu**: tomar alguien algo a su cargo; **zerbait norbaiten esku utzi**: dejar (poner) algo en manos de alguien; **hori zure esku dago**: eso depende de ti / eso está en tus manos

2. *eskuan* forma:

Dagokion izen sintagmak genitiboko <i>-(r)en</i> atzizkia hartuz. Esanahia: <i>-(r)en</i> menpean (<i>egon</i> edo <i>izan</i> aditzekin).	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> del genitivo. Significado: «depender de», «estar pendiente de» (con <i>egon</i> o <i>izan</i>).
---	--

- **noren eskuan dago hori?**: ¿de quién depende eso?; **nire eskuan balego**: si estuviera en mis manos, si dependiera de mí; **besten mihiak ezin eduki ditzakezu, haiek ez daude zure esku**: porque las lenguas de otros no las puedes contener, ellas no están en tu mano; **bada hori zure eskuan dago**: pues bien, eso está en tu mano; **eta erretzeari uztea ere zeure eskuan dago**: y el dejar de fumar también está en tus manos, depende de ti; **asmo hori aurrera ateratzea guztion eskuan dago**: el sacar adelante ese proyecto depende de

todos nosotros; **gaitz da gaizki hitz egiten dizunari ez ihardestea, zeure eskuan duzularik, ez mendekatzea:** es dificultoso no replicar a quien te dice una palabra, no vengarte cuando ello está en tu mano; **etorkizuneko gauzak, fortunaren eskuan eta menturan:** las cosas del futuro, las que están en manos del azar y de lo problemático; **zeure eskuan dituzunak, uzten dituzu galtzera:** las que tienes en tu mano, dejas perder; **zeren zer da erokeria handiagorik, geroko denboraz, besteen eskuan eta menturan dagoenaz, bere eskuan eta segurean balu bezala ordenatzea baino?:** porque ¿cabe locura mayor que disponer del mañana, que está al arbitrio de otro, como si estuviera en su mano y talante?

3. *-(r)en esku egon, -(r)en eskutan egon, -(r)en eskuetan egon:*

a) «estar en poder de», «obrar en poder de»:

- **armak poliziaren eskutan daude:** las armas obran en poder de la policía

b) «estar en manos de», «estar bajo el poder»:

- **hegoaldeko lurraldea armadaren esku dago:** la parte sur del territorio está bajo el poder del ejército; **ene eskuan dago:** está en mi poder; **gotzainaren esku dago:** está sometido al obispo

4. *eskuko* forma:

a)

Aurretik erreflexiboa dela. Esanahia: -(r)en gain., -(r)en jabe, -(r)en eskuan.	izenordain genitiboan Tras pronombre en forma reflexiva en caso genitivo. Significado: «tener, dar, dejar, quedar... a (mi, tu, su...) disposición»; «ser libre, independiente, dueño de sí».
--	--

- **nor bere eskuko izan:** depender de sí, ser dueño de sí; **zeure eskuko zaren bitartean:** mientras seas independiente; **bere eskuko da, beraz, ikuslea nahi duena aukeratzea:** por lo tanto, el espectador es libre de elegir lo que le apetezca; **geure eskuko eta geure buruaren jabe:** libres e independientes; **gizon batek bere semeari diru pilo handi bat eman dio bere eskuko:** un hombre le ha dado una cantidad de dinero a su hijo poniéndola a su disposición; **pertsona ederrak, gorputza bere eskuko eta ongi egina duenak:** la persona hermosa, que tiene un cuerpo esbelto y bien

conformado ⁶; **nola geure borondatea geure eskuko baitugu:** como tenemos nuestra voluntad a nuestra disposición, somos dueños de nuestra voluntad, está en nuestras manos; **beraz ez zaigu deus gelditzen geure eskuko:** por lo tanto, nada nos queda que sea facultativo; **satisfatzea da, zor ez ditugun obrez, geure eskuko ditugun obrez, borondate hutsez egindako obrez, zor dugun guztia ordaintzea eta bihurtzea:** satisfacer es pagar y retornar tanto como debemos, valiéndonos de obras que no debemos, que están a nuestro arbitrio y que son enteramente voluntarias; **bere eskuko da:** es independiente; **zeren nola bahituen libertatea, eta heure burua heure eskuko:** como tenía libertad y eras independiente (dueño de ti); **bere ontasunak ez ditu bere eskuko:** no tiene la libre disposición de sus bienes; **zure eskuko ematen dut ene etxea:** pongo mi casa a su disposición; **zure eskuko da horren egitea:** está en su poder el hacer eso, de Ud. depende; **edan ondoan, ez du bere burua bere eskuko:** después de beber, no está en disposición, no es dueño de sí; **bere eskuko da gizon hori:** ese hombre está en disposición; **beraz, egiazki zeuen eskuko izango zarete, Semeak askatasuna ematen badizue:** si, pues, el Hijo os da la libertad, seréis realmente libres (dependeréis de vosotros); **ez dudala okasinotan sartuz gero, neure burua neure eskuko:** que, una vez metido en disputas, no soy dueño de mí; **neure burua neure eskuko nuenean:** cuando era independiente

b)

Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du: Esanahia: -(r)en mendeko (izan, egon; jarri, utzi...).	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «ser dependiente de»; «estar subordinado a», «estar bajo la autoridad de»; «estar en mano de», «estar a disposición de».
--	---

- **etxe barnean behintzat, aitaren eskuko zen:** al menos dentro de su casa, estaba a disposición de su padre; **honelako gizonen eskuko gareino, ez dukegu deus onik:** mientras estemos bajo esta clase de personajes, nada bueno vamos a tener; **zerbait norbaiten**

4

Villasanterenean ez dator bere eskuko hau itzulita. GUEROCO GUEROn ez dator honen baliokiderik, eta Urgell-ek ere ez du datu hau aipatzen...	En el de Villasante no se traduce este <i>bere eskuko</i> . En GUEROCO GUERO no aparece su equivalente, ni Urgell hace mención alguna de esta omisión...
--	--

eskuko jarri: dejar (poner) algo en manos de alguien; **medikuaren eskuko jarri zen:** se puso en manos del médico; **berak eramango du bere kotxean, hori ez da gure eskuko:** él le llevará en su coche, eso no está en nuestra mano

5. *eskutik* forma:

Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en bitartez, -(r)en bidez	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia - (r)en. Significado: «por obra de», «de (la) mano de», «auxilio de», «por socorro de».
--	---

- **emaztearen eskutik jaso zuen albiste hori:** esa noticia la tuvo de mano de su mujer; **Egañak txapela Amurizaren eskutik jantzi zuen:** Egaña se enfundó la txapela de mano de Amuriza; **etsitzekoa da horren eskutik lana:** no hay que esperar el conseguir trabajo de su mano, por parte de él

6. *eskuz* forma:

Aurretik izenordain erreflexiboa genitiboan dela. Esanahia: nork bere bidez, berak beretara.	Tras pronombre en forma reflexiva en caso genitivo. Significado: «por mano de».
--	---

- **berak bere eskuz guztiak zatitu eta porrokatu zituela:** que él mismo con su mano las destrozó y pulverizó todas; **baldin berak bizi deino bere eskuz egiten ez badu:** si él mientras vive no la hace por su mano; **nola borondatezko egite onak, zeuk zeure eskuz edo besterenez, zeu bizi zarela, ondorengoengan utzi gabe egin behar dituzun:** de cómo las buenas obras voluntarias debes hacerlas tú mismo por tu mano o por mano ajena, mientras vives, sin dejarlas a los herederos; **batbederak berak bere eskuz, bizi dela egin behar ditu:** debe hacerlas uno por su mano, mientras vive; **orain zeu bizi zarela eta osasuna duzula, zeure eskuz pobreak ematen diozunaz, gero hiltzerakoan ordenatzen duzunaz baino probetxuago eta merituz izanen duzula dio Axularrek:** dice Axular que reportarás más provecho y mérito con lo que ahora que vives y tienes salud das por tu mano al pobre, que no con lo que dispones después, al morir; **zuk zeure eskuz eta nik neure eskuz konponduko dugu:** tú por tu parte y yo por mi parte lo arreglaremos

7. -(r)en esku(e)tan erori aditz forma // La forma verbal -(r)en esku(e)tan erori:

Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du: Esanahia: -(r)en mendean, -(r)en agindupean jausi.	Precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual -(r)en. Significado: «caer en manos de», «caer en poder de».
---	--

- **Hiria inbaditzaileen eskuetan erori zen:** la ciudad cayó en manos de los invasores

ESPERANTZA «esperanza».

Postposizio bezala esperantzan forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du, batzuetan berau gal dezakeela. Esanahia: itxaroten, zain, ustez.	Como posposición se emplea la forma esperantzan, precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual -(r)en, que a veces se elide. Significado: «en la esperanza de».
---	---

- **hobearen esperantzan aurrera beti:** siempre para adelante a la espera de algo mejor; **hori diruaren esperantzan eta Otaño ere han zen diru esperantzan:** ése está en la esperanza de hacerse con dinero y también Otaño estaba con la esperanza de conseguir dinero; **nekazariak fruituen esperantzan, gogotik iragaten du bere lur-lanetako nekea:** el labrador con la esperanza de la cosecha, soporta a gusto la fatiga de la labranza; **jasandakoak eta jasatekoak askatasunaren esperantzan jasan eta jasanen ditugu:** lo sufrido y lo que hay que sufrir lo hemos soportado y lo soportaremos con la esperanza de la independencia
- [Hona hurrengo hauek: // He aquí estas otras formas]: **zerbait lortuko zuen esperantzan:** en la esperanza de conseguir algo; **desira zutena iristeko esperantzan:** con la esperanza de conseguir lo que esperaban; **gaitza arinduko zaiolako esperantzan dagoena:** el que está con la esperanza de que se le aliviará el mal

ESPERANTZETAN ustez. // «esperando», «con la esperanza de».

(hur) esperantzetan izan, egon, gertatu	haurdun egon, izan, estar preñada, embarazada.
---	--

(hur) esperantzetan ipini eman	haurdun utzi dejarla preñada
--------------------------------	------------------------------

- **edozeinek ikus zezakeen Andredena Maria haur esperantzetan zela:** cualquiera podría notar que la Santísima Virgen estaba en estado de buena esperanza; **haurrik gabea deitzen zutenak badu sarri sei hilabete esperantzetan dela:** la llamada estéril ya hace seis meses que está esperando un hijo;

neskatxa gazte hori (haur) esperantzetan gertatu da: esa jovencita se ha quedado embarazada; **mutil alfer nezkazale bat da hori!:** fama dun Martzelina esperantzetan eman duela!; !ése no es más que un vago mujeriego!; !se corre que le ha dejado preñada a Martzelina!

ESPERO «espera».

Postposizio bezala <i>esperoan</i> forma erabili ohi da, <i>egon, izan, bizi</i> , etc. aditzekin, eta aurretik joan daiteke: 1) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma. 2) absolutu mugagabea. 3) aditz izena + <i>-ko</i> [- <i>t(z)eko</i>]. 4) <i>-(e)lako</i> atzizkidun adizkeraren bat. 5) <i>-(e)n</i> atzizkidun adizkeraren bat. Esanahia: itxaroten (egon), zain (egon).	Como posposición se emplea la forma <i>esperoan</i> , en relación con verbos como <i>egon, izan, bizi</i> , etc. y precedida de: 1) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . 2) absoluto indeterminado. 3) nombre verbal + <i>-ko</i> [- <i>t(z)eko</i>]. 4) flexión verbal terminada en <i>-(e)lako</i> . 5) flexión verbal terminada en <i>-(e)n</i> . Significado: «(estar) a la espera de», «(estar) aguardando».
--	---

- horren esperoan bizi naiz:** vivo esperando eso; **bakearen oinarria diren askatasuna, egia, zuzentasuna eta elkarrizketaren esperoan egon/bizi/izan...:** estar (vivir) a la espera de (esperando) la libertad, verdad, justicia y diálogo, bases para la paz; **orduaren esperoan gaude:** estamos esperando a la hora; **agertuko denaren esperoan egon gabe:** sin aguardar a lo que aparezca; **esperoan gaude:** estamos a la espera
- zenbaitzuek gogor dihardute burujabetza esperoan:** algunos trabajan denonadamente aguardando la soberanía; **zorion esperoan:** esperando la felicidad
- prezioak merkatzeko esperoan gaude:** estamos aguardando a las rebajas, a que se abaraten los precios; **estropada hau irabazteko esperoan gaude:** estamos con la eperanza de ganar esta regata
- agertuko delako esperoan egon gabe:** sin la esperanza de que aparezca
- independentismoaren esparruan zenbait boto arrantzatuko dituzten esperoan:** con la esperanza de que van a pescar algunos votos en el ámbito independentista; **noiz etorriko den esperoan bizi gara:** vivimos a la espera de que venga alguna vez

FABORE «favor», «ayuda». Sin.: alde, on.

Postposizio bezala <i>fabore, faboretan</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-(r)en</i> alde.	Como posposición se emplean las formas <i>fabore</i> y <i>faboetan</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «en favor de», «a favor de», «en pro», «en ayuda de», «en beneficio de».
---	---

- eta okasio guztietan haren alde eta fabore agertu zara:** y en todas las ocasiones te has manifestado de su parte y en su favor; **arrazoi honek ni adoretzen nau, honek bihotz ematen dit, hau aurkitzen dut nik neure alde eta fabore:** esta razón es la que me da a mí ánimo, ella es la que me infunde valor, la encuentro a mi favor; **estropadaren fabore:** en beneficio de la regata; **emazteen fabore:** en ayuda de las mujeres; **gure fabore dabil:** anda a favor nuestro; **Oñatiren fabore:** en favor de Oñate
- noren faboretan diharduzu?:** ¿a favor de quién trabajas?; **gure faboretan ari da:** anda a favor nuestro; **nor deituko du bere faboretan?:** ¿a quién llamará en favor suyo?; **onen faboretan eta gaiztoen kontra:** a favor de los buenos y en contra de los malos; **etxearen eta etxekoen faboretan:** en pro de la casa y en favor de los familiares; **Zuberoko fededunen faboretan berriki moldatu duen liburua:** el libro que recientemente ha acomodado en beneficio de los creyentes de Zuberoa; **beldurtu egin naiz denen aurrean haren faboretan agertu zarenean:** me he asustado cuando delante de todos te has mostrado a favor de áquel; **hauxe duzu zeure faboretan hitz egiteko abagunea:** ésta es la ocasión para que hables en tu favor

FALTA «falta», «culpa».

<p>Postposizio bezala <i>faltan</i> eta <i>faltaz</i> formak erabili ohi dira.</p> <p>1. <i>Faltan</i>: Aurretik joan daiteke:</p> <p>a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma. Batzuetan berau galdu egiten da. Esanahia: eskasia, gabezia.</p> <p>b) partizipioa. Esanahia: gabe.</p> <p>2. <i>Faltaz</i>: Aurretik joan daiteke:</p> <p>a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma. Batzuetan berau galdu egiten da. Esanahia:</p> <p>1) <i>-(r)en</i> erruz</p> <p>2) eskasia, gabezia.</p> <p>b) partizipioa. Esanahia: ez -t(zearren, ez -tzeagatik.</p>	<p>Como posposiciones se emplean las formas <i>faltan</i> y <i>faltaz</i>.</p> <p>1. <i>Faltan</i>: precedida de:</p> <p>a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>, que a veces se elide. Significado: «a falta de».</p> <p>b) participio verbal. Significado: «por falta», «sin».</p> <p>2. <i>Faltaz</i>: precedida de:</p> <p>a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>, que a veces se elide. Significado:</p> <p>1) «por culpa de»; «por falta de».</p> <p>2) «a falta de», «por carecer de».</p> <p>b) participio. Significado: «por no».</p>
--	---

1. *Faltan*:

- a) **zer ote den lore eder baten faltan bizi izatea**: lo que es vivir a falta de una hermosa flor; **esku beharraren faltan gaude**: estamos a falta de mano de obra, andamos escasos de mano de obra; **horrek diruaren faltan badaki nora jo**: ése caundo está a falta de dinero, ya sabe dónde acudir; **aitaren faltan amarengana eta amaren faltan aitarengana**: a falta de su padre, donde su madre y a falta de su madre, donde su padre; **langile faltan alfer eta lo gelditzen badira lurrak**: si a falta de operarios las tierras quedan infructíferas y paradas; **esanaren faltan ez da izango**: no será por falta de decir; **hobearen faltan etxean geratuko gara**: a falta de algo mejor, nos quedaremos en casa; **zu egundo ere ez zaude zerbaiten faltan**: tú nunca estás a falta de algo; **ez, ez nago ezeren faltan**: no, no estoy a falta de nada; no me falta nada
- diru faltan**: a falta de dinero; **tinta faltan**: a falta de tinta; **gaur arrain faltan okela jango dugu**: hoy a falta de pescado, comeremos carne
- b) **ikasbide hori aditu faltan inor ez dadin galdu**: para que nadie se pierda por no entender esa lección; **esan faltan ez da izango**: no será por falta de decir

2. *Faltaz*:

- a) 1) **bere faltaz ikasgelara joaten ez direnak**: los que por su culpa no asisten a clase; **behin erretzeari utziz gero, bere faltaz, erretzeari ematen diona...**: el que habiendo dejado de fumar, por su culpa empieza de nuevo a fumar...; **sagarroia, bere**

egitez ere nekez erditzen da, baina are, bere faltaz nekezago: el erizo, aun por su naturaleza, pare con dificultad, pero más dificultosamente aún por su culpa; **hitz hori erabiliko dut, besteren faltaz**: a falta de otra, usaré esa palabra; **esanaren faltaz ez da izango**: no será por falta de decir; **oraingoan zeure faltaz (erruz) izan da**: esta vez ha sido por tu culpa

- zeren zahartasunekoak ez baitira jakin gabez, ezjakinez edo esperientzia faltaz eginak**: porque los de la vejez no son hechos por inadvertencia, por ignorancia o falta de experiencia
- a) 2) **aurten diru faltaz ez dute traineru berririk erosi**: este año por falta de dinero (por carecer de dinero) no han comprado una nueva trainera; **ez aukera faltaz, punteria faltaz baino**: no por falta de ocasiones sino por falta de puntería; **behar den adineko alogera faltaz, pobrezian bizi dira**: por falta de un sueldo adecuado, viven en pobreza
- b) **garaiz jan faltaz ahuladia sartu zaio aldapan gora**: por no comer a su tiempo le ha entrado la pájara cuesta arriba; **ongi ulertu faltaz, sekulako haserre sortu zen**: por no comprender bien (lo que dijo), se armó la marimorena; **behar den adineko alogera irabazi faltaz, pobrezian bizi dira**: por no ganar un sueldo adecuado, viven en pobreza; **esanaren faltaz ez da izango**: no será por falta de decir

FIN «fin», «término».

<p><i>Finean</i> formak postposizio bezala funtzionatzen du. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: azkenean.</p>	<p>La forma <i>finean</i> funciona como posposición, precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>. Significado: «al fin o término de».</p>
---	--

- joan-etorri guztion finean hainbat gehiago jakingo dugu**: al final de tantos viajes, sabremos bastante más; **ordea gero ere, iraultze eta ibiltze hauen guztien finean**: pero a la postre, al cabo de todos estos vuelcos y meneos; **badira zuhaitz batzuk, udaren finean, sasoitik kanpoan, hasten baitira loratzen edo birloratzen**: hay algunos árboles que a fines del verano, a destiempo, comienzan a florecer o a dar segunda flor; **zeren ni egin naiz udaren finean, ... mahats hondar-mondarren bila dabilena bezala**: porque he venido a ser semejante a aquel que al fin del verano, ... anda en busca de los últimos residuos de uva

GABE «sin».

Hiru adiera hartzen ditu: 1) <i>barik</i> . 2) <i>-(r)en beharrean, -(r)en ordez</i> . 3) <i>baino lehen (nahiz denbora nahiz leku espapideetan)</i> .	Toma tres significados: 1) «sin». 2) «en vez de», «en lugar de». 3) «antes de» (en contextos temporales y de lugar).
---	---

1. *Esanahia*: *gaberik, gabetarik, barik, baga, bagarik, bage* // Significado: «sin»:

Aurretik har dezake: a) absoluto mugatua: <i>-a mugatzailea</i> . b) absoluto mugagabea: <i>-ø atzizkia</i> . c) honek sarri partitiboa hartzen du: <i>-(r)ik kasu-atzizkia</i> . d) aditzari dagokiola: <i>aditzak era burutua hartzen du BETI</i> . e) aurrekorik gabe ere erabil daiteke, berau testuinguruan adierazita baldin badago. f) izen ordainekin nahitaezkoa da kasu absolutua. g) <i>Gabe</i> honek, bai izen sintagmaren eta bai aditzaren era burutuaren ondoren, atzizki batzuk ere har ditzake.	Precedida de: a) absoluto determinado: artículo <i>-a</i> . b) absoluto indeterminado: desinencia <i>-ø</i> . c) en este caso, casi siempre, toma el partitivo: desinencia <i>-(r)ik</i> . d) si es verbo, SIEMPRE precedido de participio. e) puede figurar sin su régimen, si éste está expresado en el contexto. f) con pronombres es obligado el régimen caso absoluto. g) <i>Gabe</i> , tanto tras el sintagma nominal como tras participio, puede a su vez, recibir varios sufijos.
--	--

- a) **gaur aldizkaria gabe geratu naiz**: hoy me he quedado sin periódico; **eskatu nion liburua gabe etorri da**: ha venido sin el libro que le pedí; **euro dirua gabe ezin eros daiteke**: sin el dinero euro no se puede comprar (sólo con el euro se puede comprar); **irakaslearen irakatsi berezia gabe**: sin especial explicación del profesor; **baitakite Jainkoa gabe arnasarik ere atera ezin dezakegula**: pues saben que sin Dios no podemos ni respirar; **emakume bat, maiz bakarrik eta premia gabe gizon batekin egoteak ematen du badela elkarren artean halako maitasuntxo**: el que una mujer esté con un hombre con frecuencia a solas y sin necesidad, da a entender que hay cierto cariño mutuo; **tinko eta duda gabe itxaroten dut**: lo espero firmemente y sin género de duda; **kulpa gabe zigortua**: castigado sin tener culpa alguna; **atea irekitzeko astia gabe**: sin tiempo de abrir la puerta
- b) **gaur aldizkari gabe geratu naiz**: hoy me he quedado sin periódico; **diru gabe ezin eros daiteke**: sin dinero no se puede comprar; **idazteari dagokionez ere ez naiz egiteko (arazo) gabe**: por lo que respecta al escribir, tampoco me encuentro sin problemas; **neurri**

gabe edanez: bebiendo sin medida; **ondore gabeko nahia**: un deseo sin efecto (consecuencia); **ezeren nahaste gabe**: sin mezcla alguna

- c) **dirurik gabe ezin eros daiteke**: sin dinero no se puede comprar; **gaur aldizkaririk gabe geratu naiz**: hoy me he quedado sin periódico; **onerako gogorik gabe eta gaitzerantz makurtua**: sin ganas hacia lo bueno e inclinado al mal; **hor dago egitekorik gabe eta ardurarik gabe**: ahí está desocupado y despreocupado; **ezen ikusten zutenean gizon bat bizitzen zela errentarik gabe, ofiziorik gabe, berehala beste frogantzarik gabe bizia kentzen zioten**: que cuando veían a un hombre que vivía sin rentas, sin oficio y sin trabajar, inmediatamente, sin más pruebas, le quitaban la vida; **dudarik gabe**: sin duda; **arriku handirik gabe**: sin gran peligro; **ahaide eta adiskiderik gabe gelditu**: quedarse sin allegados ni amigos; **bestetik gabe**: sin más; **dirurik gabeko poltsak urik gabeko iturria dirudi**: una cartera sin dinero se parece a una fuente sin agua; **deusik erran gabe**: sin decir nada; **bestetik gabe alde egin zuen**: se marchó sin más; **abarketak urratu, oinekorik gabe / Hernion egin behar abarkaren jabe**: rotas las alpargatas (y) sin calzado, tendré que agenciarme abarcas en Hernio
- d) **gaur aldizkaria irakurri gabe geratu naiz**: hoy me he quedado sin leer el periódico; **gurasoak ikusi gabe joan zen**: se fue sin ver a sus padres; **etxean edukiko dituzu, eskolara bidali gabe**: los mantendrás en casa, sin mandarles a la escuela; **gerorako utzi gabe**: sin aplazarlo para luego; **etxetik alde egin gabe egon beharra**: el tener que estar sin salir de casa; **egiari kalterik egin gabe**: sin perjudicar a la verdad; **barrura sartu zen barrukoak ohartu gabe**: entró dentro sin que los de adentro lo notaran; **irabazi du, bai, baina meriturik egin gabe**: sí que lo ha ganado, pero sin hacer méritos (para ello); **nork jakin zigortu gabe utziko gaituenik?**: ¿quién sabe si nos dejará sin castigarnos?; **nahi baduzu sosegu onean eta haserretu gabe egon, ez sobera galde, ez sobera bila**: si quieres permanecer en tranquilidad y sin enfadarte, no preguntes ni inquietes demasiado; **esan gabe doa (ez dago esan beharrik)**: no hay necesidad de decirlo

Delako era burutua <i>izan-</i> en bidez gauzatzen denean <i>izan</i> hori ezabatu egiten da gehienetan.	Cuando este participio se realiza por medio de <i>izan</i> , este <i>izan</i> , las más de las veces, se elide.
--	---

egin dizkigun mesede handiak: los grandes favores que sin merecerlos nos los ha hecho

- e) **bidali dut bere anaiaren eske (bila), etorri zen gabe:** le mandé en busca de su hermano: volvió sin él (lit. «sin»); **zugana gabe, ordea, ezin aurkitu:** sin (acudir a) ti, en cambio, imposible hallarlo; **gabe dago, da** (hau da: zerbaiten gabe dago): está sin (eso...); **gabe dagoenaren ausardia:** el atrevimiento del que nada tiene; **lagunarekin edo gabe, ni banoa estropadetara:** con el amigo o sin él, yo voy a ir a ver la regata
- f) **hura gabe:** sin él, sin ella...; **ni (hi, gu, zu, zuek, haiek) gabe:** sin mí (ti, nosotros, Ud, vosotros, ellos...); **hori gabe ez gara moldatuko:** sin ése no nos vamos a arreglar
- g)

<i>Gabe</i> honek, bai izen sintagmaren eta bai aditzaren era burutuaren ondoren, atzizki batzuk ere har ditzake.	<i>Gabe</i> , tanto tras el sintagma nominal como tras participio, puede a su vez, recibir varios sufijos.
---	--

g) 1) -z atzizkia: // Sufijo -z: **GABEZ**.

<i>Gabe</i> , batez ere, aditzaren era burutuaren ondoren doanean; baita absolutu mugagabearen edota partitiboaren ostean. Adiera bikoitza: a) ez zertzeagatik, ez zertzearren. b) barik, gabe, baga, gabetarik...	Cuando <i>gabe</i> sigue, sobre todo, al participio; también al absoluto indeterminado o partitivo. Doble significado: a) «por no», «por falta de», «por causa de no (saber, querer, etc.)». b) «sin».
--	--

- **zeren bere faltaz, lan egin nahi gabez halakotu baitira:** porque han llegado a este extremo por su culpa, por causa de no querer trabajar; **ezen berehala, ikusi ere nahi gabez, etxetik kanpora bota baitzuen:** que al punto, no queriendo ni aun verla, la arrojó de casa; **erantzun zidan, medizina bat hartu nahi gabez, eta medikuagana joan nahi gabez ez dela sendatzen:** me respondió que no se cura porque no quiere tomar una medicina ni ir al médico; **hala ipini gabez, Israeleko seme Ejiptotik atera zirenetarik, ez ziren Josue eta Kalef baizen agindutako herrialdean sartu:** y porque no la pusieron de ese modo, de entre los hijos de Israel que salieron de Egipto, únicamente Josué y Calef entraron en la tierra prometida; **zeren zahartasunekoak ez baitira jakin gabez... eginak:** porque los de la vejez no son hechos por inadvertencia; **neure buruaz fida izan gabez:** por no confiar en mí mismo; **gazteak jakin gabez, zaharrak ezinez, egitekoak doaz gaizki eginez** (esr. zah.): el joven por no saber, el viejo por no poder, los quehaceres se van haciendo mal {si el mozo supiera, y el viejo pudiera, ¿qué se les

resistiera? (refrán)); **eta hala ezagutza hau izan gabez dabilta ergelkerian:** y así a falta de este conocimiento andan metidos en tonterías; **dirurik gabez, ez dugu erosi:** no lo hemos comprado por falta de dinero; **anitz egur eder gelditzen da oihanean ekarlerik gabez:** cantidad de hermosa leña queda en el bosque por falta de acarreadores

- **zertzelada guztiak mahai gainean ipini gabez ez noa ezer esatera:** no voy a decir nada sin que antes se pongan sobre la mesa todos los pormenores; **lan egin nahi gabez eta etorkizunera behatu gabez bizi dira:** viven sin querer trabajar y sin mirar al futuro; **aldean diru(rik) gabez ere munduan zehar ibil zaitezke gaur egun:** hoy en día puedes andar por el mundo sin portar dinero, aun sin llevar dinero contigo; **froga(rik) gabez diharduzu salatzen:** estás acusando sin pruebas

g) 2) -rik atzizkia. Esanahia: gabe, gabetarik, barik... // Sufijo -rik. Significado: «sin».

Erabilera: a) izen sintagma mugagabeekin, eta delako izen sintagmak ez du -(r)ik deklinabide atzizkia hartzen. b) aditzari dagokiola, era burutuaren ondoren.	Empleo: a) acompañado de un sintagma nominal indeterminado y este sintagma va sin la desinencia -(r)ik. b) precedida de un participio.
---	--

- **diru gabarik:** sin dinero; **zalantza gabarik:** sin duda alguna; **duda gabarik:** sin duda alguna; **hura gabarik:** sin ello...; **zu gabarik ezer ez da:** sin ti nada hay; **neke gabarik ez da bizitzerik:** no se puede vivir sin penalidades; **su gabarik ez da kerik:** sin fuego no hay humo
- **arrastorik utzi gabarik:** sin dejar rastro alguno; **ezer esan gabarik sartu zen:** entró sin decir ni pío; **isildu gabarik:** sin callarse; **uste gabarik sartu zinen nire bihotzean:** sin notar lo entrastes en mi corazón; **guk merezi gabarik:** sin que lo merezcamos; **ez da deus lortzen saiatu gabarik:** nada se consigue sin intentarlo; **iragan bedi anitz gauza guk jakin gabarik:** pásense muchas cosas sin saberlas nosotros; **etxeok jakin gabarik sukaldean agertu zitzaizen barruan zegoen mutila:** sin que los de casa lo supieran el que estaba preso se les presentó en la cocina

etxe gabe, etxerik gabe edota etxe gabarik, baina inola ere ez *etxerik gabarik.

Bizkaiera euskalkiko aldaerak: *bagarik, barik*.

BAINA // Variantes del bizkaiera: *bagarik, barik*.
PERO

Añibarrok goiko azken adibidea (Axular) bere GUEROCO GUEROn honela jartzen du: <i>igaro bitez gauza asco guc jaquin бага</i> . Baina hiru lerro gorago <i>bage</i> forma jarri du.	Añibarro, el último ejemplo de arriba (de Axular) en su GUEROCO GUERO acomoda así: <i>igaro bitez gauza asco guc jaquin бага</i> . Pero tres líneas más arriba escribe <i>bage</i> .
---	---

Eta Akesolok BAGE hitzean dio: Y Akesolo en la palabra BAGE trae:	Forma primitiva indudablemente, de la que son variantes <i>gabe</i> y <i>bage</i> .
--	---

Jozak tronpeta!: ¡échale un galgo!

g) 2).1 *gabetanik*: Heg. Esanahia: *barik, gabe*,
gabetarik... // Significado: «sin».

Erabilera: goiko <i>gaberik</i> formako a) eta b) berberak.	Uso: El mismo régimen y circunstancias que las de <i>gaberik</i> .
---	--

- **arnasa gabetanik gelditu nintzen**: me quedé
sin aliento; **nagusia utzirik diru gabetanik**:
dejando al dueño sin dinero
- **Adani loa kendu gabetanik**: sin quitarle el
sueño a Adán; **beti gogoan zauzkat, ahaztu
gabetanik**: siempre te tengo en mi mente, sin
olvidarte; **zaude, Maulera gabetanik**:
estate, estate, sin ir a Mauleón

g) 2) 2 *gabetarik*: Ipar. Esanahia: *gabe, barik*,
gabetarik... // Significado: «sin».

Erabilera: goiko <i>gaberik</i> formako a) eta b) berberak.	Uso: El mismo régimen y circunstancias que las de <i>gaberik</i> .
---	--

- **emaztea har dezanak handitarik, ez date
etxean grina gabetarik** (Ohienart, esr. zah.,
135): si quieres bien casar, con tu igual y en tu
lugar (refrán), en casa de mujer rica, ella
manda, ella grita (refrán); **askatasun
gabetarik ez dago ezer egiterik**: sin libertad
no hay nada que hacer
- **bere begiz ikusi gabetarik inork sinetsiko ez
zukeena gertatu da bizkitartean**: entre tanto,
ha sucedido lo que ninguno pudiera creer sin
que lo viera por sus propios ojos; entretanto, ha
sucedido algo que sin verlo por sus propios
ojos ninguno pudiera creerlo; **guk merezi
gabetarik**: sin que nos lo merezcamos, sin
merecerlo nosotros; **arnasa gabetarik gelditu
nintzen**: me quedé sin aliento; **uste gabetarik
buruz buru egin dute**: sin esperarlo se
encontraron cara a cara

g) 3) *-ko* atzizkia. Esanahia: *gabe, gabarik...*, *barik*,
bage, bage // Sufijo *-ko*. Significado: «sin».

-KO atzizki hau joan daiteke bera bakarrik edo mugatzailearekin eta beste deklinabide atzizkiekin. Bakarrik doanean, <i>-ko</i> hau daroana izenlaguna da eta ostean datorren izenaren menpe dago. Mugatzailea (<i>-a</i>) badaroa, <i>gabeko</i> izen bihurtzen da eta bere burujabe egin.	Sufijo <i>-ko</i> solo o seguido de artículo y demás desinencias casuales. Si va solo, <i>-ko</i> es índice de dependencia de otro sustantivo que sigue. Si lleva el artículo <i>-a</i> , <i>gabeko</i> se nominaliza y se independiza.
---	---

- **koipe gabeko lapikoak**: pucheros sin grasa;
kerik gabeko sua: fuego sin humo; **funtsik
gabeko erabakia**: una resolución sin
fundamento, una decisión que carece de
fundamento; **amairik gabeko bidea**: un
camino que no tiene fin; **losarik gabeko
herria**: un pueblo sin aceras; **duda(rik)
gabeko kontua**: un asunto sin discusión;
**dirurik gabeko poltsak urik gabeko iturria
dirudi**: una cartera sin dinero se parece a una
fuente sin agua; **ondore gabeko nahia**: un
deseo sin resultado; **emakumeekin ibili
gabeko gizona**: hombre que no ha rozado con
mujeres, hombre sin trato con mujeres; **letra
gabeko aisía**: la ociosidad de sin letras
- **ondore gabeko nahia, eragin indarrik
gabekoa, ez dela aski izango**: que el deseo sin
resultado (consecuencia), el de sin fuerza
resolutiva, no será suficiente; **lotsa gabeko
haurra...**, **etxeok lotsatzekoa**: una criatura
maleducada..., deja en mal lugar a los de casa;
**zein ogi nahi duzu? Gatzduna ala gatz
gabekoa? Nahiago dut gatz gabekoa**: ¿qué
pan prefieres? ¿El de sal o el de sin sal?
Prefiero el de sin sal

g) 4) *-a* mugatzailea: eta honek, jakina, deklinabide
atzizkiak har ditzake eta deklina ere daiteke. Esanahia:
gabe, barik

Sufijo o artículo *-a*, que puede a su vez recibir las
desinencias casuales y declinarse: Significado: «sin».

- **ez naizela Chomskytarra, ez amorratua, ez
amorrú gabea**: que no soy chomskyano, ni
furibundo, ni sin furia; **zintzarri mihi gabea**:
cencerro sin badajo; **gau eder aukerako,
parerik gabea!**: una noche apropiada, ¡(la de)
sin par!; **bihotz bat garbia eta notarik gabea**:
un corazón puro y (el de) sin tacha; **iraungi
berrian, oraino hoztu gabea denean**:
(cuando está) recién apagado, cuando todavía
no se ha enfriado; **eta sei maindire batere
erabili gabeak**: y seis sábanas todavía sin
estrenar; **ez naduka, ez, besteren beldurrak
ihes egin, neure beldurrak, neure buruaz
fido izan gabeak nakar karguak eta**

konpainiak ere utzaraztera: no es, pues, el miedo de otro el que me hace andar huyendo, sino el miedo de mí, el no fiarme de mí es lo que me hace abandonar los cargos y las compañías

- **honela atsedean du arimak arrazoiketa gabean:** así descansa el alma sin ejercitarse en razonamientos; **lur goldatu gabean barna:** a través de un terreno sin labrar

2. *Esanahia:* beharrea, ordez: // Significado: «en vez de», «en lugar de»:

Aurretik joan daiteke: a) izen sintagma mugatua edota mugagabea. b) zenbait kasu atzizkidun izen sintagma. c) partizipioa.	Precedida de un: a) sintagma nominal determinado o indeterminado. b) sintagma nominal de diferentes desinencias casuales. c) participio.
---	---

- **guk “hitz” gabe “berba” esaten dugu:** nosotros en vez de “hitz” decimos “berba”; **nik idarrak gabe indabak jaten ditut:** yo en vez de guisantes como alubias; **goizetan gabe, arratsaldetan pilotan jokatzeko dugu:** en vez de por la mañana, nosotros jugamos a pelota por la tarde; **postaz gabe posta elektronikoz ematen diogu elkarri elkarren berri:** en vez de por correo nos comunicamos por correo electrónico; **lehen Ondarroatik lehorrez gabe itsasoz joaten ginen Kontxako estropadak ikustera:** antes en vez de por tierra solíamos ir desde Ondarroa por mar a ver las regatas de la Concha; **arratsalde osoan besoak lotuta egon gabe, hobe libururen bat irakurriko bazenu:** en lugar de pasarte toda la tarde con los brazos cruzados, sería mejor que leyeras algún libro

3. Denborazko nahiz lekuzko esapideetan. *Esanahia:* baino lehen, aurretik, orduko, aldeztu aurretik.

Tanto en contextos temporales como de lugar. Significado: «antes de»:

Aurretik joan daiteke: a) izen sintagma mugatua edota mugagabea. b) adlatiboko <i>-ra</i> atzizkidun izen sintagma. c) partizipioa.	Precedida de un: a) sintagma nominal determinado o indeterminado. b) sintagma nominal con la desinencia <i>-ra</i> del adlativo. c) participio.
--	--

- **igandea gabe ikusi behar dut:** tengo que verla antes del domingo (lit., sin el domingo); **gauerdia gabe etorriko da:** vendrá antes de la media noche; **bi minutu gabe, haurra etxean dugu:** antes de dos minutos la niña la tenemos en casa; **luzaro gabe:** a no tardar, en seguida, sin (más) demora; **berrehala behar dugu, gerora gabe:** lo necesitamos ya, sin demora,

sin aplazamiento, sin dilación (lit. antes de después); **hondartzara gabe joan zaitex etxera amaren hamaka hara eramateko:** antes de ir a la playa vete a casa para que laves la hamaca de tu madre allá; **Ondarroara gabe, bi kilometro lehenago, eskuinera aurkituko duzu Saturrarango hondartza:** antes de Ondarroa, dos kilómetros antes, hacia la derecha encontrarás la playa de Saturrarán; **ama etxera gabe:** antes de que la madre venga a casa; **liburua amaitu gabe inprimategira eraman didate:** antes de terminar (de escribir...) el libro, me lo han llevado a la imprenta; **ez dizut emango zuzenketak bukatu gabe:** no te lo voy a entregar antes de terminar las correcciones; **ama etorri gabe:** antes de que venga nuestra madre

- **urrutira gabe:** sin ir lejos; **urruti gabe (ez urruti):** no lejos (lit. sin lejos); **Seminariotik urruti gabe Ajuria lantegia zegoen:** no lejos del Seminario estaba la fábrica Ajuria

OHARRA: // ADVERTENCIA:

<i>Gabedun</i> perpausak ezezkoak direnez, <i>inor, ezer,</i> etab. erabiltzen dira <i>norbait,</i> <i>zerbait,</i> etab.en ordez.	Como las oraciones con <i>gabe</i> son negativas, se emplean <i>inor, ezer,</i> etc. en vez de <i>norbait, zerbait,</i> etc.
--	--

- **inork hitzik atera gabe:** sin que nadie chistara ni una palabra; **ezer esan gabe gelditu:** quedarse sin decir nada; **ezeren nahaste gabe:** sin mezcla de nada; **etxetik atera zen inor ohartu gabe:** se ausentó de casa sin que nadie lo notara; **bestarik inor gabe:** sin ningún otro; **ezer gabe:** sin nada; **inor gabe:** sin nadie; **bera bakarrik etorri da, inork lagundu gabe:** ha venido solo, sin que nadie le acompañara; **hor dago ezertan sartu gabe eta ezeri ekin gabe:** ahí está sin meterse en nada ni ocuparse en nada

GAIN «cumbre», «cima».

Postposizioetat <i>gain, gainean, gaineko, gainera, gainetik</i> formak aipa ditzakegu.	Como posposiciones pueden citarse las formas <i>gain, gainean, gaineko, gainera, gainetik.</i>
---	--

1. *Gain:*

Dagokion izen sintagmak har dezake: 1) <i>-(r)en</i> atzizkia: <i>Esanahi bikoitza hartzen du:</i> a) <i>-(r)en</i> kontura, <i>-(r)en</i> erantzukizunaren azpian, kasa. b) <i>-(r)en</i> <i>gainean,</i> <i>-(r)en</i> <i>gainetik.</i> 2) <i>-z</i> atzizkia: <i>-az</i> <i>gain.</i> <i>Esanahia: -az</i> <i>gainera.</i>	Precedida de un sintagma nominal con la desinencia: 1) <i>-(r)en.</i> Tiene doble significado: a) «bajo la responsabilidad de», «a cuenta de», «a cargo de». b) «sobre», «encima». 2) <i>-z:</i> <i>-az</i> <i>gain:</i> Significado: «además de», «a parte de».
---	--

- 1. a) **nire gain:** a mi cargo, a mi cuenta; **bere gain ari zen mutil hura lanean:** aquel muchacho trabajaba por su cuenta; **bere gain hartu:** tomar sobre sí, encargarse de algo; **baina kalte guztiak ez dira soldaduen gain, beldurrak ere egin ditu bereak:** pero no todos los desperfectos son responsabilidad de los soldados, también el miedo ha ocasionado lo suyo; **nire gain da ontzia:** el barco está a mi cargo; **ez dugu ja inor gure gain hartzen ahal:** ya no podemos tomar a nuestro cargo a ningún otro; **egizu testamentua burua duzunean, zure gain zaranean:** haz el testamento cuando cavilas, cuando estás en tu juicio; **elkarteak bere gain du jaialdia antolatzea:** la organización del festejo está a cargo de la sociedad; **lan nekegarri hori gure gain dagoela, ez duela bestek egingo:** que ese trabajo penoso está a nuestro cargo, que ningún otro lo va a hacer; **jakin nahiz noren gain eman makurra:** queriendo conocer sobre quién recaer la culpa; **arimaren gain!:** ¡por mi alma!; **ez ditu horiek bere gain hartzen:** no se responsabiliza de éstos, no se hace cargo de éstos; **gauden gu erne, beti gure gain:** estamos alertas, siempre concentrados; **ur basoa eskuan utzi zidan 'zeure gain' esanez:** me puso en la mano el vaso de agua diciéndome 'a tu cuenta'

- 1. b) **bere semearen gain kolpea ezartzeko besoa jaso zuenean:** cuando levantó el brazo para asestar el golpe sobre su hijo; **goitik datorrena guztien gain dago:** lo que viene de arriba está por encima de todos; **ez dadila luzaro egon horien zigorra gure gain:** que el castigo de éstos no dure por mucho tiempo sobre nosotros; **hik agintzen duk heure gain, hik ematen diok legea heure buruari:** tú mandas sobre ti; tú te impones a ti mismo la ley; **aitoren semeak ere, haien (erregeen) mende baina beste guztien gain, agintzeko sortuak ziren:** los hijosdalgos, bajo el dominio de aquéllos -los reyes- pero habían sido creados para mandar sobre todos los demás; **indarra metatu izan da indarraren gain hizkuntza hori desegiteko:** se ha amontonado fuerza sobre fuerza para aniquilar esa lengua; **eragozpenak kendu edo gutxitu beharrean elkarren gain pilatzen dihardugu:** en vez de quitar los impedimentos o disminuirlos, estamos actuando en amontonar unos sobre otros; **ez duzu esango lagun hurkoaren gain gezurrezko lekukotasunik:** no levantarás falso testimonio sobre tu prójimo; **lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunbea (EAB) / "ilhumbleak ziren ondarren gain guzian" (Duvoisin):** la tierra era caos y confusión y oscuridad por encima del abismo

- 2. **frogatuak izateaz gain, aho betean aitorturik daude:** además de haber sido demostrados, están reconocidos unánimemente; **presoei sufritzen zutenaz gain orain ezin ikastea:** a los presos, además de lo que ya sufrían el no poder cursar estudios; **gutxi irabaziaz gain, handiki bizi nahi du:** además de ganar poco, quiere vivir a lo grande; **horrez gain:** a parte de eso; **hala ere Baionako foroaz gain, azaroan Parisen egingo den gizarte foroan ere jarri du jomuga:** aun así, además del foro de Baiona, también ha puesto su mira en el foro que tendrá lugar en París

2. *Gainean:*

Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Esanahi bikoitza hartzen du: a) -(r)en gain. Batzuetan, -(r)en atzizkia eta mugatzailea gal ditzake, eta dagokion izen sintagmarik gabe ere joan daiteke. b) -(r)i buruz, -z (hitz egin, idatzi...).	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia - (r)en. Tiene doble significado: a) «sobre», «encima». A veces la desinencia y el determinante se eliden, y también puede ir sin el sintagma nominal. b) «acerca de», «sobre», «sobre el asunto de», «acerca del tema de», «referente a», «a propósito de».
---	--

a)

- txapela buruaren gainean janzteko da:** la boina es para ponérsela encima de la cabeza; **jarrita dago zaldiaren gainean:** está sentado sobre el caballo; **gure hutsegiteen gainean negar egitea:** el llorar sobre nuestros errores; **hartakotzat besteren laguntza, naturaren gainean esku duenarena behar da:** para esto es menester la ayuda ajena, de aquél que tiene poder sobre la naturaleza; **eta ez da geldituko harria harriaren gainean:** y no quedará piedra sobre piedra; **plaiarako zubiaren gainean nengoela:** estando yo sobre el puente de la playa; **Jainkoaren espiritua ekarria zen uren gainean (Duvoisin) / Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen (EAB):** y un viento de Dios aleteaba por encima de las aguas; **leze-gainean iluna; eta ur-gainean Jainkoaren hatsa zetzan (Olabide):** oscuridad sobre el abismo, y el soplo de Dios por encima de las aguas; **semearen buruaren gainean zin egizu:** júralo sobre la cabeza de tu hijo; **beti lanaren, liburuen gainean:** siempre encima del trabajo, encima de los libros; **etxearren gainean dirua ateratzea:** el sacar el préstamo en prenda de la casa; **besteren esanaren gainean hitz egin dut:** he hablado en base a lo dicho por otro, fundado en lo que otro ha dicho; **aitortzen duenaren gainean, bere hutsa barka dakioko:** puesto que confiesa su falta, se le puede perdonar; **hondar gainean**

etzanda: tumbado sobre la arena; **tosta ganean jarrita:** sentado sobre la bancada; **egunetik egunera bahiaren ganean, ardo gehiago hartzen duzu:** de día en día, a cuenta de la prenda, tomas más vino; **garaipen famatu hura errege Darioren ganean:** aquella famosa victoria sobre el rey Darío; **zeren egunetik egunera zure askatasunaren ganean esku gehiago hartzen du:** porque de día en día adquiere más poder sobre tu libertad; **zeren haserretze hura... haren ganean izango da, eta ez zure:** porque la responsabilidad de aquel enfado... recaerá sobre ella, y no sobre ti; **Katon Zensorinok alferren ganean esku eta botere zuen:** Catón Censorino tenía poder y jurisdicción sobre los holgazanes; **ura xuxurlatzen hasi da harrien gaineko lirgindazko geruza berdearen ganean:** el agua ha empezado a susurrar sobre la capa verduzca y viscosa que cubre las piedras

- **txapela buru ganean janzteko da:** la boina es para ponérsela encima de la cabeza; **plaiarako zubi ganean nengoela:** estando yo sobre el puente de la playa; **eskuineko oina itsas(o) ganean eta ezkerrekoa lur ganean:** el pie derecho sobre el mar y el izquierdo sobre la tierra; **eta lurra nahasi-mahasi bat zen; leize ganean iluna (Olabide):** la tierra era caos y confusión y oscuridad por encima del abismo
- **azpian lur hotza, ganean harria:** debajo tierra fría, encima una losa; **ganean dugu zerua:** por encima lo tenemos el firmamento; **ganean da:** está encima, arriba

b)

- alde egizu suaren kontratik erre egingo zara eta**: álejate del fuego, pues te vas a quemar
- etxe kontraraino etorri zaizkigu lukiak**: nos han llegado los zorros pero muy junto a la casa

Hona hemen etxeko ditugun beste bi esamolde: // He aquí estas dos alocuciones muy familiares:

- gogoz kontra**: a disgusto, en contra de la voluntad
- haize kontra**:
 - a) izen bezala: kontrako haizea (como sustantivo): viento contrario: **haize kontra dugula goaz**: navegamos con viento contrario
 - b) adizlaguna: kontrako haizearekin (forma adverbial): **baina haize kontra doanak mila sare, arteka eta ateka baditu igarotzeko**: pero el que camina contra viento tiene que atravesar mil estacadas, grietas y pasos estrechos (tiene que pasar mil apuros y penalidades)

KONTU «cuenta», «cálculo».

Hona hemen zenbait forma: <i>-(r)en kontu</i> , <i>-(r)en kontuan</i> edo <i>-ko kontuan</i> , <i>-t(z)eko kontuan</i> , <i>-(r)en kontuko</i> , <i>-(r)en kontura</i> , <i>-(e)n kontua</i> . Hona euron erabilera eta adiera:	He aquí algunas formas: <i>-(r)en kontu</i> , <i>-(r)en kontuan</i> edo <i>-ko kontuan</i> , <i>-t(z)eko kontuan</i> , <i>-(r)en kontuko</i> , <i>-(r)en kontura</i> , <i>-(e)n kontua</i> . He aquí su régimen y significado:
---	--

1. Genitiboa + *kontu*: **-(r)en kontu**: «a cuenta de», «a cargo de», «bajo responsabilidad de», «en manos de».

- atzeko berria egitea ez da nire kontu**: conseguir un nuevo patrón no me corresponde; **barbarinak prestatzea Karmeloren kontu utziko dugu**: de preparar los salmonetes se ocupará Carmelo; **Julene nire kontu utzi dute gaur**: hoy a Julene la han dejado a mi cargo; **gainera gizadia zaintzea ez dago nire kontu**: además el cuidado de la humanidad no es de mi responsabilidad; **nire kontu, lagun, nire kontu**: a mi cuenta, chico, a mi cuenta

2. Genitiboa + *kontuan*: **-(r)en kontuan** edo **-ko kontuan**: «según cuenta o cálculo de».

- galdegiten dizutenean zenbat urte dituzun, eta ihardesten duzunean, hogeí edo hogeita hamar dituzula, zeren zeure kontuan hala baitituzu, badirudi ez duzula ongi ihardesten**: cuando te preguntan cuántos años tienes, y cuando contestas que tienes veinte o treinta, porque son los que tienes según tu cuenta, no parece que contestas bien; **eta galdegiten du S. Mateo ebanjelistak, ezezko kontuan bezala**: *Numquid colligunt de spinis uvas, aut de tribulis ficus?* (Mt 7, 16), (Elorritik biltzen ote da mahatsik edo gardutik pikurik?); y pregunta el Evangelista San Mateo, como diciendo que no... (se pregunta el Ebanjelista San Mateo, como con idea de negar: *Numquid colligunt de spinis uvas, aut de tribulis ficus?* (¿acaso se recogen uvas de los espinos o higos de los abrojos?); **zeren gaiztoeneko kontuan guztiok hara uste dugu**: pues todos en la peor suposición esperamos ir allí; **eta gaiztoeneko kontuan, bizirik atera dadila**: y en el peor de los casos (o de las hipótesis), que salga vivo; **horren kontuan**: según eso, en esa suposición; **hobereneko kontuan**: en el mejor caso; **hizkuntza horiek bi zirela, gutxieneko kontuan**: que esos idiomas, en el menor de los casos, eran dos; **kontulariaren kontuan kontuak ongi omen daude**: según las cuentas del contable las cuentas están bien

3. Aditz izena + *-ko* + *kontuan*: **-t(z)eko kontuan**: «*-t(z)eko* asmoan». // «con idea o propósito de».

- **juramentua gauza onaren eta zuzenaren gainean egin behar da, eta ez gaizki egiteko kontuan:** el juramento debe hacerse sobre cosa buena y justa, y no con idea de cometer un mal, con intención de hacer mal; **irakurri hau, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuizatzeko kontuan ere:** léelo no a prisa, no superficialmente ni tampoco con ánimo de rechazarla; **hara joateko kontuan gaude:** estamos en que vanos a ir allá, con la idea de ir allí; **lanera sasoiz heltzeko kontuan edo garaiz heltzekotan erosi du autoa:** ha comprado el coche con idea de llegar a tiempo al trabajo o con tal propósito; **jokaldi arriskutsua egitean, tantoa egiteko kontuan egiten du, eta ez tantoa erregalatzekotan:** al ejecutar una jugada arriesgada, lo hace con idea de hacer el tanto y no con la de regalar el tanto
 - **bai, baiezko kontuan geratu ginen:** sí, nos quedamos en que sí
4. Genitiboa + *kontuko*: **-(r)en kontuko:** «para (nuestro...) objeto o fin».
- **lau erako obrak idorotzen dira, orain gure kontuko ongi datozenak:** hay cuatro clases de obras, que vienen bien para nuestro objeto, para nuestro propósito; **orain gure kontuko (gure helbururako, gai honetarako) ongi datozen bi puntu aztertuko ditugu:** ahora vamos a analizar dos puntos que vienen bien para nuestro asunto
5. Genitiboa + *kontura*: **-(r)en kontura:** -(r)en bizkar. // «bajo la responsabilidad de»; «a cuenta de».
- **amaginarrebaren kontura bizi da:** vive a cuenta de la suegra; **bere kontura hartu duen eginkizuna:** un quehacer del que se ha encargado; **gurasoen bizkar eresia:** comprado a cuenta de los padres; **gozaria mutilen kontura izango zela:** que el desayuno correría a cuenta de los chicos; **besteren kontura dabilena:** el que anda de gorra; **bere kontura lan egiten duena:** el que trabaja por propia cuenta; **gurasoen kontura bizi direnak:** los que viven a costa de sus padres
 - Oharra: Ikus BIZKAR: **bizkar** ordez **kontura** ipini. // Véase BIZKAR: sustituir **bizkar** por **kontura**
 - **norbere konturako langilea:** trabajador autónomo; **inoren konturako langilea:** trabajador por cuenta ajena
6. Erlatiboa + *kontua*: **-(e)n kontua:** «noticia o referencia de que».
- **polito dagoen kontua:** noticia de que está bien; **aurten atzeko berria egingo duen kontua:** que si van a poner un nuevo patrón

este año, noticia de que este año se van a hacer con un nuevo patrón; **negozioetan polito dagoen kontua agertu digu:** nos ha manifestado la noticia de que va bastante bien en los negocios

LAGUN «compañero», «ayudante». Sin.: esker.

Aurretik absolutua doala.	Precedida de absoluto. Significado: «con la ayuda de».
---------------------------	--

- **Jainkoa lagun:** con la ayuda de Dios; **elezaharrak lagun:** con la ayuda de las tradiciones; **anaiaaren alogera lagun:** con la ayuda del sueldo del hermano; **Begoña lagun:** con la ayuda de Begoña; **gutunak lagun, herriko berriak jakiten nituen:** gracias a las cartas, me enteraba de las noticias del pueblo; **semea lagun, saski zulatuak berritzen ditu:** con la ayuda del hijo compone los cestos estropeados; **sail horretan ere, maltzurkeria lagun, ez genukeela lotsagarri gelditu behar etsaien aurrean:** que tampoco en esa materia, con la ayuda de la astucia, deberíamos quedarnos en ridículo delante de los enemigos; **zu lagun, lan hau laster amaituko dugu:** con tu ayuda, terminaremos pronto este trabajo; **Jaube lagun gizon bat iritsi dut (Olabide, Gen 4, 1):** he adquirido un varón con el favor de Yahveh; **bihar, eguraldia lagun, kultur ekitaldi handia izango da Senperen:** mañana, con la ayuda del tiempo, habrá una gran jornada cultural en Senpere; **zientzia lagun, aurrerakuntza handiak izan dira medikuntzan:** gracias a la ciencia, ha habido grandes avances en la medicina; **osagai hau lagun, banoa hobetuz:** con la ayuda de esta medicina, me voy mejorando; **irakaslearen adierazpenak lagun ulertu nuen atzoko ikaskaia:** con la ayuda de (gracias a) las explicaciones del profesor comprendí la lección de ayer.

LANDA «campo», «fuera». Ekialdeko euskalkietakoa. Sin.: kanpo, gain.

Postposizio bezala <i>landa</i> , <i>landan</i> , <i>landara</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-tik</i> eta <i>-z</i> atzizkiak hartzen ditu. Esanahia: At, kanpo, izan ezik, salbu, eta baita gero, -(a)z gainera, zehar...	Como posposiciones se emplean las formas <i>landa</i> , <i>landan</i> , <i>landara</i> , precedidas de un sintagma nominal con las desinencias <i>-tik</i> y <i>-z</i> . Significado: «fuera de», «excepto», «aparte de», «además de» y aun, a veces, «después», «más allá de», «por», «a través de».
--	---

1. Ablatibo + *landa*: **-tik landa:**

- **partidatik landa beheko kalean bilduko gara:** después del partido nos reuniremos en la calle de abajo; **ordu erdi honetan hemendik**

landa ez da inor igaro: en esta media hora nadie ha pasado por aquí; **hemendik landa, inon gelditu gabe etxera helduko naiz:** por aquí, sin detenerme en ninguna parte, llegaré a casa; **haiekin haserretu denetik landa:** aparte de que se ha enfadado con ellos; **Euskal Herrian eta Euskal Herriatik landa:** en Euskal Herria y fuera de Euskal Herria; **herriatik landa bizi da:** vive fuera del pueblo; **hemendik landa ez du aurkituko:** fuera de aquí no lo va a encontrar

2. Instrumentala + *landa*: **-z landa:**

- **hitaz landa beste guztiak etorri dituk:** excepto tú han venido todos los demás; **diruaz landa ez da beste ezer falta:** fuera de dinero, no falta nada más; **hartaz landa nehor ez zen:** no estuvo ninguno excepto él; **dantzaz landa eta kanpora ez daki zertaz hitz egin:** más allá o fuera del baile no sabe de qué hablar; **ez dakigu emazte horiez ezer, Ioanaz landa:** nada sabemos sobre esas mujeres, a no ser sobre Ioana; **hartaz landa:** fuera de aquello; **jakiteaz landa, erabiltzen ikasi behar da:** además de conocerlo hay que aprender a usarlo; **ñano-antzekoa izateaz landa, badu beste makur nabarmena:** además de ser medio enano, tiene otro defecto remarcable; **“Euskaldunak” poemaz landa, ez zegoen geldirik Orixe:** aparte del poema “Euskaldunak”, Orixe no estuvo con los brazos cruzados

3. Inesiboa + *landa*: **-(a)n landa:**

- **gure alorretan landa iraganen haiz:** pasarás a través de (por) nuestros campos; **gure herrian landa iragaten bazara biok batera joango gara ‘Nafarroa oinez’ delakora:** si pasas por nuestro pueblo, iremos los dos juntos a ‘Nafarroa oinez’

4. Instrumentala + *landan*: **-z landan:**

- **ezkontzaz landan eta kanpoan jaiotakoak:** los nacidos fuera de matrimonio; **hartaz landan nehor ez zen:** no estuvo nadie fuera de él, excepto él; **honetaz landan ere izango da zer ikusi:** además de esto habrá más espectáculo

5. Abatiboa + *landan*: **-tik landan:**

- **bada beraz beste bizitza bat honetarik landan:** hay por tanto, aparte de ésta, otra vida; **eta bizitza honetarik landan zer?:** y aparte de esta vida, ¿qué?

6. Instrumentala + *landara*: **-z landara:**

- **lehengo gaiaz landara beste bi gai jorratu genituen:** aparte de los temas anteriores, tratamos de otros dos temas; **honetaz landara edo kanpora:** fuera de esto; **horrez landara:**

fuera de eso; **zeruaz eta infernuaz landara, bada beste lekurik?:** además del cielo y del infierno, ¿existen otros sitios?; **nitaz landara ez duzu izan behar beste jainkorik:** aparte de mí no debes tener otro dios; **dantzaz landara eta kanpora ez daki zertaz hitz egin:** más allá o fuera del baile no sabe de qué hablar

LEGE «ley». [Azkue: LEGEZ: (Bc) Como. = Lo traen también Harizmendi y Oihenart, aunque es palabra que no pertenece a los dialectos en que ellos escribieron].

<p>Postposizio bezala, bizkaieraren ekarpena da, <i>legez</i> forma erabili ohi da. Aurretik joan daiteke, gutxienez:</p> <p>a) absoluto mugagabea. b) <i>-(e)n</i> atzizkidun adizkera. Sarritan aditza hau galdu egiten da. c) Aurrekoak artikulua ere eraman ohi izan du. Esanahia: bezala, moduan, nola. Forma laburtua <i>lez</i>. <i>-txe</i> atzizki indargarria erantsiz, <i>le(ge)txe</i>, <i>le(ge)txez</i> ateratzen da. Honen aldaera <i>lantxe</i>. Esanahia: bezalaxe. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua: letxe Bizk h. legetxe, bezalaxe / lez Bizk. h. legez.</p>	<p>Como posposición, es aportación del dialecto B, se emplea la forma <i>legez</i>. Precedido, al menos, de:</p> <p>a) absoluto indeterminado. b) forma verbal con la desinencia <i>-(e)n</i>. Con frecuencia el verbo se elide. c) El antecedente también suele llevar el artículo. Significado «como», (modal, no de cualidad). Forma contraída <i>lez</i>. Mediante la adición del sufijo intensivo <i>-txe</i> se obtiene <i>le(ge)txe</i>, <i>le(ge)txez</i>. Su variante es <i>lantxe</i>. Significado: «de la misma manera», «de igual modo».</p>
--	--

- **jarri ziren bost mila gizon legez:** se sentaron como unos cinco mil personas; **obedi zak seme on legez:** obedece como un buen hijo; **idazle legez ez da hain ezaguna:** en calidad de escritor no es tan conocido; **beste asko legez herrira joan zen:** como tantos otros se fue al pueblo; **jan dugu errege legez, berak jan badu guk legez:** hemos comido como rey, si es que él ha comido como nosotros
- **garean garean legez:** seamos como somos; **nahi den legez ezin bada, ahal den legez:** si no se puede como queremos, como podemos; **ohi den legez:** como es costumbre; **behar den legez:** como es debido; **nire aitak ni bidali ninduen legez, hala nik zuek bidaltzen zaituztet:** como mi padre me envió a mí, así yo os envío a vosotros; **dagoen dagoen legez onartzen dugu:** lo aceptamos tal cual es; **balego legez, balego lez:** como si estuviera
- **inor ez legez zabilta beti:** siempre te comportas como no se porta nadie; **beti legez:** como siempre; **astegunean igandean legez:** durante la semana como el domingo; **nik legez jokatzea ezina duzu:** te es imposible que juegues como yo; **nik zuk legez egin nahi nituzke eskolako lanak:** quisiera hacer los

deberes de la escuela como tú, de igual manera que tú

Artikulua ere eraman ohi du. // También suele llevar artículo:

- **obedi zak seme ona legez:** obedece como un buen hijo; **Joakin biguna legez, Juan gogorra zen:** así como Joakin era apacible, Juan era desabrido; **hemen dator jauzika izurdea legez:** he aquí que viene brincando como la tonina; **lehengusua legez dabil:** anda como su primo; **lagun hurkoa geure burua legez maitatzea:** el amar al prójimo como a nosotros mismos; **hila legez zegoen:** estaba como un muerto; **gauzez lapurra legez:** de noche, como el ladrón
- **garean gareana legez:** seamos como somos; **dagozana legez egun asko:** como lo están hoy muchos; **guk geure zordunei parkatzen dieguna legez:** así como nosotros perdonamos a nuestros deudores; **dagoen dagoena legez onartzen dugu:** lo aceptamos tal cual es
- **han egon beharko dugu sekula guztietan, arbola ebakiak legetxe:** tendremos que estar allí por los siglos de los siglos de igual modo que los árboles talados; **aberatsa legetxe maitatuz behartsua:** amando al pobre de igual modo que al rico; **epel-epela, errapetik harako esnea letxe:** muy tibia, como la leche recién salida de la ubre; **irratiz agindu nizun legetxe, zazpirak zazpiretan porturatu gara:** tal como te anuncié por la emisora, hemos arribado a las siete en punto; **zeuk legetxe:** como tú

LEKO «exterior», «fuera». Ekialdeko euskalkietan. // Dialectos orientales.

Postposizio bezala <i>lekora</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak <i>-tik</i> edota <i>-z</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-tik</i> kanpora; <i>-z</i> kanpora, <i>-z</i> landara, <i>-z</i> at, etc.	Como posposición se emplea la forma <i>lekora</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-tik</i> o/y <i>-z</i> . Significado: «fuera de»; «después de»; «aparte de», etc.
---	---

1. *-tik* lekora:

Esanahi bikoitza: a) *-tik* kanpora. b) *-(r)en* ondoan, handik berehala.

Doble significado: a) «fuera de»; «afuera». b) «después de», «inmediatamente de», «inmediatamente después».

- **eraman gaitzazu gaitzetik lekora:** aléjanos del mal (lit. llévanos fuera del mal); **oinak ohetik lekora lo egiten du:** duerme con los pies fuera de la cama; **hemendik lekora:** fuera de aquí; **heriotzako arriskutik lekora:** fuera del peligro de muerte; **etxetik lekora ere bada gauza onik:** fuera de casa también existen

cosas buenas; **ikasgelatik lekora bidaliko zaitu:** te va a expulsar de clase

- **garizumatik lekora, Bazkoa:** inmediatamente después de la cuaresma la pascua; **ohetik lekoara:** al punto de salir de la cama; **solas huntarik lekora, Saul hastandu zen:** después de estas palabras, Saul se alejó; **ohetik lehen lekorako lehen urratsa abereen ikustera egin behar du laborariak:** el primer paso al salir de la cama debe dar el labrador para ver el ganado; **zer da, bazkari on batetik lekora, senarrarekin gozatzeaz hoberik?:** ¿qué hay mejor que gozar con el marido inmediatamente después de una buena comida?; **bataio hartarik lekora, Jesus sartu zen eremuan:** inmediatamente después de aquel bautizo, Jesús se adentró en el desierto; **mezatik lekora zer egin?:** ¿qué vamos a hacer al salir de la misa?

2. *-z* lekora:

Esanahi bikoitza: a) *-z* kanpora, *-z* landara, *-z* at. b) horretaz gain, *-z* kanpora, *-z* landa, *-z* landara.

Doble significado: a) «aparte de», «excepto», «salvo», «fuera de». b) «además de», «aparte de», ««junto a», «en adición a».

- **ez dut lagun onik zutaz lekora:** no tengo un buen amigo aparte de ti **Jainkoaz lekora ez dut zu bezain maiterik:** después de Dios no hay otro que ame más que a ti; **bere buruaz lekora ez da beste ezertaz arduratzen:** aparte de su persona no se preocupa de nada más
- **erran dudanz lekora:** además de lo que he dicho; **aurreko kapituluan erran dudanz lekora:** además de lo que he dicho en el capítulo anterior; **ez dakigu emazte horiez ezer, Ioanaz landara:** aparte de Ioana, nada sabemos sobre esas mujeres; **pena haietaz guztiez lekora, bada oraino handiago bat:** junto a todas esas penas, hay todavía otra mayor

LEKU «lugar».

Postposizio bezala <i>lekuan</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak hartzen du: 1) <i>-(r)en</i> atzizkia. Esanahia: <i>-(r)en</i> ordez. 2) aditzaren era burutua: Ipar. Esanahia: <i>-tu</i> ordez.	Como posposición se usa la forma <i>lekuan</i> , precedida de: 1) sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> : «en vez de», «en lugar de». 2) participio. Ipar.: «en vez de + infinitivo».
--	--

- **baldin semeak arraina eskatzen badio, arrainaren lekuan sugea emango dio?:** ¿si el hijo le pide pescado le dará serpiente en vez de pescado?; **boligrafoaren lekuan lapitza darabilt beti:** en vez de bolígrafo yo uso siempre el lápiz; **txapelaren lekuan lau ertzetan korapiloa eginiko sudurzapia ipini**

zuen buru gainean: en vez de la boina se puso sobre la cabeza un pañuelo con sendos nudos en las cuatro puntas; **egiaren lekuan gezurra esan zuen:** en vez de decir la verdad soltó una mentira; **itxaropenaren lekuan kontzientzia ona ipini zuen:** en lugar de la esperanza puso la buena conciencia; **juramentua egiteko ohitura uzteko bidea da esatea, juramentuaren lekuan:** «bai segur», «ez segur»...: para desarraigar la costumbre de jurar es que digas en vez de los juramentos: «sí, por cierto», «no, por cierto»...; **orduan haien lekuan ni nintzen han** (Mt.25, 40ko idea): entonces era yo el que allí estaba en su lugar; **ugasabak bere lekuan ipinirik daukan kontulariaren aurrean:** en presencia del contable que el amo tiene puesto allí; **Susanaren lekuan, hain zuzen ere, haren akusatzaileak izan ziren zigortuak:** en lugar de Susana, los condenados, precisamente, fueron sus acusadores; **semearen lekuan haren aita atxilotu zuten:** en lugar del hijo apresaron al padre de aquél

- **lehenko neke gogorrak arindu lekuan, eman zizkien lehenen gain neke berriak:** en vez de aligerar las penas anteriores, les dio nuevas sobre aquéllas; **zigortu lekuan, eman zien denbora, ezagutzeko euren eskergabekeria itsusia:** en vez de castigarles, les dio oportunidad, para reconocer su reprobable ingratitud; **gureganatu lekuan hurrunagotu egin zen:** en vez de acercarse se nos alejó más; **amari idatzi lekuan, lagun zaharrari idatzi zion:** en vez de escribir a su ama, le escribió a un antiguo amigo

LEPO «espalda», «cuello». Sin.: bizkar.

Postposizio bezala <i>lepora</i> (Bizk.) eta <i>lepotik</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: a) <i>-(r)en lepora</i> (Bizk.): <i>-(r)en gain</i> , <i>-(r)en bizkar</i> . b) <i>-(r)en lepotik</i> : <i>-(r)en kontura</i> , <i>-(r)en bizkarretik</i> .	Como posposición se usan las formas <i>lepora</i> (Bizk.) y <i>lepotik</i> . Tras un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . çSignificado: a) <i>-(r)en lepora</i> : «a cargo de»; «a cuenta de», «bajo la responsabilidad de»; «sobre». b) <i>-(r)en lepotik</i> : «a cargo de», «a cuenta de», «a costa ajena», «a expensas de».
---	--

- **irabaziak banatzeko ardura bere lepora hartuko balu:** si el reparto de las ganancias lo tomara bajo su responsabilidad; **kulpa beti boteaz besteren lepora:** echando siempre la culpa sobre los demás
- **inoren lepotik bizi:** vivir de gorra, a expensas de otro, a costa ajena; **neure lepotik bizi da hori:** ése vive a cuenta de mí; **ardorik gozoena lagunene lepotik edaten dena omen da:** se dice que el mejor vino es el que se bebe

a cuenta de los amigos, a costa de los amigos; **zure lepotik nola olgatu zen Periko!:** ¡cómo bromeó Perico a tu costa!; **gure lepotik bizi nahi dutelako:** porque quieren vivir a cuenta nuestra; **inoren lepotik barre egin:** reirse a costa ajena, reirse (a cuenta) de cualquiera; **zer barreak egingo dituen orain nire lepotik!:** ¡qué risas harán ahora a mi cuenta!

MEDIO «medio», «recurso». Sin.: bide, bitarte

Postposizio bezala <i>d(ir)ela medio</i> , <i>z(ir)ela medio</i> esapideak eta <i>-(r)en medioz</i> forma erabili ohi dira. Esanahia: <i>dela eta</i> , <i>dela bide</i> , <i>bitartez</i> .	Como posposiciones se emplean las locuciones <i>d(ir)ela medio</i> , <i>z(ir)ela medio</i> y la forma <i>-(r)en medioz</i> . Significado: «a causa de», «debido a»; «por medio de», «por intermediación de».
--	--

- **kirolariek kirola dela medio, hamaikatxo herrialde ezagutu ohi dituzte:** los deportistas a causa del deporte suelen conocer muchos lugares; **zenbaitzuen jokabide zentzugabea zela medio gertatu zen bitasuna:** sucedió la división en dos debido a la actitud irresponsable de algunos; **zu zarela medio hainbat istorio ikasi dugu:** a causa tuya hemos aprendido muchas historietas; **Peru dela medio:** por mediación de Peru, debido a Peru
- **zure bitartekotasunaren medioz lortu zuen hori:** eso lo consiguió por mediación de tu intercesión; **Peruren medioz:** por mediación de Peru

Akesolorenekoa kopiautuko dut eta dagoen dagoenean kopiatu ere, behar bada komaren bat edo beste falta da, baina...: // Copio, y tal cual viene, lo que trae Akesolo, aunque, al parecr, falta alguna coma que otra:

haren medioz hura de la medio: gracias a él por su mediación

MEN «poder», «jurisdicción». Ekialdeko euskalkietan. Sin.: mende, menpe.

Hiztegi Batua: postposizio bezala MENDE hobetsi da. // Hiztegi Batua: como posposición se prefiere MENDE.

Postposizio bezala <i>men</i> , <i>menean</i> , <i>menera</i> , etc. erabili ohi dira. Hona hemen euron erabilera eta esanahia:	Como posposiciones se emplean las formas <i>men</i> , <i>menean</i> , <i>menera</i> , etc. He aquí su régimen y significado:
---	--

1. genitiboa + *men* + *gabe* [*-(r)en men gabe*]

Esanahia: mendekotasunik gabe.

Significado: «sin dependencia».

- **zeren berak baitu bere dina eta behar duena nehoen men gabe:** porque tiene lo

indispensable y necesario sin depender de nadie; **lehengo erantzukizunaren men gabe:** sin la dependencia de la responsabilidad de antes; **nehoren men gabe:** sin necesidad de nadie; **inoren men gabe** (neure kabuz) **lan egin nahi dut:** quiero trabajar sin dependencia de nadie

2. genitiboa + *menean* [-(r)en menean]:

Esanahia: a) -(r)en mendean, -(r)en eskuaren pean.
b) -(r)en helmenean.

Significado: a) «bajo dominio o dependencia de».
b) «al alcance de».

- (Susanak) **nahiago zuen gizon gaizto batzuen eskuetan erori, Jainkoaren miserikordiaren menean baino:** (Susana) prefería caer en las manos de unos hombres malvados antes que debajo de la misericordia de Dios; **inoren menean lan egiten duena omen da langilea:** se dice que "langile" es el que trabaja bajo dominio o dependencia de otro; **ez da haren menean horren egitea:** no está en su poder el hacer eso, el hacer eso no depende de él; **zure menean dituzun ontasunak:** los bienes que posee; **haren menean ez dut utziko gauza horren egitea:** no dejaré a cargo de aquél el hacer eso; **norbaiten menean erori:** caer bajo el dominio de alguien; **menean jarri:** someter; **norbaiten menean egon:** estar bajo el dominio de alguien
- **eskuaren menean:** al alcance de la mano; **bere menean eta atzaparren artean edukiz gero, joaten utzi zion:** habiéndolo tenido a su alcance y entre sus garras, lo dejó marchar

3. Erlatiboa + *menean* [-(e)n menean]:

Esanahia: unean.

Significado: «en el momento», «en el instante».

- **zu ikusten zaitudan menean:** en el instante que te veo

4. *-t(z)e + -ko + menean* [-t(z)eko menean]:

Esanahia: ia, -t(z)eko zorian, -t(z)ear.

Significado: «a punto de»; «en el instante de».

- **zubitik erortzeko menean egon naiz:** he estado a punto de caer del puente; **atzemateko men-menean:** a punto de cogerlo; **uretan egon naiz bi orenez, eta zenbait aldiz hondora jausteko menean:** he estado durante dos horas en el agua, y varias veces a punto de hundirme; **bere erregelatik urruntzen dena osoki galtzeko menean da:** el que se aleja de su regla, está a punto de perderse por completo
- **epailearen aurrera agertzeko menean:** en el instante de presentarse ante el juez, a punto de presentarse ante el juez

5. genitiboa + *menera* [-(r)en menera]:

Esanahia: -(r)en mendera, -(r)en eskura (mugimenduzko aditzekin).

Significado: «bajo dominio» (con verbos de movimiento).

- **ez zuen nahi, ez, baina bere anaiaren beharrera eta menera etorri zen:** no lo quiso, no, pero vino a necesitar y a estar dependiente de su hermano; **ez nazazula utz gaizkiesaleen menera:** ne me dejéis a merced de maldicientes; **bere menera ekarriko du:** lo pondrá bajo su dominio, lo subyugará; **jende guztia bere menera ekartzeko:** para atraer a toda la gente bajo su dominio; **bere meneraz gero, ez zituen etsaiok desegin:** una vez que los conquistó (los tuvo bajo su dominio, los tuvo a su disposición), no destruyó a sus enemigos (hemen, ustez, hau ulertzen da: / aquí parece sobreentenderse esto: **bere menera etorriz gero**)

- **ene menerako zaitut:** te tengo para mí

6. Erlatiboa + *menera* [-(e)n menera]:

Significado: «al punto de», «al lugar de».

- **etsaia ere erakartzen dugu nahi dugun menera:** incluso al enemigo le traemos al punto donde queramos

7. Genitiboa + *menetik* [-(r)en + menetik]:

Esanahia: -(r)en mendetik, -(r)en agindupetik.

Significado: «del dominio de».

- **zapaltzailearen menetik aterarik:** saliendo del dominio del opresor

8. Erlatiboa + *menetik* [-(e)n menetik]:

Esanahia: unetik.

Significado: «desde el momento, instante».

- **zu zaitudan menetik:** desde el momento que te tengo

MENDE «dominio», «autoridad». Mendebaldeko euskalkietan. // Dialectos occidentales. Sin.: menpe.

<p>Postposizio bezala <i>mende</i>, <i>mendean</i>, <i>mendera</i>, <i>mendetik</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Hona hemen euron erabilera eta esanahia: Oharra: <i>-ko</i> kasua har dezake, eta honen ondoren <i>-a</i> mugatzailea eta beste kasu atzizkiak.</p>	<p>Como posposiciones se usan las formas <i>mende</i>, <i>mendean</i>, <i>mendeko</i>, <i>mendera</i>, <i>mendetik</i>, precedidas de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>. He aquí su régimen y significado: Nota: Puede recibir el kaso <i>-ko</i> y tras él el artículo y los demás sufijos casuales.</p>
---	--

1. *-(r)en mende:*

Esanahia: *-(r)en mende*, *-(r)en agindupean*, *-(r)en eskuaren azpian*, *-(r)en eraginpean*.

Significado: «bajo el dominio, autoridad, poder, mando de», «sometido a», «sujeto a».

- **haien mende ipini zituen:** los puso bajo el dominio de aquellos; **norbaiten mende egon:** estar bajo el dominio de alguien; **linguistika filologiaren mende agertzen zaigu gurean:** la lingüística se nos aparece aquí a expensas de la filología; **obligazio askoren mende bizi gara gurasoak** (Pello Errota): los padres estamos sometidos a muchas obligaciones, los padres vivimos bajo el dominio de muchas obligaciones; **aitoren semeak ere, haien (-erregeen-) mende baina beste guztien gain, agintzeko sortuak ziren:** los hijosdalgos, bajo el dominio de aquéllos (-los reyes-) pero habían sido creados para mandar sobre todos los demás; **abereak gizakiaren mende erori baino lehen, etxerik eta ukuilurik ez zen:** antes de que los animales fueran dominados por el hombre, no había casas ni cuadras; **Euskal Herria zoritxarrez Espainiaren eta Frantziaren mende dago aspaldiko urteetan:** Euskal Herria por desgracia está bajo el dominio de España y Francia durante años atrás; **ikasleen mende utzi zuen gaurko lana:** el trabajo de hoy lo dejó en manos de los estudiantes

2. *-(r)en mende:*

Esanahia: *-(r)en mende*, *-(r)en agindupean*, *-(r)en eskuaren azpian*, *-(r)en eraginpean*.

Significado: «bajo el dominio, autoridad, poder, mando de», «sometido a», «sujeto a».

- **haien mende ipini zituen:** los puso bajo el dominio de aquellos; **eta Haro jaunaren mende:** y bajo el mando de Haro; **Pontzio Pilatoren mende:** bajo el poder de Poncio Pilato; **ez dezazutela eduki zuen mende urrerik:** que no os procuréis oro; **ni zeure menpean egotea gustatu zaizu beti:** siempre te ha gustado que yo esté sometido a ti; **norbaiten mende egon:** estar bajo el dominio de alguien; **etsaien mende erori zen:** cayó en poder de los enemigos; **gurasoen mende bizi izan zen bitartean:** mientras vivió sujeto a sus padres; **etorkizunaren mende gaude:** estamos sujetos al futuro; **kezka larri baten mende geunden:** estábamos bajo una gran preocupación

3. *-(r)en mendeko:*

Esanahia: *agindupeko*.

Significado: «dependiente de», «súbdito de», «subordinado».

- **erromatarren mendeko bazterrik bikaina:** el mejor de las tierras (que estaban) bajo el dominio romano; **ez da inoren mendeko:** no es súbdito de nadie; **herria mendeko ikusten dut:** veo al pueblo sometido; **bere buruaren jabe zirela, eta ez inoren mendeko:** que eran independientes y no súbditos de nadie

- **elizaren mendekoak:** súbditos, (fieles), de la Iglesia; **madarikatua izan bedi Kanaan, bere anaien mendekoen mendekoa izango da:** maldito Canaán, siervo será de los siervos de sus hermanos; **esaldi honen mendeko perpausa...:** la oración subordinada de esta frase es...; **gure mendeko elizetan:** en las iglesias bajo nuestra jurisdicción

4. *-(r)en mendera:*

Esanahia: *-(r)en agindupera*, *-(r)en eskuaren azpira*, *-(r)en eraginpera*.

Significado: «bajo (su...) dominio».

- **jende guztia bere mendera ekartzeko:** para atraer a toda la gente bajo su dominio; **nik neure mendera ekarriko zaitut:** te subyugaré. (Ikus **men 5**).

5. *-(r)en mendetik:*

Esanahia: *-(r)en agindupetik*, *-(r)en eskuaren azpitik*, *-(r)en eraginpetik*.

Significado: «del dominio, autoridad, poder, mando de», «sometido a», «sujeto a».

- **haien mendetik askatu zituen:** los liberó de su dominio; **haien mendetik atera zituen:** los sacó del dominio de ellos; **jauntxo mendetik askatu ezinik:** no pudiendo librarse del dominio de los caciques; **bekatuaren mendetik atera gaituelako:** porque nos ha sacado del yugo del pecado; **gizon odolzale haren mendetik ihes egitearren:** por huir del dominio de aquel hombre sanguinario; **zapaltzailearen mendetik aterarik:** saliendo del dominio del opresor.

MENPE Mendebaldeko euskalkietan. // Dialectos occidentales. Sin.: mende. Ikus MENDE.

MENTURA «ventura», «azar». Sin.: esku.

Postposizio bezala <i>menturan</i> , <i>menturara</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia (edota <i>-ko</i>) hartzen du.	Como posposición se emplean las formas <i>menturan</i> , <i>menturara</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> (o <i>-ko</i>). Significado: «a merced de», «al arbitrio», «al azar».
---	---

- **eskuko txoria uztea airekoaren menturan:** el abandonar el pájaro en mano a merced (con

la esperanza) del que vuela; **norbaitek bilduko duenaren menturan:** con la esperanza de que alguien lo recoja; **etorkizuneko gauzak, fortunaren eskuan eta menturan daudenak:** las cosas del futuro, las que están en manos del azar y de lo problemático; **horrelakoek gero baten menturan iarririk, hartan fidaturik eta hartan engainaturik, joaten direla dirudi:** parece que los tales van (allá) sentados en la incertidumbre de un “después”, confiados y engañados en esto; **zeren zer da erokeria handiagorik, geroko denboraz, besteen eskuan eta menturan dagoenaz, bere eskuan eta segurean balu bezala ordenatzea baino?:** porque ¿cabe locura mayor que disponer del mañana, que está al arbitrio de otro, como si estuviera en su mano y talante?

- **andrea ez dut nik hartu geroko menturan, neguaz pentsa gabe maitatu dut udan:** no he tomado mujer a merced del futuro, la he amado en verano sin acordarme del invierno; **egingo duzun ongia eta ontasuna egizu berehala, geroko menturan utzi gabe:** el bien y favor que has de hacer, hazlo pronto, no lo dejes a merced de un futuro incierto; **norbaitek bilduko duelako menturan:** con la esperanza de que alguien lo recoja; **nola geroko menturaren menturan menturaturik galtzen garen:** de cómo nos perdemos por aventurarnos en la aventura de un “por ventura” incierto

MESEDE «merced», «favor», «servicio», «ayuda».

Postposizio bezala <i>mesede(t)an, mesede(ta)rako</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en faboretan, -(r)en alde.	Como posposición se emplean las formas <i>mesede(t)an, mesede(ta)rako</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia - (r)en. Significado: «en beneficio de»; «en favor de», «para bien de».
--	---

- **entzuleen mesedetan:** para favorecer a los oyentes; **bere buruari begiratu gabe inoren mesedetan jarduten du:** se dedica a obrar en favor de los demás sin parar mientes en sí mismo; **ligaxka bezala, ikuskizunaren mesedetan jarri omen dituzte neurketa edo konbinaketa hauek:** que estas combinaciones las han organizado a modo de una liguilla en beneficio del espectáculo
- **guztion mesedetarako izan dadila hori:** que sea para bien de todos; **bere mesedetarako egin nuen egin nuena:** lo que hice lo hice en su beneficio

MODU «modo», «manera». Sin.: molde, gisa. Mendebaldeko euskalkietan. // Dialectos occidentales.

Postposizio bezala <i>moduan, moduko, modura</i> formak erabili ohi dira. Aurretik genitiboa darama, edota - (e)n atzizkidun adizkera. Edota -ko kasua. Esanahia: -(r)en gisa, -(r)en gisan, -(r)en gisara.	Como posposiciones se emplean las formas <i>moduan, moduko, modura</i> , precedidas de un genitivo o de una flexión verbal terminada en - (e)n. Y también de caso -ko. Significado: «al modo de», «como», «a la manera que».
---	--

- **irakasle zuhurren moduan egiten ditu egitekoak:** realiza sus quehaceres al modo de los enseñantes cuidadosos; **kristau zintzoen moduan:** al modo de los cristianos auténticos; **idazten hasi naiz, sugandila arin urduri baten moduan hasi ere:** he comenzado a escribir, y lo he hecho al modo de una lagartija inquieta y veloz; **amaieraik gabeko errosario baten moduan:** como un interminable rosario; **tabernari edo linotipista moduan lan egitea:** el trabajar como tabernero o linotipista
- **zure moduko beste bat jaio orduko!:** ¡ya costará que nazca otro como tú!; **elkarte bere moduko bat:** una asociación sui generis; **meloia formaz limoi(aren) modukoa da:** el melón en cuanto a la forma es parecido al limón
- **irakasle zuhurren modura egiten ditu egitekoak:** realiza sus quehaceres al modo de los enseñantes cuidadosos; **bere modura egiten ditu gauzak:** hace las cosas a su modo; **ardi galduaren modura dabil:** anda como la oveja perdida; **bakoitzak bere modura egin dezala:** que cada cual lo haga a su manera; **bakoitzak ahal duen modura egin dezala:** que cada uno lo haga de la forma que pueda
- **nahi duzun modura:** como te apetezca; **behar den modura ezin badazu, egizu ahal duzun modura:** si no se puede como se debe, hágase como se pueda
- **Mutrikuko modura hitz egitea Mutikun, ez da harritzekoa:** nada hay de extraño en que en Mutriku se hable a la manera de Mutriku

MOLDE «modo», «manera». Ekialdeko euskalkietan. / Dialectos orientales.

Postposizio bezala <i>moldean, moldera</i> formak erabili ohi dira. Aurretik genitiboa darama, edota -(e)n atzizkidun adizkera. Esanahia: -(r)en gisa, -(r)en gisan, -(r)en gisara.	Como posposiciones se emplean las formas <i>moldean, moldera</i> , precedidas de un genitivo o de una flexión verbal terminada en -(e)n. Significado: «al modo de».
---	---

- **hortaz erran daiteke bere moldean Otxoa doktoreak aspirinaz erran zuena:** de ello

cabe decir en cierta manera lo que el doctor Ochoa dijo de la aspirina

- **eta horrela alferrik emaniko denbora egin ahal daitekeen moldean irabazten da:** y así el tiempo perdido se recupera de la manera que ello es posible; **esan dugun moldean jokatu behar duzue:** debéis jugar tal como lo hemos dicho
- **egizu zuk zeure moldera:** hazlo tú a tu manera; **geure moldera mintzatzera:** según nuestro modo de hablar; **nork bere erara eta moldera egina:** hecho a nuestro modo y manera; **batbederak bere gisara, antzora eta moldera:** cada cual a su manera, forma y traza
- **nahi duzun moldera pinta ezazu:** píntalo al estilo que te apetezca; **barbarinak Karmeloren erara garbi itzazu!, ez edozein modura!:** ¡limpia los salmonetes a la manera de Carmelo, no de cualquier forma!

MUGA «término», «límite».

Postposizio bezala leku-denborazko atzizkiekin erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-(r)en</i> garaian.	Como posposición se emplean los casos locativos, precedidas de un sintagma nominal con la desinencia casual <i>-(r)en</i> . Significado: «al cabo de», «al término de», «al fin».
--	---

- **hiru egunen mugan aurkitu zuten tenpluan:** y al cabo de tres días lo hallaro en el templo; **eta halan bere mehatxua bere mugan bete zuen:** y así cumplió su amenaza a su tiempo; **eta orain zeure promesen eta hitz handien epean eta mugan zara:** y ahora estás en el término y hora de tus promesas y grandes palabras; **mugako haurra** ‘*niño que nace a su hora, a los nueve meses de gestación*’ **baldi bada, bederatzi hileren mugan jaio zen haurra delako da horrela:** si el ‘mugako haurra’ es *niño que nace a su hora, a los nueve meses de gestación*, eso es así porque es un niño que nació al término de los nueve meses; **hamazazpi urteren mugan:** al cabo de diez y siete años
- **ez zuen nahi zoritu arte, bere saiora eta mugara heldu arte nehork uki zitzan:** no quiso que hasta madurar, hasta llegar a su época y término, nadie las tocara [semillas buenas y malas]

NAHI «límite». Sin.: gura

Postposizio bezala, gutxienez, <i>nahiara</i> forma adverbiala eta <i>nahian</i> , <i>nahirik</i> , <i>nahiz</i> gerundiozko formak erabili ohi dira. Hona hemen euron erabilera eta esanahia.	Como formas pospositivas al menos se usan la forma adverbial <i>nahiara</i> y las formas gerundiales <i>nahian</i> , <i>nahirik</i> , <i>nahiz</i> . He aquí su régimen y significado.
--	--

1. *Nahiara*: [Hiztegi Batuan *nahitara* forma joango da? // Sospecho que en el Hiztegi Batua irá la forma *nahitara*].

Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: gurata, nahita, askatasunez, ohartuki.	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «voluntariamente», «libremente».
---	---

- **bere nahiara joan da:** ha ido voluntariamente; **zeure nahiara jokatzea gustatzen zaizu:** te gusta jugar a tu aire; **edozein motatako gogoeta eta fantasia bere nahiara gogoan atxiktzen ditu:** conscientemente los retiene en su mente todo tipo de pensamientos y fantasías

2. *Nahiz*:

Aurretik doa: a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma. Esanahia: <i>-ren</i> borondatez, nahita, gurata, gogoz. b) aditzaren era burutua. Esanahia: guran, nahian, nahirik.	Tras: a) sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «por voluntad de», voluntariamente, deliberadamente. b) participio. Significado: «queriendo», «deseando», «pretendiendo», «intentando», «con la intención de».
---	---

- **bere nahiz:** voluntariamente (lit. por voluntad suya); **bere nahiz eri denari, nork bila dezakeio** (diezaioke) **osagarri?** (esr. zah.): ¿quién le puede hallar el remedio al que está enfermo por gusto? {quien en su mal consiente, a nadie se queje (refrán)}; **amaren nahiz etorri natzaizu, ez neure nahiz eta borondatez:** me he acercado a ti por voluntad de la madre, y no voluntaria y gustosamente; **bere nahiz eta borondatez harturiko zaragarrak ez du azkurarik ematen:** sarna con gusto no pica; **zure nahiz egin zenuelako:** porque lo hiciste voluntariamente (por voluntad tuya); **bere nahizko behartasuna:** pobreza voluntaria; **libreki eta bere nahiz:** libre y voluntariamente; **zeren tristura hura bere nahiz eta borondatez hartzen baitu:** porque aquella tristeza la acepta voluntaria y gustosamente; **ororen nahiz, oro gal:** quien todo lo quiere, todo lo pierde

- **hutsak zuzendu nahiz** (nahian, nahirik) **nabil:** estoy intentando corregir las erratas; **estropadak leku onetik ikusi nahiz** (nahian, nahirik), **oso goiz joaten da bertara:** queriendo ver las regatas de un sitio apropiado, suele ir muy temprano allí; **dena jakin nahiz** (nahian, nahirik), **galderarik inozoenak egiten ditu:** deseando enterarse de todo, hace las preguntas más tontas

3. Nahian eta Nahirik:

Aurretik aditzaren era burutua doala. Esanahia: guran, nahian, nahirik.	Tras participio. Significado: «queriendo», «deseando», «pretendiendo», «intentando», «con la intención de».
---	---

Ikus goragoko b) saileko adibideak // Cotéjense los ejemplos del b) de arriba.

- **ikasi nahian** (nahirik, nahiz): queriendo aprender; **jakin nahian** (nahirik, nahiz): pretendiendo saber; **arnasa hartu nahian** (nahirik, nahiz): intentando respirar; **bihotzak salto egiten zidan irten nahian kanpora** (Bilintx): mi corazón daba saltos queriendo salir fuera; **ez adi esan nahian gera!:** ¡no te quedes con las ganas de decir!
- **irabazi nahirik** (nahian, nahiz): deseando ganar; **tartean sartu nahirik** (nahian, nahiz): pretendiendo colarse; **irakatsi nahirik** (nahian, nahiz): con la intención de enseñar; **etsaiak darraizkit basarazi nahirik:** los enemigos me persiguen intentando descarriarme, apartarme del buen camino; **zuk galdatu nahirik ere, hobe duzu isilik egon:** aunque estés deseando preguntar [o pedir], es mejor que te calles;

NATURA «naturaleza».

Postposizio bezala <i>naturaz</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(e)n izaeraz, -(r)en izateaz, berez.	Como posposición funciona la forma <i>naturaz</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «por naturaleza de».
---	--

- **bere naturaz:** por su naturaleza; **zeren juramentua bere etorkiz, naturaz eta izanez...:** porque el juramento por su origen, naturaleza y esencia...; **bere naturaz zentzuna dena zentzunez por tatzeak ez du merezimendu handirik:** el que por su naturaleza es formal se comporte con formalidad no tiene gran mérito; **urak bere naturaz beheantantz egiten du:** el agua por su naturaleza tira hacia abajo; **bere naturaz mantso-mantso denak barrukoen ikastetxeko diziplinazko araudia zehatz-mehatz betetzea ez du lehen begiratu batean**

meritu handirik: el que por su naturaleza es paradiño cumple estrictamente el reglamento disciplinario del colegio de internos no parece tener, a primera vista, mucho mérito; **bere naturaz geldiezia denak horrelako lekutako araudiak betetzea meritua handiagoa duela dirudi:** el que por naturaleza es inquieto cumple el reglamento de esos lugares parece que tiene más mérito.

OHORE «ohore».

Postposizio bezala <i>ohoretan</i> eta <i>ohorez</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en ospez.	Como posposición funcionan las formas <i>ohoretan</i> y <i>ohorez</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «en honor de».
---	---

- **errepublikaren ohoretan** (ohorez) **dela festa hori:** que esa fiesta es en honor de la república; **zure ohoretan** (ohorez): en tu honor (lit. en honor de ti); **zure ohore handitan:** con gran honor tuyo; **gudarien ohoretan** (ohorez) **jaialdia antolatu dute:** han organizado un acto en honor de los gudaris

OMEN «fama», «homenaje».

<i>Omenez</i> eta <i>omenetan</i> formak postposizio bezala erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en gorazarrez, -(r)en gomutaz, opaz.	Las formas <i>omenez</i> y <i>omenetan</i> funcionan como posposiciones, precedidas de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «en homenaje a»; «en recuerdo de»; «en honor de».
--	---

- **arrantzaleen omenez** (omenetan) **monolito bat jarri dute kaian:** en homenaje a los pescadores han puesto un monolito en el muelle; **zeren edo noren omenez** (omenetan) **diharduzu?:** ¿en homenaje a qué o a quién estás obrando?; **iaz Loramendiren omenez Bedoñan egin zen jaialdian:** en la fiesta que el año pasado se hizo en Bedoña en honor de Loramendi

ON «en bien de», «para bien de».

<i>Onetan</i> , <i>onerako</i> formek, <i>esaterako</i> , postposizio bezala funtzionatu ohi dute. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en mesederako.	Algunas formas como <i>onetan</i> , <i>onerako</i> , funcionan como posposiciones, precedidas de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «en bien de», «para bien de».
---	---

- **egin dugun guztia zure onerako egin izan dugu:** todo lo que hemos hecho lo hemos hecho en bien tuyo; **estropaden onerako:** para beneficio de las regatas; **batasunaren on eta probetxurako:** para bien y provecho de la

unidad; **bere onerako erosi zuen itsasontzia:** compró el barco para su beneficio

- **askotxo dira gizadiaren onetan lan egiten dutenak:** son muchísimos los que trabajan para bien de la humanidad; **agintariak makalaren onerako edo onetan dihardute:** las autoridades se afanan en bien de los débiles

ONDO «después»; «tras», «detrás», «a continuación». (Según las variedades, significa también «proximidad», «cercaña»).

Postposizio bezala <i>ondoan, ondoko, ondora, ondorean, ondoren,</i> (ondorengo), <i>ondotik, ondorik</i> formak erabili ohi dira. Hona hemen euren erabilera eta esanahia:	Como posposiciones se emplean las formas <i>ondoan, ondoko, ondora, ondorean, ondoren,</i> (ondorengo), <i>ondotik, ondorik</i> He aquí su régimen y significado:
---	---

1. *Ondoan:*

Aurretik doa: a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma. Batzuetan atzizki hau galdu egiten da. Esanahia: a) Lekuzko testuinguruan: <i>-(r)en</i> alboan, <i>-(r)en</i> aldamenean. β) Denborazko testuinguruan: <i>-(r)en</i> ondoren, ostean, gero. ?) <i>-(r)en</i> aldean. b) aditzaren era burutua. Esanahia: <i>-(r)en</i> ondoren, eta gero.	Tras: a) sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: a) En contextos con valor locativo: «al lado (de)», «junto a», «muy cerca»; «detrás de». β) En contextos con valor temporal: «luego», «después de», «tras» ?) «en comparación con». b) participio. Significado: «después de»; «tras de», «a continuación».
---	---

a) a):

- **gure haur Julene neure ondoan jartzen da mahaian:** nuestra niña Julene se suele sentar en la mesa junto a mí, a mi lado; **Antoni! Antoni! Zure atean nago ni. / Ai, Anton! Ai, Anton! Ate ondoan? Hor konpon!:** ¡Antonia! ¡Antonia! Estoy a tu puerta. ¡Ai, Antón! ¡Ai, Antón! ¿Junto a la puerta? ¡Allá plin!; **Zesar-en gorputz odolduaren ondoan, harriturik bezala daude hiltzaileek senatuan:** los asesinos están en el senado como aturdidos junto al cuerpo desangrado de César; **testuaren ondoan ingelesezko itzulpena dator:** al lado del texto viene la traducción inglesa; **nor da zure semearen ondoan dagoena?:** ¿quién es el que está al lado de tu hijo?; **gaixo larri baten ondoan gaudenean:** cuando estamos junto a un enfermo grave; **ipin itzak hiru arrainok elkarren ondoan:** colócalos los tres peces el uno junto al otro; **etxearen ondo-ondoan:** muy cerquita de la casa; **zer ondo nagoen zure ondoan!:** ¡qué bien estoy a tu lado!; **zubi(aren) ondoan:** junto al puente; **gorespenen ondoan dabilena:** el que anda detrás de los honores

- **hona non naizen iturri ondoan** (Duvoisin, Gen. 24, 43): aquí me quedo parado junto a la fuente; [Olabide: “emen nagoke iturri ondoan zai”; Kerexeta: “ni ementxe egongo naz iturri ondoan geldi”; EAB: “ur-putzu honen ondoan geldituko naiz”]; **etxe ondotoxan:** cerquita de casa

a) β):

- **gerraren ondoan estimatzen da bakea:** después de la guerra es cuando se estima la paz; **nire ondoan zeu hartuko zaitu:** te recibirá tras de mí; **azken Kontzilio(aren) ondoan hasi zen idazten:** comenzó a escribir después del último Concilio; **haren ondoan, ni:** después de él, yo; **zahartzaro onaren ondoan** (Olabide, Gen 15, 15); después de una buena ancianidad [Kerexeta: “zaartzaro onaren ostean”; EAB: “zahartzaro soriontsua izan ondoren”]

- **gerra ondoan esan zena:** lo que se dijo después de la guerra; **idatzirik dauka gerra aurrean, gerratean eta gerra ondoan ikusi zuena:** lo tiene escrito lo que vio antes, durante y después de la guerra; **1968 ondoan gutxi gorabehera ezagutu genuen elkar:** nos conocimos después del año 1968 más o menos; **meza ondoan:** después de misa; **meza ondoan esateko otoitzak:** oraciones para después de misa

a) ?)

- **horren ondoan beste guztiak eskas eta ezerez baitira:** puesto que en comparación con ése, todos los demás son de muy poca monta; **zuenaren ondoan gurekoen arraunketa luzeago eta sakonagoa da:** la remada de los nuestros es más larga y profunda en comparación con la de los vuestros; **badu euskarak huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan, aurritziena:** el euskara, en comparación con las lenguas limítrofes, sí tiene al menos una carencia notable, la de los afijos; **Keparen ondoan Iñaki aingeru bat da:** Iñaki en comparación con Kepa es un ángel

b)

- **egun guztian gora eta behera unatu ondoan:** después de haberse cansado con el trajín del día; **gaizki egitean eta egin ondoan, guztietan atsegin hartzen dute, hartaz harrotzen dira:** al obrar el mal y después de haberlo obrado, en todo toman placer, se jactan de ello; **bost urte Ameriketean egin ondoan itzuli zen:** volvió después de pasar cinco años en América; **liburua irakurri ondoan liburukoa azalduko digu:** después de que lea el libro nos lo explicará su contenido; **alaba ezkondu ondoan ezkongaiak darraizkit**

ondoan (esr. zah.): después de casar la hija me están siguiendo por detrás los pretendientes; **hara heldu ondoan**: luego que llegues allá; **bazkal(du) ondoan biaoa, afal(du) ondoan kaira bueltatxo bat**: tras el almuerzo la siesta, después de la cena una vueltita al muelle; **zahartzaro zoriontsua izan ondoan**: después de una feliz ancianidad; **barbarinak Karmelo erara gar bitu ondoan, eurok jatean ez duzu asmatuko ezpirik**: una vez que limpies los salmonetes al estilo de Karmelo, al comerlos no notarás ninguna espina; **hamabi urteko ikasketak egin ondoan, komunekoa kortan egiten den herrira**: después de hacer estudios de doce años, al pueblo donde lo del retrete se hacía en la cuadra

Oharra: Batez ere Iparraldean: *ondoan* = atzean, ondotik. Significado: «detrás (de)»; «tras».

- **elkarren ondoan doaz**: van siguiéndose los unos a los otros; **zure ondoan doa zure itzala bailitzan**: va detrás de ti como si fuera tu sombra; **zatozte nire ondoan**: venid tras mí; **bokal itxien ondoan, a bokala, e bihurtzen da euskalki batzuetan**: tras la vocales cerradas, la *a* se vuelve *e* en algunos dialectos; **laudorioen ondoan dabilena**: el que anda en pos de las alabanzas; **ez nabil neure borondatearen ondoan**: no busco mi voluntad; **nire ondoan ibili zaizkit**: me han perseguido

2. Ondoko:

<p>Aurretik joan daiteke:</p> <p>1) Lekuzko testuinguruan: <i>-(r)en</i> atzizkia duen izen sintagma, batzuetan beratu galdu egiten da.</p> <p>2) Denborazko testuinguruan a) <i>-(r)en</i> atzizkia duen izen sintagma, batzuetan beratu galdu egiten da. b) aditzaren era burutua. Esanahia: <i>-(r)en</i> hurrengo, osteko, eta geroko. Eta <i>-ko</i> atzizkiari beste atzizkiak itsats dakizkioke. Bakarrik doanean, <i>-ko</i> hau dardoana izenlaguna da eta ostean datorren izenaren menpe dago. Mugatzailea (<i>-a</i>) badaroa, <i>ondoko</i> izen bihurtzen da eta bere burujabe egin. Ikus jarraian beronen esanahiak.</p>	<p>Puede ir:</p> <p>1) En contextos con valor locativo, tras un: sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>, que a veces se elide.</p> <p>2) En contextos con valor temporal, tras un: a) sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>, que a veces se elide. b) participio. Significado: «de después», «de detrás», «siguiente». Al caso <i>-ko</i> pueden agregársele los otros sufijos. Si va solo, <i>-ko</i> es índice de dependencia de otro sustantivo que sigue. Si lleva el artículo, <i>-a</i>, <i>ondoko</i> se nominaliza y se independiza. Ver abajo los diferentes significadoa.</p>
--	--

1. Lekuzko testuinguruan: // En contextos con valor locativo: «cerca de», «junto a», «contiguo»,

«por junto a», «inmediato», «adyacente», «siguiente».

- **honen ondoko kapituluaren ageriko den bezala**: como se echará de ver en el capítulo siguiente; **Noe izan zen gizon zuzen eta perfect bat bere ondokoaren artean** (Duvoisin, Gen 6, 9): Noé fue el varón más justo y cabal de su tiempo (de los de su entorno); [Noe gizon zintzo ta osoa izan zen bere aldiko gizartearen (Olabide); Noe, gizonik zintzoena ta osoena izan zen bere aldikoaren artean (Kerexeta); gizon zuzena zen Noe eta akatsik gabea bere garaikoaren artean (EAB)]; **kapitainaren ondoko bera itsasminarekin zen**: el subcapitán estaba mareado; **Iparkaleko aroztegiaren ondoko etxetxoan jaio ziren**: nacieron en la casita contigua a la carpintería de Iparkale: **sukalde(aren) ondoko aulki batean eserita**: sentado en el taburete adyacente (de junto) a la cocina; **izenlagunaren ondoko izena**: el nombre a la derecha del complemento adnominal; **Milloi ondoko sagardotegian**: en la sidrería cerca de Milloi; **Judea guztian eta ondoko bazterretan**: en toda la Judea y sus cercanías; **hiriburuan eta honen ondoko herrietan**: en la capital y en los pueblos de al lado

2. Denborazko testuinguruan: // En contextos con valor temporal: «después de», «siguiente», «posterior», «sucesor».

a)

- **kondenatu zuen bere ondoko guztiekin eriotzara**: le condenó a muerte con todos sus descendientes; **zuk nahi duzu zeuk egin beharreko deskargua eta egin ez duzuna zeure ondokoak egin dezan**: tú quieres que el descargo que tú debiste hacer y no lo has hecho, lo haga tu heredero (sucesor); **Martin Piarresen ondoko anaia**: el hermano siguiente de Martin Piarres; **eta zure prestutasunaz, ohoreaz eta aitzineko eta ondoko fama on famatuaz, nork zer erranen du?**: y acerca de vuestra nobleza, de vuestro honor y de vuestra famosa buena fama anterior y posterior, ¿quién podrá decir nada?; **guztien ondokoaren ondoko**: por todas las generaciones; **hauteskundearen ondoko egunetan ikusiko dugu**: lo veremos en los días sucesivos a la votación; **”jakin dezaten arren gure ondokoek / nolako gaiak zuzten hekin arbasoek”**: para que nuestros sucesores sepan qué asuntos traían con ellos nuestros ancestres; **Aita Saindua, Jaun Done Petriren ondoko zuzenezkoa**: el Santo Padre, sucesor inmediato de San Pedro; **Judasek ukan ditu beti bere ondokoak**: Judas siempre ha tenido sus imitadores (sucesores); **ikazkinaren federik ez dugun Kanten ondoko batzuk besterik jakin nahi genuke**: algunos

posteriores a Kant que no tenemos la fe del carbonero quisieramos saber algo distinto; **euria**ren **ondoko eguzkiaren irribarre buztia**: la sonrisa húmeda del sol posterior a la lluvia; **hitzaldia euskaraz eman zuen, nahiz (hitzaldiaren) ondoko elkarrizketa ingelez eta euskaraz izan zen**: la disertación la hizo en euskara, aunque el coloquio posterior fue en inglés y euskara; **etzi: biharkoaren ondoko egunean**: pasado mañana: el día que sigue a mañana

- **pazko ondoko igandean**: el domingo siguiente de Pascua; **Kontxako estropada ondoko animazioa**: la animación posterior a la regata de la Concha; **meza ondoko otoitzak**: oraciones (para) después de misa

Goiko adibide batzuetan *ondoko* hitzak izen bezala funtzionatzen du, *ondorengo* esanahiaz.

En algunos de estos ejemplos *ondoko* funciona como sustantivo, significando «sucesor».

b)

- **erran ondoko**: luego de decir, inmediatamente después de decir; **poza, bandera irabazi ondokoa**: alegría, la de después de ganar una bandera; **agertu ondoko bigarren igandea**: el segundo domingo de después de la aparición;

Aldaera bezala, batez ere mendebaldeko euskalkietan *ondoren* erabili ohi da.

Como **variante** empléase, sobre todo en los dialectos occidentales, *ondoren*.

3. Ondora:

Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: alhora, aldamera.	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia - (r)en. Significado: «cerca», «al lado».
---	---

- **bere ondora jin zitzaion**: vino cerca de él, al lado de él; **ate(aren) ondora**: cerca de la puerta; **trainerua balizaren ondora hurbildu zenean istriborrean utzi zuen**: cuando la trainera se acercó a la baliza, la dejó por estribor. **Zakarias, Afrikatik eta ibili ondoren Berriatura etorri da, Ondarroa ondora**: Zacarías después de andar por Africa y demás lugares ha venido a Berriatura, cerca de Ondarroa

4. Ondorean:

Aurretik joan daiteke: a) aditzaren era burutua. b) -(r)en atzizkidun izen sintagma. Esanahia: ostean, eta gero, jarraian, ondoren.	Precedido de: a) participio. b) sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «después», «a continuación».
--	---

- **elizkizuna amaitu ondorean** (D. Agirre, Kresala, 35): después de terminar la función religiosa; **hil ondorean**: después de morir
- **honen ondorean** (Harriet): después de esto

5. Ondoren:

Aurretik joan ohi da: a) -(r)en atzizkidun izen sintagma. Batzuetan atzizki hau galdu egiten da. Esanahia: a) Lekuzko testuinguruan: - (r)en alboan, aldamera. β) Denborazko testuinguruan: -(r)en atzetik, -(r)en ondotik, eta gero. b) aditzaren era burutua. (Denborazko testuinguruan). Esanahia: -(r)en ondoran., ondotik, eta gero, jarraian.	Tras: a) sintagma nominal con la desinencia -(r)en, que a veces se elide. Significado: a) En contextos con valor locativo: «(por) detrás», «tras»; «siguiente». β) En contextos con valor temporal: «después de», «tras», «detrás de», «en pos de», «a continuación». b) participio. (En contextos con valor temporal). Significado: «después de»; «tras», «detrás de», «a continuación».
---	--

a) a):

- **animalien isatsa gorputzaren ondoren dator**: la cola de los animales viene por detrás del cuerpo; **izena, eskuarki, izenlagunaren ondoren (eskuinean) etorri ohi da**: el nombre, en general, viene inmediatamente después (a la derecha) del complemento adnominal; **t letra n eta l ondoren, gehienetan, d bihurtu ohi da**: la t tras l y n, casi siempre, se hace d; **zure ondoren** (atzetik, ondotik) **nabil**: ando buscándote; **“baneuko eta balitz alkarren ondoren dabiltz”** (Bc): “si yo tuviera” y “si ello fuera” andan una en pos de otra (es decir, las hipótesis no se llevan gran ventaja una a otra); **elizbiretan andrazkoek gizezkoen ondoren joan ohi dira**: en las procesiones las mujeres suelen ir detrás de los hombres; **horren ondoren datorrena**; el que viene tras él

a) β):

- **honen (belearen) ondoren bidali zuen usoa ere, ikusi zezan ahitu ahal ziren urak lurraren gainean**: envió también después de él (del cuervo) la paloma, para ver si habían cesado las aguas sobre la faz de la tierra; **honen ondoren jendetza handiarena bezalako zaratotsa entzun nuen zeruan** (Ap 19, 1): después de esto oí en el cielo como un gran ruido de muchedumbre inmensa; **ezkongaietan denak onak; (horren) ondoren banakak**; en el noviazgo todos buenos, después (de ello) algunos; **bata bestearen lehian eta ondoren**: compitiendo el uno detrás de otro; **jakin-gosea diru-gosearen ondoren eta diru-gosearekin batera etorri zitzaigun**: el ansia de saber nos vino después del deseo

por el dinero y juntamente con ello; **badakizu Azkueren hiztegiaren ondoren beste hiztegi bat egin zela:** ya sabes que después del diccionario de Azkue se hizo otro diccionario; **Trento aurretik eta Trento ondoren:** antes y después de Trento; **San Tomasen ondoren eta haren ondorengoen ondoren:** después de Santo Tomás y siguientes a él; **filmaren ondoren eguraldiaz hitz egingo dute:** a continuación de la película, hablarán sobre el tiempo; **Rekarteren jokaldi bikainaren ondoren, Gabilondoren gola iritsi zen:** a continuación de la jugada magistral de Recarte, vino el gol de Gabilondo

- **gerra ondoren gauza asko aldatu ziren:** después de la guerra cambiaron muchas cosas
- b)
- **elizkizuna amaitu ondoren:** después de terminar la función religiosa; **lehen ere, egilea hil ondoren eman zituzten argitara Arrese Beitiaren olerki batzuk:** anteriormente también, algunas poesías de Arrese Beitia las publicaron después de morir el autor; **ikasgai hau errepatatu ondoren joango gara pilotaka egitera, Sarriok ez badigu erantzuten ondoren “que estudien los tontos”:** iremos a jugar a pelota después de repasar esta lección, si es que Sarrio no nos contesta a continuación “que estudien los tontos”; **berri hori jakin ondoren berehalaxe abiatu zen:** tras conocer esa noticia se puso inmediatamente en camino; **bata bestearen ondoren itsasoratu ziren:** se hicieron a la mar el uno detrás del otro

6. Ondorengo:

Inork ez du postposiziotzat aipatzen, baina *ondoko* hitzaren antzera funtzionatzen du eta hemen sartzea otu zait. Ninguno la menciona como posposición, pero como funciona parecido al *ondoko*, se me ha ocurrido citarlo.

- **kontsonante(aren) ondorengo “h”ak:** las “h” tras consonante, posconsonánticas; **gerra ondorengo gertaerak:** los sucesos de la posguerra; **hire eta haren ondorengoaren artean etsaigoa jarriko diñat:** enemistad pondré entre tu linaje y su linaje; **horren ondorengo egunak:** los días posteriores a eso; **bere ondorengo guztien patu onerako:** para dicha de todos sus descendientes; **“jagiko balira lurpetik antxinako asabak, ez leukee sinistuko Bizkaitar ta euren ondorengoak direala gaurko jaun, andiki ta andigurak”:** si se levantaran del sepulcro los antepasados, no creerían que son Bizkainos y descendientes suyos los señores y ambiciosos de hoy; **latinaren ondorengo diren erdarak aztertzen ari direnak:** los que se ocupan en analizar los idiomas provenientes del latín;

Euridize galdu ondorengo atsekabe gorria negartzera: a llorar el terrible dolor consecuente a la pérdida de Eurídice; **jan aurre eta ondorengo otoitzak:** las oraciones antes y después de las comidas; **San Pedroren ondorengoa baita:** pues es sucesor de San Pedro

7. Ondotik:

Dagokion izen sintagmak - (r)en atzizkia hartzen du, batzuetan berau gal dezakeela. Esanahia: a) Lekuzko testuinguruan: albotik, ondorik. b) Lekuzko nahiz denborazko testuinguruan: 1) ostean, ondoren. 2) (r)en atzetik, -(r)en bila, segika	Va precedida de un sintagma nominal con la desinencia - (r)en, que a veces se elide. Significado: a) En contextos locativos: «de cerca de», «por junto a». b) Locativas y temporales: 1) «después», «detrás», «tras». 2) «por detrás», «tras», «en busca».
--	--

Villasantek hau dakar: // Villasante trae lo siguiente: “Igual régimen que el anterior (*ondoan*). Aunque al castellano se traduce también igual, pero en vasco se exige este caso ablativo –otros le llaman elativo, etc.- cuando se trata de expresar origen, transición”. Y trae estos dos ejemplos:

- **zein ondore gaixtoa bere ondotik uzten duen** (Axular): cuán mal efecto deja tras de sí;
- **Aztiak izar ondotik / izarra dute bilatzen** (Orixe): los Magos tras la estrella, buscan la estrella

a):

- **etxe(aren) ondotik igarotzen den bakoitzean burua jasotzen du:** siempre que pasa junto a la casa, levanta la cabeza; **neure ondo-ondotik plaut! jausi da harria uretara:** rozando conmigo ha caído ¡pum! la piedra al agua

b) 1):

- **haserraldak zein ondore gaiztoa bere ondotik uzten duen:** cuán mal efecto deja tras de sí una riña; **goazen aurrera izarraren ondotik:** avancemos tras la estrella; **bata bestearen ondotik datoz:** vienen una detrás de la otra; **haren ondotik etortzeko zena:** el que era de venir detrás de él; **bigarren silabaren ondotik hasperena erabat deuseztatzen duen erregelak:** la regla que anula totalmente la aspirada de detrás de la segunda sílaba; **hauts itzazu intxaurrak bata bestearen ondotik:** rompe las nueces una detrás de la otra; **gau luze baten ondotik:** tras una larga noche; **Bernard atera da bere bi anaien ondotik:** Bernard se ha marchado en pos de sus dos hermanos; **haren (belearen) ondotik Noek igorri zuen usoa:** después de él (del cuervo) Noé envió la paloma; **zoaz aurrera, zure ondotik etorriko naiz ni:** vete

por delante, yo vendré inmediatamente después de ti; **lehenbiziko etxe horien ondotik aurkitzen da eliza**: la iglesia está inmediatamente después de esas primeras casas; **Marokoraino joko dute biak, eta haien ondotik irakurleak**: los dos irán hasta Marruecos, y tras ellos los lectores

b) 2:

- **ez naiz hona etorria lurreko gozoen ondotik**: no he venido aquí tras (en busca de) los gozes mundanos; **besteen hutsen ondotik dabilena, ez da bera hutsik gabe**: el que anda buscando faltas a los demás, él mismo no está a falta de ella; **nire ondotik ibili zaizkit**: me han perseguido

8. *Ondorik*: Bizkaieraren ekarpena: ondotik, ondoren, ostean. // Aportación del dialecto B: «en pos», «a continuación».

- **honen ondorik entzun nuen aldra askoren boza lakoa zeruan**: después de esto oí como voz de muchas gentes en el cielo, (Biblia de Jerusalén: después oí en el cielo como un gran ruido de muchedumbre inmensa). [Apoc. 19,1: *Post haec*: Duvoisin: gero; Olabide: gero; Kerexeta: ondoren; EAB: ondoren]; **bigirak egiten dira baserrietan, ... gazteen aparamerienda baten ondorik**: las tertulias se hacen en las aldeas, ... a continuación de una merienda-cena de jóvenes

Ondoz ondo: bata bestearen atzetik, hurrenez hurren, erreskadan, ondozka.

«consecutivamente», «sucesivamente», «uno después de otro», «uno tras otro»

- **elkarren ondoz ondo bidali zituen**: los envió uno tras otro

OPA «deseo».

Postposizio bezala <i>opaz</i> erabili ohi da: Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-(r)en</i> omenez.	Como posposición se emplea la forma <i>opaz</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «en honor de».
--	---

- **noren opaz egin duzue jaialdi hau?**: ¿en honor de quién habéis celebrado esta fiesta?; **Jon Bilbaoren opaz Nevadakoek argitaratu duten liburuan**: en el libro que los de Nevada han editado en honor de Jon Bilbao

ORDAIN «equivalente»; «pago», «retribución», «sustitutivo».

Postposizio bezala <i>ordain</i> , <i>ordainetan</i> , <i>ordainez</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: <i>-(r)en</i> truke; trukean, <i>ordain</i> moduan.	Como posposición se emplean las formas <i>ordain</i> , <i>ordainetan</i> , <i>ordainez</i> , precedidas de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «en trueque», «como pago», «a cambio», «en pago», «en compensación», «en representación», «en sustitución».
---	---

- **orduko atseginen ordain orain birritan handiagoko samintasunak hartzen ditugunean**: cuando en desquite de los placeres de entonces, tomamos ahora doblado desplacer; **han emanen dut ospea laido jasanen ordain**: allí daré reputación en pago de las afrentas sufridas; **ondorio eder honek entrenamentu gogorren ordain ditugu**: estos buenos resultados los tenemos como pago de los duros entrenamientos; **Ospitaleko Demetrio izaten genuen sarri D. Luis maixuaren ordain**: Demetrio el del Hospital solía venir muchas veces en sustitución del maestro D Luis; **aurreko zorraren ordain** (*ordainez*, *ordainetan*) **oporretako gastu guztiak ordaindu zizkion**: en desquite de la deuda anterior le costeó todas las vacaciones; **tori hau egin zenigun mesedearen ordain**: toma esto en pago al favor que nos hiciste; **gaizkiaren ordain ongia bihurtzea agintzen du**: a cambio del mal manda devolver el bien
- **zeren ordainetan eman dizkizu odolkiak?**: ¿en pago de qué te ha dado las morcillas?; **hiru ukatze haien ordainetan beste hainbeste aldiz aitortzen du orain Jesus maite duela**: en compensación de aquellas tres negaciones otras tantas veces confiesa ahora que ama a Jesús; **ez da oraindik sortu belarrien lanbidea belarrien ordainetan beteko duen tramankulurik**: todavía no se ha inventado ningún artilugio que en sustitución del oído cumpla la función del oído; **ume erabil dezakegu haur-en tokian, ez behin ere, ordea, haur ume-ren ordainetan**: podemos usar *ume* por *haur* (en sustitución de *haur*), pero, en cambio, nunca *haur* por *ume* (en sustitución de *ume*); **bekatuaren ordainetan**: en satisfacción de los pecados; **egindakoaren ordainetan musu bat eman zidan**: en compensación por lo que le hice me dio un beso
- **mandatariz eta bere ordainez egitekoak egiten hasi zenean**: cuando empezó a despachar los negocios por medio de delegados y representantes; **jan truke edo jan**

ordainez ere lan egingo lukete: trabajarían incluso a cambio de comida

ORDE «reemplazante»; «en lugar de».

<p>Postposizio bezala <i>orde</i>, <i>ordean</i>, <i>ordez</i> formak erabili ohi dira. Aurretik doa:</p> <p>a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma.</p> <p>b) absolutu mugagabea.</p> <p>c) aditzaren era burutua: ad. + beharrean, ad. + gabe</p> <p>d) <i>-(z)eko</i> atzizkia. (Batez ere Ipar.): <i>-(z)eko partez</i>, beharrean</p> <p>Esanahia: <i>-(r)en partez</i>; gabe, beharrean.</p>	<p>Como posposición se emplean las formas <i>orde</i>, <i>ordean</i>, <i>ordez</i>, precedidas de:</p> <p>a) sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>.</p> <p>b) absoluto indeterminado.</p> <p>c) participio: «en lugar de + inf.».</p> <p>d) sufijo <i>-(z)eko</i>. (Sobre todo en Ipar): «en vez de + inf.».</p> <p>Esanahia: «en vez de», «en lugar de».</p>
---	--

Orde: (Batez ere Ipar.).

- **Arkelaio zela errege Judean bere aita Herodesen orde:** que en Judea el rey era Arkelaio en vez de su padre Herodes; **zaharraren orde berria hartu:** coge el nuevo en vez del viejo; **euria ari zuen eta mokasinen orde zapatak jantzi zituen:** llovía y en lugar de alpargatas se calzó los zapatos; **ezarri zuen hiri hartan, bere orde, Mark bere dizipulu maitea:** en aquella ciudad le puso en su lugar a Mark su discípulo amado; **juramentua egiteko ohitura uzteko bidea da esatea, juramentuaren orde:** «bai segur», «ez segur»...: para desarraigar la costumbre de jurar es que digas en vez de los juramentos: «sí, por cierto», «no, por cierto»...; **neu joango natzaizu zure orde:** iré yo en tu lugar; **C-ren orde ezar bedi Z:** en vez de C póngase Z
- **eta etxe gainean teila orde uralita jarri du:** y en el tejado en vez de teja ha colocado uralita; **esku orde ukabila:** en lugar de la mano el puño; **diskete orde CD Roma darabilt:** en lugar de disquete uso CD Rom; **ura saldu ardo orde eta ardoaren prezioan:** vender agua en lugar de vino y a precio del vino; **lotako pirula orde suspergarria hartu zuen eta gau guztian ez zuen lorik egin::** en vez de una pastilla para dormir se tomó un estimulante y se pasó toda la noche en vela
- **irabazi orde galdu egin du:** en vez de ganar ha perdido; **goretsi orde gaitzetsi dute:** en vez de alabar lo han condenado; **kalera atera orde ohean sartu zen:** en vez de salir a la calle se metió en la cama; **zinemara eraman orde mendira eraman zuen:** en lugar de llevarle al cine le llevó al monte; **batak besteari oztopoak jarri orde erraztuz:** facilitando en vez de obstaculizar el uno al otro

- (Batez ere Ipar.) **kantuz ari daitezen lokartzeko orde:** para que se dieran al canturreo en lugar de dormir

Ordean:

- **beldurra zutela lotsaren ordean:** que tenían miedo en lugar de respeto; **eguzki galgatan jantzi zuriaren ordean beltza jantzi du:** en pleno sol de justicia en vez de ropa blanca se ha puesto negra; **liburu ordean tebeoak irakurtzen ditu:** en vez de libros se lee tebeos; **alaitasunaren ordean tristura:** en vez de alegría tristeza
- **musu ordean zer ez nizuke emango?:** ¿qué es lo que no te daría a cambio de un beso?
- **irabazi ordean galdu egin du:** en vez de ganar ha perdido; **begietara begiratu ordean lurrera begira dago:** en vez de mirar a los ojos está con la mirada en el suelo; **estriborrera egin ordean baborrera egin zuen:** en lugar de virar a estribor viró a babor; **eskerrak eman ordean ahaztu egin gara egin digun mesedeez:** en vez de darle las gracias nos hemos olvidado de los favores que nos ha hecho
- (Batez ere Ipar.) **bandera airean ibiltzeko ordean herrestan dabil:** en vez de enarbolar la bandera, la lleva a rastras

Ordez:

- **zure lagunaren orde bere anaia etorri zen:** en vez de tu amigo vino su hermano; **gaurkoz uraren orde ardoa edango dut:** por hoy en vez de agua tomaré vino; **Pako, Arriaran III.a, futbolari orde pilotari atera zen:** Pako, Arriaran III, en vez de futbolista salió pelotari; **ba omen ziren behin batean bi Aita Santu, baten orde:** se dice que alguna vez hubo dos Papas en lugar de uno; **topic eta thema-ren orde euskaraz “mintzagai” erabil daitekeela iruditzen zait:** se me hace que que en euskara se puede usar “mintzagai” en lugar de *topic* y *thema*; **eta K-ren orde C idatziz:** y escriben la C en lugar de K; **Pedroren orde Kepak berba egin du:** en lugar de Pedro ha hablado Kepa; **eta bata nahiz bestea nire orde berba egiteko ziren:** y tanto el uno como el otro eran de hablar en mi lugar
- **Santa Kruzen buru orde 10.000 pezeta eskaini omen zuten:** se dice que ofrecieron 10.000 pesetas a cambio de la cabeza de Santa Cruz; **musu orde zer ez nizuke emango?:** ¿qué es lo que no te daría a cambio de un beso?; **bake orde laster duzu kezka zure jabe:** pronto en lugar de paz tendrás preocupaciones

- **irabazi orde z gald u egin du:** en vez de ganar ha perdido; **mintzatu orde z negarrez ari zen:** en lugar de hablar se puso a llorar; **gorde orde z bota egiten du:** en vez de guardar despilfarra; **borondaterik onenez baina mesede orde z kalte egin diozu:** con la mejor voluntad del mundo pero en vez de favorecer le has perjudicado; **pozaren pozez barre orde z negar egin zuen:** de tanta alegría en vez de reír lloraba; **arazoa konpondu orde z, okertu egin duzu:** en lugar de arreglar el problema, lo has empeorado

ORDU «hora». Bizk. Gutxi erabilia. // Del dialecto B. Poco usado.

Postposizio bezala <i>orduko</i> forma erabili ohi da. Erabilera: a) adlatibozko -(e)ra atzizkidun izen sintagmaren ostean. b) -(z)era aditz atzizkiaren ostean. Esanahia: baino lehen.	Como posposición se usa la forma <i>orduko</i> , precedida de: a) un sintagma nominal con la desinencia de adlativo -(e)ra. b) la desinencia verbal -(z)era. Significado: «antes de».
--	--

- **mezatar a orduko:** antes de ir a misa; **urruneko eltzea urrez, hara orduko lurrez:** la olla lejana (está hecha) de oro, antes de llegar allá (está hecha) de tierra; **etxe gorrira orduko eskuinetara hartu:** antes de llegar a la casa roja tuerces a la derecha; **irailera oduko amaituko dut:** lo terminaré antes de septiembre
- **mahaian jartzera orduko, eskuak garbitu behar dituzu:** antes de que te sientes a la mesa, debes limpiar las manos; **garai batean Oleazioko sakramentua hartzera orduko konfesatu behar zuen gaixoak:** en un tiempo, antes de recibir el sacramento de la extremaunción se debía confesar el enfermo

OROIMEN «memoria»; «recuerdo».

Dirudien ez, <i>oroimenez</i> formak postposizio bezala funtzionatzen duela esan daiteke. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en oroigarri, -(r)en oroitzapenetan.	Parece que se puede decir que la forma <i>oroimenez</i> funciona como posposición, precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «en recuerdo de».
---	---

- **norbaiten edo zerbaiten omenez eta norbaiten edo zerbaiten oroimenez ez da gauza bera:** no es lo mismo en honor de alguien o algo que en recuerdo de alguien o algo

OROIPEN «recuerdo»; «memoria»

Goiko OROIMENean esaniko berbera. // Lo mismo que lo que se ha dicho en OROIMEN de arriba.

- **Sestaon langileen oroipenez oroitarriren bat eraikia dute:** en Sestao tienen erigido algún monumento en recuerdo de los trabajadores; **egizue hau nire oroipenean:** haced esto en memoria mía

OROITZAPEN «recuerdo».

Postposizio bezala <i>oroitzapenetan</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en oroigarri, -(r)en oroipenez.	Como posposición se emplea la forma <i>oroitzapenetan</i> precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «en recuerdo de», «en memoria de».
---	---

- **zeren oroitzapenetan eraiki dute oroitarri hau?:** ¿en recuerdo de qué han levantado este monumento?; **hau egizue nire oroitzapenetan:** haced esto en mi recuerdo, conmemoración; **euskaltzain zenduen oroitzapenetan egin zen jaialdia:** acto que tuvo lugar en recuerdo de los académicos difuntos de la academia vasca

OSTE «parte trasera», «posterior». Bizkaierazko euskalkikoa. // Del dialecto B. Sin.: atze.

Postposizio bezala lekuzko formak erabili ohi dira. Hona hemen euron erabilera eta esanahia:	Como posposiciones se emplean las formas locativas. He aquí su régimen y significado:
--	---

1. *Ostean:*

Aurretik doa: a) -(r)en atzizkidun izen sintagma. Batzuetan atzizki hau gald u egiten da. Esanahia: a) -(r)en atzean, gibelaldean. b) -(r)en ondoren, -(r)en ondoan b) -z atzizkidun izen sintagma. Esanahia: -z gain, -z gainera, -z bestalde. Esanahia: ondoren, eta gero.	Tras: a) sintagma nominal con la desinencia -(r)en, que a veces se elide. Significado: a) «detrás (de)», «tras». b) «después de», «tras de». b) sintagma nominal con la desinencia -z: Significado: «además de», «fuera de», «al margen de», «excepto», «salvo», «dejando a un lado». c) participio: «después de»; «tras», «a continuación».
--	--

a) a):

- **nekearen ostean poza:** después del trabajo el regocijo; **mendixka batzuen ostean:** detrás de unos montecitos; **hor doa hori bere ondoan bat eta bere ostean beste bat dituela:** ahí va ése con uno a su lado y otro tras él; **bazkariaren ostean biagoa edo bazkalostekoa:** después de la comida la siesta; **andragizon horiek elkarren ondoan gabe elkarren ostean, bata bestearen ostean joaten dira:** ese matrimonio en vez de ir el uno junto a la otra, suelen ir el uno tras la otra;

zure aurrean eta zure ostean: delante y detrás de ti

- **ondo eginaren pagua, ate ostean palua** (esr. zah.): en pago de lo bien hecho, detrás de la puerta un palo {haz bien, y recibirás mal (refrán)}; **ate ostean ezkutatu zen:** se escondió detrás de la puerta; **horma ostean:** tras el muro

a) ß):

- **elkarren ostean etorri ziren ekaitzak:** llegaron las tormentas una tras otra; **lo gozoaren ostean itzarri da:** se ha despertado tras un dulce sueño; **zahartzaro onaren ostean:** después de una buena ancianidad; **gerra(ren) ostean estimatzen da bakea:** después de la guerra es cuando se estima la paz; **futbol partidaren ostean llameran batuko gara:** después del partido de futbol (al terminar el partido del futbol, al término del partido del futbol) nos reuniremos en la alameda
- **heriotza ostean, nora eramatea nahi duzu?:** después de que mueras, ¿a dónde quieres que te llevemos?

b):

- **honezaz ostean** (honezaz gainera, honezaz bestalde): además de esto; **direnak, etxe-sukaldetan behar diren apur batzuek ostean, burdinatzen dira esaterako:** todas (las leñas) excepto algunas pocas que se necesitan en las cocinas domésticas, se convierten, por decirlo así, en hierro; **filosofiaz ostean ekonomia-ikasketak ere egin ditu:** aparte de filosofía también ha estudiado económicas; **eliza eta zubizaharraz ostean badago zer ikusirik:** además de la iglesia y el puente viejo ya hay algo más que ver; **badauzkagu hauez ostean beste zenbait koadro:** además de éstos tenemos varios otros cuadros

c):

- **ikasgai hauxe errepatatu ostean kartetan egingo dugu:** después que repasemos esta lección jugaremos a cartas; **“lo-lo egin eta apapa gero”, dio haur-abesti batek; hau da: lo-lo egin ostean apapa joango direla:** luego de dormir saldremos de paseo, dice una canción infantil; es decir: que después de dormir irán a dar una vuelta; **jan aurrean eta jan ostean eskuak garbitzen ditu:** limpia las manos antes y después de comer; **zerbait egin ostean:** después de hacer algo; **Ameriketean bost urte egin ostean itzuli zen:** volvió después de hacer en América cinco años; **afaldu ostean (afalostean):** después de cenar; **jan ostean hortzak garbitzen ditu:** después

de comer se limpia los dientes; **normala iruditzen zait arduratuta egotea lesio bera bi aldiz izan ostean:** me parece normal que esté preocupado después de haber sufrido dos veces la misma lesión

2. Osteko:

Aurreko osagaia izan daiteke:	Precedido de:
a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma, batzuetan berau gal dezakeela.	a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide.
b) aditzaren era burutua. Esanahia: atzeko, gibelako; geroko.	b) participio. Significado: «posterior», «tras», «detrás de»; «después de».

a)

- **autoaren osteko aldean:** en el lado posterior del coche; **nongoa duzu zure osteko gizona?:** ¿de dónde es el hombre siguiente (contiguo) a ti?; **honen osteko orrialdean hau argitzeko irudiak jarri ditugu:** para aclaración de ello, hemos puesto unas figuras en la parte posterior de esta página
- **etxe osteko aldean:** en la parte posterior de la casa; **denda osteko ate txikian:** en la puertecita de la trastienda; **biagoa, eguerdi osteko loa:** siesta, el sueño posterior al almuerzo

b)

- **poza benetan gola sartu ostekoa:** para alegría, ¡la de después de meter el gol!

3. Ostera:

Aurreko osagaia izan daiteke:	Precedido de:
a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma, batzuetan atzizki hau gal dezakeela. Esanahia: atzera, gibelera, gerora.	a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: «a la parte trasera», «detrás de».
b) <i>-z</i> atzizkidun izen sintagma. Esanahia: <i>-az</i> gain, <i>-z</i> bestalde.	b) un sintagma nominal con la desinencia <i>-z</i> . Significado: «además de», «aparte de».

a)

- **Julene haurra aittittaren ostera joan eta honen ostean ezkutatu zen:** la niña Julene se fue detrás del abuelo y se escondió detrás de éste; **dena dela, Galarza III.a baino osterago ere izan zen Retegi II.a txapeldun:** sea lo que fuere, Retegi II fue campeón también con posterioridad a Galarza III
- **horma ostera joan da:** ha ido a la parte posterior del muro; **zoaz ostera ere etxe ostera eta hantxe ikusiko duzu:** véte de

nuevo a la parte posterior de la casa y lo verás allí

b)

- **horrez ostera** (Duvoisin. Bota gatz!): además de eso (Duvoisin. ¡Echale un galgo!)

4. *Ostetik*:

Aurreko osagaia izan daiteke: a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma, batzuetan berau gal dezakeela. Esanahia: atzetik, gibelatik, atzeangerora. b) <i>-z</i> atzizkidun izen sintagma. Esanahia: <i>-az</i> geroztik.	Precedido de: a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: «tras», «de detrás de», «por detrás de». b) un sintagma nominal con la desinencia <i>-z</i> . Significado: «después de», «desde que».
---	---

a)

- **gidariaren ostetik joatea da ziurrena**: lo más seguro es ir detrás del gufa
- **oraindino ez zuen eguzkiak osoro / mendi osteetatik jaso aurpegia**: todavía el sol no había ofrecido su cara de detrás de los montes;
Santa Kutz mendi ostetik gora: por detrás del monte Santa Cruz arriba

b)

- **sukarra joan ostetik alaiago dago**: desde que se le ha bajado la fiebre está más alegre

PARE «par», «frente»; «igual», «semejante».

Postposizio bezala genitiboaren eskuinean doa. Bi erabilera bereiztu ohi dira, batean deklinabidea onartzen du eta bestean <i>pare</i> forma baino ez (edo <i>pareko</i>).	Como posposición rige genitivo. Se distinguen dos usos. Un primer uso, según el cual <i>pare</i> se declina. El otro uso no conoce más que la forma invariable <i>pare</i> (o <i>pareko</i>).
---	--

1. Lehen erabilera: <i>pare</i> deklinatu egiten dela. Eta <i>-ko</i> kasua ere onartzen du, eta honi beste deklinabide atzizkiak ere itsats dakizkioke. Esanahia: a) albo, inguru, ondo [-(r)en aldean]. b) -(r)en antzeko, irudiko, gisako, berdin. 2. Bigarren erabilera: <i>pare</i> forma soila (edo <i>pareko</i>). Esanahia: -(r)en antzeko, irudiko, gisako, berdin.	1. Primer uso: según el cual <i>pare</i> se declina. Y también admite el caso <i>-ko</i> , al cual pueden agregarse los otros sufijos. Significado: a) «par», «frente», «altura», «lado» [en comparación con]. b) «igual a», «semejante a». 2. El otro uso: sólo la forma invariable <i>pare</i> (o <i>pareko</i>). Significado: «igual a», «semejante a», «como».
---	---

1.

a)

- **gure parean**: al par de nosotros, frente a nosotros;
Japoniako teknika Alemaniakoaren parean dago: la técnica japonesa está a la par de la alemana;
zubiaren parean izan da istripua: el accidente tuvo lugar a la altura (al lado) del puente;
ez da gehiago gure parera agertu: no ha aparecido más veces ante nosotros;
Goiko Kaleko kale bihurrietan behera San Martín eliz parean gelditu naiz: bajando por las calles sinuosas de Goiko Kale me he parado al par (a la altura) de la iglesia de San Martín;
gure parean aurkitu zenean burua beste aldera itzuli zuen: cuando se encontró al par nuestro viró su cabeza para otro lado;
zure parean eseriko naiz: me sentaré enfrente de ti;
mutila bere parean eseri zitzaionean: cuando el muchacho se sentó enfrente de él;
gure lehengusu batek gure etxe parean burua jasotzen du: un primo nuestro a la altura de nuestra casa suele levantar la cabeza;
Valentziaren parean ekaitz gogor bat izan zuten: a la altura de Valencia tuvieron una fortísima tormenta;
binaka zeuden galderak, bata bestearen parean: las preguntas estaban por pares, la una al lado de la otra;
Goikoetxea Perossi-ren parean jar daitekeela uste duzu?: ¿crees que se puede poner a Goikoetxea al par de Perossi?
- **zure parean horiek ezer ez dira**: a tu lado éstos no son nada;
herriko beste gazte guztiak honen parean hutsak ziren: todos los demás jóvenes del pueblo al lado de éste eran un cero;
baina betikotasunaren parean ipinita gutziz laburra ez ezik, hutsa bezala da denbora: el tiempo en comparación con la eternidad, no es sólo que sea corto, sino que es como si no fuera nada;
hori gure parean formal zen: ése al lado nuestro era formal
- **laster heldu zen neskatilaren parera, baina haren atzetxotik joatea erabaki zuen**: pronto llegó a la altura de la jovencita, pero optó por seguirla un tanto por detrás;
etxe haren parera edo iritsi zen manifestazioaren amaiera: más o menos llegaba hasta la altura de aquella casa el final de la manifestación;
gure parera heldu zenean: cuando llegó a nuestro lado;
hau ez da idazle honen aurreko liburuaren parera heltzen: éste no llega a la altura del libro anterior de este autor (no llega al nivel, no tiene el nivel...)
- **eguerdiko 12.00etan Bilintz liburu dendaren paretik abiatuta (Kantu Jira)**: a las doce y media del mediodía, partiéndolo a la altura de la librería Bilintz;
joan zakizkit nire paretik, mesedez!: ¡véte de mi lado, por favor!;
gure

paretik igaro zirenean saltoka jardun zuten: cuando pasaron por nuestro lado se pusieron a saltar; **etxeke atari paretik atzerantz begiratu zuen:** ya junto al portal de la casa miró hacia atrás

b)

- **bere parerik ez du / bere parekorik ez du:** no tiene igual; **liburu honek ez du bere parerik:** este libro no tiene igual; (**denborak ez duela munduan bere parerik:** que en el mundo no hay nada comparable con él (el tiempo); **eta purga hartu gabe igaro albazenu, ez luke hark bere parerik, are hura hobeago:** y si pudieras pasarte sin tomar la purga, ello sería sin comparación mejor; **musean ez zen horren parerik:** buceando (nadando bajo el agua) no tenía otro igual
 - **ez gehiago ez gutxiago, baina bai zure parekoa:** ni más ni menos, pero sí igual que tú (como tú); **muslari pare hau parez pare guztiz elkarren parekoak dira:** esta pareja de musularis frente a frente son semejantes el uno al otro; **muslari pare honek kontrarioen pareko pareak dauzkate baina esku direnez pareetara irabazi egin dute:** esta pareja de musularis tienen iguales pares que los contrarios, pero al ser ellos mano han ganado a pares; **ez zegoen inguru guztian Iñaki panaderoren pareko gizonik:** Iñaki panadero no tenía igual en todo el contorno; **abereekin berdindu zen eta haien pareko bihurtu:** se igualó a los animales y se hizo semejante a ellos; **Erronkariko azentua erdararen pareparekoa dela:** que el acento roncalés es igualito al acento erdaldun; **liburu hau lehengoaren parekoa da:** este libro es semejante al anterior
- 2.
- **Aitaren berdín eta pare dela Semea:** que el Hijo es igual y semejante al Padre; **deus ez dakiena eta egiten ere ez duena, pertsona hilaren eta ehortzirik datzanaren pare omen da:** se dice que el que no sabe ni hace nada es igual a la persona que yace muerta y enterrada; **eztiaren pare izan nahi nuke, beti neure parean egon dadin:** quisiera ser igual a la miel, para que ella estuviera siempre frente a mí; **Japoniako teknika Alemaniakoaren pare da:** la técnica japonesa es igual a la alemana; **uholde baten pare:** como una inundación; **gure Sarriok, antza, deabruari kontra egiteagatik lurreko gauza guztiak lohiaren pare dauzka:** al parecer, nuestro Sarrio por contradecir al demonio estima las cosas de la tierra como basura; **beltza, Afrikako beltzen pare:** negro, como los negros de Africa; **abereekin berdindu zen eta haien pare bihurtu:** se igualó a los animales y

se hizo semejante a ellos; **zuri-zuria esnearen pare:** blanquísima, como la leche; **isilik hiltzera daramaten ardiaren pare:** como la oveja silenciosa que llevan a sacrificar; **ur garbiaren pare izan behar duela behar bezalako prosak:** que una prosa como es debido debe ser como agua limpia; **eta etorri zen tximistaren pare:** y vino como un rayo; **ez zirela elkarren pare bereizkuntza guztiak:** que no todas las distinciones eran iguales entre sí; **uraren pare gara, ura bezala linburtzen gara:** somos como el agua, como el agua nos deslizamos; **urte beteko haurraren pare:** semejante al niño de un año; **zeren baitzekiten gizon amorratua ero baten pare zela:** es que sabían que el hombre encolerizado es igual que un loco; **izurriaren pare da:** es como la peste; **esan zuen ur hura ez zela ura, ura baino hobeago baino, munduko ardo guztiak baino gozoago, eztiaren pare zela:** dijeron que aquello no era agua, sino mejor que agua, más rico que todos los vinos del mundo, que era como la miel; **laguntza hori itsasontzia galdu ondoren harrapatzen den taula haren pare da:** esa ayuda es como esa tabla que se coge después de haber perdido el barco; **fitsaren berdín, ez deusen pare daukagu denbora:** tenemos el tiempo como una futilidad, como una nonada; **hilaren pare egiten da:** se hace como el muerto

PARTE «como».

<p>Postposizio bezala <i>partean, partetik, partez</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak, <i>partean</i> izan ezik, -(r)en atzizkia hartzen du. Hona hemen euron erabilera eta esanahia:</p> <p>1. absolutu + PARTEAN: inguruan, aldean, bueltan (denborazkoetan).</p> <p>2. -(r)en PARTETIK:</p> <p>a) (r)en aldetik.</p> <p>b) -(r)en izenean, (r)en aldetik.</p> <p>3-(r)en PARTEZ:</p> <p>a) -(r)en ordezt.</p> <p>b) -(r)en izenean, (r)en aldetik.</p> <p>4. -t(z)eko PARTEZ: -(r)en ordezt, beharrean.</p> <p><i>gizon den partez:</i> gizon den aldetik.</p>	<p>Como posposición se emplean las formas <i>partean, partetik, partez</i>, precedidas, excepto en <i>partean</i>, de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. He aquí su régimen y significado:</p> <p>1. absoluto + PARTEAN: «hacia», (tiempo, época, horas).</p> <p>2. -(r)en PARTETIK:</p> <p>a) «de parte de».</p> <p>b) «en nombre de», «de parte de».</p> <p>3. -(r)en PARTEZ: a) «en vez de», «en lugar de».</p> <p>b) «de parte de», «en nombre de».</p> <p>4. -t(z)eko PARTEZ: «en vez de», «en lugar de».</p> <p><i>gizon den partez:</i> en cuanto hombre.</p>
---	---

1. *Partean*: [absolutu + *partean*]:

- **Sonoran, negu partean hotza galanta eta uda partean, ostera, bero larria:** en sonora, hacia el invierno un frío tremendo, y, en

cambio, hacia el verano una calor sofocante; **kalatxoriak goizabar partean kai inguruan ibiltzen dira eta arratsalde inguruan euren lotako lekura alde egiten dute**: las gaviotas hacia el amanecer revolotean junto al puerto y hacia el atardecer se van a sus dormitorios; **hamarrak partean**: a eso de las diez

2. *Partetik*:

a)

- a) **bera bere partetik batere ahalegindu gabe**: él por su parte sin esforzarse nada; **berak bere partetik ez zuen nahi hara joan**: ella por su parte no quiso ir allá; **Andresen partetik ez lirake herriko jairik izango**: de parte de Andrés (si dependiera de Andrés) no habría fiestas del pueblo; **nire partetik nahi duenean etortzea dauka**: por mi parte puede venir cuando quiera

b)

- **eman iezazkiozu goraintziak Juleneren partetik**: dale recuerdos en nombre de Julene; **Foru Aldundiaren partetik datorrelako**: porque viene de parte de la Diputación

3. *Partez*:

[-(r)en partez]:

a)

- **gaur uraren partez ardoa edango dut**: hoy en vez de agua beberé vino; **periodiko baten partez bi irakurtzen badituzu askoz hobeto**: si en lugar de un periódico lees dos, mejor que mejor

b)

- **eman iezazkiozu goraintziak nire partez**: dále recuerdos en mi nombre; **errozu goraintzi nire partez**: dale recuerdos en mi nombre; **hartu opari hau lagunen partez**: recibe este obsequio en nombre de tus amigos; **eta hartarako, joan behar dugu aitaren partez mintzatzeraz**: y para ello, debemos ir a hablarle de parte del padre; **norbaitek esango baligu ahaldundien partez: ea jaun-andreak! A-8 autopista doan izango da...**: si alguien de parte de los diputados nos dijera: ea, señoras y señores, la autopista A-8 va a ser de balde...; **eta hau esan zigun gure sindikatuko arduradunak beste sindikatuko partez hitz egiten zuela**: y el responsable de nuestro sindicato, hablando en nombre de los de otros sindicatos, nos dijo lo siguiente

4. *-t(z)eko partez*:

- **bera etortzeko partez ni joango naiz**: en lugar de que venga él, iré yo

PE «parte inferior», «parte de abajo»; «debajo de», «bajo»; «menos», «menor» [referido a una cantidad].

<i>Pean, peko, pera, petik</i> formek postposizio bezala funtzionatu ohi dute. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia, batzuetan berau gal dezakeela, eta -z atzizkia hartzen ditu.	Las formas <i>pean, peko, pera, petik</i> funcionan como posposición, precedidas de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en, que a veces se elide, y la desinencia -z.
--	---

- **zu nire aterpe pean sartzeko**: para que te protejas bajo mi cobijo; **toldo baten pean nago**: estoy (de)bajo de un toldo; **tristerik nago nire hutsen pean**: estoy conunguido bajo (el peso de) mis faltas; **mihia pean** (mihipean): bajo la lengua; **50 euroko isunaren pean**: bajo multa de 50 euros; **zorren pean** (zorpean) **bizi da**: vive endeudado; **Jaungoikoaren pean (B)**: con la gracia de Dios; **gure etxearen pean** **pean botika bat dago**: debajo de nuestra casa hay un farmacia; **autoa zeruaren pean gordetzen dut, autoa zerupean gordetzen dut**: el coche lo guardo al aire libre (en la calle); **hiltzeko penaren pean**: bajo pena de muerte; **heriotzaren penaren pean**: bajo pena de muerte
- **harri handi baten peko aldeko gerizan**: en la parte sombría de debajo de una gran piedra; **baditut halere soldaduak ene peko**: tengo soldados a mis órdenes; **erregeen eran bizi ziren horren pekoak**: a semejanza de los reyes vivían sus súbditos; **nork egon behar du eguzkiaren pekoak legez, ohetik jagitzeko?**: ¿quién debe estar como al cuidado del sol, para levantarse de la cama?; **ohitura zen orduan haur asko ipintzea irakasle baten pekoan**: era costumbre entonces de poner a muchos niños al cuidado de un profesor
- **zuhaitz baten pera doa etzatera**: se va a tumbarse bajo un árbol; **kamioiaren pera sartu zen**: se metió debajo del camión
- **haxe horren petik nola irtiten?**: ¿cómo salir de debajo de esa gran carga?; **zorren petik nolabait ateratzeko**: para salirse de alguna forma de (debajo de) las deudas; **kamioiaren pera sartu zen eta kamioi(aren) petik onik atera zen**: se metió debajo del camión y de debajo del camión salió ileso; **zubia pean petik** (zubipetik) **igarotzean geure trainerua joan da aurrena**: al pasar por debajo del puente nuestra trainera iba en cabeza; **pasatzen naizenean / zure leiho petik**: cuando paso por debajo de tu ventana
- **zenbat haur daude hemen hamalau urtez pekoak?**: ¿cuántos niños hay aquí de menos de 14 años?

PENA «pena», «castigo».

Axularrek postposizio bezala <i>penan</i> forma darabil. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du.	Axular usa como posposición la forma <i>penan</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en.
--	--

- **bekatu mortalaren penan:** bajo pecado mortal; **biziaren penan:** so pena de vida

PESKIZA «disposición», «alcance».

<i>Peskizan</i> formak postposizio bezala funtzionatu ohi du. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: a) -(r)en kargura, kontura, -(r)en ardurapean. b) eskuera, -(r)en helmenean. c) zain; itxaropenean. [-t(z)eko <i>pezkizan</i> ere bai]. d) -(r)en bila.	La forma <i>pezkizan</i> funciona como posposición, precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual -(r)en. Significado: a) «a cargo de», «a cuenta de», «dependiendo de», «a expensas de». b) «al alcance de», «a merced de», «a disposición de». c) «a la espera de», «con la espera de»; «esperando» [y también la forma -t(z)eko <i>pezkizan</i>]. d) «a la búsqueda de», «al encuentro de».
---	---

- **etxe hura poste zaharraren peskizan dago:** esa casa está a expensas de ese viejo poste; **neure peskizan utzi dute Julene haurra:** la niña Julene han dejado a mi cargo; **inoren peskizan dagoenak, jai dauka:** está apañado el que depende de otro; **neure peskizan utzi didate esnea egostea:** han dejado a mi cuenta la cocción de la leche
- **ez da utzi behar sekula haurren peskizan surik ez armarik:** no se debe dejar nunca al alcance (a la disposición) de los niños ni fuego ni armas
- **biharamun hobe baten peskizan:** con la esperanza de un futuro mejor; **semea urrunean sosaren peskizan:** el hijo lejos a la espera de algo de dinero; **urte hobeen peskizan:** esperando años mejores; **gau gutzia zure peskizan igaro dut:** me he pasado toda la noche pendiente de ti; **inoren peskizan egon gabe, besteek zer esan eta zer egingo egon gabe, ordain itzazu zuk zeure zorrak:** sin estar esperando a nadie, sin esperar a lo que los demás digan o hagan, tú paga ya tus deudas
- **urte hobeak izateko peskizan:** con la esperanza de tener años mejores; **oporraldia etortzeko peskizan:** esperando la llegada de la época vacacional
- **zure peskizan etorri miz:** he venido en tu búsqueda; **astelehen-ostiraletan geu joaten gara ikastolara Juleneren peskizan:** los

lunes y viernes vamos nosotros a la ikastola en busca de Julene

PLAZER «gusto», «antojo».

<i>Plazerera</i> formak postposizio bezala funtzionatu ohi du. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)en aisiara.	La forma <i>plazerera</i> funciona como posposición, precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual -(r)en. Significado: «a gusto, antojo o capricho de».
--	--

- **bere plazerera eta aisiara bizten uzten zieten:** les dejaba vivir a su gusto y capricho; **batere berririk jakin gabe bere plazerera hitz egiten dutenak:** los que sin saber nada, dicen lo que se les antoja; **premia gabe, bere plazerera, arrazoirik gabe egiten diren akatsak:** las irregularidades que se hacen sin necesidad, por puro antojo, sin motivo; **utziko zintuzket nahi duzun gutzia egitera eta zeure plazerera bizitzera** (bizk. eta gip., *nizueke...* egiten eta bizitzen): te permitiría hacer cuanto quisieras y vivir a tu gusto; **Lenila zeritzan andre handi batek bere plazerak bere plazerera bere zerbitzari batekin izategatik salatu zituela bere seme propioak erregearen aurrean:** que una gran señora llamada Lenila, con el fin de poder disfrutar a su gusto con un sirviente suyo, acusó a sus propios hijos ante el rey; **bere plazerak bere plazerera edonori kontatzen dizkio:** sus placeres se los cuenta a cualquiera a su gusto

Eta hau ere bai: // Y también: **bere plazereko:** de su agrado; **bere plazereko dadukan mutila:** el muchacho que es de su agrado

PODERIO «fuerza», «poder». [Aldaerak: // Variantes: podesuz, porasuz, puruz...].

Postposizio bezala <i>poderioz</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du. Esanahia: -(r)engatik, -(r)en kariaz, -a dela eta.	Como posposición se usa la forma <i>poderioz</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en. Significado: «a fuerza de», «a puro...».
---	--

- **horrengandik ezer lortzekotan, esanaren esanez edo esanaren poderioz lortuko dugu soilik:** de conseguir algo de ése, tan sólo lo conseguiremos a base de repetir o a fuerza de repetir; **bakea egiaren, askatasunaren, zuzentasunaren eta elkarrizketaren poderioz lortuko da:** la paz se conseguirá por el poderío de la verdad, de la libertad, de la justicia y del diálogo; **egonean egonean egonean edo egonaren poderioz:** de tanto estar, estar y estar o a fuerza de estar; **gozoaren gozoz edo gozoaren poderioz:** de puro dulce o a fuerza de dulce; **orduen**

poderioz amaitu du epe barruan lana: ha culminado el trabajo dentro del plazo a fuerza de (meter) horas; **gezurtiaren poderioz azkenean bere gezurak berak sinistu egiten ditu:** de puro mentirosa, al final ella misma se cree sus propias mentiras; **lanaren poderioz lortu du lortutakoa:** lo que tiene lo ha conseguido a base de trabajo; **galdetu nion zer moduz, arneguaren podeduz, hegaz eginik igan litekeen zeruetara:** le pregunté, a fuerza de rabia (enrabietado), que cómo se puede subir a los cielos volando; **jo eta jo edo jotzearen poderioz:** dale que le das o a puros azotes; **diruaren diruz edo diruaren poderioz:** a puro dinero o a fuerza de dinero; **minaren minez edo minaren poderioz:** de puro dolor o a fuerza de dolor; **esanaren poderioz egiten ditu gauzak:** hace las cosas a fuerza de insistir; **ekinaren ekinaz edo ekinaren poderioz:** a fuerza de insistir

PREMIA «necesidad». Sin.: Bizkaieraz, premina.

<i>Premian</i> forma postposiziotzat erabili ohi da. Aurretik joan ohi da: a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma; batzuetan atzizki hau galdu egiten da. b) aditz izena + <i>-ko: -(z)eko</i> . Esanahia: <i>-(r)en</i> beharrean.	La forma <i>preman</i> se usa como posposición, precedida de: a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. b) nombre verbal + <i>-ko: -(z)eko</i> . Significado: «en necesidad de».
---	--

- **hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti:** una lengua viva siempre está en necesidad de nuevos vocablos; **haur zorionekoa ez zela otoitzen premian aurkitzen:** que el niño bienaventurado no se hallaba en necesidad de oraciones (no necesitaba oraciones); **zure premian:** en necesidad de ti, necesítandote a ti; **zure laguntasun(aren) premian nago:** necesito tu ayuda; **sendagilearen premian:** necesitando un médico; **oraindik amaren premian aurkitzen da:** todavía se halla en necesidad de su madre
- **gose premian zegoenari asetzekorik ez zion eman:** al que estaba oprimido de hambre no le dio de comer
- **badakit liburu eguneratu eta osotu hau gehitua eta osatua izateko premian dela:** ya sé que este libro actualizado y aumentado está en necesidad de ser aumentado y completado; **lo egiteko premian:** en necesidad de dormir; **lana aurkitzeko premian:** necesitado de encontrar trabajo

PRESUNA «persona». Ipar. [Hiztegi Batua: ez dator zerrendan. // No se nombra]. Aldaera: // Variante: *pertsona*.

Axularrek <i>bere presunaz</i> esamoldea erabili ohi du. Esanahia: <i>bere buruz</i> , <i>pertsonalki</i> .	Axular emplea la expresión <i>bere presunaz</i> , significando «personalmente», o sea, «con» o «por la propia persona».
--	---

- **Errege Davitek, gerran bere presunaz zebilanean...:** el rey David, cuando se ocupaba personalmente en la guerra...; **bere presunaz libreki egin zituzten bekatuagatik:** por los pecados personales que libremente cometieron

PROBETXU «provecho».

<i>Probetxutan</i> forma postposiziotzat erabili ohi da, dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartuz. [Bizk.: <i>probetxuan</i>]. Esanahia: <i>-(r)en</i> onetan, <i>-(r)en</i> mesedetan. <i>-(r)en probetxurako</i> (Ipar. eta Naf. <i>probetxuko</i>) forma ere erabili ohi da. Esanahia: <i>-(r)en</i> onerako, <i>-(r)en</i> mesederako.	La forma <i>probetxutan</i> se emplea como posposición, precedida de un sintagma nominal con la desinencia casual <i>-(r)en</i> . [En B: <i>probetxuan</i>]. Significado: «en provecho de». También se usa la forma <i>-(r)en probetxurako</i> (Ipar. eta Naf. <i>probetxuko</i>). Significado: «para provecho de».
---	--

- **irakasleak hiru-lau eguneko ikastaroa antolatu du atzeratuen probetxutan:** el profesor ha organizado un cursillo de unos tres o cuatro días en provecho de los más atrasados; **munduko jende gaixo horien probetxutan:** en provecho de esas pobres gentes del mundo
- **hizkuntza gure onerako eta probetxurako** (Ipar. eta Naf. *probetxuko*) **asmatzen dugun edozein tresna bezala, erabiltzeko da:** un idioma, como cualquier instrumento que inventamos para bien y provecho nuestro, es para usarlo

PURU «puro». [Sin.: poderioz, podeduz, porazuz...]

Postposiziotzat <i>puruz</i> forma erabili ohi da. Ikus PODERIO.	Como posposición se usa la forma <i>puruz</i> . Véase PODERIO.
--	--

- **nekeen puruz:** a fuerza de sufrimientos; **txarraren puruz ez da gertatzen ezer:** de puro malo que es [el cruce], no ocurre ningún accidente; **ezkerti hutsa zen eta ekinaren puruz eskuinea ere ekarri egin du:** era totalmente zurdo y a fuerza de ejercitarse también domina la derecha; **entzunaren puruz neuk ere goiko neskatoaren piano ariketa guztiak buruz dakizkit:** a fuerza de oírlos, yo mismo las sé de memoria todos los ejercicios de piano de la niña de arriba

SALBU «salvo», «excepto», «a excepción de». Ekialdeko euskalkietan. // De los dialectos orientales. Sin.: izan ezik.

Postposizio bezala <i>salbu</i> forma erabili ohi da. Dagokion izen sintagmak -z atzizkia hartzen du. Batzuetan aurretik doala ere erabili ohi da, eskuarki <i>eta</i> lagun dela.	Como posposición se usa la forma <i>puruz</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia -z. A veces se emplea también antepuesto, generalmente seguido de <i>eta</i> .
--	---

- **nitaz salbu, guztiak saindu:** excepto yo, todos son santos; **puntu horretaz salbu, beste guztiak bukatu ditut:** he hecho todo excepto ese punto
- **salbu eta zure errespetua ez dut zurerik ezer nahi:** excepto tu respeto no deseo nada de ti

SARI «pago», «importe», «precio», «recompensa»; «salario».

Postposizio itxura ere hartzen du. Aurretik joan daiteke: a) absoluto mugagabea. b) aditzaren era burutua. Esanahia: -(r)en truke, -(r)en ordainez.	También funciona como posposición, precedido de: a) absoluto indeterminado. b) participio. Significado: «a cambio de», «en pago de», «en premio de».
--	---

- **bost sos ezin irabaz, aldiz, / arto sari:** en cambio, sin poder ganar cinco sueldos para pagar la borona; **ahizpa, nahi dun txerri txo bat ardo sari?:** hermana, ¿quieres un cerdito a cambio de vino
- **Lexasunko danborrariari bi urre jotzeko, sei isil sari:** al tamborrero de Lexasun dos onzas de oro por tocar, seis en pago por callarse; **hau egoera! jan truke edo tripa truke, edota jan sari ere lan egingo lukete!:** ¡vaya situación! ¡hasta trabajarían a cambio de comida!; **batela erosi diote kurtsoa aprobatu sari:** le han regalado un bote en premio de aprobar el curso; **ez zigun ezer kobratu burbila puztu sari:** no nos cobró nada en pago de inflar la rueda

Hitz elkartuetan ere oso erabilia da: // Se usa mucho en composición:

- abiasari, artesari, artosari, aseguru sari, astesari, atsari, bazkasari, begirasari, beharsari, bidesari, bilasari, biltegisari, bizisari, dantzarisari, dantzasari, denbora-sari (bonificación: ciclismo, etc.), dirusari, ediren-sari, edukisari, eginsari, egunsari, ehosari, ekoizkortasun sari, esker-sari, ezkonsari, gabonsari, gainsari, hilesari, labesari, lansari, mantenu-sari, meza-sari, muga-sari, Nobel

Sari, oinsari, ordainsari, ostatu-sari, sari-bide, soinusari, topasari, uhasari, urte-sari

SASOI «época», «temporada». Aldaera: sasoin.: // Variante: sasoin.

Postposizio bezala <i>sasoia(k)</i> , <i>sasoian</i> , <i>sasoiko</i> , <i>sasoira</i> formak erabili ohi dira. Aurretik joan daiteke: a) -(r)en (edota -ko) atzizkidun izen sintagma. b) aditz izena + -ko [-t(z)eko].	Como posposición se emplean las formas <i>sasoia(k)</i> , <i>sasoian</i> , <i>sasoiko</i> , <i>sasoira</i> , precedidas de: a) un sintagma nominal con la desinencia -(r)en (o, -ko). b) nombre verbal + -ko [-t(z)eko].
---	--

- a)
 - **gauza guztiek euren sasoiak, trenpeak eta denborak dituzte:** todas las cosas tienen su época, sazón y tiempo; **gauza bakoitzak bere sasoiak dauka:** cada cosa tiene su momento
 - **gure sasoiak jendea:** la gente de nuestra época
 - **guk ere gure sasoiak gureak egin genituen:** también nosotros en nuestra época hicimos lo nuestro; **zuhaitz alferra, fauna, hutsa, bere sasoiak fruiturik ematen ez duena, zertarako da?:** el árbol ocioso, estéril, vacío, que en su estación no produce, ¿para qué sirve?; **frutak euren sasoiak batu behar dira:** las frutas han de recogerse en su estación; **artoak bere sasoiak jorratzen ez dituenak:** los que no escardan el maíz en su época
 - **ama izatearen sasoiak hel zaitenez ikusi eta ikasiko duzu orain diotsudana:** cuando llegues a la época de ser madre, verás y aprenderás lo que ahora te lo digo; **ez zuen nahi zori arteino, bere sasoiak eta mugara hel arteino inork uki zitzaiz:** no quiso que hasta madurar, hasta llegar a su época y término, nadie las tocara
- b)
 - **ereiteko sasoiak:** época de siembra; **uzta biltzeko sasoiak:** tiempo para recoger la cosecha; **ezkontzeko sasoiak heldu zaio:** le ha llegado el tiempo de casarse; **uzta biltzeko sasoiak:** en la época de recoger la cosecha; **loratzeko sasoiak zeudela:** cuando estaban en tiempo de florecer

SUR «rebusca». Baztan inguruko euskalkian. // Dialecto de Baztan.

Dagokion izen sintagmak -(r)en atzizkia hartzen du, batzuetan berau gal dezakeela. Esanahia: -(r)en atzetik, bila.	Va precedido de un sintagma nominal con la desinencia -(r)en, que a veces se elide. Significado: «en pos», «tras».
---	---

- **zeren surrean dabil berau? Zure sosen surrean:** ¿en pos de qué anda éste? En pos de vuestro dinero
- **andre sur ibili:** andar tras mujeres; **herio sur:** en pos de la muerte; **diru sur dabil:** anda tras el dinero

TENTU «juicio», «razón»; «sentido». Erabilera: genitiboa eskatzen du: // Empleo: pide genitivo:

- **zu zeure tentuan eta zentzuan zaude:** tú estás en tu juicio y razón; **ez zaude zeure tentuan eta ezentzun egingo dizut:** no estás en tu juicio y haré como que no te he oído; **bere tentuan dagonean apal hitz egiten du:** cuando está en su manera habitual de ser habla suave
- **biotatik bat bere tentura etorri da, bestea ez da oraindik bere tentura etorri:** uno de los dos ha recobrado el sentido, el otro no ha recobrado aún el sentido
- **bere tentutik atera nahi ez baduk hator garaiz etxera:** si no quieres que le saques de sus casillas llega a tiempo a casa; **bere tentutik eta pazientziatik ateratzen du:** le saca de sus casillas y de su paciencia

Bi ohartxo: // Dos observaciones:

1. Nonbait TENTUN esaten da; horregatik honela esaten dute: **ez da oraindik bere tentunera etorri**

En algún lugar se dice TENTUN, y así dicen: **ez da oraindik bere tentunera etorri**

2. Akesoloren oharra: // Una nota de Akesolo: “Según corrección de Landerretche, *tentu gaitzeko gizona* no significa, como dice Azkue, hombre de mala calaña (BN)¹, sino “hombre de mucho seso, de mucho sentido”, pues en BN *tentu* nunca se emplea en sentido desfavorable”.

TRUK «cambio». Batez ere Ipar.

Aurretik <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma doa, batzuetan atzizki hau galdu egiten da. Esanahia: <i>-(r)en</i> ordez.	Va precedido de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: «a cambio de».
--	---

- **zure semearen urrioren truk:** en cambio de las mandrágoras de tu hijo; **ez dek tontoa errotaria artoaren truk emateko garia:** no es tonto el molinero para dar trigo a cambio de maíz; **zalea da errotaria artoaren truk emateko garia:** le gusta al molinero dar trigo a

1

Azkuek ez dio ‘de mala calaña’, ‘de mala índole’ baino.	Azkue no dice ‘de mala calaña’, sino “de mala índole”.
---	--

cambio de maíz (DVEF) [Villasante]²; **garai batean hegoaldeko arrantzaleek ardoaren truk petrolioa lortzen zuten iparraldeko arrantzaleengandik:** en un tiempo los pescadores de la parte sur conseguían de parte de los pescadores del norte petróleo a cambio del vino; **honenbeste petrolio litro honenbeste ardao litroren truk:** tantos litros de petróleo por tantos litros de vino

- **Purgatorio truk hartzen direla zerura pasatzeko:** que se sufren para entrar en el cielo a cambio del purgatorio

TRUKE «cambio», «trueque». [Villasantek ez dakar forma hau. // Villasante no menciona esta forma].

Postposizio bezala <i>truke</i> , <i>trukean</i> formak erabili ohi dira. Dagokion izen sintagmak <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du. Batzuetan atzizki hau gal dezake. Esanahia: <i>-(r)en</i> ordez.	Como posposición se emplean las formas <i>truke</i> , <i>trukean</i> , precedida de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide. Significado: «a cambio de», «por».
---	--

- **zer emango didazu diru kopuru honen truke?:** ¿qué me vas a dar a cambio de esta cantidad de dinero?; **musu truke gaur ez dela ezer ematen? Haren musuaren truke zer egingo ez nuke!:** ¿que hoy en día nada se hace de balde? ¿Qué no haría yo a cambio de un beso suyo!; **etxe bete diruren truke ere ez nizuke salduko:** no te lo vendería ni por todo el dinero del mundo; **ai zure bizia nirearen truke erosi al baneza!:** ¿hay si pudiera comprar tu vida a cambio de la mía!; **eta zenbait pezetaren truke bihotzeko bake hori ateratzea gutxi al da?:** ¿es que es poco conseguir esa paz de corazón a cambio de unas cuantas pesetas?; **hire gorputza nire arimaren truke:** tu cuerpo a cambio de mi alma; **Jainkoaren dohaina diru truke ematen dela uste izan duzulako:** porque has creído que el don de Dios se da a cambio de dinero
- **besteentzat dirutan eta zuretzat laztan truke:** para los demás (lo haría) por dinero y para ti a cambio de unas caricias; **hau egoera! jan truke edo tripa truke ere lan egingo lukete!:** ¡vaya situación! ¡hasta trabajarían a cambio de comida!
- **urrearen trukean euroak eman zizkieten:** les dieron euros a cambio del oro; **horren**

² Azkuek berak honela itzultzen du: // El propio Azkue lo traduce así: “aficionado es el molinero a dar trigo en cambio de maíz, locución irónica que se emplea para negar lo que a uno se le pide o se le exige” (sub verbo *zale*).

trukean, munduko neke eta penak zer dira?: a cambio de eso, ¿qué son las penas y sufrimientos del mundo?; **ardoaren trukean neuk margoztuko dizut:** yo te lo pintaré a cambio del vino; **ardoaren trukean petrolioa:** petróleo por vino; **begiaren trukean, begia;** **haginaren trukean, hagina:** ojo por ojo, diente por diente

URRUN eta URRUTI «lejos»; «lejano». Sin.: Bizk. aparte, urrin, urrun.

Dagokion izen sintagmak <i>-tik</i> atzizkia hartzen du.	Tras sintagma nominal con la desinencia casual <i>-tik</i> .
--	--

- **bistatik urrun:** lejos de la vista; **bihotzetik urrun:** lejos del corazón; **herritik urrun:** lejos del pueblo; **herrietarik urrun baitzegoen:** como vivía lejos de los pueblos; **lagun galgarrietarik urrun atxiki:** mantente lejos de los amigos nocivos; **harengandik urrun zebilen:** andaba lejos de aquél; **haren bihotza urrun da nigandik:** su corazón está lejos de mí; **arazo hori konpontzetik urrun dela:** que ese asunto está lejos de ser solucionado; **baina lotsatzetik urrun:** pero lejos de avergonzarse; **Graxiren ama berrogei urtetarik ez zen urrun:** la madre de Graxi tendría como cuarenta años (no andaría lejos de cuarenta años); **San Diegotik urrun gabe (barik), Tijuana aldamean:** cerca de San Diego (lit. no lejos de San Diego), al lado de Tijuana
- **elizatik urruti bizi direnak:** los que viven lejos de la iglesia; **New Mexikoko Las Vegasen, Nevadako Las Vegasen mugetatik urruti, beraz:** en Las Vegas de New Mexiko, por lo tanto, lejos de las fronteras de Las Vegas de Nevada; **ez zegoen olerki horietatik urruti gure poeta Juan Mari Lekuona:** nuestro poeta Juan Mari Lekuona no estaba lejos de esas poesías; **50 urte hauetan elgarrengandik urruti ibili gabela:** que en estos 50 años hemos andado lejos el uno del otro; **hemendik urruti gabe:** cerca de aquí (lit. no lejos de aquí); **Buenos Airestik urruti gabe, Platako aldamean:** cerca de Buenos Aires, al lado de Plata

Hona hemen Villasantek honi buruz diona: // He aquí lo que Villasante dice al respecto:

- “Parece claro que *urruti* se ha originado de *urrun*. El caso ablativo *-ti(k)*, así como vimos que dio origen a los vocablos *goiti/beheiti*, ha dado lugar también a *urruti*, que indica «lejos», pero con idea de movimiento (Véase LHANDÉ, *Dict.*). Muy usado en toponimia. *Uraz urrutia* «alejado del río». –Luego se ha empleado en G y otras variedades como la forma normal y única, con exclusión de *urrun*.

Joan zitekeen lekurik urrutienera (AG. ASTEASU, Erakusaldiak III, p. 11)”.

[Ez da leba handikoa baina Asteasuk *zitekeen* gabe *zitekean* jarri zuela uste dut.

No es nada importante pero creo que Asteasu puso *zitekean*].

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan, biak, **urrun** eta **urruti** aipatzen dira, baina azpisarrera gisa **urrutian**, **urrutira** datoz eta **urrunean**, **urrunera**, ostera, ez. // En el Hiztegi Batua de Euskaltzaindia se mencionan **urrun** y **urruti**, los dos, pero como subentrada aparecen **urrutian**, **urrutira** y no así **urrunean**, **urrunera**.

USTE «opinión», «creencia», «esperanza».

Postposizio bezala <i>ustea</i> , <i>ustean</i> , <i>ustera</i> , <i>ustez</i> formak erabili ohi dira. Hona hemen banan-banan euron erabilera eta esanahia.	Como posposición se emplean las formas <i>ustea</i> , <i>ustean</i> , <i>ustera</i> , <i>ustez</i> . He aquí, uno por uno, su empleo y significado:
--	---

ustea:

Aurreko osagaia izan daiteke: a) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma. b) aditzaren era burutua. Esanahia: esperantzan, itxaroten.	Precedido de: a) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . b) participio. Significado: «la espera de», «la esperanza de»
---	---

- **Azken finean irabaziaren esperantza honek, zerbaiten usteak ernatzen eta irazartzen du mundu guztia:** al fin y al cabo, esta ilusión del premio, el esperar algo, es lo que espabila y despierta a todo el mundo
- **zahartu ustea zahartu gabe hil daiteke:** la esperanza de envejecer puede llegar a morir sin envejecer

ustean:

Aurreko osagaia izan daiteke: 1) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagma. Esanahi bikoitza: a) esperantzan. b) iritiz, iritzian 2) aditzaren era burutua. Esanahia: esperantzan. 3) Aditz izena + <i>-ko</i> [<i>-t(z)eko</i>] forma. Esanahia: esperantzan.	Precedido de un: 1) sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Doble significado: a) «a la espera de», «esperando». b) «a juicio de», «en opinión de». 2) participio. Significado: «a la espera de», «con la esperanza», «creyendo». 3) nombre verbal + <i>-ko</i> [<i>-t(z)eko</i>]. Significado: «con la esperanza», «creyendo», «con la idea de», «en la creencia de».
--	--

1.
 - a)
 - **zeren ustean zaude presoiei laguntzeko?:** ¿en espera de qué estáis (a qué esperáis) para ayudar a los presos?; **horren ustean:** a la espera de eso; **nire ustean daude:** me están esperando, me aguardan
 - b)
 - **nire ustean hori bai mutil prestua:** en mi opinión ese sí que es un chico cabal; **gizon adituen ustean premia handia denean:** cuando según la opinión de los expertos hay una gran necesidad
2.
 - **hori egiten bazuten, gerla bat iraungi ustean, beste handiago bat biztuko zuten:** si hacían eso, creyendo apagar una guerra, encenderían otra mayor; **elkarrekin egun on bat igaro ustean elkartu dira 1953. urteko promozioiko ikaskideak:** los ex-alumnos de la promoción del año 1953 se han reunido con la intención de pasar juntos un buen día
3.
 - **zahartzeko ustean zahartu gabe hil daiteke:** con la idea (en la creencia) de envejecer puede llegar a morir sin envejecer; **elkarrekin geunden eskontzeko ustean:** estábamos juntos con la idea de casarnos; **zer, ondasunak biltzeko asmoan eta ustean zatoz niregana?:** ¿qué, vienes donde mí con la intención e idea de amasar bienes?; **azterketa ondo egiteko ustean:** creyendo que iba hacer un buen examen; **lagunekin batzeko ustean atera da etxetik:** ha salido de casa con la idea de juntarse con los amigos

ustera: -ko ustera forma: // La forma *-ko ustera:*

- **gaurko ustera:** según la mentalidad actual

ustez:

Aurreko osagaia izan daiteke:	Precedido de un:
1) <i>-(r)en</i> atizkidun izen sintagma.	1) sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> . Significado: «a juicio de», «en opinión de».
Esanahia: iritziz, iritzian.	
2) aditzaren era burutua:	2) participio. Significado: «a la espera de», «con la esperanza de», .
Esanahia: esperantzan.	

1. **bere ustez:** según su parecer; **nire ustez:** según mi opinión; **gure ustez ere horrelaxe da:** en nuestra opinión también es así, nosotros también opinamos lo mismo; **adituen ustez hauxe da libururik onenea:** a juicio de los entendidos éste es el mejor libro

2. **irabazi ustez:** con esperanza de ganar; **merkatariak irabazi ustez egiten ditu itsasoz eta lehorrez, hain azkar, hainbat bide, itzulinguru eta joan-etorri:** el mercader, porque espera ganar, (con la esperanza de conseguir beneficios) realiza por mar y por tierra tantas correrías, andanzas, idas y venidas con tanta presteza; **irabazi ustean erdi olgetan hasi zirenek galdu egin zuten, eta galdu ustez joan zirenek irabazi:** los que comenzaron chamboneando con esperanza de ganar perdieron (el partido), y los que fueron con esperanza de perder lo ganaron; **elkarrekin egun on bat igaro ustez elkartu dira 1953. urteko promozioiko ikaskideek:** los ex-alumnos de la promoción del año 1953 se han reunido con la esperanza de pasar un buen día

ZAHAR «viejo».

Postposizio bezala aditzaren era burutuaren ondoren erabili ohi da. Esanahia: aditzak agertzen duen ekintza «aspaldikoa dela», «aspaldi gertatua dela». Beste era batera esanda: <i>Berri-k</i> era burutuaren ondoren «oraintsukoa» adierazten duen bezala, <i>zahar-ak</i> «aspaldikoa», «antzinakoa» adierazten du. OHARRA: adiera honetan, <i>zahar</i> forma ezeze, <i>zaharra</i> , <i>zaharre(t)an</i> formak ere erabili ohi dira.	Como posposición se emplea tras participio. Significado: que la acción expresada por el verbo es «antigua», «de hace mucho tiempo». Dicho de otra forma: Como <i>berri</i> tras participio significa «reciente», <i>zahar</i> indica «antiguo», «de hace mucho tiempo». NOTA: En este significado, se emplean la forma <i>zahar</i> y también las formas <i>zaharra</i> , <i>zahrre(t)an</i> .
---	---

- **kafea hartu zahar naiz:** hace rato que he tomado café; **jan zahar nago:** hace mucho que he comido
- **gona hori ez da erosi zaharra:** esa falda la compré no hace mucho, es recién comprada; **ez naiz mendira joan zaharra:** no hace mucho que fui al monte, no he ido al monte durante algún tiempo
- **txerriak jan zaharrean, ezkurra amets:** el cerdo que lleva tiempo sin comer, sueña en bellotas; **gose zaharrean denaren ez da ogi gogorrik:** no hay pan duro para el que hace tiempo no ha comido

Axular, 3.^a, 467-24 (Jakín, 1976: 317-14): **presuna janzaharrak, ..., ez du atseginik hartzen jaten hastean...**

Villasantek dio: // Dice Villasante: “*presuna janzaharrak* «persona que hace mucho tiempo no ha comido». (AZKUE y LHANDÉ explican de otro modo la expresión: «persona que está en ayunas, de comida vieja»”.

Baina zehaztu beharra dago: // Hay que puntualizar:

<p>Bai, Azkuek hau dio: “significando «estar en ayunas», lit., comida vieja”. Baina Axularren esaldia honela gaztelaniatzen du: “la persona que está en ayunas (que no ha comido desde algún tiempo atrás)”. Nire itauna da: zer alde dago bi perpauson artean? Hau da: «persona que hace mucho tiempo no ha comido» eta «persona que no ha comido desde algún tiempo atrás». Xelebreena Fr. Pedro Antonio Añibarroren bizkaierapena dugu: “presona jatun batec”. Hau da: tripazain, sabelandi, tripontzi, gosezo... batek. Ez zion hurrik ere eman!</p>	<p>Es verdad que Azkue dice: “significando «estar en ayunas», lit.: comida vieja”. Pero al traducir al castellano la frase de Axular dice: “la persona que está en ayunas (que no ha comido desde algún tiempo atrás)”. Y yo pregunto: ¿qué diferencia hay entre las dos perpausas? Es decir: «persona que hace mucho tiempo no ha comido» y «persona que no ha comido desde algún tiempo atrás». Lo más gracioso es la traducción al bizkaiera de Pedro Antonio Añibarro: “presona jatun batec”. Es decir. comilón, na; tragón, na; voraz... ¡No la olió ni por el forro!</p>
--	--

ZAIN «vigilante», «guarda». Sin.: aiduru, begira. ⁸

<p>Postposizio bezala <i>zain egon</i>, <i>zain izan</i>, <i>zain eduki</i> esapideetan funtzionatu ohi du. Erabilera:</p> <p>1) <i>-(r)en</i> atzizkidun izen sintagmaren ostean.</p> <p>2) Menpeko perpausaren ostean. Berau izan daiteke:</p> <p>a) aditza era burutuan eta laguntzaile gaberik duen perpausa.</p> <p>b) <i>-(z)eko</i> atzizkia duen menpeko esaldia.</p> <p>3) Sarri zehargalderazko menpeko perpausaren ostean.</p> <p>a) aditza, jokatua bada, geroaldiko forman doa eta laguntzaileak <i>-(e)n</i> atzizkia duela.</p> <p>b) ez-jokatua bada:</p> <p>a) geroaldiko forman.</p> <p>β) aditzaren era burutuan.</p> <p>Esanahia: adi egon, begira egon, aiduru egon, itxaroten; gordetzen egon, jagoten egon...</p>	<p>Funciona como posposición en las expresiones <i>zain egon</i>, <i>zain izan</i>, <i>zain eduki</i>, precedidas de:</p> <p>1) un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i>.</p> <p>2) una oración subordinada. Esta puede ser una:</p> <p>a) oración subordinada con el verbo en participio y sin el auxiliar.</p> <p>b) oración subordinada con la desinencia <i>-(z)eko</i>.</p> <p>3) una oración subordinada interrogativa indirecta.</p> <p>a) si el verbo es conjugado, en forma de futuro y el auxiliar tomando la desinencia <i>-(e)n</i>.</p> <p>b) si es inconjugado:</p> <p>a) en forma de futuro.</p> <p>β) en forma de participio.</p> <p>Significado: «estar en acecho, esperando», «estar aguardando»; «estar vigilando, estar guardando»...</p>
--	--

⁸ Villasante, Serie Eleizalde, n.º 3, pág 139: “En el vizcaíno oriental se emplea *zain* como vocablo suelto significando «en acecho, aguardando». *Zulango apainduben zain dagoz onlanguak* = esta clase de gentes están aguardando a personas elegantes como Ud. (Peru Abarka).

1.

- **Ameriketako osabaren zain egon gara:** hemos estado esperando al tío de América; **zure zain egon naiz:** he estado esperándote; **lau orduz eduki naute atean euren zain daude honelakoak:** gentes así están aguardando a personas ataviadas como usted, éstos están a la espera de los elegantes como usted; **dendariak zu bezalako erosleen zain daude:** los tenderos están aguardando a compradores como tú; **zure berrien zain gelditzen naiz:** me quedo a la espera de tus noticias; **horretxen zain geunden:** esperábamos a ése; **zu al zara etortzekoa, ala besteren baten zain egon behar dugu?:** ¿eres tú el que ha de venir, o debemos esperar a otro?
- **zeu etorri arte zeure haurren zain egon zen:** estuvo cuidando (vigilando, guardando) tus hijos hasta que tú vinieras; **otsoa ardién zain (esr. zah.):** el lobo cuidando las ovejas (lit. el lobo guardián de ovejas) {dar las ovejas en guardia al lobo (refrán)}

2.

a)

- **ordaina hartzeko zain nago hara joateko:** estoy esperando a recibir la compensación para ir allá; **zuk lana bukatzeko zain nago:** estoy esperando a que acabes el trabajo; **ni etortzeko zain egon zara:** has estado esperándome

b)

- **besteak etorri zain geundela:** cuando aguardábamos a que vinieran los demás

3.

a)

- **noiz agertuko den zain daude:** están esperando a ver cuándo aparecen, a que aparezcan; **han dago nork handik aterako duen zain:** allí esta, esperando quién le saque de allí; **bidegurutze horretan dago, autostopa egiten, nork eramango duen zain:** está en ese cruce de la carretera, haciendo autostop, esperando quién le lleve

b) a)

- **pezeta noiz jaitsiko zain egoten ginen geure dolarrak saltzeko:** solíamos estar mirando cuándo bajaba la peseta (a que bajara la peseta) para poder vender nuestros dólares; **udaberria noiz etorriko zain:** esperando a que llegue la primavera; **zuk noiz ordainduko zain nago:** estoy esperando a que me pagues

b) ß)

- **zer gertatu zain gaude denok:** estamos todos esperando a ver qué acontece;

Villasante: “Como sufijo o segundo término de composición, *zain*, *zai* es de uso universal en la lengua. Para la lengua literaria común la primera variante es la escogida.”. Serie Eleizalde n.º3, pág. 139.

ZALE «aficionado»; «ávido», «ganoso».

Dagokion izen sintagmak eskuarki <i>-(r)en</i> atzizkia hartzen du, batzuetan berau gal dezakeela, baina <i>-tik</i> atzizkia ere hartzen du.	Precedido comunmente de un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)en</i> , que a veces se elide, pero también precedido de un sintagma nominal con la desinencia <i>-tik</i> .
---	---

- **neu ere lan on hauen zale naiz:** yo también soy amigo de estos buenos trabajos; **ez naiz ni horrelako arriskuen zale:** no soy partidario de ese tipo de riesgos; **edozein jolasen zale denarentzat:** para el aficionado a todo tipo de juegos; **ez naiz ni gerraren zale:** no soy amante de la guerra; **bizitza onaren zale:** amante de buena vida; **lortu ezin zituen gauzen zale:** ganoso de cosas que no podía conseguir
- **Berna, bai, Berna hotz zale da, beste guztiok, ostera, bero zale gara:** Berna sí, Berna es amigo del frío, pero, los demás, en cambio, somos amigos del calor; **bakardade zale ere bai:** y también aficionado a la soledad
- **eta halatan da gure Jainkoa ere hauetatik gutziatsuago eta zaleago** (gaztetasuneko obra onetarik): y por esto mismo nuestro Dios es más codicioso y aficionado a ellas (a las obras buenas de la juventud); **pertsona gazteen lehenbiziko obra on hauek nahi nituzke, hauetatik naiz zale eta gura:** yo quisiera las primeras obras buenas de las personas jóvenes, de ésas soy aficionado y deseoso

ZEHAR Mendebaldeko euskalkietan. Sin.: barrena, gaindi. // De los dislectos occidentales:

Dagokion izen sintagmak eskuarki inesiboko <i>-(a)n</i> edo ablatiboko <i>-tik</i> atzizkia hartzen du. Esanahia: -an barrena.	Generalmente precedido de un sintagma nominal con las desinencias <i>-(a)n</i> de inesivo o <i>-tik</i> de ablativo. Significado: «por», «a través de», «a lo largo de».
--	--

- **kalean zehar doaz:** van a través de la calle; **basoan zehar perrotzikotan joan da:** ha ido por el bosque a por setas; **urruneko itsasoetan zehar:** por los lejanos mares; **1953ko abuztuaren Gernikatik Lumon zehar joan nintzen Errigoitiko Metxikara:** en agosto de 1953 fui desde Gernika a Metxika de Errigoiti

a través de Lumo; **Ebrorantz Gamarran zehar doan Zadorra:** el Zadorra que va hacia Ebro por Gamarra; **Arantzazurako bidean zehar beltzez jantzitako jendeari begira:** mirando a la gente que iba vestida de negro a través del camino a Arantzazu; **zainetan zehar dabilen odola:** la sangre que va por las venas; **munduan zehar:** a través del mundo, por elmundo; **hor zehar:** por ahí; **hortxe zehar:** por ahí mismo **fraile hark bere bi besoak habituko mahuka zabaletan sartu eta atzera eta aurrera mugituz esan zien:** “**hemen zehar ez da joan**”: aquel fraile con sus dos brazos metidos en las amplias mangas del hábito y moviéndolos para un lado y para otro les dijo: “por aquí no ha pasado”; **historian zehar:** a lo largo de la historia; **egunean zehar:** a lo largo del día; **urtean zehar:** a lo largo del año; **mendeetan zehar:** a través de los siglos; **zaila dela historian zehar antzekorik aurkitzea:** que es difícil encontrar a lo largo de la historia algo similar

- **Urkiolako parketik zehar joango gara Aramaiora:** iremos a Aramayo por el parque de Urkiola; **hortik zehar:** por ahí, a través de ahí; **leihotik zehar zoaz:** vas por la ventana; **hemendik zehar:** por aquí; **kaletik zehar:** por la calle

Susmoa dut, ez naiz baieztatzen, lekuzko erabili ohi dela, berdin dela bata nahiz bestea, alternantzia dagoela. Eta denborazko erabili ohi dela: kalean zehar / kaletik zehar; basoan zehar / basotik zehar; parkean zehar / parketik zehar; Gamarran zehar / Gamarratik zehar, eta abar. Baina, historian zehar; egunean zehar; urtean zehar; mendeetan zehar...	Barrunto que -no me atrevo a afirmarlo- en las expresiones locativas se usa indistintamente el inesivo o el ablativo, que hay alternancia. Y, en cambio, en las expresiones temporales sólo se usa el inesivo: <i>kalean zehar / kaletik zehar; basoan zehar / basotik zehar; parkean zehar / parketik zehar; Gamarran zehar / Gamarratik zehar, etc.</i> Pero, <i>historian zehar; egunean zehar; urtean zehar; mendeetan zehar...</i>
---	---

ZELATA «acecho», «insidia», «asechanza».

<i>Zelatan egon</i> esapideak postposizio bezala funtzionatu ohi du, aurretik datiboko <i>-(r)i</i> kasu atzizkia duela. Esanahia: ezkutaturik-edo begira egon, zelatzen.	La expresión <i>zelatan egon</i> funciona como posposición tras un sintagma nominal con la desinencia <i>-(r)i</i> de dativo. Significado: «estar al acecho», «espiando».
---	---

uste du zelatan dagozkiola: cree que le están acechando. [Huelga decir que aquí el dativo es el infijo verbal “o” de *dagozkiO*]. [Urrengoak ez datoz kasura baina bai harira: // Aunque no vengan al caso, sí son sugerentes y helos aquí]:

- **zelatan dagoenak bere kontrakoa nahiz aldekoa entzun dezake:** el que está espiando puede escuchar tanto lo que le sea desfavorable como favorable; **zelata(n) dagoena bere gatxen entzula** (esr. zah.): el que está acechando es oidor de sus males (refranes, 38); **zelatan dagoenak bere gaizkia hain sarri entzun dezake zein ongia** (Oih. esr. zah. 429): el que está acechando puede oír su mal tan pronto como su bien (refrán); **zelatan dagoenak ez du beretako gauza onik aitzen:** el que está acechando no oye cosa buena de sí

ZORI «suerte».

<p><i>Zorian</i> forma postposizio bezala erabili ohi da. Aurretik doa: a) aditzoina, eta loturik, edo b) aditz izena + <i>-ko</i> [-t(z)eko]. Esanahia: aditzak adierazitakoa gertatzeaz dela, ia-ia burutu delarik, gainean dela.</p>	<p>La forma <i>zorian</i> se usa como posposición, precedida de: a) radical verbal, y unido al mismo, o b) nombre verbal + <i>-ko</i> [-t(z)eko]. Significado: «a punto de», «en trance de», «en peligro de».</p>
---	---

- **galzorian:** a punto de perder(se); **aurreko astetik hiltzorian dago Liga:** La Liga desde la semana pasada está a punto de morir
- **galtzeko zorian:** a punto de perder(se); **hiltzeko zorian dago:** está a punto de morir; **itotzeko zorian:** a punto de ahogarse; **ateak puskatzeko zorian zeuden:** estaban ya a punto de forzar las puertas; **loak hartzeko zorian dago umea:** el bebé está en ocasión propicia de conciliar el sueño; **kareletik uretara jausteko zorian:** en peligro (a punto) de caerse del carel al agua; **ez zen eten gure artean eteteko zorian egon zen zure asaben lokarri zaharra:** el lazo antiguo de tus pasados que estuvo a punto de romperse entre nosotros no se rompió

4. Bibliografia

Solabarrieta (1980). *Euskara baturako “deklinabide atzizkiak.”* Argitaratu gabeko eskuizkribua.

POSTPOSIZIO HITZEN ZERRENDA, /, ÍNDICE DE PALABRAS POSPOSITIVAS

Ageri, 8	Dina, 51	Kausa, 86
Ahal, 8	Egite, 52	Kauta, 86
Aiduru, 8	Era, 52	Konpainia, 86
Aisia, 9	Erdi, 53	Kontra, 87
Aitzakia, 9	Eredu, 54	Kontu, 88
Aitzin, 9	Eretz(e), 54	Lagun, 89
Akordu, 11	Erru, 55	Landa, 89
Alde, 11	Eskari, 55	Lege, 90
Aldi, 15	Eskas, 55	Leko, 91
Antz, 15	Eske, 56	Leku, 91
Antzo, 16	Esker, 57	Lepo, 92
Aparte, 16	Esku, 57	Medio, 92
Arabera, 17	Esperantza, 59	Men, 92
Arau, 17	Esperantzetan, 59	Mende, 93
Argi, 18	Espero, 60	Menpe, 94
Aria, 18	Fabore, 60	Mentura, 94
Arte, 18	Falta, 61	Mesede, 95
Asmo, 22	Fin, 61	Modu, 95
At, 22	Gabe, 62	Molde, 95
Ate, 22	Gain, 65	Muga, 96
Atze, 22	Gaindi, 68	Nahi, 96
Aurka, 23	Garraio, 68	Natura, 97
Aurre, 24	Geriza, 69	Ohore, 97
Azpi, 26	Gero, 69	Omen, 97
Baga, 26	Gibel, 71	On, 97
Bagarik, 26	Gisa, 72	Ondo, 98
Bage, 26	Gogo, 73	Opa, 102
Baita, 27	Goi, 74	Ordain, 102
Banda, 28	Goiti, 74	Orde, 103
Bando, 28	Gomendio, 75	Ordu, 104
Barano, 28	Gustu, 75	Oroimen, 104
Barik, 28	Han, 75	Oroipen, 104
Barna, 29	Hara(t), 75	Oroitzapen, 104
Barne, 30	Haraindi, 76	Oste, 104
Barren, 30	Hemen, 76	Pare, 106
Barrena, 31	Hitz, 76	Parte, 107
Barru, 32	Honaindi, 77	Pe, 108
Be, Behe, [edo, pe], 33	Hur, 77	Pena, 109
Begi, 33	Hurbil, 77	Peskiza, 109
Beha, 35	Hurran, 78	Plazer, 109
Behar, 36	Hurren, 78	Poderio, 109
Behe, 38	Hurreneko, 78	Premia, 110
Beldur, 39	Huts, 78	Presuna, 110
Berdin, 40	Iduri, 79	Probetxu, 110
Berri, 40	Indar, 79	Puru, 110
Bertute, 41	Inguru, 79	Salbu, 111
Bestalde, 42	Iri, 81	Sari, 111
Bezala, 42	Iritzi, 81	Sasoi, 111
Bide, 43	Irudi, 81	Sur, 111
Bila, 43	Izan, 82	Tentu, 112
Bista, 44	Izate, 82	Truk / Truke, 112
Bitarte, 44	Jabe, 82	Urrun / Urruti, 113
Bizkar, 45	Jakin, 83	Uste, 113
Bost, 46	Jaun, 83	Zahar, 114
Botere, 46	Kabu, 83	Zain, 115
Buelta, 46	Kalte, 83	Zale, 116
Buru, 47	Kanpo, 84	Zehar, 116
Denbora, 51	Kari, 85	Zelata, 116
Desgogara, 51	Kasa, 86	Zori, 117